

euskal estatua^{ri} bidea zabaltzen



herrigintza eta erakundeak



iparhegoa

IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDAZIOA

EUSKAL ESTATUARI BIDEA ZABALTZEN

herrigintza eta erakundeak

Ipar Hegoa Fundazioa / Udako Euskal **Unibertsitatea**



Egilea: Ipar Hegoa Fundazioa

Laguntzailea: Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 978-84-8438-421-9

Lege-gordailua: BI-1289-2012

Inprimategia: PRINTHAUS S.L., Bilbo

Azalaren diseinua: Ipar Hegoa Fundazioa

Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak:

Ipar Hegoa Fundazioa

Alameda Rekalde 62-behea 48010 Bilbo telf. 944706915

Helbide elektronikoa: iparhegoafundazioa@labsindikatua.org

Udako Euskal Unibertsitatea

Erribera 14, 1. D 48005 Bilbo telf. 946790546 Faxe. 944793039

Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org / www.ueu.org

Lizentzia honekin, edukiak kopiatu, banatu eta erakutsi zein lan eratorriak egin ahal izango dituzu, ondorengo baldintzak beteaz:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Edukiaren aldaketarik egiten baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu eta hau banatzekotan, honako lizentzia honen baldintza beretan egin beharko duzu.
- Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili.

Aurkibidea

AURKEZPENA, <i>Ipar Hegoa Fundazioa</i>	5
---	---

Euskal Estatua: herrigintza eta erakundeak

SARRERA. ESTATUAREN GAURKOTASUNAZ, <i>Mario Zubiaga Garate</i>	9
---	---

1. ESTATU EUROPARRA EUSKAL HERRIAN: HERRIAREN ANTOLAKETA ETA ESTATUAREN BEHARREZKOTASUNAZ, <i>Unai Apaolaza Amenabar, Imanol Galfarsoro Madariaga, Andoni Olariaga Azkarate</i>	15
---	----

2. EUSKAL ESTATUA HISTORIAN: NAFARROA, EUSKAL MEMORIAREN ERDIGUNEAN, <i>Luis M^a Martínez Garate, Angel Rekalde Goikoetxea</i>	31
--	----

3. EUSKAL ESTATUAREN ERAIKUNTZAREN ALDE JURIDIKOA: SEZESIOA ETA TRINKOTZE JURIDIKO-POLITIKOA, <i>Iñigo Urrutia Libarona, Jon Iñarritu García, Zelai Nikolas Ezkurdia</i>	55
--	----

4. EUSKAL ESTATUA, KUDEAKETARAKO TRESNA EGOKIA: ANIZTASUNA, DEMOKRAZIA ETA JUSTIZIA SOZIALA, <i>Asier Blas Mendoza</i>	89
--	----

5. EUSKAL ESTATUA ETA NAZIOA, EKINTZA KOLEKTIBO GISA: EUSKAL ESTATUGINTZAZ, <i>Mario Zubiaga Garate</i>	111
---	-----

AURKEZPENA

Ipar Hegoa Fundazioa

IPAR HEGOA Fundazioaren helburuen artean, Euskal Herriarentzat interesa duten gai politiko eta sozialei buruzko azterketak eta hausnarketak egitea dago, horien inguruko eztabaidak sustatzeaz batera. Ildo horretatik, Euskal Herriaren bideragarritasun politikoaz etengabe hitz egiten den aro honetan, IPAR HEGOA Fundazioak bere ekarpena egin nahi izan dio gaiari. Izan ere, Euskal Herria lurraldez herri txikia dela esaten da; globalizazio-aro honetan zentzurik ez dutela zatiketa-prozesuek; denon arteko elkarlana eta ulermena bilatzen den garai honetan, independentzia aldarrikatzeak bereizketa sortzen duela herritarren artean, eta abar. Argudio egoki eta pisuzkoak erabiliz askotan, asko dira gaur egun estatutik ez sortzeko aipatzen diren faktore eta iritziak. Baina hori jakinda ere, hor ari dira milaka herritar estatua eskatzen. Ez da haiena ere argudio egoki eta pisuzkoa?

Modu batean edo bestean, oraingo nazioarteko testuinguruan, Estatua da erabaki politikoak hartzeko ahalmen osoaren adierazpen nagusia. Horregatik, gaurko Euskal Herrian, oraingo testuinguru politikoan, oso interesgarri eta beharrezkoa iruditzen zaigu, eskal estatu bat Europan eraikitzeari begira, onura, aukera, mehatxu eta gabezien inguruko hausnarketa kolektibo bat egitea, hainbat alor jorratuz: politika, alor instituzionala, lurraldea, sozioekonomia, hizkuntza, kultura, identitatea, eta abar.

IPAR HEGOA Fundazioak dauden baldintza guztiak kontuan hartu eta Euskal Estatua bideragarria ote den jakin nahi izan du. Horretan sakontzeko, gaian adituak diren irakasle eta ikertzaileak batu ditu. Badakigu beste aditu asko ere badagoena, ekarpen ezin interesgarriagoak egin dituztenak askotan. IPAR HEGOA Fundazioaren helburua ez da izan, ordea, aditu guztien ekarpenak jasotzea, edo ordezkartza orekatua lortzea jakintza-arloka edo herrialdeka. Ez dugu bilatu, bestalde, ikuspegi homogeneousorik. Ez da izan hori IPAR HEGOA Fundazioaren asmoa. Aitzitik, egileek askatasunez hitz egin dute, Euskal Estatuaren beharra eta bideragarritasuna azpimarratzeko ideia orokorrari eutsiz, baina hortik aurrera jarrera eta ikuspegi desberdinak egon daitezkeela jakitun.

Horrela egin dugu, lanaren helburua ez delako Euskal Estatuaren konstituzio bat sortzea, edo Euskal Estatuak nolakoa izan beharko lukeen ezartzea. Helburua xumeagoa da, ordea, eta hein berean, erabakigarria: Euskal Estatua bideragarria da? Mereziko luke Euskal Estatutik osatzea? Euskal herritarrek ontzat joko lukete proiektua? Oinarrizko galdera horiei erantzunda, eta erantzuna positiboa izaki, bigarren aldi baterako geratuko lirateke errenkan etorriko liratekeen galderak, oro har, Euskal Estatua zertarako galderari erantzun beharko lioketenak.

IPAR HEGOA Fundazioak zinez uste du azterlan honek interes horri erantzun diezaiokeela eta, diziplina anitzeko ikuspegiz bertan biltzen diren gogoeten bidez, lagungarria izan daitekeela Euskal Herria oraingo nazioarteko testuinguruan bistaratzeko eta hor kokatzeko; halaber, konparazioen bidez, lagungarria izan daiteke

gaur egun estatuek osatzen dituzten eremuetan Euskal Herriaren posizio absolutu eta erlatiboa ezartzeko munduan.

Gure ustez, azterlan honetan jasotako ekarpen teoriko interesgarriak baliagarriak izango dira Euskal Estatuaren errebindikazioa edukiz hornitzeko, eta lagungarriak, halaber, horrelako apustu bat itxuratzeko beharrezkoa den oinarri material eta ideologikoa lantzeko. Izan ere, IPAR HEGOA Fundazioak uste du hori dela alternatibarik onena Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugun pertsona guztiontzat, eta planteatu nahi du Euskal Herriak badituela oinarritzko potentzialtasunak, gaur eta orain, estatu bat Europako estatuen multzoan eraikitzeko.

Hortaz, **EUSKAL ESTATUARI BIDEA ZABALTZEN** izenburupean aurkezten dugun azterlan honen bitartez, IPAR HEGOA Fundazioak ekarpen kualifikatu bat egin nahi dio Euskal Estatua eraikitzeko beharrari eta horren bideragarritasunari. Hiru liburutan banatu dugu azterlana, sailkatu dugun hiru gai-arloen arabera: **Herrigintza eta erakundeak, Herritartasuna eta kultura, eta Lurraldea eta sozioekonomia.**

Lehenengoaz dihardu, hain zuzen ere, liburu honek: **HERRIGINTZA ETA ERAKUNDEAK.**

Mario Zubiaga koordinatzaileak dioenez, atal honetan independentzia «zergatik» behar den eta «nola» lor daitekeen erantzuten saiatu dira. Independentzia txarra dela ezin du inork esan, independentzia norentzat izango den ona edo txarra ebastea baita kontua. Liburu honek erantzun argia eman nahi dio galdera horri: Euskal Herriak, euskal herritarrok, dena delakoa izanda ere gure ideologia, onurak besterik ez dugu izango Euskal Herri independente batean. Euskal herritarrok, askatasuna ez ezik, ez dugu ezer galdu Espainian edota Frantzian

Egileen esanetan, Euskal Estatua, askatasunaren adierazpena den neurrian, helburu desiragarri, zilegi eta egingarria izan daiteke. Horixe da liburu honetan landu nahi duten ildoak: Euskal Estatua lortu nahi bada, zer-nolako eragiletasun sozial eta politikoa egin beharko litzatekeen argitzea. Horrela, egiteko horrek duen garrantzia azpimarratuz, atal juridiko-politiko honetan egileek independentziaren nolakotasunari eskainiko diote arreta berezia. Beharrezkoa den hori zilegitasunez nola lortu izango da erantzunaren galdera: zein da errebindikazio independentistaren muina eta oinarri filosofikoa? Zer-nolako diskurtso eta praxi independentista gauzatu daiteke Euskal Estatua lortze aldera? Zeintzuk dira etorkizuneko urratsek erabiliko dituzten argudio eta ibilbide juridikoak? Nola egin diezaieke aurre euskal independentismoak globalizazioak eragindako lurralde-dinamika berriei? Eta azken horrekin lotuta, egoera berri honetan, ba ote du zentzurik estatuak? Nahi dugun horrek ba al du baliorik XXI. mendean?

Bukatzeko, IPAR HEGOA Fundazioak bere nahia adierazi nahi du azterlan honi lotuta, hau da, espero du Euskal Estatua eraikitzeko ikuspegiari buruzko ekarpen gehiago eta berriak sortuko dituen bide emankor baten hasiera baino ez izatea. Horrekin batera, zinez eskertu nahi du proiektu honetan parte hartu duten pertsonen erakutsitako interesa, baita bertara dedikatutako denbora eta egindako ekarpenak ere. Eskerrak, beraz, atalaren koordinatzailea izan den **Mario Zubiagari**, eta eskerrak egile guztiei ere.

Herrigintza eta erakundeak

*Mario Zubiaga Garate
Unai Apaolaza Amenabar
Imanol Galfarsoro Madariaga
Andoni Olariaga Azkarate
Luis M^a Martínez Garate
Angel Rekalde
Iñigo Urrutia Libarona
Jon Iñarritu Garcia
Zelai Nikolas Ezkurdia
Asier Blas Mendoza*

Sarrera. Estatuaren gaurkotasunaz

Mario Zubiaga Garate, Politika Zientzietan doktorea, UPV-EHUko irakaslea

Euskal Estatuaren aldeko mugimenduak aginte burujabearen beharra aldarrikatzen du. Hartara, independentzia zertarako errebindikatzen den argitzea izan du askotan lehen helburu. Dena den, atal honetan beste galdera batzuk ditugu hizpide: independentzia «zergatik» behar den eta «nola» lor daitekeen erantzuten saiatuko gara eta. Erantzunaren muina esan gabe doa: nahi dugulako (borondatea) eta ahal dugulako (tresna politiko eta juridikoak), izan garelako (nafar estatua) eta euskal herritarrek hobeto biziko garelako gure herrian, abertzale izan edo ez. Beste argudio guztiak atzetik datoz.

Ikuspegi sozioekonomiko edota kulturaletik, lurralde-antolaketari begira edo herritartasunari so eginez, herri orok burujabetasuna hobia du mendekotasuna baino. Alabaina, independentziaren balizko onurak ezbaian egon dira beti. Estatua jada baduten herriek, noski, beste herrien independentziaren kalteak eta arriskuak gogoratzen dituzte beti. Dena den, askatasuna nahi duen komunitate politiko batek ez du inoiz esango egoerarik egokiena azpiratua egotea dela. Banakoaren ikuspegitik, berriz, askea, burujabea izateko modua, egongo da ezbaian: euskal herritar gisa burujabea Euskal Estatuan, ala espainiar edota frantziar herritar bezala, oraingo estatuen barnean. Independentzia txarra dela ezin du inork esan, independentzia norentzat izango den ona edo txarra ebastea baita kontua. Lan honek erantzun argia eman nahi dio galdera horri: Euskal Herriak, euskal herritarrok, dena delakoa izanda ere gure ideologia, onurak besterik ez dugu izango Euskal Herri independente batean. Euskal herritarrok, askatasuna ez ezik, ez dugu ezer galdu Espainian edota Frantzian.

Esateko beharrik balego, hortaz, Euskal Estatua, askatasunaren adierazpena den neurrian, helburu desiragarri, zilegi eta egingarria izan daiteke. Horixe da hemen landu nahi dugun ildo: Euskal Estatua lortu nahi bada, zer-nolako eragiletasun sozial eta politikoa egin beharko litzatekeen argitzea¹. Horrela, egiteko horrek duen garrantzia azpimarratuz, atal juridiko-politiko honetan independentziaren nolakotasunari eskainiko diogu arreta berezia. Beharrezkoa den hori zilegitasunez nola lortu izango da gure erantzunaren galdera: zein da errebindikazio independentistaren muina eta oinarri filosofikoa? Zer-nolako diskurtso eta praxi independentista burutu daiteke Euskal Estatua lortze aldera? Zeintzuk dira etorkizuneko urratsek erabiliko dituzten argudio eta ibilbide juridikoak? Nola egin diezaike aurre euskal independentismoak

1. Pako Aristik dioen moduan, estatuen orbitatik eta mendekotasunetik irteteko, zerbait «desorbitantea» egin beharrean dago. *Berria*, 2010eko martxoaren 4an.

globalizazioak eragindako lurralde-dinamika berriei? Eta azken horrekin lotuta, egoera berri honetan, ba ote du zentzurik estatuak? Nahi dugun horrek ba al du baliorik XXI. mendean?

ESTATUAREN ESANAHIA MUNDU GARAIKIDEAN

Globalizazio-prozesuak estatuaren kontzeptuaren garapenarekin duen lotura azaltzen saiatuko gara atal honetan. Ildo horretatik, estatuaren egokitzapenak eta betebeharrak berriek haren garrantzia inolaz ere ez dutela ezbaian jarri argudiatuko dugu. Egotekotan, estatu mota bat dago krisian, baina inolaz ere estatua bera. Horregatik, estatuaren balioaren eta eraginkortasunaren errebindikazio orokorra egingo dugu.

Nazio-estatuaren osaketa historikoa liberalismoak behar zuen merkatu bateratuaren mesedean burutu zen. Orain, zuzenbidezko estatu sozialaren krisigarai honetan, estatuaren eta nazioaren arteko loturak eduki berriak hartu ditu. Izan ere, komunitate nazionalak ahalbidetzen duen elkartasuna, eta estatu sozialak ziurtatu beharko lukeen baliabideen banaketa orekatua erabat kateatuta daude. Miller-ek ongi azaldu du ongizate-estatuak nazioa komenigarria duela. Nazio txiki eta kudeagarri bat². Tuzididesek berak zioen bezala, estatu aske txiki baten asanbladak bakarrik hitz egin baitezake «gu» batez, ongizatea ziurtatuko duen elkartasunaz. Era berean, beste aldetik begiratuta, nazio baten identitate kulturala eta justizia-sentimendua garatzeko tresna eraginkorra —ia hil edo bizikoa— izan daiteke estatua eta bere tresneria juridikoa. Bi argudio horiek munduan dauden nazio eta estatuen arteko harremanak berrantolatzeko arrazoi nahikoa emango lukete.

Hala ere, indarrean dauden estatuetatik eratoritzen den diskurtso hegemonikoan oso bestelako mezua bideratzen da. Hizpide horren arabera, estaturik gabeko nazioak, kultura partikular gisa zaintzea ongi legoke, baina haien errebindikazio politikoak —soberania/estatua— zentzugabeak lirateke egungo mundu globalizatuan. Iritzi horren arabera, jada nazio-estatu legitimoen zerrenda zabaltzea komenigarria ez omen denez, nazio-erakuntza edo naziogintzako saiakera berriak arlo pribatura eramane beharko lirateke: proiektzio politiko sakonik gabeko komunitate partikularren eremura. Multikulturalismo liberalak onartu dezakeen eremura, alegia. Horrela, jadanik indarrean dauden estatuak, errealtate multikultural kudeatzaile omen neutralak bilakatuko lirateke, «diferentzien» dialogorako eremu omen neutrala. Estatu berriak sortzeko asmoa, aldiz, hutsala bezain arriskutsua.

Estatuaren hutsalkeriaren argudio maltzur horrek bi aldaera hartu ditu³:

2. Miller, D. (1997): *Sobre la nacionalidad*, Paidós, Bartzelona.

3. Hirschmann-ek dioen bezala, intrantsigentziaren edo zorrozkeriaren diskurtsoan ezaguna da hutsalkeriaren argudioa: *statu quo*-aren aldaketa oro hutsala da, zentzurik ez du, alferrikakoa da. Zorrozkeriak hiru argudio mota erabiltzen ditu usu, aipatutakoa, eta beste bi: maltzurkeriarena, «edozein aldaketak ondorio maltzurak izango ditu», eta arriskuarena, «aldaketak kolokan jarriko du jada daukaguna». Hirschmann, A. O. (1991): *Retóricas de la intransigencia*, FCE, Mexiko.

ESTATU BERRIEN BALIZKO HUTSALTASUNA, MUNDU GLOBALIZATUAN

Argudio honen arabera, estatu berrien osaketak ez omen du zentzurik egungo mundu globalizatuan. Estatuaren ordezkari politikagintza-sare konplexuak nagusitzen ari dira, estatuaren gainetik —Europar Batasuna, adibidez—, eta azpitik, erregioetan eta beste azpikomunitate politikoetan. Estatuak egun ez dira jada estatu, agintegune argirik gabeko sareak dira, gero eta zeharkakoagoak, horizontalagoak, globalizatuagoak⁴.

Alabaina, desagertzen ari ote dira benetan estatuak? Sare politiko horietan desagertu al da estatuaren aginpide subiranoa? Noraino dago krisian soberaniaren kontzeptua eta eduki faktikoa?

Soberania eta haren gorputza, estatua, —politika bera, oro har—, sare gisa definitu daitezkeela onartuta ere, sare horiek ez dira inoiz neutralak. Sare horietan nodo edo gune boteretsuak eta ahulak daude. **Estatu-egituraren eta prozesu edo egintza politikoaren arteko elkarreraginezko jarduera horretan jokoan dagoena, azken finean, boterea baita.** Jendea mugiarazten duen boterea, errealtatea aldarazten duen boterea.

Clegg-en ekarpena oso argigarria da botere, egitura eta egintzaren arteko lotura teoriko hau ulertze aldera⁵. Hobbes eta Machiavelli-ren artean dagoen desberdintasun sakona ekartzen digu gogora: Hobbes-en boterearen eredua, egintza absolutuan hezurmamitzen da. Kausalitate mekaniko eta linealean kokatzen da boterearen eragina. Modernitatearen botere-paradigma izango litzateke Hobbes-ena: boterea besteen boterearen ukazioa bezala. Ustez kontrako ikuspegi batetik, kasu honetan, egitura absolutizatu egiten delako, Marx-en eredua ere paradigma moderno horretan kokatu beharko genuke. Estatuaren kontzeptu ezagunena hor zehaztu da, eta hori izango litzateke, izatekotan, krisian dagoena.

Aitzitik, Machiavelli-ren botere-eredua post-modernitatearen aurrekari teorikoa izango litzateke.⁶ «Post» teoria guztietan landu dena: post-marxismoan, —Gramsci eta Laclau eta Mouffe-ren eskutik, esaterako—, edo post-estrukturalismoan: Foucault, Derrida... Boterearen dimentsio estrategikoa, praktikoa, tokikoa, kontingentea azpimarratzen duen eredua izango litzateke. Egintzazko zentro argirik ez duen botereaz ari gara, baina, era berean, organizazioa —eta ez egintza indibiduala—, botere-harremanen erdigunean kokatzen duen botereaz. Adierazten dena, esaten dena —diskurtsoa—, dirudiena, gorputzen edota adimenen kontrol faktikoaren gainetik kokatzen dituen botereaz ari gara. Ikusmolde totaletatik urrun, baina botere-egituren izaera —eta estatuaren berezko balioa— ahaztu gabe.

Estatu-egiturak ez du dena baldintzatzen, baina, botere-egintza «lortu» behar den zerbait da, eta antolakuntzak dira egintza eraginkorra erdiesteko tresnak: organizazioek finkatu, egonkortu egiten dituzte «botere-zirkuituak».

4. Zehazki, «nazioz gaindiko eragileen bitartez eta beraien botere-probabilite, norabide, nortasun eta amaraun desberdinen kariaz, nazio-estatu soberanoak teilakatzen dituen prozesua da globalizazioa». Beck, U. (1998): *Qué es la globalización. Falacias del globalismo, respuestas a la globalización*, Paidós, Bartzelona.

5. Boterearen inguruko argazki filosofiko-politiko aberatsa eta gaurkotua Clegg-ek eskaini digu: Clegg, S.R. (1989): *Frameworks of Power*. Sage Publications, Londres.

6. Bauman, Z. (1987): *Legislators and interpreters*, Polity Press, Cambridge. Hobbes agintearen legegaria zen bitartean, Machiavelli, agintetik kanpoko interpretea, interprete zigortua gainera.

Clegg-ek dioten moduan:

Boterea ez da adierazten subjektuen nahien bitartez [...] edota egituren beharrezkotasuna dela medio. Aitzitik, boterea ulertzeko modurik egokiena eragileen antolaketa konplexuak biltzen dituzten botere-joko konplexuak aztertzea da...

Zirkuitu konplexuetan burutzen diren aginte- eta erresistentzia-jokoak.

Arau unibertsalen arabera jokatzeko direnak baina gunean gune eta unean une eta inguruabarrak baimentzen dituen jokaldietan taxutzen den botere-jokoaz ari gara.

Illo beretik, botere-zirkuitu horretan **nodo edo sare-gune zehatzak** bereiz daitezke. Hortaz, errealismo kritikoak estatuari buruz duen definizioa ere izaera estrategiko/harremanezko horren arabera izango da. Egiturazko geruza anitzez osatutako ingurune estrategiko finkatua, eragileen estrategien topagune zehatza baina, era berean, aldakorra baita estatua.

Zentzu horretan, Poulantzas-en jarraitzailea den B. Jessop-ek estatuaren inguruan duen ikusmoldea jaso beharra dago⁷:

Estatua eremu estrategiko gisa ulertu behar da, estrategia politikoen kristalizatze gisa, estrategia politiko mota batzuei —eta ez besteei— egiturazko pribilegioak ematen dizkien forma politiko zehatza.

Hortxe dugu gakoa. Hortxe independentziarako arrazoi nagusia. Estatua iraganeko estrategien kristalizazio gisa, egitura eta estrategien arteko dialektika konplexuan kokatzen da. Ekoizpen historiko lege, estatu orok jarrera irekiagoa du estrategia politiko batzuekin besteekin baino. Batzuk laguntzen dituen bitartean, besteak zaildu edo oztopatu egiten ditu.

Esaterako, Espainiako estatuak, botere-harreman jakinen kristalizazio gisa, balio, kultura eta jardura batzuk bultzatu eta besteak zaildu egiten ditu. Euskal Estatuak ere beste batzuk ahalbidetu edo oztopatuko lituzkeen bezala. Horixe izango litzateke Euskal Estatuaren esanahia, euskal independentziarena: Euskal Herriak une honetan garrantzizkoak jotzen dituen balio eta sinesmenak —euskara, edo justizia soziala, adibidez— defendatzeko tresna egokiena dela estatu propioa.

Illo beretik doa, esaterako, Rubert de Ventós filosofoaren iritzia: «Salbuespenak albuespen, hobe da estatu minimoa izatea autonomia maximoa baino. Estatua da soberania duen antolaketa politiko bakarra, eta horrek abantaila kualitatiboa ematen dio, oraindik ere, estatu-antolakuntza hartzen duen herriari».

Atala amaitzeko, bigarren «hutsaltasuna»ren argudioa aipatu beharko genuke, bai eta honi eman dakioken erantzun egokia ere.

ESTATUA EDUKITA ERE, ZERTARAKO ERABIL DAITEKE LEGITIMOKI?

Estatu propioa edukita ere, esaterako, euskal nazioa eta euskara indartsuagoak izango al lirateke, balizko Euskal Estatu horren aniztasuna ziurtatu nahi bada?

7. Aipatutako Hay-ren lana hurbilketa argia den arren, zuzeneko iturria sakonagoa da, dudarik gabe, Jessop, B. (1990): *State theory. Putting Capitalist States in their place*. Polity Press, Cambridge.

Hutsaltasunaren bigarren argudio honen arabera, estatuak eskaintzen dituen tresnak euskal nazioa (euskaran errotutakoa) sendotzeko erabili nahiko balira, tresna hutsalak edota onartezinak lirateke euskal herriaren aniztasun identitarioa zaintzeko konpromisoa balego. Kultura demokratiko/liberalean ametiesina baita estatua akulturazio-tresna gisa erabiltzea, XIX. mendean egin bezala.

Argudio honek erantzun erraza du. Hasteko eta behin, ezin leporatu dakioke XXI. mendeko balizko estatu bati, egungo estatuak beren eraikuntzarako erabilitako tresna bortitzen erabilera hipotetikoa. Izan ere, egungo estatua ez da XIX. mendekoa, mundu garaikidean ezagutzen ditugun soberaniaren definizio berritzaileak ere Bodino-renak ez diren moduan. Horregatik, argi dago kultur batasuna ezartzeko tramankulua baino gehiago, kultura-aniztasuna egokiro kudeatzeko tresna izango dela Euskal Estatu garaikidea.

Euskal Estatuaren egokitasuna defendatzen dugunok egiten dugun galdera sinplea da: Pirinioetako bazter honetan historian zehar finkatu den aniztasun kulturalaren kudeaketarako esparru egokiagoa izango al litzateke Euskal Estatu, egun lurralde hauetan indarrean dauden bi estatuak baino? Erantzuna argia da: bai, ezbairik gabe. Kultura desberdinen arteko oreka zaintzeko zein da egitura politiko proposena euskal lurraldeetan? Euskal Estatu bat.

Rubert de Ventós-ek —eta Levi Strauss-ek— gogoratzen diguten bezala, moral politikoak eta topologia kuantitatiboak bat egingo dute galdera horiei erantzun egokia emateko orduan: *Small (but not too small) is beautiful!*

Ulises Moulines-ek dioten bezala, «Aniztasunaren Berezko Balioa» zaintzeko, —izatearen espezie euskalduna zaintzeko—, babesleku egokia estatua da. Baina ez edozein estatu. Nazionalismo internazionalistaren defentsari den Moulines-ek azpimarratzen du nazio-estatu hegemonikoetan zaila dela nazio txikien iraupena ziurtatzea⁸. Nazio anitzeko estatua arrakastatsua izan dadin, orekatua behar du izan barne-nazioen arteko egoera eta harremanak. Dударik gabe, Euskal Estatuak orekatuagoak izango lituzke bere baitako identitate nazionalen eta kulturen indarrak, egungo Espainiako edota Frantziako estatuak baino. Besteak beste, bi estatu horietan islatzen den botere-harremanen kristalizazioak ez duelako aintzat hartzen euskalduntasuna. Hori da lan honen bosgarren atalean sakonduko den ildo, Asier Blas-en eskutik.

Alabaina, tresna zilegi bezala erabiltzeko aukera aintzat hartuta ere, oraindik ere tresna eraginkorra al da estatua?

Askoren aburuan, inoiz baino indartsuago dago estatua. Globalizazio-prozesuaren anabasan eta krisi-garaietan herritarrari beharrezkoa duen babesa eskainiko dion eragile bakarra baita.

Izan ere, Rubert de Ventós filosofo kataluniarrak dioten bezala⁹: «Saretuta dagoen mundu honetan estatu modernoaren hainbat osagai zaharkituta geratzen ari direnean, [halere], indarraren eta asistentziaren monopolioak ematen dion

8. Moulines, C. U. (2008): *Manifestu nazionalista, are separatista, esango nioke, estutuz gero*, Txalaparta, Tafalla.

9. De Ventós, R. (1994): *Nacionalismos: el laberinto de la identidad*, Espasa, Bartzelona.

legitimitatea eta gizarte-ospea mantentzen du estatuak». Edo, Hinsley-ek dioen moduan, «komunitate/estatu harremana, aspaldidanik ezarria gure gizarte modernoetan, zulatu beharrean, sendotu egin da konplexutasun hazkorra dela-eta».

Manuel Castells-ek, ildo beretik, aitortuko du «mundu globalizatuan nazio-estatuari gero eta zailagoa gertatzen zaiola bere aurrekontua eta moneta-politika kontrolatzea, produkzioa eta merkataritza antolatzea, zergak jasotzea eta bere gizarte-erantzukizunak betetzea, baina arautzeko ahalmena du, baita menekoen gaineko kontrola ere». Izan ere, multilateralitatearen konplexutasuna nagusi den honetan, nazioarteko gizarte zibilaren eragina nonahi barreiatzen denean, delinkuentzia globalaren eta globalizazio ekonomikoa kudeatzen duten eragileek (FMI, etab.) presioaren aurrean, eta haien identitatea estatuaren bitartekoak erabiltzea babestu nahi duten komunitateen errebindikazioen eskutik, nazio-estatuak gotortzen ari da azken urteotan, paradoxikoki, bere botere-jarduera indartuz.

Dena den, Sassen-ek estatuaren eta globalizazioaren arteko lotura askoz ere konplexuagoa dela esan berri digu. Estatuak eta globalizazioa lehian leudekeen errealitate bezala definitzen dizuten iritzi klasikoak ezagunak dira, hurrenez hurren: globalizazioak estatua indargabetu egin du; estatuak, funtsean, lehengo egitura indartsuak dira, eta azkenik, estatua egokitu egiten ari da globalizaziora...

Diagnostiko hauek guztiak erabat arbuiatu gabe, Sassen-ek laugarren aukera bat proposatu digu, azken urteotako bilakaera politikoa hobeto ulertzeko: **estatuak ez du globalizazioa ukatzen, aitzitik, globalizazioa indar dadin ezinbesteko eremu estrategikoa da estatua**. Bertan, eremu publiko/pribatuaren mugak aldatuz eta barne-botere orekak birmoldatuz, globalizazioak ezinbestekoak dituen prozesu tekniko-administratiboak gauzatzen dira. Eta globalizazio honen hegemonia neoliberalismoak duenez, estatua bera da neoliberalismo horrek beharrezkoa duen tresna bere hegemonia globala indar dadin. Horregatik, bestelako globalizazio mota bat bultzatzeko ere, estatua ezinbesteko tresna bilakatu da. Horrela gauzak, hauxe izango litzateke Euskal Estatuaren azken ekarpena: gure barneko botere-oreka, gurean dagoen hegemonia ideologiko progresista, edota publikotasunaren kontzeptu garatua, globalizazio alternatibo bultzatzeko tresna bilakatzea. Estatuak ez da globalizazioaren biktima, bermea baizik: horregatik, **notako estatua, halako globalizazioa**¹⁰. Hortaz, hau ere bada, Euskal Estatu baten arrazoia: beste globalizazio-eredu baterako adibide eta, bere apalean, tresna izatea.

Arlo juridiko-politikoa lantzeko lau begirada bildu ditugu. Begiraden arteko tentsioak berak erakusten digu independentziaren aldeko lana indar eta ideien artikulazio dinamiko eta kontingentean oinarritzen dela. Hor duela independentismoak bere benetako indarra. Jendarte-eremu zabalak eta desberdinak lotzeko aukera eta beharra batera datoz-eta, Euskal Estatuak inoiz lortuko bada.

10. Arlo honetan, oso lan interesgarria da Saskia Sassen-ena. Gai honi dagokionez, zehazki, Sassen, S. (2007): *Una sociología de la globalización*, Katz Editores, Buenos Aires.

1. Estatu europarra Euskal Herrian: herriaren antolaketa eta estatuaren beharrezkotasunaz

Unai Apaolaza Amenabar, Filosofian lizentziatua, UPV-EHUko irakaslea
Imanol Galfarsoro Madariaga, Soziologian lizentziatua, irakaslea Leeds-eko
Unibertsitatean

Andoni Olariaga Azkarate, Filosofian lizentziatua, doktorego-beka du UPV-EHUn

Unai Apaolaza, Andoni Olariaga eta Imanol Galfarsoro filosofiaren eskutik hurbildu zaizkigu independentismora. Eragiletasun politikoaren errebindikazioa, etorkizunari begirako engaiamendu subjektiboan bezainbeste, borroka luzearen memorian oinarritzen dute. Borondatea da nazioa, borondatea independentzia, baina borondatea ez da inspirazio metafisikoa, iraganeko hautuetan, gure arbasoen borrokan du ezinbesteko euskarria. Independentzia ez dator inoiz bakarrik, errebindikazio anitz biltzen duen lelo herritarra da, diferentzialtasunari baino gehiago, berdintasunari emango dio bide. Izan ere, Euskal Estatua edukiz gero, «euskal berezitasun subordinatua»ren patua amaituko litzateke, normaltasunari ateak zabaltzeko.

A european state in the Basque Country: on the organisation of the country and the necessity of a state

Unai Apaolaza, Andoni Olariaga and Imanol Galfarsoro all came to the pro-independence camp with a training in Philosophy. The basis of demands for political self-governance must be sought in the memory of a long struggle, just as much as in a subjective commitment towards the future. Nationhood and sovereignty depend on a people's determination. However, determination does not mean metaphysical inspiration but is founded on past choices; on the things our ancestors fought for. When the cry of independence arises in a population it is never an isolated issue: it sums up a multitude of demands, and is less about the recognition of differences than about establishing equality. The consolidation of a Basque state would signal the end of the destiny of Basques as "special but subordinate", ushering in a new era of "normalcy".

SARRERA

To be or not to be: globalizazioaren zein batez ere Europako testuinguru zehatzean Euskal Herriaren moduko nazio txiki batean estatua bai ala ez? *That is the question!* Eta galdera horri erantzunak emateko artikulu honen ibaia hiruzpalau azpikorrante nagusiz osatuko da.

Batek, independentziaren aldeko eragiletasun politikoaren apologia zuzena eta inolako nabardurarik gabekoa egiten du. Gaur egungoa ulertzeko, are eta gehiago, iraganekoa berrerosi egiten du (independentziaren aldeko militantziaren memoria historikoa modu zeharo «ideologikoa»n aldarrikatuz, hain zuzen ere).

Horretaz gainera, beste batek, independentziaren aldeko mugimenduan aldarrikapen herritar zein demokratikoen «posibleak» eta «posible ez direnak edo ezinezkoak» nola artikulatzen diren erakusten du; izan ere, gure tradizio politiko, kultural eta intelektualean modu kontingentean jorratu izan dena artikulazio nagusi baten bitartez: *independentzia eta sozialismoa*, alegia.

Eztabaida honen harira, azkenak, naziotasunaren faktore objektibo eta subjektiboei begiratuz, nazionalismo klasikoaren diferentzia kulturala azpimarratetik independentismoaren berdintasun politikoaren aldarrikapenera mugitzen da. Independentzia afera politikoa da!

Ohargarria denez, gure lanetan (Galfarsoro, 2008; Olariaga, 2011; Apaolaza, 2011) plazaratutako lelo erdi-erdikoa, noski, zeharo independentziaren aldekoa da. Ohargarria, halaber, eta garrantzizkoa ikuspuntu honetan eragiletasun politikoaren nolakotasuna da: nazio politikoaren normaltasuna lortzeak engaiamendu subjektiboa eskatzen du —hau da, borondatea eskatzen du, subjektibotasun politikoa borondatean oinarritzen da—; izan ere, nazio kulturalaren berezitasun «objektiboak» azpimarratzea baino garrantzitsuago da, hauek (hizkuntza, historia, lurraldetasuna...) gure imajinarioan esangabekotzat ulertzen diren neurri zehatzean.

Subordinazioaren kontra (2008) liburuaren aitzinsolasean Joxe Azurmendik zera azaldu zuen:

XIX. mendeko Estatua ere ez baita deus gutxitu; eraberritu egin da. Eta XIX. mendeko pariak XXI. mendeko pariak dira. Estatua gainditutzat emateak hemen gure artean ez du konplitzen beste xederik, hura ikusezinago eta atakaezinago bihurtzea baizik, batetik, inofentsibo aitortuz, eta, bestetik, euren Estatua —burujabetza— gura luketen herrientzat helburu debekatua deklaratzeko.

XXI. mendeko estatuari buruzko filosofia politikotik begiratuta, inportantea da Azurmendiren aipamenak indartu nahi duena.

Alde batetik, globalizazio kapitalistaren garaian, estatu subiranoaren ahalguztiduntasunaz edo ezaz sortzen den eztabaida dago. Bestetik, estaturik gabeko nazio edo herri «txiki»en independentzia edo subiranotasun politiko osorako gaitasunaren edo ezaren gaia dago.

Estatuaren subiranotasuna dela-eta, Michael Keating (2001) azterlari politikoak ikuspegi «post-estatalak» goresten ditu. Estaturik gabeko nazioen arazoa konpontze aldera demokrazia plurinazionalaren alde egiten du. Keating-i jarraituz edota parafraseatuz:

Estatu-nazio subiranotik egoera post-subirano batera pasatzen ari gara,

Egoera post-subirano horretan estatuz gaindiko, estatuz azpiko eta estatuaren arteko sistemek errotik baldintzatuko dute Estatuaren ahalmen instrumentalak.

Hortaz: gauza bat da geroa erabakitzeko eskubidea izatea [...] eta beste bat eskaera horrek Estatu independente hemeretzigarren mendekora nahitaez eramatea.

Nazionalitatea eta Estatua hain loturik egon badira ere, gaur egun, Estatuaren demistifikazioarekin batera, lotura hori indarra galtzen ari da, European nabari dena.

Europari begira, hain zuzen ere, Slavoj Žižek filosofo esloveniarrak ez du batere onartzen arestiko ikuspegia (2006). Are eta gehiago, bertan ezkututzen den mistifikazioaren neurri zehatza ematen digu:

Baztertu behar den lehen mitoa Estatuaren zeregin gutxiagotuarena da. Gaur egun ikusten duguna bere funtzioetan aldaketa da: ongizate-estatuaren betebeharrak partzialki uko egiteaz gain, Estatuaren aparatuek indartzen ari dira beste giza erregulazioaren eremu batzuetan [legea eta ordena segurtatzea, azpiegiturak...].

Zentzu horretan, Žižek (2002, 2004, 2010) nahikoa zehatza da globalizazio vs estatuaren subiranotasunari buruzko eztabaidan, gakoa non kokatzen den azaltzeko orduan:

Sarritan entzuten dugu globalizazioak nazio-estatuaren subiranotasuna mehatxatzen duelako kexa. Hala ere, esaldi hori zehaztu egin beharko genuke: zer estatu daude mehatxu horretara irekiago? Globalizazioaren benetako biktimak nire ustez, bigarren mailako potentziak dira, European nazio handiak izandakoak, Frantzia, Alemania, Ingalaterra edo Espainia modukoak... Beraien beldurra zera da, behin inperio globalean murgilduak egonda Austria, Belgika edo Luxenburgo moduko mailara laburtuak izatea. [...] Globalizazioak esan nahi du Eskoziak independentzia nahi duela edo behintzat autonomia handiagoa; zuek, euskaldunek, ere bai... Hori, berez, fenomeno ona da. Banatu nahi duten entitate berri horiek ez dute bakarrik nazio-estatu zaharra lortu nahi, entitate autonomo berri bat baizik, espazio libre askoz gehiagorekin, baita kulturaren ere. Hori oso fenomeno interesgarria da. Globalizazioak ez du esan nahi denok hanburgesak jaten ariko garela, esan nahi du errazagoa dela, zuentzat adibidez, nazioartean zuen identitatea adieraztea. Hori da globalizazioaren alde ona. Beraz, aukera hori erabili beharko genuke. Ez dugu horren beldurrik eduki behar [...] Nazio handi eta txikien arteko maila-berdintzea globalizazioaren ondorio onuragarria da.

Gauzak horrela jarrita, beraz, estaturik gabeko nazioen edo herrien tamaina ezin da, sarritan egiten den bezala, aitzakia bihurtu independentziaren kontrako argudioak aurreratzeko. Euskal Herria bezalako nazio txikien estatu gisa eskubide osoz European parte hartzeko aldarrikapena zentzuzkoa da. Ez bakarrik hori, ez dago besterik: independenteak, hau da, nazio gisa estatuaren bitartez libre izateko modu bakarra European baitan da, edo bestela ez dago izaterik. Independentzia, hau da, Europak eta European nagusitzen, jartzen, borrokatzen dituen eta diren arau ekonomiko, juridiko eta politikoaren barruan gauza daiteke bakarrik.

Zentzu horretan, are eta gehiago, independentzia bera ez da berez utopikoa. Independentzia, hau da, ez da amets ezinezkoa; edo Manuel Castells soziologoak (2011) aurreratzen duen «utopia independentista» ez da horren utopikoa; independentziaren bidean independentismoa ekintza politikoaren erregulatzaileria da, noski, baina independentzia bera ez da berez nolabaiteko «utopia»ren zeruertz «ezinezko» materialki antzemanezina; ez behintzat, sozialismoak, demagun, edo justiziak, askatasunak, berdintasunak, bakeak eta abar «utopikoak» diren zentzuan.

Bestela esanda, hortaz: Euskal Herriaren independentzia posible da. Posible da, hain zuzen ere, independentzia ez dagoelako lotuta ideien arteko espekulazio edo filosofiaren inolako eremu metafisikorekin, soilik lurralde eman baten kudeaketarekin baizik. Are eta gehiago: Euskal Herriaren independentzia ez da bakarrik posible; Zizek-en arabera Europar Batasunaren sinesgarritasuna ere jokoan dago; Europar Batasuna, besteak beste, nazio txikien parte-hartze zuzena segurtatzen denean gauzatuko baita sinesgarritasunez.

1. INDEPENDENTZIA? BAI, ESKERRIK ASKO

Martin Luther King-ek esan zuen bezala: «Itxaron» hitzak «Inoiz ez» nahi du esan. Politika *posiblearen artezat* ulertuz, makina bat politikari eta plazagizon pragmatiko egon da beti independentzia lortzeko edo hartzeko momentu egokia ez dela heldu adierazten, lasterregi dela, are erokeria hutsa (eta hutsala). Zernahi dela —horrela dirau argudioak— independentzia aldarrikatzeak bi akats nagusi aurpegiratu behar ditu: batetik, globalizazioaren garaian bizi gara eta kapitalismo globalaren dimentsio ekonomikoak nazioen independentzia politikoa (estatuak) *baliogabetu* egiten du, oro har; bestetik, Euskal Herriko kasuan, bereziki, independentzia aldarrikatzea beti izan da sasoiz kanpokoak; izan ere, eman izan du herritarrak inoiz ez direla ganoraz helduta egon independentziarako. Bestela esanda, ohizko fretoa beti izan da independentziaren momentura heltzeko baldintzapenak poliki-poliki zoritu behar direla, independentzia agudoegi lortu edo hartu aurretik.

Bi argudio ezagun horiekin, arazo nagusiak hauek dira: egia da, oro har, inguruko mundu-ekonomiaren testuinguruan, gaur egungo estatu nazionalak ez dutela iraganeko eragina muga nazionalen barruko merkatuen autonomiari eusteko. Munduko geopolitika berrian, halere, arazoa ez da ekonomikoa, politikoa eta sinbolikoa baizik. Hau da, Zizek-en aipamenak birgogoratuz: mundu-ekonomiaren gorabeherak eta fluxuak nekez kontrolatu ditzake estatuak, noski (I. Wallerstein, 1974, 1979). Halere, alde batetik, ohiko estatu historikoei estatuak historikoki ohiko izan duen betebeharrak «sozial» nagusiari uko egin dioten bitartean (ongizate-estatuak lur jotzen ari da, aspaldi denik), beste aldetik, estatuaren aparatuek (ideologikoak eta errepresiboak, Althusser, 1976) indartzen ari dira oro har (ikus: *Salbuespen Estatuak*, Agamben, 2005).

Ohiko estatu historikoak (Mendebalean XVIII.-XIX. mendeetan eratutakoak) berrantolatzen ari diren momentu berean, baina, gero eta azterlan gehiago daude Zizek-en bigarren intuizio/susmoa baieztatzen dutenak; alegia, nazio txikiek ez dute zertan globalizazioaren beldur egon, nazio txikien bideragarritasun ekonomikoa, hain

zuzen ere, ez baitago, gaur egun, zalantzan ezartzerik¹¹. Ondorioz, ekonomikoki bideragarriak izanda, independentziaren aldeko nahikoa herritarren atxikimendu politikoa lortze aldera, arazo nagusia sinbolikoa da. Hizkuntzalaritzatik abiatuta metaforizatuz, edo zehazkiago morfologia eta fonologiatik abiatuta, arazoa, ondorioz, zera litzateke: nola konbentzitu herritargoa fonema izatetik (hau da, esanahi gramatikal edo semantikorik ez duten «erregio» kakofonikoak izatetik) morfemak edo lexemak izatera (hau da, nazioen perpausean edo gramatikan balio formal eta semantiko propioa izateko gauza izan daitezkeen unitate zentzudunak izatera) heldu behar dugula?

Zentzu horretan, ematen du azken aldian baikortasuna areagotzen ari dela nabariki, eta gaur egungo koiuntura orokorra independentziarako aproposagoa dela: globalizazioa, ohiko nazio-estatu post-westfaliarren zalantzak, Ekialdeko Europako nazioen independentzia-prozesuak gehi hauen integrazio politikoaren arrakasta European, Europako krisialdi ekonomiko eta finantzarioan bertan txikitasunaren eta hurbiltasunaren indar-hartze berriak... Modu berean, ideia nazionalaren inguruan nahikoa atxikimendu demokratikoa lortzea gero eta posibleagotzat antzematen da; independentziaren aldeko gehiengo demokratikoak lortzea, alegia.

Etorkizunarekin datorrena datorrela, halere, praxi politikoaren eta ulermen historikoaren ikuspuntutik atzemanda (Rosa Luxemburgo, 1996; Walter Benjamin, 1968, 2002) ezin dira, edo ez dira ahaztu behar independentziaren alde iraganean burututako saialdiak eta porrotak.

Noski, atzera begiratuta, saialdi horiek halabeharrez izan dira sasoiz kanpokoak edo, zehazkiago, sasoiz aurrekoak. Baina gaur egun horren hurbil sumatzen den heldutasunera edo momentu egokira heltzeko, independentzia lortze edo hartze aldera egin izan diren ahalegin goiztiar horiek guztiek bide-zabaltzaileak izan dira. Zentzu horretan, argudio nagusia hemen zera da: ez dago momentu egokiaren zain egoterik saialdi arrakastatsuak gauzatzeko. Momentu egokiaren *zain* egonez gero, ez baita inoiz gauzatuko. Ondorioz, urte eta hamarkadetan zehar independentzia lasterregi lortzeko edo hartzeko kontra egon direnak, independentzia bera lortzearen eta hartzearen kontra egon dira, eta daude betiere.

Bestela esanda: ohiko *posiblearen arte* «pragmatiko»ak (posibilismoak) finkatu izan duen eta oraindik ere finkatzen duen egitasmo ekonomikoa, politikoa eta soziala (hala nola «nazionalismo ekonomikoa», «euskal hiria», eta abar) independentziarik gabeko independentziarena da.

2. IRAGANARI BEGIRA: SINISMENA ETA FIDELITATEA

Gaur, atzo edo bihar, beraz, independentzia lortzeko edo hartzeko prozesuan, garrantzitsuena metahizkuntza politiko-objektibo baten ezintasuna da. Independentziaren

11. Ikus, adibidez, Haward University-n burututako azterlana Gales-eko kasuan zentratuta: *The Flo-tilla Effect , Europe's small economies through the eye of the storm (2011) A Report for Jill Evans MEP* by Adam Price with Ben Levinger; eta gure artean: Nekane Jurado: *Independencia: de reivindicación histórica a necesidad económica* (Txalaparta, 2009). Bestalde, interesgarria da aipatzea garai batean «handi» izan ziren estatu berrantolaketa berri horien moduak, Zizek-ek ondo asko antzematen duena «zauritu(aren) nartzisismoa»n oinarritzen direla dioenean (2002: 121-122; 2004: 26-27).

subjektuak, independentzian sinesten duenak, alegia, ez du prozesua bideratzen distantzia objektibo baten bitartez. Independentziaren prozesuak berak eratu eta gauzatzen du independentziaren subjektua. Independentziaren momentua subjektibotasunaren medioz gauzatzen delako, beraz, boluntarismoaren bidez, hain zuzen ere, ezinezkoa da independentzia garaiz edo sasoz une egokia zein den erabakitzea.

Orduan *posiblearen arte* pragmatikoan oinarritzen den independentziaren «aldeko» en parean (betiere momentu egokia ez dela esa(te)n dutenen parean alegia, edo independentzia «ezinezko» aren eremuan jarri eta jartzen dutenen parean) independentzia *posiblearen* aldeko belaunaldi *utopiko* eta *ez-erreralista* osoen fidelitatea goraipatu behar da; zenbait hamarkadatan zehar urgentzia-zentzuaren eraginez sendotu izan diren independentziaren aldeko jarrera «subjektiboak» goraipatu egin behar dira, hain zuzen ere. Sasoz kanpo edo lasterregi izanik, atzera begirako errore, huts eta okerre beteta egon direla ohartuz eta onartuz ere, ezin da ahaztu denboraz kanpoko saialdi goiztiar horien esanahia bera jasandako porrotean aurkitzen dela; eta denboraz kanpoko saialdi goiztiar horien porrotek independentziaren beraren baldintzapenak sortu izan dituztela, besteak beste.

3. ARTIKULAZIOAK: ALDARRIKAPEN HERRITARRAK ETA ALDARRIKAPEN DEMOKRATIKOAK

Beraz, independentzia lortzeko prozesuan garrantzitsuena, metahizkuntza politiko-objektibo baten ezintasuna da. Independentziaren subjektuak ez du prozesua bideratzen distantzia objektibo baten bitartez. Independentziaren prozesuak berak eratu eta gauzatzen du independentziaren subjektua. Ondorioz, ezinezkoa da jakitea independentzia garaiz edo sasoz lortzeko zein den une edo momentu egokia. Momentu egoki hori, independentziaren subjektu eraginkorraren heldutasunera heltzeko ahalegin subjektibo goiztiarren bitartez gauzatu daiteke soilik.

Horregatik, independentziaren prozesua errepikatu eta errepikatu eta errepikatu egin behar da.

Politikoki, independentziaren aldeko mugimendua aktore historiko zehatz baten moduan konfiguratu izan da, bereziki, azken 40-50 urteetan. Independentziaren aldeko mugimenduak alegia, berak bakarrik izendatu du historikoki modu kontingente zehatz eta zeharo konkretuez sortu izan duen euskal *situazioa*, Alain Badiou-k (1988, 2005) kontzeptua garatzen duen zentzuan. Horrela, euskal *situazio* horren *gertakari* (edo ebento) nagusia *egia* politiko berri baten artikulazioan gauzatu izan da, zeinaren azken helburua zera izan baita sortu zenetik, askatasun politikoan (independentzia) eta justizia sozialean (sozialismoa) ardazten den gizarte guztiz emantzipatua (unibertsaltasuna). Zentzu horretan, euskal *situazio* partikularrean, emantzipazio unibertsalaren *egiaren* aldeko sinesmenak independentzia eta sozialismoaren aldeko *operadore* edo eragile konkretuen *fidelitatea* bermatzen du. Euskal *situazio*ko *operadore* edo eragileak, horrela, subjektiboki eratuta dauden neurri berean, etika eragile baten inguruan daude antolatuta, halaber¹².

12. Badiou-ren etika eta euskal *situazio*aren nozioa gehiago argitze aldera, ikus: Galfarsoro, 2011: 124-129. Hona hemen aipamen erdi-erdikoa: «Edo berriro beste hitz batzuetan esateko Gaizkiak egi horri

Hein berean, mugimendu hau berau aldarrikapen *herritar* eta *demokratiko* (Ernesto Laclau, 2005) batzuen inguruan gauzatu izan da. Zer esanik ez, aldarrikapen herritarrak (*independentzia* nazionala eta justizia soziala, *sozialismoa*) eta aldarrikapen demokratikoak desberdinak dira. Hau da, artikulazio (eztabaida, borroka...) amaigabeen bitartez, *independentzia* eta *sozialismoa* hitzak tartekatuta daude beti aldarrikapen herritarraren baitan. Zentzu horretan, *emantzipazioaren* bi logika ezberdin osatzen badituzte ere (*nazio askapenarena* eta *giza berdintasunarena*), modu berean bata bestearen isla dira.

Zehazkiago, «sozialismoa»ren aldeko aldarrikapen herritarrak aldarrikapen demokratikoetan giza justizia eta berdintasunaren inguruko joran (interes) eta ideal (edo utopia) unibertsala izendatzen du. Praktikan, halere, berdintasunaren eta zuzentasunaren aldeko aldarrikapenak, askatasunaren joran unibertsal(izatzaille)a gordetzen baldin badute ere, konkretuki, diferentziaren eta partikularitasunaren logika barreiatuz gauzatzen dira. Bestela esanda, justizia sozialaren eta berdintasunaren aldarrikapenak zenbait utopia «*ezinezko*»ren aldeko borroketan gauzatzen dira, makina bat giza mugimendu eta identitate-politikaren (ad. multikulturalismoa) bitartez alegia: langileen aldekoa, borroka feminista, gay eta lesbianen eskubideen aldekoa, gazteena, ekologista, arrazismoaren aurkakoa, etorkinen eskubideen aldekoa...

Hainbat eta hainbat (identitate-) borrokaren pluralizazio zein ugaritzearen ildoetatik abiatuta, hortaz, arrisku nabaria hemen, halako utopia «*ezinezko*»en espiraltze-prozesu zentrifugoaren zelebrazio neurrigabeen erortzea da¹³. Testuinguru disolbatzaile honetan, aldarrikapen herritarraren barruan, independentzia «*posiblea*»ren aldeko mugimenduak lan artikulatzailea egiten du.

dagozkio, eta Badiou-ren arabera, are eta gehiago, hiru motakoak dira. Gure kasuan, adibidez, jakina da jada: situazio konkretu eta egoera eman batzuen bitartez independentzia eta sozialismoaren arteko artikulazio historiko eta kontingenteen egia garatzen joan gara. Hori da gure egia eta hori da gure ongia. Izan ere, hor datza gure fidelitatea; orain dela lauzpabost hamarkada eman zen gertakari bati fidelitatea, geroztik diziplina eta antolakuntza dosi handiekin aurrera eramanez izan dena. Baina, modu berdinean, gure egi horren ongintzari dagozkion gaizkien jakinaren gainean egon behar dugu. Izan ere, gure egi askatzailearen ongian, hau da, betiere hor gure berezko ongiaren inguruan, zelatan darabilten gaizkiak hauek bait lirakeke:

-BAT- *Terrorea*: egiaren «simulakro etniko»an erortzetik letorkeena. Joran partikularistak (independentzia, naziotasuna, kultur berezitasuna...) unibertsalitatearen aldeko (sozialismoa, nazioartekotasuna, berdintasun politikoa...) k/zeinuen inportantzia gutxieste ondorioz letorkeena.

-BI- *Traizioa*: egiaren inplikazioak muturreraino eramateko behar-beharreko diren tenple edo nerbioa, segun zein momentutan, eta betiereko konpromisoa, galtzearekin ematen dena, eta maiz eman izan dena...

-HIRU- *Desastrea*: egiaren boterea bera absolutua bihurtzetik datorrenean, izan ere egoera edo situazio askatzailearen totalizazioan amaitzen dena».

Dena dela, inportantea da zera jakitea, Badiou-ren arabera: *gaizkia, existitzen baldin bada, egiaren boteretik bertatik sortzen den efektu okerra da* (E 61). Bestela esanda: gaizkiaren posibilitateak perbertsio baten kontua ematen du, zeina, hala ere, ez baita eremu etikoaren kanpoan kokatzen; alderantziz, gaizkia eremu etikoari berari dagozkio (E 72-87) (127.-128. or.).

13. Prozesu honek, izan ere, konponbide eskaseko kontradikzio nekez gaindigarriak sortzen ditu maiz. Adibidez: internazionalismoa eta gay-eskubideak ardatz, Palestinaren aldeko aldarrikapenak babestu ditzagun baina era berean Israelgo gobernuari (Mendebaleko mentalitatea duelako edo?) eskatu diezaiogun gay palestinarren erbesterratu-estatusa onar dezan palestinarren homofobiaren kontra ere bagaudelako...

Euskal *situazioan*, zentzu horretan, *independentzia* «posible»aren aldeko aldarrikapen herritarra, gizartean bertan estatu zanpatzaileen eta Euskal Herriaren artean barne-muga antagonistiko zehatza definituz gauzatzen da. Bestela esanda, hegemonia politiko eta sozial berri baten aldeko borrokan, independentziaren aldeko mugimenduak, ezin uka daitekeen borondate kolektibo batean oinarrituz, marra edo muga zehatz bat eratzen du, bi talde antagonistiko nagusi identifikatuz.

Identitate herritarra, horrela, gizartearen zatiketa dikotomiko konkretu baten bitartez sendotzen da. Bi eremu guztiz eta zeharo laburtezin eta bateraezin izendatuz, independentziaren aldeko indar zentripetoa mobilizatzen du. Modu berean, borrokaren unibertsala besarkatzen du zer eta hain justu justizia sozialaren eta berdintasunaren aldeko ideial abstraktuak konkretuki bideratzen dituzten aldarrikapen demokratiko amaigabeak koordinatuz; aldarrikapen demokratikoetan nabaritzen den «barreiatze infinitoa»ren arriskuari (S. Hall, 1993) eutsiz eta koherentzia emanez, hain zuzen ere. Bestela esanda, bada, bestelako aldarrikapen demokratikoen barnean sortzen diren kontraesanak artikulatzeko baliabide eraginkor bilakatzen da.

Laburtuz, inportantea da azpimarratzea, ezen aldarrikapen herritar eta demokratiko horien eremu tartekatuetan gertatzen diren artikulazio, kontraesan, jakintza teoriko eta ekintza politikoak izan badirela independentziaren aldeko mugimenduaren oinarritzko izaera definitzen dutenak; edo analogia genetikoa erabiliz: aldarrikapen herritar (independentzia eta sozialismoa) eta demokratikoen (giza mugimenduak, multikulturalismoa, feminismoa...) artean gertatzen diren artikulazioek eta tentsioek independentziaren aldeko mugimenduaren oinarri-oinarritzko ADN politiko, kultural eta intelektual osatzen dute.

4. INDEPENDENTZIAREN ALDEKO MUGIMENDUAREN EGIA

Arestian zirriboratu den tesi nagusia hau da: euskal *situazioan* gertatzen den antagonismo ardaztailea edota gatazka nagusia independentziaren aldeko aldarrikapen herritarraren eta estatu menderatzaileen artean gertatzen dena da. Tesi honek subjektibotasun konprometitu suposatzen du, independentziaren kausaren egiarekiko fidelitatea suposatzen du, hain zuzen ere. Esan nahi baita, euskal situazioko gatazka konkretuaren izaera eta historia aipatu moduan agertzeko, subjektibotasun politiko konprometitu baten fidelitatea bera ikuspuntu engaiatu batetik bakarrik sortzen da. Bestela esanda, jarrera edo *perspektiba interesatu* hau hartuz soilik ezagutu dezakegu zeintzuk diren euskal *situazioan* gertatzen den gatazka ardaztaile eta antagonismo politiko nagusiaren osagaiak, ezaugarriak eta aztarnak.

Gauzak horrela, subjektibotasun engaiatuaren zentzua gutxiesten duen betiko kontra-argudioari (*zuen ikuspuntua —alderdikoikerian oinarritua— distorsionatuta dago erabat: ez du egiazko egoera ezagutarazten*) emaniko erantzuna ondorengoa da: gatazkaren izaera eta egoerari buruzko zure itxurazko begirada «objektibo» eta «inpartziala» ez da egiaz neutrala, betidanik oso-oso partziala baizik. Gure ikuspuntu eraldatzailean, aldiz, partzialitatea ez da oztopoa. Aldiz, euskal *situazioa* izendatzeko, kokatzeko eta ezagutarazteko egia osoaren (ezinbesteko) baldintza baikorra da.

Bestalde, independentziaren aldeko mugimenduaren egia, bi ardatz nagusitan oinarritzen dela esan da. Independentzia nazionalaren beraren «posiblea»n eta justizia sozialaren «ezinezkoa»n alegia. Posible eta ezinezko horien arteko artikulazioak, izan ere, bi dimentsio nagusi adierazten dituela esan daiteke orain.

Alde batetik, ezinezkoaren dimentsio «metafisikoa» edo legoke. Horrela, «posiblearen arte» pragmatikotik independentzia bera «ezinezkoa» dela esaten zaigunean, guk, aldiz, «ezinezkoaren artea», utopia erregulatiboarena dela deritzogu. Zentzu horretan «sozialismoak» gorpuztu nahi dituen ideal eta balioek egiazko politikagintza eraldatzailearen «ezinezkoa» inplikatzan dute; izan ere, «askatasuna», «berdintasuna» eta «justizia» moduko ideal eta balioen aldeko aldarrikapen demokratikoek osoki inoiz gauzatu ezin daitezkeen erreferentzia-puntu ardaztaile gisa funtzionatzen baitute. «Justizia» adibidez, (unibertsoko injustizia ontologiko eratzaila eta oinarritzakoaren zuzenketa gisa ulertua) alde aurretiko aldarrikapen ezinezkotzat hartu behar da. Izan, jakina baita, mugimendu politiko batek justizia guztiz eta osoki gauzatu (nahi) duela aldarrikatzen duen momentuan bertan desastre totalitarioan erortzen dela. Hemen adibidez, katastrofea litzateke independentziaren aldeko mugimenduak uste izatea lortzeke dagoen independentzia «posible»arekin batera erabateko demokrazia, ustelkeriarik gabekoa, justizia soziala, askatasuna... beraien materialitate osoan lortuko direla.

Beste aldetik, baina, arestikoak bere isla konkretua aurkitzen du maila materialean, dimentsio historikoak berak ondo asko erakusten baitu independentzia posiblearen eremura etorri dela, eta alderantziz, sozialismoa utopiaren edo ezinezkoaren eremura joan dela. Izan ere, Euskal Herriko independentziaren aldeko mugimendua aldarrikapen herritar eta demokratiko batzuen inguruan zehazki artikulatzen den garaian, orain dela 40 bat urte, sozialismoak bere formulazio praktikoak ezagutzen zituen, Sobiet Batasuna, Kuba... Aldiz, independentzia oso urrun zegoen estaturik gabeko herrientzat, Euskal Herriarentzat batez ere. 40 urte igaro ondoren, aldiz, independentzia oso pauso konkretuei lotua dago, eta Euskal Herriak posiblearen eremuan ikusten du, oso etorkizun hurbil batean. Aldiz, sozialismo errearen bukaerarekin edo Sobiet Batasuna desagertzeaz batera, sozialismoaren birformulazioaren beharra etorri da, sozialismoa iraultzaren bidez etorriko delako ideia bera deuseztatu egin baita, ezkerreko krisi sakon batean utziz. Testuinguru horretan sozialismoa posiblearen eta gauzatuaren terrenotik —izan ere, desastrearen eta katastrofearen terrenoa izan dena— ezinezkoaren terrenora edo terreno utopikora mugitu da, besteak beste, komunismoaren ideia edo hipotesiaren zein komunaren nozioen birformulazioen bitartez (Badiou, 2010; Zizek eta Douzinas (ed.), 2010; Negri eta Hardt, 2009).

Zirt edo zart egitea, hemen baina, zera da, alegia, sozialismoa «ezinezkoa» den heinean independentzia bera ez dela soilik posible eta eskuragarria, gaur egun; modu berean beharrezkoa da. Beharrezkoa, hain zuzen ere, hemendik aurrera argudiatuko den bezala, euskal herritar *etniko* partikular edota partikulari azpiratua izateari uzteko eta herritar *zibiko* hutsak bilakatzeko, besterik gabe, irekiak, kosmopolitak, unibertsalak... izan ere, estatu demokratikoan eta estatu demokratikoak eratuak. Eta nola ez, noski, independentzia sozialismora bidean ezinbesteko tresna eraginkorra dela jakina da ere.

Laburbilduz, beraz, nabarmen da gure artean estatu zapaltzaileen legimititatea intelektualki indartze aldera hain sarri erabiltzen den *nazionalismo etnikoaren* eta *patriotismo zibikoaren* arteko banaketa ezaguna faltsua dela (*non sense* alegia), estatu zibikoan bertan substratu etnikoa inskribatua baitago jadanik. Zentzu horretan, are eta gehiago, Tomás Urzainqui (2004) eta Xabier Arregi (2006), esate baterako, zuzen dabiltza *Demos* zein *Civitas* alde batera eta *Ethnos* beste aldera jarri beharrean, biak ala biak tartekatzen dituztenean. Falta zaiena, hala ere, edo falta zaiguna, hurrengo urratsa ematea da: ulertzea, alegia, nazio guztiz eratuaren lekunea segurtatze aldera, euskal *ethnos* horrek, bai tradizionalki bai gaur egun ulertzen den eran, ez duela *lotura «organiko» tradizionaletik banatuta dagoen nazioa izendatu eta gorpuzten*. Alderantziz, gaur egun, euskal *ethnos* horren goraipamen etengabeak zer eta jadanik eratuta dauden beste *Demos* eta *Civitas* batzuen folklorezko gehigarri «multikulturalista» soil gisa funtzionatzen du.

Zentzu horretan Urzainquik *hibernazio* hitza nafar estatuaren egoera politikoa deskribatzeko sarri erabiltzen duen neurri berean, independentziaren aldeko «iratzartze» politiko berriak (Euskal Herrian *Demos* eta *Civitas* berpizteak, alegia) euskal *ethnos* modernia-aurrekoaren hibernazio «kulturala» eskatzen du.

5. NAZIOTASUNAREN FAKTORE OBJEKTIBOAK ALA SUBJEKTIBOAK? ABERTZALETASUNAREN DIFERENTZIA KULTURALETIK INDEPENDENTISMOAREN BERDINTASUN POLITIKORA

Ethnos vs *Demos/Civitas* oposaketa ardaztailea izan da independentziaren aldeko mugimendu modernoaren eraikitze bidean. Abertzaletasuna, izan ere, herri-mugimendu soziopolitiko eta kulturala izan da, itotzen ari zen euskaldun herriaren erreakzio modu bat. Mugimendu horrek zenbait forma hartu izan ditu, XVIII. mendetik hona naziotasuna definitzeko, eta definizio desberdin horietatik abiatuz, estrategia politiko bat ehundu eta garatzeko. Abertzaletasun horrek ezaugarri nagusi izan du, hastapenetatik gaur egunera arte, erreaktiboa izatea eta, oro har, faktore objektiboak (arraza, tradizioa, historia...) azpimarratu izan dituela, irizpide subjektiboen (borondatea, kontzientzia) gainetik.

Bide horretan, Manuel Larramendi (1690-1766) *apologistaren* euskararen eta abertzaletasunaren aldarrikapenak foruak pixkanaka eta mingarriro galtzen ari zen herri baten testuinguruan ulertu behar dira: nolabait ilustrazio berdintzailearen (eta Azkoitiko Jauntxoan) kontrako defentsa bezala. Hortaz, defentsa bat da hark egin zuen euskararen apologia nabarmena (aurreneko 72 hizkuntzen jatorrizko hizkuntza izendatu zuen euskara) eta euskal endaren aldarrikapena. Larramendiren (pre)nazionalismoa ere, foruen defentsan errotu zela esan daiteke. Modu berean ulertzen ditugu Arturo Campionen (1854-1937) eta Sabino Aranaren (1863-1903) ekarpenak, zeinak ederki birmoldatu zuen abertzaletasunaren planteamendua, foru-arazotik nazio-arazora pasatu zuenean¹⁴. Bestela ere, libre izatea justifikatzeko, historiak baliatuko da Arana (arraza, ohiturak, tradizioak, aiurria, hizkuntza... ere azpimarratuz, historikoki Espainiatik objektiboki bananduak leudekeenak), eta baita

14. Aranaren hainbat ideia arbuizaten ditugu orain, esentzialistak eta arrazistak direlako; arrazistak, hala ere, garai hartan Ortega y Gasset, Unamuno, Jünger (EHUK *doctor honoris causa* izendatua), eta abar ere izan ziren.

Campion ere (Nafarroako Erreinuaren historia berreskuratuz, eta abar; azken horrek, batere arrazismorik gabe eta herria bere osotasunean hartuz egin zuen —Nafarroa edo Euskalherria—, Aranak ez bezala).

Jon Miranderen (1925-1972) pentsamendua ere testuinguru berean uler daiteke. Kristautasunaren (demokraziaren, bakezaletasunaren... hitz bitan: Nietzsche-k salatutako dekadentziaren) sitsak jandako herri batean, indarkeria eta supergizaki nietzschearraren karakterea, euskal etnia zaharraren gogo-basa, predikatu zituen. Ondoren, 60ko urteetan, Jorge Oteiza (1908-2003) euskal arimaren edo estiloaren bila abiatu zen estetikatik, nolabaiteko esentzia bat aldarrikatzeko. Askok laburtuz: abertzaletasunak faktore objektiboak azpimarratuz (kulturatik alegia) gorpuztu izan ditu bere planteamolde politikoak berrehun urtetan. Joseba Gabilondok (2006) horri *esentzialismo estrategikoa* deitu izan dio, Gayatri Spivak eta ikasketa subalternoko post-kolonialen haritik.

XX. mendeko abertzaletasuna honelaxe garatu da asko laburtuz: 1930era arte, naziotasuna zedarritzeko irizpidea arraza eta lurraldea izan dira; 1960tik aurrera, hizkuntzan oinarritu da nazio-diskurtsoa eta irizpide horri elementu iraultzailea gehitzen zaio: Euskal Herrian bizi eta lan egiten duena da naziokidea, eta abar, Argalak formulatu zuen gisa. 1990etik aurrera, elementu demokratikoa sartu da aldarrikapen nazionallean: autodeterminazio-eskubidea. Handik aurrera, diskurtso *demokratikoa* indartuz joan den arren, hizkuntzaren irizpidea eta nafarzaletasunean oinarritutako historia indartu dira berriz ere. Abertzaletasunak, hortaz, diskurtso kontrajarriak izan ditu, eta dauzka, baina oro har hainbat faktore objektibotatik abiatuta (ohiturak, historia, hizkuntza, lurraldea...) definitu izan du naziokidea, baita askapenerako estrategia eta subjektu politikoa ere. Hau da, oraingo betaurrekoekin begiratuta, eta oraingo interesei begira, naziotasuna borondateaz kanpoko faktoreekin mugatzeak berak borondatean oinarritzen den politikotasuna kendu izan dio eta ondorioz naziotasunak (gehienbat *ethos* bezala ulertua) identitate politikoa izateari utzi dio. Naziotasuna (qua *Demos/Civitas*) izateari utzi izan dio, alegia. Hori da, hain zuzen, berreskuratu behar dena, aurreko ekarpen guztiak aintzat hartuta, betiere.

6. DISKURTSO NAZIONALISTATIK DISKURTSO INDEPENDENTISTARA

Jakina da, ordea, nazio-eraikuntza, herri edo *demos* eraikuntza eta *state* edo estatu-eraikuntza batera kudeatu behar direla, hirurak bata bestea gabe hankamotz geratzen direla. Ordea, hanka bat motz geratu denean, boluntarismoaren defentsa premiazkoa ikusten dugu. Dena den, arestian aipatu bereizketen (zibiko/etniko; *Demos-Civitas/Ethnos*; faktore *subjektiboak/ objektiboak*) jarraipen gisa, ditugun diskurtsoen artean, merezi du bote lasterrean garrantzi gutxikotzat har daitekeen baina gure ustez garrantzi handia duen beste ñabardura bat azpimarratzea. Izan ere, aldaketa nabaria gertatzen ari baita norbera definitzeko orduan gehienbat «abertzale» hitza erabiltzen dutenen edo hein handi batean «independentista» hitzarekin nagusiki beren burua definitzen dutenen artean. Horrek badu bere garrantzia; lehenengo aukerak ez diolako bide ematen euskaldunon helburu

politikoak lortzeari, eta bigarren aukerak, aldiz, bai. Gure xedea orain bereizketa horien inguruko hausnarketa sakonagoa burutzea da.

Zer egiten du diskurtso nazionalista espainiarrak? Diskurtso nazionalistak, beste edozein diskurtso nazionalistak bezala, nazioa zedarritzen du, hau da, diskurtso nazionalistak naziokoa nor den eta nor ez den esaten du. Hortaz, diskurtso nazionalistak nazioa deituriko subjektu horretako parte izateko zer baldintza bete behar diren azaltzen du. Esan bezala, baldintza horiek aldatuz joan dira. Euskal herrian, hori egotzi izan digute: hain zuzen, diskurtso nazionalista esentzialista hori izatea. Egia da, defentsa-izaera zuen arren, nolabaiteko diskurtso hori txertatua izan dela gure tradizio politikoan. Lehenik arraza zen naziokoa izateko baldintza, gero euskal kulturakoa izatea, eta geroago hizkuntza (diskurtsoaz ari gara). Hirurogeiko hamarkada bukaerarako bete beharreko baldintza Euskal Herrian bizi eta lan egiten zuen langilea izatea, zen. Nazionalismoaren diskurtso ezberdinek denboran bat egiteak eta, batez ere, praktikarekin izan dituzten desberdintasunek diskurtso bat eta bakarra erabat ez nagusitzea ekarri dute.

Baina, diskurtso abertzaleak zertarako mugatzen du nazioa? Galdera horri erantzun egokia emateko, lehenik eta behin, naziotasuna zer motatako identitatea den argitu behar da. Naziotasuna edo identitate nazionala, identitate politikoa da. Zergatik? Proposamen politikoaren bidez jendartearen eragin nahi duen subjektua izendatzen duelako. Beraz, diskurtso abertzaleak politikan eragin nahi duen pertsona multzoa mugatzen du. Arestian esan dugun bezala, zedarritze horrek faktore objektiboekin (arraza, kultura, hizkuntza, historia...) egiten du maiz, hau da, borondateaz kanpoko baldintzekin. Horrela, eta onartzen bada naziotasuna identitate politikoa dela (gaiaren inguruan teorizatzen duten gehienek onartzen duten bezala), hizkuntza edo kulturarekin identitate hori mugatzeak adibidez, absurdoa izateaz gain, ez liguke identitate politiko bat emango, identitate linguistiko edo kultural bat baizik. Beraz naziotasuna borondateaz kanpoko faktoreekin mugatzeak borondatean oinarritzen den politikotasuna kentzen dio eta, ondorioz, naziotasunak identitate politikoa izateari uzten dio. Naziotasuna izateari uzten dio alegia.

Horrekin ez zaio hizkuntzari garrantzirik kendu nahi, naziotasunaren eraikuntzan faktore/sinbolo sendoa izatean baitu bere indarra, ez naziotasuna determinatzean. Hizkuntzak identitate nazionala determinatzeak identitate esentzialista bat emango luke naziotasunerako borondatea kontuan hartuko ez lukeelako. Askok sinplifikatuz, diskurtso nazionalistak kasu horretan ondorengoa esango liguke: independentziaren alde egoteko adibidez, euskara duena izan behar dela, edo euskal kulturakoa edo euskal arrazakoa edo nafarra. Beraz, baldintza linguistiko, kultural... bat betetzeak derrigorrean helburu politiko baten aldeko bihurtzen zaituela auresuposatzen dute diskurtso abertzale ezberdinek.

Diskurtso abertzaleak ehun urte pasa daramatza nazioa den subjektu politiko hori definitu nahian. Horretarako maiz ikus daiteke faktore/sinbolo/baldintzekin saiatu dela mugatzen. Ideia da, hain zuzen, diskurtso abertzaleak naziotasuna faktore objektiboetan oinarritzeak agerian uzten du erresistentziarako estrategia bat dela, ez helburu politikoak lortzeko estrategia. Hau da, hemen gaudela eta bagarela, agerian jartzeko estrategia da. Horregatik, diferentzia markatu eta azpimarratzeko faktore

objektiboetan egiten du indarra (honen adibidea litzateke gu zer garen galdetzean historiarekin erantzutea). Baina diferentzia datu objektiboekin zedarritzeak ez du ahalbidetzen identitate politiko bat zabaltzea. Zergatik? Besteak beste, euskalduntasuna ulertzeko eta bizitzeko modu bat eta bakarra ez dagoelako. Hau da, identitate nazionala eraiki eta indartzeko pertsonak bezainbat bide dagoelako.

Hortaz, hor nazio-eraikuntzaren eta herri-eraikuntzaren arteko tentsio bat nabaritu daiteke. Tentsio horretan gure proposamena hauxe da: gehiago azpimarratu behar dela koiuntura honetan faktore subjektiboa, bestea albo batera utzi gabe, baina borondatearen izaera azpiratu gabe. Azken finean, subjektu politikoa oso sinpleki zedarritzen baita: euskal herritarra izateko borondatea duena, horixe da euskalduna. Hau da, euskal herritarra da bere burua bertako kideztat sentitzen duena, eta nolabait, bere etorkizuna burujabe ulertzen duena.

Horregatik, eustera bakarrik mugatzen den estrategia politikoak ez ditu sekula bere helburuak lortuko. Helburu politikoak lortu ahal izateko, gure existentzia baieztatzetik harago joan behar gara. Hau da, izate, existitze hori zertarako nahi dugun azpimarratu behar dugu. Zeren existitu, existitzen gara, kontua da existentzia hori (euskalduntasun hori) modu diferentean ulertzen dela. Horrela, diferentzia hori zertan datzan eta subjektu politiko osoa datu objektibo batekin definitu nahi izatea denbora galtzea da. Zergatik? Subjektu politikoa zabaltzeari atakak jartzen dizkiolako. Horrela, helburu politikoak erdiesteari begira nazionalismo hertsia horiek ez dute balio. Ez dute balio zer garen azpimarratzen duten heinean, eta ez zer nahi dugun.

Diskurtso nazionalista ororen akatsa izaten da antagonismoa euskal proiektu politikoaren (independentziaren) alde eta espainiar edo frantziar proiektu politikoaren alde leudekeen artean oinarritu beharrean, faktore objektibo konkretu batzuk dituztenen eta ez dituztenen artean oinarritzea. Antagonismoak egon beharko luke estatu berri bat eraiki nahi dutenen eta Espainiako edo Frantziako estatu(et) an segitzearen alde leudekeen artean; ez kultura edo hizkuntza bat edo bestea dutenen artean. Esan bezala, azken bereizketa hori egiten jarraitzea izan daiteke oraindik diskurtso nazionalistak identitate politikoa den nazioa sortzeko galga, baita haren helburu politikoak lortzeari begirakoa ere.

Independentzia lortzeari begira eraginkorrak izan nahi badugu, nazio deritzogun subjektu politikoak helburu politikoari begira, independentziarekin alegia, definitu behar du bere burua, ez faktore objektiboekin¹⁵. Hori egiteak independentismoaren potentzialtasuna askatzea ahalbidetuko luke; independentista izateko aurrebaldintza bakarra horixe bera litzatekeelako, hots, independentzia nahi izatea (edo euskal herritarra izan nahi izatea), ez besterik.

15. Akats bera errepikatzea baita, adibidez, Nekane Juradok *Independencia: de reivindicación histórica a necesidad económica* liburuan (2010) «socialismo identitario vasco» erredundantea proposatzea. Ba al dago «socialismo identitario español» bezala izendatzen duenik? Zergatik ez sozialismo independentista?

7. ONDORIOAK

Nazionalismotik independentismora igarotzeak esan nahi du, hortaz, nazioa eta subjektu politikoa tradizio, historia edo folklorearekin erabakitzetik, borondatearekin erabakitzera igarotzea (kontuz, honekin ez da ukatzen nazioak historia bat duenik!): hau da, antagonismo objektibotik antagonismo politikora pasatzea. Aurrekoarekin uztartuz, independentziaren prozesuak berak eratu eta gauzatzen du independentziaren subjektua. Horregatik, independentziaren prozesuak berak erakusten du antagonismoa kontrajarriak diren bi proiektu politiko hauetan funtsatzen dela: alde batetik, Euskal Herriaren burujabetza espainiar/frantziar estatuaren subiranotasunaren mende ulertzen dutenen, eta bestetik, espainiar/frantziar estatutik aske ulertzen dugunon artean. Egia da borondate hori faktore sozial, historiko, linguistiko eta abarrek egituratzen dutela, borondatea ezerezetik ez baita sortzen. Izan ere, independentzia eta sozialismoaren aldarrikapen herritarrak, hainbat aldarrikapen demokratikoren (aldarrikapen ekologikoak, linguistikoak, internazionalistak, historikoak, soziopolitikoak, sexualak, kulturalak...) isla dira. Aldarrikapen demokratikoak askotarikoak baitira, J. M. Castells eta EHUKo beste hiru irakaslek independentismo errepublikanoa errebindikatzat erakutsi duten bezala. Independentismoak mila motibazio izan ditzake helburu hori nahi izateko: motibazio horiek bata bestearen kontra planteatu ordez, inteligenteagoa da estrategikoki guztiak independentziarako prozesuan bidaialagun izatea.

Ondorioz, faktore objektibo bakarra subjektu independentista indartzeko erabiltzea egokia izan daitekeela ez dago zalantzarik; ez, ordea, independentziara bidean estrategia politikoa artikulatzeko faktore bakar gisa. Aitzitik, kanpora begira faktore horiek errealitate juridiko, sozial eta politikora tolestu behar dira. Izan ere, kanpo-*arau* horiek ez ditugu guk jartzen, paradigma sozio-ekonomiko-politikoak eta Europak baizik. Nazioarteko legeriak esaten digu, esaterako, zein faktore objektibo behar diren izan estatu aske bat izateko (1933ko Montevideoko konbentzioaren arabera, lurralde mugatu bat eta beste estatuekin erlazioan sartzeko gaitasuna, besteak beste). Kanpora begira, hortaz, faktore objektiboak, independentziara bidean nazioarteko legeriak markatutako baldintzak lortzeko izan daitezke baliagarriak, zalantzarik ez. Zalantzarik ez, ordea, independentziarako subjektuak berak erabakitzen du unean-unean zein den katebegi garrantzitsua: Nafarroako historia, euskara, feminismoa, ekologismoa... hauek denak faktore objektiboak dira. Hori praktika politikoak eta subjektu politikoaren norabideak markatzen du.

Independentzia irabazteko baina, zer esanik ez, zenbait gobernantzia/gobernamendu mailaren arteko harremanak beti izango dira isurkorrak, lurralde-eremuak definigaitzak diren neurri berean. Adibidez: zer da Euskal Herria: erregio bat Espainian, European, edo nazio bat? Edo zer da Europa bera? Ez al da, bada, erregio bat ('Ertekiialdea' erabiltzen den zentzuan adibidez), are probintzia bat, gaur egungo testuinguru globalizatzailean? Ikasketa subalterno/postkolonialen eremutik ez zaigu, bada, globalizazioko harreman geopolitiko berrietan Europa bera «probintzializatu» egin behar dela esplizituki eskatzen? (Dipesh Chakrabarty, 2000).

Zentzu horretan orduan, Europako zentralidadea mundu-aferetan aspaldiko kondaira dela onartzen badugu, alegia, Europako iragan «heroikoa» ahaztu eta Europa bera probintzializatu egin behar dugula onartzen badugu, zer esan nahi dute, orduan, euskaldunoi gure txokokeria eta probintzialismotik harantzago joan behar dugula adierazten digutenek? Fitsik ere ez!

Zentzu horretan, bada, «Euskal Estatua» imajinatzeko orduan beharrezko den euskalduntasun «hustu» baten hegemoniak «posible» administratzaile edo kudeatzaile baten neurria ematen digu, *independentziarena* alegia, non estatua Euskal Herrian europar unibertsaltasunaren kudeatzaile konkretu/partikular bilakatzen baita; eta behin hona helduta, gure tradizio politiko, kultural eta intelektualaren «ezinezko» utopiko baina erregulatzailearen mobilizazioa behar-beharrezkoa bilakatzen da, *sozialismoarena* alegia.

Euskal herritarra Euskal herrian bizi eta lan egiten duena da: Alain Badiou-k ([2005] 2009) dio benetako estatu edo herri garaikideak beti direla kosmopolitak, beren identitateen konfigurazioan guztiz zehaztugabeak dira, hain zuzen ere. Estatu horiek, gero eta gehiago, zera hartu behar dute beren gain: estatuen eraketa historikoaren beraren kontingentzia erabatekoa dela, eta zentzu horretan, estatua bera inolako predikatu arrazazko, erlijiozko edo, oro har, «kultural»etan erortzen ez den neurrian dela bakarrik baliagarria. Badiou-k dioen bezala:

Demokrazia moderno posiblea inolako predikaturik faktoretzat antzeman gabe nornahi eta edonor kontuan hartzen duena da.

Esaldi horretan azaltzen den arauaren ondorio zuzena, hortaz, Euskal Herriko estatua bera arau horren salbuespena izateko inolako arrazoi onargarririk ez dagoela onartzea litzateke. Bestela esanda: estatu horrek bere burua «estatu euskaldun»tzat aurkeztea kontraesan zuzena litzateke. Norberaren errepresentazioan oraindik ere arkaikoa izatea; hain zuzen ere, euskalduntasun kulturalaren garai subordinatuari zegokiona soilik.

Identitate-politik(ar)en kultura-eremutik at eta politikaren oinarrizko borroka-identitatearen promesa betetze aldera, beraz, inolako identitate-predikaturen intrusioak estatugintzan hondamena dakarrela onartu behar da. Ikus, bestela, European zehar eta Mendebaldean oro har, dokumentaziorik gabeko langileen kontrako legedi atzerakoiak nola ari diren hedatzen. Zentzu horretan, Badiou-k gure tradizio politiko, kultural eta intelektualaren aspaldiko aldarrikapena gaurkotzen digu: *Hemen dagoen edonor hemengoa da!*

BIBLIOGRAFIA

- Althusser, L (1976): "Idéologie et appareils idéologiques d'État", *Positions*, Editions Sociales, Paris, 79-137.
- Arregi, X. (2006): *Herria, Hiria, Nazioa. Zibilismoaren Sustraiak*, Pamiela, Iruñea.
- Azurmendi, J. (2006): "Aitzinsolasa", *Espainiaren Arimaz*, Elkar.
- , (2008) "Aitzinsolasa", in I. Galfarsoro, *Subordinazioaren Kontra*, Pamiela, Iruñea.
- Badiou, A.(1988): *L'être et l'événement*, Editions du Seuil, Paris.

- , (2001): *Ethics. An Essay on the Understanding of Evil*, Translated by Peter Hallward, Verso, Londres, New York.
- , (2005): *Being and Event*, Continuum, Londres, New York.
- , (2009): “Judu” hitzaren erabilpenak, , <<http://basque.criticalstew.org/?p=7>>.
- Frantsesez: *Circonstances3: Portées du mot “juif”*, Leo Schéer, Paris, 2005.
- , (2010): *Communist Hypothesis*, Londres, Verso.
- Benjamin, W (1969): “Thesis on the Philosophy of History”, *Illuminations*, Schockenbooks, New York.
- , (2002): *Illuminations: Essays and Reflections*, Rolf Tiedman, Alemanetik. Ingelesera Howard Eiland eta Kevin McLaughlin-ek itzulita (Cambridge, Mass.: Harvard University Press).
- Castells, M. (2011): “La utopía independentista”, *la vanguardia.com*, 2011/04/16, <<http://www.lavanguardia.com/opinion/articulos/20110416/54141449117/la-utopia-independentista.html>>.
- Gabilondo, J. (2006): *Nazioaren Hondarrak*.
- Galfarsoro, I. (2008): *Subordinazioaren Kontra*, Pamiela, Iruñea.
- , (2011): “Alain Badiou, Filosofia Politikoa I”, *hAUSnART*, 0, 124-129.
- Gramsci, A. (1973): *Selections from the Prison Notebooks*, Lawrence and Wishart, Londres.
- Hall, S. (1993): “Culture, community, nation”, *Cultural Studies Journal*, 7(3), 49-363.
- Keating, M. (2001): *Plurinational Democracy: Stateless Nations in a Post-Sovereignty Era*, Oxford University Press, vi-viii.
- Kymlicka, W. (1995): *Multicultural Citizenship*, Clarendon Press, Oxford
- , (2007): *Multicultural Odysseys. Navigating the New Interantional Politics of Diversity*, Oxford University Press.
- Laclau, E. eta Mouffle, Ch. (2001)[1985]: *Hegemony and Socialist Strategy. Towards a Radical Democratic Politics*, Verso, Londres, New York.
- Laclau, E. (2007) [1996]: *Emancipation(s)*, Verso, Londres, New York.
- , (2005): *On Populist reason*, Verso, Londres, New York.
- Luxemburgo, R. (1996): *Reform or Revolution*, Pathfinder.
- Mouffle, Ch. (2000): *Democratic Paradox*, Verso, Londres, New York.
- Negri, A. eta Hardt, M. (2009): *Commonwealth*, Harvard University Press.
- Urzainki, T. (2004): *Navarra: Estado Europeo*, Pamiela, Iruñea.
- Wallerstein, I (1974): *The Modern World-System: Capitalist Agriculture and the Origins of the Word-Capitalist Economy in the Sixteenth Century*, Academic Press, New York, 2 bol.
- , (1979): *The Capitalist Worl-Economy*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Zizek, S. (2002): *Welcome to the Desert of the Real*, Verso, Londres, New York.
- , (2004): *Iraq: The Borrowed Kettle*, Verso, Londres, New York.
- , (2006): *The Universal Exception*, Continuum, London, New York, 248. or.
- , (2010): SLAVOJ ZIZEK: “Unibertsaltasunaren indarra zuek zarete, euskaldunak, ez Espainiako Estatua”, [elkarriketa: Gorka Bereziartua / Markos Zapiain (ARGIA, 2010-06-27)].
- Zizek, S. eta Douzinas, C. (2010): *The Idea of Communism*, Verso, Londres.

2. Euskal Estatua historian: Nafarroa, euskal memoriaren erdigunean

Luis M^a Martínez Garate, Telekomunikazioetan goi-ingeniaria, Nafarroako
historian aditua

Angel Rekalde Goikoetxea, Politika Zientzietan lizentziatua eta Kazetaritzan
doktorea, Nabarralde elkarteko koordinatzailea

Luis M^a Martínez Garatek eta Angel Rekaldek, berriz, memoriaren ildotik eskainiko digute ekarpena. Izan ere, Euskal Herriaren estatu-izaeraren aldarrika ez da gaur goizekoa. Euskal identitate kolektiboak bezala, mendez mende errotu den memoria historikoan du iturria. Eta noski, memoria historiko horretan ezinbesteko katebegia da nafar estatua. Euskal herriak inoiz izan duen estatu-erakundetze bakarra. Azken hamarkadetan berpiztu egin da iraganetik datorren eta etorkizunean zain dagoen Euskal Estatu hori, estatu nafar eraberritua. Gai horren inguruan gogoratu beharrekoak eta etorkizuneko eredu politikoan ahaztu ezin diren irakaspenak dakartzigute aipatu bi ikertzaileek.

The basque state throughout history: Navarre as the centre point of the basque national memory

Luis M^a Martínez Garate and Angel Rekalde approach their subject in terms of historical memory. The pursuit of a Basque state is nothing new: it is rooted in a collective Basque identity which has taken shape over many centuries. One of the most crucial links in that historical memory is the Navarrese state, the only state that the Basques have ever possessed. In recent years, aspirations for a state have resurfaced, coming from the past as a Navarrese state and waiting to be reborn in the future as a Basque state. In this chapter, the authors remind us of the relevant teachings in this respect that will need to be remembered in a future political project.

1. HISTORIA ETA MEMORIA AZTERGAI

1.1. Historia memoria gisa

Herriek beren historiari buruz izan ohi duten ikuspegia, funtsean, gertatutakoari buruzko iritzietan oinarritu izan da. Gertakari historikoak «onak» edo «txarrak» ziren, gizartean eragiten zituzten ondorioen arabera. Jarrera horrek antza dauka egun «memoria historiko» deritzonarekin. Memoria historikoak iragan gertakariak gogoratzeaz gain, aldarrikatu ere egiten ditu. Bidegabekeriak edo galerak irudikatzen dituenen, hain zuzen, galtzaileen memoriak eragiten du ekimen askatzailea. Memoriak, batez ere, gertakariak aintzat hartzen ditu, baina harreman garrantzitsua ere badauka jazoerak gertatu ziren tokiekin; toki horiei «memoria-tokiak» esaten zaie.

Porrota eragin zuen gertakariak edo gertatu zen leku historikoak, horrela, sentimendu aldarrikatzaileak eragiten dituzte galtzaileengan, batez ere gertakari hori bidegabea izan bada. Aitzitik, garaileen aldean, ahazte edo distortsioa sustatzen da aktiboki; eta zer ahantzarazi nahi dute? Bada, galtzaileen begiradarekin hautematen diren gertakari edo leku horiek. Garaileek helburua lortuz gero, galtzaileen bigarren porrota erdiesten dute, Walter Benjamin-ek zioen moduan (1938): lehena da porrot historikoa bera; bigarrena, hura ahaztea edo garaileen ikuspuntua gailentzea.

Idea horiek zehazteko balio du Nafarroaren inbasioak eta okupazioak 1512-30 aldian; Nafarroako mendetako memoria historikoaren funtsezko elementua da. Noain, Amaiur edota Hondarribia memoria-tokiak dira, historia-hondamendi haren gertakariak jazo ziren bertan. Gure historiaren aro berriagoetan ere adibideak badauzkagu: *Gamazada* XIX. mendean; Intxorta, Gernika edota Durangora lotutako memoria 1936-37ko Gerran, baita beste asko ere frankismoan zehar, hala nola Gernika eta Bergarako Aberri Egunak, edo Lemoiz, energia nuklearraren aurkako borrokaren ikur gisa.

1.2. Historia zientzia gisa

Historia zientzia gisa garatu zen gertakarien edota toki batzuen balioaren gaineko gizarte-ikuspegi partziala saihesteko. Helburua zuen, hortaz, narrazioaren objektibotasuna bermatzea, garai eta toki jakinetan gertatutakoari buruz.

Kontakizun historikoaren antolaketa, historiaren narrazioa, ikerketa-metodo batean oinarritu behar da, eta metodo horrek irizpide batzuei erantzun behar die; irizpide horiek, hain zuzen, zientzia gisa emango diote sostengua historiari. Iturriak, artxiboak edo mota guztietako txostenak irakurri eta interpretatzeko moduak arau zorrotzen menpe egon behar du. Horrek eskatzen du, besteak beste, bi arrisku saihestu behar izatea, zaila bada ere: bata lotuta dago «oraina»rekin (presentismoa), bestea «jomuga»rekin (finalismoa).

Lehenagoak bi aldaera dauzka: batetik, «*presentismo* historikoa», eta bestetik, «*presentismo* soziala». Biek ala biek azaltzen dituzte beste garaietako errealtate historikoak egungo irizpide politiko eta sozialen arabera. *Presentismo* historikoaren adibide bat gertatu zen 2006an, Iruñean: Nafarroako Gobernuak erakusketa

bat antolatu zuen Antso III.a Handia erregearen urteurrenari buruz. Historiaren bilakabidean mundu osoan euskal herri gisa ezagututako herriaren errealtate historikoa, zeinak lurralde gutxi gorabehera zabalak hartu zituen lehenik Iruñeko Erresuman eta ondoren Nafarroako Erresuman antolaturik, behartu egin zuten haren izena daraman foru-erkidegoaren egungo mugetara, Prokustesen ohera bezala. Aipatu erakusketan, Antso Handiaren erresumaren iparraldeko mugak eta Espainiako eta Frantziako estatuen egungo mugak marrazki bera zeukaten maparen gainean. Muga hori Pirinioetako Bakearen ondotik (1659) zedarritu zuten, 1868an muge «egokitzapen» garrantzitsua egin zuten bi estatuek, eta azkenengoz moldatu zuten 1984an!, Erronkari eta Arette arteko errepidea egin zutenean.

Presentismo historikoaren beste aldaera batek egungo gatazketatik eratorritako irizpideen arabera epaitu eta egungo gizarte-, kultura- eta politika-kategorien arabera aztertzen ditu gertakari historikoak. Adibidez, Nafarroako errege-erreginek euskararen alde ezer egin ez zutela diotenen kasua. Baieztapen horretan aldaketa historikoakezkutatzen ari dira, hizkuntza bera, kohesio sozial, kultural eta abarretarako tresna gisa baloratzean. Arazo hori XVI. mendetik aurrera sortu zen, Espainiak Nafarroa gehiena xurgatuta zeukanean. Garai horretan, hain zuzen, kultura- eta hizkuntza-pizkundea gertatu zen oraindik independentea zen erresumaren zatian: kultura-pizkundea Margarita erreginarekin eta hizkuntza-pizkundea Joana III.a Albretekoarekin.

Historia azaltzeko orduan ohiko beste akats bat da finalismoa: kontakizun historikoa aurkezten du gaurko egoerara gidatu gaituen zalanarik gabeko eta norabide bakarreko prozesu bat balitz bezala, eta ez bestela gerta zitekeen prozesu bat balitz bezala. Antzinatek erabili dute argudio hori behin eta berriro Nafarroaren «hispanitatea» patuaren ondorio gisa aurkeztu nahi dutenek.

2. HISTORIA PIXKA BAT

2.1. *Subjektu historikoa*

2.1.1. *Herria*

Garrantzitsua da argitzea zein subjektu historikori buruz ari garen. Agerikoa denez, etnografiaren eta soziologiaren ikuspegitik, erromatar historialarien garaitik «euskal herri» izenaz ezaguna den gizataldeari buruz ari gara. Zera gertatzen da: herri guztiek bezala, euskaldunak ere garapen sozial eta politikoa eduki du, hein batean, ingurukoenaren komuna, baina zehatza beste alderdi batzuetan.

Herriak definitzen edo hautematen dira, batez ere antzeko gizataldeekiko harremanean: beste herri batzuekiko harremanean. Jendarte «primitibo» deritzen herrien egiturekin alderatuta, erlazio-prozesuak egitura sofistikatuagoak eta eraginkorrak eskatzen dituztenean, eta dagokion taldeak gaitasuna edo ahalmena badauka hori lortzeko (Ariznabarreta, 2007), erakunde politikoak osatu eta, azkenean, estatuak sortzen dira.

2.1.2. *Berezko antolaketa politikoa: Nafarroa*

Prozesu hori Europa osoan gertatu zen Erromako Inperioa desegin ondoren. Lurralde haiek okupatzen zituzten herriak, ia guztiak «barbaro»en inbasioetan jatorria zeukatenak, Goi Erdi Arotik nabarmendu ziren zenbait egitura politikorekin, zeinek kasu askotan eta dagokien garapenarekin gaur arte iraun duten. Garai hartako historian adituak arabera, adibidez Adrian Hastings (2000), XII. mendeko Europako mapa politikoa egungoaren oso antzekoa da alderdi askotan.

Europar estatu gehienak erromatar zibilizazioak «barbaro»tzat jotako herrietatik jaio ziren: frankoak, godoak, britainiarrak, normandiarrak eta beste. Gure kasua salbuespena da. Izan ere, gurea, bere estatua eraiki duen eta Erromatar Inperioaren hondamendiaren ondorioz gertatutako inbasioetatik ez datorren herri bakarrenetakoa da Europan. Litekeena da gure herriaren oinarritzko zutoinetako bik sustraiak europar neolitikoa izatea. Batetik, erakunde publikoak sortu eta haien euskarri izan zen ohiturazko zuzenbidea edo aditu askok izendatu duten Pirinioetako Zuzenbide Sistema (Orella Unzué, data gabe; Urzainki, 1998 eta 2003). Eta bestetik, euskal hizkuntza.

Une horretan, euskal jendartearen egoera nahiko argia zen. Baskoiei buruz erromatar, franko eta bisigodoen aipamen orokorren ondotik (adibidez, franko eta bisigodoen kroniketan behin eta berriro aipatzen da «baskoien menderakuntza»), gertakizun erabakigarri bat jazo zen. Karlomagnok, Zaragozako erasoaldian porrot egin ondoren, itzulera-bidaian Iruñeko harresiak suntsitu zituen: Nafarroako hiriburuko harresiak. Horrek bi alderdi interesgarri adierazten ditu. Lehenik, ondo harresituta zegoen hiri bat bazegoela, berez garrantzitsua, baita hiriburutzat zeukan jendartearentzat ere. Bigarrenik, Europako garaiko armadarik garrantzitsuenari aurre egiteko eta Orreagan garaitzeko gaitasun sozial eta militar nahikoa erakutsi zutela baskoiek.

Handik urte gutxira sortu zen Nafarroako Erresuma, Eneko Aritza buru. Estatu berria jaio zen berezko ezaugarri batekin: haren jatorrian ez zen izan herri inbaditzailearik, erromatarrek «barbaro»tzat hartutakorik, gainerako europar estatu gehienetan ez bezala. Lurraldean iraunkorki finkatutako herria zen, beharbada oso antzinatik, baina ziurtasunez Neolitikotik.

Nafarroak, Iruñeko Erresuma gisa, Orreagan hasi zuen ibilbide politikoa eta gailurra jo zuen Antso III.a Handiarekin, XI. mendearen hasieran. Haren lurraldea Atturri ibaitik Duero ibairaino eta Pirinioetako Ribagorza eskualdeetatik itsasaldeko Urdialeseraino zabaltzen zen. Atapuercako porrotak Gaztelaren aurka eta barne-disidentzia larriek Behe Erdi Aroko lehen krisi handia eragin zuten —Peñalengo errege-hilketa bultzatu zuten gaztelarren interesek lagunduta—.

2.1.3. *Erresuma, estatu eta nazioa*

Prozesuaren bigarren parteak ondokoa ekarri zuen: arestian aipatu egitura politikoa, estatua edo gutxienez estatu aurrekoa, eragile berria, zeinak jatorrizko gizartearen ezaugarriak hartzen zituen, era berean, bere egituraren baitan eragiten

hasi zen, hau da, berau sortu zuen herriaren baitan. Estatuak beren biztanleria zein okupatzen zuten lurraldea «nazionalizatzen» hasi ziren. Hori gertatu zen Nafarroan Alfontso I.a Borrokariaren heriotzaren eta haren testamentu burugabearen ondoren —testamentuan ordena militarrek utzi zituen erresumaren oinordeko— erresuma berrezarri zuenean Gartzea Ramirez IV.ak. Erregealdi hartan, fase politiko berri bat hasi zen: erresumaren egituraketa politikoan islatu zen euskal kultura soziala, piriniotarra. Fase horren gailurra Gartzea Ramirezen seme eta oinordekoarekin iritsi zen: Antso VI.a Jakitunarekin; erregealdi luze eta garrantzitsua izan zen.

Abagune horretan sortutako egoerari iruzkina egiten dio Lacarrak (1976):

Nafarroako Erresuma berrezarri zuen (1134) jaun-multzo txiki batek. Hasieratik eduki zuten Iruñeko gotzainaren, hainbat burgesen (Lizarra) eta, agian, monasterioren baten (Iratxe) diru-laguntza. Ladron kondearen familiaren atxikimenduak ahalbidetu zuen Gartzea Ramirez 'Berrezarleak' bere tituluen artean edukitzea Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurraldeetako errege-tituluak. [...]. Lurralde horietako bakoitzak bazeukan berezko izaera eta horiek [...] gobernatu zituen titulu eta agintaritzak desberdinekin. Kanpoko presioek —Gaztelarena eta, batez ere, Aragoirena— **batasuna areagotu eta nazio-kontzientzia eratzen lagundu zuten.**

Lacarrak aipatu «nazio-kontzientzia» hori oso urrun dago XIX. eta XX. mendeetan goren mailara heldu zen «nazio-kontzientzia»tik. Halere, XIII. mendetik aurrera Nafarroan jazotako gertakari historiko askotan, nahiko argi suma daiteke kontzientzia aurrenazionala.

Mendeek aurrera egin ahala, estatu-erakundearen presioa areagotuz joan zen menderatzen zituen herriekiko, harik eta XIX. mendera iritsi arte. Orduan, presioa oso estua zen eta bai estatutik lortu ez zuten herriek bai beste batzuen konkisten zein okupazioen ondorioz estatua galdu zutenek disoluzio- eta asimilazio-prozesu geldiezinak abiatu zuten nazio menderatzailearen alde; izan ere, horiek ziren beren nazioen jabe. Menderatutako herrien hizkuntza, kultura eta ondasun guztiak, ondarea oro har, zuzenean txikitu zituzten edo okupatzaileen zerbitzura ipini zituzten, begirunerik gabe (adibidez, Weber, 1983).

2.2. Nafarroako historiaren laburpena

Nafarroa irudikatzen dut, hasteko, lurraldeen multzo gisa. Egun politikoki barreiatuak daude, baina Iruñeko eta Nafarroako erresumen barruan egon dira edo harreman estua eduki dute erresuma horiekin mende askotan zehar —esaterako, Lapurdi (Labourd) edo Zuberoa (Soule)—. Euskal Herriaren historian adierazpen politiko osoa, gorena eta burujabea da Nafarroa. Horrek ez du esan nahi bere buruari mugarik ezarri zionik.

Hizkuntzaren ikuspegitik Axularrek (1643) dio:

Badakit halaber ezin heda naitekeiela euskarako mintzatzen molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki mintzatzen baitira euskal herrian. Nafarroa garaian, Nafarroa behean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaba-herrian, eta bertze anhitz lekhan.

Erresuma bat defendatu zuten gazteluak goiburuaren baitan jasotako lanek —*Castillos que defendieron un reino* (Sagredo, 2006, 2007 eta 2009)—, ikuspegi politikotik, argi adierazten dute lurraldearen azalera zabalagoa zela egun Euskal Herria edo Baskonia bezala ezagutzen dena baino.

2.2.1. Bilakaera historikoa

Gure historiako mugarren berrikuspen laburra hasten da estatuaren eraketarekin, Antso Ramirez IV.ak berrezarri zuenean estatua 1134an (Martinez Garate, 2010). Erresuma eraikitzeke lan nagusia haren seme Antso VI.a Jakitunaren (1150-1194) aro luzean egin zen. Hasteko, «Iruñekoa» izatetik «Nafarroakoa» izatera igaro zen erresuma, horrek eragin zuenarekin, batez ere, oso garatuta eta aurreratuta zegoen kultura politikoa dagokionez, inguruko erresumetako, Gaztelakoa esaterako, feudalismoarekin alderatuta.

Zenbait ezaugarri, hala nola erresuma osorako lurralde-jurisdikzioak, «erresuma» Nafarroako biztanleen multzoak osatzen duelako ikusmoldeak, edo administrazio publikorako errege-izendapen askeko, eta ez abantaila feudal gisako, «tenentziak» finkatzeak eman zizkieten gure estatuari berezitasun original eta interesgarriak. Garai hartan ere hiribilduak sortu eta komertzioa zabaltzen. Erregealdi horretan izendatu zuten euskara «*lingua navarrorum*». Gaztelaren aurka porrot militarrek gertatu ziren, eta horrekin batera, Lopez Harokotarrak aurka agertzean, Errioxa eta gaur egungo Bizkaiko zenbait lurralde gaztelauen esku geratu ziren. Durangaldeak erresumaren barruan iraun zuen 1200 arte.

Antso VII.a Indartsua oinordekoarekin gauzek berdin jarraitu zuten, baina areagotu egin ziren lurralde-galerak, Gaztelak konkistatuta. Durangaldea, Trebiñu eta Araba gaztelauen esku geratu ziren 1200ean. Nafarroako itsas fronte osoa suntsitu zuten eta geroago Gipuzkoa moduan ezagutu ditugun lurrak ere Gaztelaren menpe geratu ziren. Data horrek berebiziko garrantzia izan zuen Nafarroako ondorengo historian. Erresumatik banatu eta Gaztelak okupatutako lurraldeetako biztanleek galdu egin zuten «nafar» kondizio politikoa eta «basko» (edo baskongado) adieraz ezagutuko zituzten ordutik aurrera, haien etnia-, hizkuntza- eta kultura-egoera bakarrik kontuan harturik. Erresuma independenteko nafarrek, aitzitik, «nafar» izendapenarekin segitu zuten. Haiengan iraun zuen izendapen politikoak, baina, bai batzuek, bai besteek, «baskoak» izaten segitu zuten.

XIII. mendean, Antso VII.a Indartsua hil ondoren, dinastia-lerroa Champagneko Etxera igaro zen eta Teobaldo I.a eta Teobaldo II.a izan ziren errege garrantzitsuenak. Haien kultura politikoaren jatorria franko edo germaniarraren hurbila izaki —pirinio-tarretik oso urruna—, Nafarroara iritsi zirenean ia ez zuten bertako kultura sozial eta politikoa. Egoera horren aurrean, «erresumak», halabeharrez, bere «usadio eta tradizio»en kodea idatzi behar izan zuen, erresumaren konstituzio gisa —esango genuke gaur egun—: Antzinako Forua eta Foru Orokorra. Mende horren bukaeran, 1274an, Joana I.a Nafarroakoa erregina ezkondu egin zen Frantziako Philippe le Bel-ekin, Filipe Ederrarekin, eta, beraz, bi koroak izan zituen pertsona berak hainbat urtetan. Garai hartan, gobernarien bitartez gobernatu zuten erresuma

baina gobernari haiek ere, beren errege-erreginen moduan, ez zuten ezagutzen erresumaren kultura politikoa.

Foruaren idazketaz gain, aldi hartan, Erdi Aroko Europako demokrazia aurreko gertakiririk interesgarrienetako bat sortu zen Nafarroan. Pedro Esartek (2007) sistematikoki aztertu du *Nafar infantzoiak* izeneko lanean —*Los infanzones navarros*—. Infantzoiaren Batzordeak dira eta horietatik ezagunena, Obanoskoa. Haren leloa da «*Pro libertate Patria, gens libera state*» («Aberri askearen alde, jende libre, jaiki»): erresistentziarako adierazpena da errege-erreginen bidegabekerien aurrean. Infantzoiaren Batzordeak erabakigarriak izan ziren, adibidez, erresumak Frantziatik banatzeko erabakia hartu zuenean, Luis Hutinen semea (Nafarroa eta Frantziako azken errege komuna garai hartan) oinordekorik utzi gabe hildakoa. Abagunea nafarrentzat onuragarria izan zen; izan ere, Frantzian Lege Salikoa —emakumeek ezin zuten erreinatu— indarrean zegoen bitartean, Nafarroan ez zegoen indarrean. Eta baliatu zuten. Erresumarekiko utzikeria zela-eta, Infantzoiaren Batzordeak, 1328an eta Larrasoañan, haren alaba Joana erregina izatera «behartu» zuten, eta Joana II.a izenarekin erreinatu zuen Filipe Evreuxekoa bere senarrarekin batera.

1328an gorteak bildu ziren Garesen. Kontratuko tesiak maila gorena jo zuen eta nafar gizartearen kultura politikoaren heldutasuna erakutsi zuen: bere printze-printzesei legeak diktatu zizkien haiengandik jaso beharrean, inguruko monarkien aldean. Praktikan hitzarmena zegoen nafar herriaren, erresumaren eta errege-erreginen artean. Haren arabera, legeak, foruak, usadioak eta ohiturak bete eta betearaziko zituztela zin egiten zuten ordezkari dinastikoek. Bete ezean, kudeaketa kendu eta baliogabetu zekiekeen. Lacarrak (1976) alderatu zituen prozedura hori eta Ingalaterrako usadioak, eta ondorioztatu zuenez, Europako erakundetze-prozesu oso gutxitan gertatu zen halako kontrol-mailarik jendartearen eskutik.

Erresumaren mendebaldeko lurraldeen Gaztelako konkistaren ondorioz, jauntxoaren arteko gatazkak hasi ziren bertan: «bando-gerrak» edo «ahaide nagusi»-en artekoak. Lurralde haietan, funtsean bi bando agertu ziren: ganboatarra edo Nafarroa-zalea, eta oinaztarra edo Gaztela-zalea. Gatazkak gertatu ziren behin eta berriro, eta iraunkorrak izan ziren. Ia XV. mendearen bukaera arte iraun zuten, harik eta Gaztelako errege Enrike IV.ak hiribilduen alde egin eta hiru euskal herrialdeentzako erregimen politikoa eratzea lortu arte. Hori bai, Gaztelaren interesen menpe zegoen erregimen politiko hura, eta azkenean, Euskal Foru Sistema gisa finkatu zen. XVI. mendearen bukaeran, sistema hori itun gisa idealizatu eta justifikatu zuen Esteban Garibaik, espainiar monarkiaren kronikagile ofizialak.

1328an erresuma berreskuratzearen ondorioz, Evreux dinastiarekin eta Infantzoiaren Batzordeei esker, 50 urte geroago erreforma berritzaileak egin zituzten. XIV. mendearen erdialdera zehaztu zituzten, Karlos II.a Gaiztoaren erregealdian Comptos Errege Ganbera ezarri zutenean: Europako erakunderik garrantzitsuenetakoa izan zen zergen eta estatuaren gastu publikoaren kontrolari dagokionez. Karlos II.aren zorra: nahasketa konplexua izan zuen garaiko Europako gatazka gehienetan. Parte hartu zuen Frantziaren eta Britainia Handiaren arteko Ehun Urteetako Gerran eta Gaztelako barne-gatazketan —Henrike Trastamarakoaren eta Petri Ankerraren arteko gerran—. Ezin ahanztz daiteke frantziar monarkiaren barruko arazoetan

muturra sartu zuela Normandiako jabetzei dagokienez: Parisen kartzelatu zuten gertakari hargatik. Askatu eta gero, Pariseko burgesen iraultza babestu zuen, Étienne Marcel buru, Karlosen aurka —Joan II.a Frantziako erregearen delfina—. Karlos preso zeukaten ingelesek, Ehun Urteetako Gerrako pasarte baten ondorioz. Gorabehera askoko bizitza politikoa izan zuen Karlos II.ak, eta bere buruaz gain, erresuma osoa ere arriskuan jarri zuen.

Haren oinordeko Karlos III.a Noblearekin, Nafarroak nolabaiteko bake-garaia bizi izan zuen, eta 1423ko «Batasunaren Pribilegio» izenekoak batu egin zuen hiru zatitan banatuta zegoen nafar hiriburua: San Cernin burgua, San Nikolas herria eta Navarrerria hiria (*Nabar-herria*); euren artean gatazkak zeuzkaten askotan. Gertakari hark lagundu egin zuen Iruñea hiria behin betiko batzen eta, horren ondorioz, bakea lortzen. Karlos III.aren oinordekoa zen Blanca bere alaba Joan II.a Aragoikoa printze maltzur eta anbizio handikoarekin ezkondu zen. Erregina hildakoan, Joan II.aren eta beronen seme Karlos Vianako printzearen arteko gatazka-epe luzea jasan zuen Nafarroak. Joan II.aren erregealdi luzearen ondoren Nafarroako egoera oso txarra zen. Foix sendiaren etorrerarekin 1483an, Katalina eta haren senar Joan Albretekoarekin, erresumako egitura politikoak modernizatzen hasi ziren, Europa osoan hedatuz zihoan pizkundearekin bat (Adot Lerga, 2005).

Espainiar historialariek Fernando «Katolikoa» izendatutakoak, zeina Joan II.a Aragoikoaren eta beronen bigarren emazte Joana Enriquez Gaztelako almirantearen alabaren semea zen eta Gaztelako Isabel erreginarekin ezkondu zegoen, asmo handinahi ugari zituen eta ez ziren baretu harik eta 1512an erresumaren konkista hasi eta 1529an bertako lurralde gehienak militarki okupatu zituen arte, nahiz eta azken hori ezin izan zuen ikusi 1516an hil egin baitzen. Gertakari hura beste mugarri bat izan zen Gaztelaren hedapen-fasean, ordurako Espainia moduan egituratuta politikoki. Inperio izateko gurariak eragin zuen Gaztelak «birkonkista» burutzea musulmanen aurka, Granadako Erresuma okupatu zutenean. Baina ez hori bakarrik: Atlantikoaz haragoko zabalpenari ekin zion Gaztelak. Afrika iparraldean hasi zuen, Kanariar Uharteekin jarraitu eta Amerikan bukatu zuen. European ere modu berean jardun zuten, estatu estrategikoak konkistatu eta okupatu: Nafarroako zati bat, Italiako penintsulako alde garrantzitsuak —biek Frantziari babes «arriskutsua» ematen ei ziotelako aitzakiarekin— eta Herbehereak. Portugalgo inperio-hedapena ere gertatu zen aldi berean Afrikan eta Ekialdean, baina haren edukia komertziala zen, ez lurraldeari lotutakoa —European, Kanariar Uharteetan eta Amerikan Espainiak gauzatu zuenaren aldean—.

Nafarroa Garaia konkistatu, okupatu eta Gaztelan sartu ondoren, Pirinioetatik iparraldeko erresumaren alde independenteak (Nafarroa Beherea) Biarno lurraldearekin batera estatu txiki bat egituratu zuen, kultura-arloan distira handikoa. Bertatik igaro ziren edo eragina izan zuten, adibidez, Leonardo da Vincik (Capra, 2008) edota Europako erlijio-arloko erreformistek eta intelektualek. Margarita Nafarroakoaren, Joana Albretekoaren eta haren seme Enrike III.a Nafarroakoa eta IV.a Frantziakoaren garaia izan zen, kultura-mailan distira handikoa (Fevre, 1955). Euskara, estatuaren botere politikoak bultzatuta, nazio- eta kultura-hizkuntza gisa agertu zen hainbat autoreren bitartez: garrantzitsuenak izan ziren Etxepare,

Leizarraga eta Axular. Zentzu horretan, oso garrantzitsua da Itun Berriaren itzulpena, 1571n, Joana III.a erreginak Joanes Leizarragari eskatutakoa. Biblia ohiko hizkuntzetara itzultzea modernizatzeko datu nabarmenezat hartu izan da beti. Horrela, adibidez, Luterok alemanezko bertsioa egin zuen eta 1534an inprimatu zuten.

Joana III.a Albretakoaren seme Enrike III.a Nafarroakoa Enrike IV.a Frantziakoa bihurtu zen eta bi erresumak gobernatu zituen aldi berean. Erlijio-arloan oreka eta tolerantzia lortu zuen Frantzian, Nanteseko Ediktuaren bitartez (1598). Europarentzat «*grand dessein*» edo egitasmo nagusia atondu zuen Sully higanotarekin batera —finantza-arloko bere superintendentea—. Europa batuaz zuen ikuspegia izan zen hori, zeinak Espainiako Austriako etxekoen inperio-handinahia geldiarazteko helburua zuen. 1609an asasinatu zuen Ravaillac delako katoliko fanatikoak. Frantziar monarkiak absolutismoaren ildoari jarraitu zion haren seme eta oinordeko Luis XIII. aren agintetik aurrera. Nafarroa Behereko, Lapurdiko, Zuberoako eta Biarnoko erlijio-gatazken aitzakiarekin, militarki okupatu zituen lurraldeok eta Batasunaren Dekretua argitaratu zuen 1620an; ondorioz, Nafarroa eta Biarno frantziar koroaren barruan sartu zituzten. Hau da, erresumaren independentziarekin amaitu zuten, eta aldi berean, monarkiaren barruan zeuden gainerako euskal lurraldeen foru-ereduak murriztu zituzten. Monarkiaren absolutismoak batasun-sistema zorrotza finkatu zuen Frantzian, zeina bururaino eraman zen Frantziako Iraultza delakoarekin: 1789an suntsitu zituen Frantziak euskal lurraldeetako foru-sistemaren arrasto guztiak.

Arestian aipatu bezala, Baskongadetako lurraldeetako bandoen arteko gatazkak bukatutakoan, XV. mendetik aurrera, Gaztelak lagundutako hiribilduen garaipenarekin, foru-sistema finkatu zen euskal lurralde horietan. Ondorengo garaian, burdingintza eta ontzigintza, arrantza eta merkataritza indartsu garatu ziren, baina gatazka sozialak gertatu ziren. Horren adierazle dira, adibidez, Gatzaren matxinada, hainbat matxinada oletan, eta *Zamakolada* —Argiaren Portuko gatazkari lotuta Bilbon—, batez ere XVII. eta XVIII. mendeetan. Bilboko Kontsulatua XVI. mendetik aurrera eta Caracaseko Konpainia Gipuzkoarra XVIII. mendean dira, hain zuzen, ekonomia-garapenaren adierazleak; «herriaren adiskideen» ekonomia-elkarteak ziren, herri intelektualarenak.

Frantziako Iraultzak eragin handia izan zuen XVIII. mendearen amaieran eta XIX.aren hasieran Pirinioetatik hegoaldeko Baskoniako aldean jazo ziren gertakarietan. Alde batetik, zeharkako eragina edo ideologikoa, iraultzaren oinarri teorikoen bitartez: Godoyrengan eragin zuten, Karlos IV.a Espainiakoaren gogoan, baita monarkia eta estatua ulertzeko moduan ere. Bestetik, zuzenagoa eta eragingarriagoa izan zen espainiar historialari eta intelektualen artean izan zuen eragina, zeinek foru-sistemaren eta haren oinarrian zeuden itunen aldeko teorien aurka egin zuten. Gainera, eragin zuzena eduki zuen Frantziak, iraultzaren ondoren, bere erakunde politikoek eragindako gerren bitartez. Horrela gertatu ziren Konbentzioaren gerrak 1793an edota «Frantzesadak» eta haien ondorioak 1812an, Napoleonekin.

Foru-sistemaren aurkako espainiar erasoaldia estua zen, eta, Fernando VII.a Espainiakoa hil zenean oinordekorik utzi gabe, karlismo izeneko errebolta piztu zen, 1833an: Carlos Maria Isidoren —Fernandoren anaia— alde egin zuten Espainiako

errege izateko, batez ere Euskal Herrian. Gerrate karlistek, horietako bi Baskonian eta hiru Katalunian eta Espainian, gerra-ahalegin oso handia eragin zuten: Nafarroa Garaiko biztanleriak eta lurraldeak sufritu zuten gehien, handiena eta zabalena izaki. Gatazken ondorioz, foru-sistema suntsitu zuten: oraindik erresuma zen tokian, Nafarroa Garaian, txarto izendatutako «hitzartutako» legearekin 1841eko abuztuan, lehen gerratearen ostean; Baskongadetan, berriz, 1876ko uztailan, bigarren gerratearen ondoren.

Politika-arloko hondamenaz gain, gatazka horiek ezin zenbatuzko hildakoak, presoak eta erbesteratuak eragin zituzten, dagokion galera demografikoarekin eta desintegrazio sozialarekin batera; azken hori lotuta egon zen bidelapurreria eta kriminalitatearekin. Krisi hura ere nabaritu zen hizkuntzan: atzerakada ikusgarria jasan zuen euskarak, batez ere Nafarroa Garaian eta Araban. Garaiko alde interesgarria eta positiboa izan zen Baskonia akitaniar edo kontinentaleko populazioaren inplikazioa gatazketan: une oro izan zen babeserako eta horniketarako toki, hegoaldean borrokatzen ziren karlistentzat. Baskoien antzinako batasuna berriro ere adierazi zen XIX. mendean.

Gerrate karlisten ondorioz egoera kaotikoa eta mingotsa sortu zen, eta egoera hark kultur mugimendu garrantzitsua eragin zuen Nafarroa Garaian: birsortu egin zituen memoria historikoa eta euskal hizkuntzarekiko estimua eta, oro har, ondarearekikoa. Nafarroako Euskara Elkartek eragin zuen hori, pertsona garrantzitsuekin, besteak beste: Campion, Iturralde Suit, Olabe, Oloriz eta beste askorekin.

XIX. mendea ixterakoan, Espainiako estatuaren eta haren probintzia berriaren, Nafarroaren, arteko 1841eko «lege-hitzarmenaren» iruzurra azaldu zen berriro. Lege horren arabera, Nafarroa Garaiak zerga-kupo bat eman behar zion aipatu estatuari urtero. German Gamazo espainiar ministroa ahalegindu zen hura aldatzen eta Nafarroaren erantzuna oso jendetsua izan zen: «Gamazada» izenaz ezagutu den fenomeno sozial eta politikoa. Manifestazio handien bitartez adierazi zen, herritarren babesarekin —100.000 nafarren sinadurak bildu zituzten protesta egiteko—, eta bestelako ekimenak ere gauzatu zituzten: Donostiako manifestazioetan hiru pertsona hil ziren eta Biasterin beste bat. Nafarroako ordezkariak Madrilgoei harrera egin zietenean Castejonen —gertakari horretako ekitaldi garrantzitsuenetakoa— espainiar estatuarekin negoziatzeko bizkaitar bi zeuden: Luis eta Sabino Arana Goiri. Handik gutxira, biek egin zuten jauzi garrantzitsua euskal naziotasunaren ulermenean. Garai hartan European naziotasunaren alde sortzen ari ziren mugimenduen testuinguruan kokatu zuten. Karlismoaren eskualde-ikuspegia gainditu zuten. «Euzkadi euzkotarren aberria dela» ezartzean, Baskonia nazio gisa definitu zuten, horrek guztiak zekarrenarekin independentziarako eskubideari zegokionez; eskubide hori aztertzen hasia zen nazioartean ere.

Arana Goiri anaien ikuspegia, halere, ez zegoen ondo zentratuta. Ez zuten hauteman euskaldunen independentziaren jatorria, eurek defendatzen zutena, ez zetorrela herrialde bakoitzetik bere aldetik; aitzitik, mende luzetan indarrean egon zen europar estatu baten parte ziren: Nafarroako Erresuma. Baskoniako historiaren ikuspegi desegoki horrek eraman zituen beste oker batera. Aintzat jo zuten

Euskal Herriak, izen gisa, euskaldunen herria barne hartzen zuela etnia, kultura eta hizkuntzari zegokienez, baina ez politikari zegokionez. Horrela, zalantzazko etimologia erabiliz, Euzkadi izen politikoa asmatzea erabaki zuten, konturatu gabe Euskal Herriak bazeukala berezko izen politikoa aspalditik. Izen hori Nafarroa zen.

2.2.2. Paradigmak gure historia interpretatzeko garaian

XVI. mende hasieran Espainiak erresumaren hegoaldea —Nafarroa Garaia— konkistatu ondoren, Baskoniako errealtatea hiru ikuspegi desberdinetatik interpretatu da nafar gizartean, Aro Moderno eta garaikidean. Kronologikoki bata bestearen atzetik etorri dira baina, halere, hiru ikuspegiak jarraitzen dute gure herriaren talde-irudimenean, aldi berean. Hiru planteamendu edo eredu horiek laburbil daitezke «foru», «bizkaitar» eta «nafar» paradigmetan.

Lehenak, foru-paradigmak, Baskonia eta estatu okupatzaileen arteko harremanak aurkeztan ditu lurralde bakoitzarekiko itun independente gisa. Batetik, Gaztelako Erresumaren eta Probintzia Baskongadoen —historian zehar horrela izendatutakoak— arteko harreman primitiboak, zehaztugabeko eta aspaldiko jatorriko «itun» gisa; baina, benetan, konkisten ondorengo gobernagarritasun-egokitzapenen ondorio dira, betiere Gaztelaren menpekoak. Bestetik, 1512ko inbasioaren osteko erresumaren sarrera Gaztelaren barruan, «sarrera *aequae principalis*» gisa planteatzen du. Hau da, berdinen artekoa, eta horregatik, «hitzartutakoa» ere. Eredu honen lehen paladina izan zen Garibai arrasatearra, probintzien ikuspuntutik eta XVI. mendean; Filipe II.aren monarkiaren kronikagilea izan zen Garibai. Ikuspuntu bertsua dauka Moret Aita S.J. Nafarroako Erresumako historialari ofizialak. Larramendiren ekarpena ere garrantzitsua da XVIII. mendean, bera ere jesuita, baita ohitura karlistaren pentsamenduaren parte handi batena ere, XIX.ean eta XX.aren lehen herenean.

Bigarrena gerra karlistak galdu ondoren sortu zen: paradigma «bizkaitarra» edo «sabindarra», haren sortzailearen izena aipatuz. Sabin Arana Goirik, garai hartako Europako eta munduko mugimendu nazionalekin ohartuta (ezin ahaztu haren telegrama Kubaren burujabetzarekin elkartasuna adierazteko, ondorioz kartzelatu baitzuten), ez zuen baztertu eredu forala; aitzitik, gainditu egin zuen, nazio-ikuspegian txertatuz. Sabin Aranak ikuspegi bizkaitarra zeukan eta Nafarroaren errealtateari buruz ez zuen nahikoa hausnartu, baina aurrerapauso erraldoia eman zuen esan zuenean euskaldunak ez direla, ez espainol, ez frantses, baizik eta euskaldunak soilik; nazio bat osatzen dutela eta, horregatik, independentziarako eskubidea daukatela: berezko estatua izateko eskubidea.

Hirugarren paradigma Xahok berak sumatu zuen lehen Gerra Karlistan. *Nafarroara bidaia euskaldunen matxinada bitartean* (1836) (*Viaje a Navarra durante la insurrección de los vascos*) liburuan islatu zuen euskal munduan, Baskonian, Nafarroak zeukan nagusitasuna. Era berean, haren iritziz, Nafarroako Erresuma da Euskal Herriak inoiz eraiki duen egitura politikoa gorena. Izan ere, herri subiranoa izan zen: garaiko europar erresuma eta estatuen pareko. Gaur egun, oraindik zehatzago adierazten da ikuspegi hori eta «nafar paradigma» deritzonaren oinarria da.

Paradigma foralak adierazten du zatitutako Baskonia baten errealtate historikoa. Ondo ondoko gatazken ondorioz konkistatu, okupatu eta zatitu zuten, baina bere egitura sozialari eusten jakin izan zuen eta, mugatuta, politikoari. Esan daiteke Aro Modernoko Foru-erregimena dela: «Berezko estatuaren subiranotasuna galtzeak eragin zuen hondoratzearen hondarra».

Bi faktorek presioa handitu zuten Euskal Herrian: iparretik, Frantziako Iraultzak, nafar, lapurtar eta zuberotar foruak bertan behera utzi zituen; eta hegotik, foruak deuseztatzeko politikak. Presio horren aurrean, garai hartan munduan zeuden planteamendu nazionalistetara hurbildu zen Aranaren planteamendu abertzalea, nahiz eta haien edukia funtsean etniari lotuta egon.

Nafar paradigmatik aurrekoak bildu eta gainditu egiten ditu eduki politikoarekin: euskaldunen estatuaren edukiarekin. Herritar ikuspegia dauka: munduaren egungo erronkei subjektu historiko bezala, beren estatu independentetik, aurre egin nahi dieten herritarren herrialdea. Herritartasuna planteatzen du lurralde-ikuspegitik: nafar estatua planteatzen du nortasuna etengabe sortzeko oinarritzko elementu gisa; bere hizkuntza eta gizarte- zein politika-kultura zabalduz elkargune gisa. Elkargunea norekin? Bestelako hizkuntza eta kulturetako pertsonekin; izan ere, bertara bizitzera eta lan egitera etortzean, ekarpena egingo digute. Gainera, paradigma honek euskal aldarrikapena aurkezten du nazioartean, eta ez Espainiako zein Frantziako estatuetako barne-arazo gisa.

3. MEMORIA, NORTASUNA ETA BOTEREA

3.1. Memoriaren eta historiaren balioa eta funtzioa

Egungo «gu» eraikitzea ahalbidetu duen prozesua ezagutzean datza historiaren balioa, hizkuntzarekin eta daukagun ondarearekin; gure gizartea definitzen duen gizarte- eta politika-kulturarekin, baita parte hartzen eta askotan pairatzen ditugun gatazkekin ere. Laburbilduz, hemen eta orain, nor garen eta zergatik garen horrelakoak azaltzean eta ulertzean datza; eta eraiki beharra daukagun etorkizuna babesteko baliagarria izan behar du. Nortasuna, argitzeko modua da; oso gauza garrantzitsua da baina, aldi berean, laidoztatu egiten dute nortasuna bermatuta daukatenek (beren estatuak bermatzen baitie nortasun hori). Bere nortasunaz jabetzen ez den jendarteak ez dauka etorkizunik.

Garaitutako herriak, batzuetan, memoria mito bihurtu du. Historiak lagundu egiten du mito horiek zuzentzen. Gainera, garaituak indarrez menderatu ondoren, garaileek memoria faltsutu eta ezkutatu zuten eta, batez ere memoria hori agerrarazten laguntzen du historiak. Albert Balcells-ek dioenez (2008), memoriak eta historiak bi funtzio betetzen dituzte prozesu sozialetan. Gauza bera gertatzen da soziologiarekin edota politika-zientziekin: ekintza sozialaz edota politikoaz bestelako helburuak dauzkate. Historiaren zientziak, era horretan, gizarte- eta politika-zientzien funtzio bertsua dauka, baina memoria, ekintza sozial eta politikotik gertuago dago. Funtsean, historia arrazoiaren bitartez mugitzen da, eta memoria hunkiberatasunaren bitartez. Memoria testigantzan oinarritzen da, erritu eta

zeremonien bitartez adierazten da eta sentimenduei heltzen die; historiak, aldiz, zientziaren bitartez mintzo da.

Arrisku bat bada: historiak jendartearen konformismo eszeptikoa eragitea, memoria desmitifikatzeko ahaleginean. Konformismo horrek, era berean, erraztasun handia dauka mito berriak txertatzeko, baina boterearen politika gisa sorturik eta modu ez kritikoan. Galtzaileen memoria historikoak bazeukan gaitasuna intsumisiorako eta mobilizaziorako, baina konformismoak «memoria» berri bati bide eman diezaioke: garaileen «memoria», otzantasuna eta konformismoa besterik eragiten ez duena.

3.2. Nortasuna eta memoria

Paul Ricoeur-en arabera (1990), Noiriel-ek aipatuta (2007), nortasunak bi alderdi dauzka. Bata, «berberatasuna» izendatu zuen (frantsesez 'mêmeté'), eta bestea, «identitatea» (frantsesez 'ipséité'). Lehenaren arabera, «A» eta «B» berdin-berdinak dira, hau da, «A» da «B»-ren berdina, «D» baten aurkaritzan, azken hori beste bien desberdina da-eta. Bigarrenak, aldiz, bere kontzientzia izendatzen du eta denboran jarraitutasuna aurreikusten du, hau da: memoria. Bere burua taldetzat daukan talde bateko kideek, horrela, jatorri berbera aldarrikatu eta haren iraunkortasuna egiaztatzen dute historian zehar.

Lehen ikusmoldeak aldiberekotasunaren ikuspegitik planteatzen du auzia, hau da, begirada kokatuz denboraren une zehatz batean: funtsean, orainaldian. Bigarrenak, aldiz, ikusmolde diakronikoa dauka, hots, historiaren alorrean murgilduta dago; kasu honetan, oroimen historikoan. Bistan denez, bi ikusmoldeek daukate gizabanakoaren osagaia, pertsonarena berarena; baina biak oinarritzen dira, eta batez ere bigarrena, denboran zehar eraikiz doan gizarte-egituran.

3.3. Nortasunaren ikuspegi holista

Gizatalde baten nortasuna osatzen duten ezaugarrien multzoa definitzeko orduan, izan herri, nazio edo dena delakoa, askoren iritziz, ondoan ipinitako elementuen multzoa da; eta multzo horrek, era berean, alderdi sozial eta banakakoak ditu, baina partzialki alboratzen joan daitezke muinaren aurka jo gabe. Uste dute ondoz ondoko osagaiak ezabatu daitezkeela pixkanaka, tipula baten geruzak balira bezala, oinarriarekin geratzeko: muinarekin. Uste dut tipulatik geruzak kentzen jarrai daitekeela, bata bestearen atzetik, ezerekin geratu arte: tipula gabe. Tipulak, nortasunak bezala, ez dauka muinik. Ondoz ondoko geruzak deuseztatzea ez da geruzen garrantziaren baliokidea nortasuna definitzean. Gizabanako eta jendarte bakoitzean, geruzen ordena eta garrantzia zehatza eta desberdina da, gainerakoen aldean.

Gakoa da geruza guztiek, edo ia guztiek, egon behar dutela; izan ere, geruzak hain daude elkarri atxikita, ezen bat kenduz gero, bestearen parte batzuk erauzi ditzakegun, eta horrela, azkenean, biak izango dira erabilezinak. Nortasuna ez da osatzen elementu disjuntuak batuz; elkarren menpeko ezaugarrien multzoak osatzen du, haien batuketak eta erlazioek zehazten dituzte gizarte-kultura zein politika-kultura, baita munduan izateko eta egoteko modua ere, jendarte bakoitzarenak zein norbanakoenak.

Nortasun-alderdiak dira gizarte- eta politika-kultura sortzea afera oso garrantzitsuekin, adibidez: berezko estatuaren eraikuntza, hots, Nafarroako Erresuma, mende askotan subiranoa; berezko zuzenbide- eta administrazio-sistema; komunitatearen alde lan egiteko moduak, auzolana kasu; baita jatorrizko hizkuntza ere, noski: euskara. Kulturaren kontzeptua ezagupen hutsetara mugatzeak —izan kontzeptu zientifikoak, teknikoak, etikoak edota artistikoak—, eta dagokion balioztatzeak, kontzeptua hein handi batean zikiratzea ekartzen du. Duda barik, guztiak dira ondare-kontzeptuak, eta horregatik ere, identitateari dagozkionak. Baina haiek bakarrik, bakoitza bere kabuz, ez dute osatzen kultura bat.

3.3.1. Memoria historikoa

Lan honen lehen zatian azaldu da memoria historikoak daukan garrantzia edozein gizartetan. Memoria historikoa funtsezko osagaia da haren nortasuna eraikitzeko. Herri baten bilakaera markatu zuten gertakarien hautemateen multzo hori —garaipen edo porrot militarrek— baino garrantzitsuagoak dira edozein gizarte eraikitzeko oinarritzko gertakariak: adibidez, berezko hizkuntza. Gertakari historikoak, gure kasuan: Orreagako guda, Gaztelaren konkistak, batez ere 1200 eta 1512-1530ekoak, Marotoren traizioa Bergaran lehen guda karlistaren amaieran, 1936ko gerra eta haren gudak eta bonbardaketak herritar babesgabeen gainean, Euzkadiko Gobernuia eta haren independentzia ia erabatekoa, frankismoaren errepresioa eta herri-erantzunak, etab. Horiek denak dira gure nortasunaren parte.

3.3.2. Memoria-tokiak

Aipatu gertakarietako asko tokietan zehaztu daitezke: paisaietan, herri eta hirietan, eraikin zehatzetan eta beste askotan. Memoriaren politikan, Albert Balcells-ek dioen bezala, «historialariak jardun dezake historia-aholkulari gisa, baina ez hautatutako aukeren zientifikotasunaren bermatzaile gisa...». Aukerak gureak dira; Noain eta Amaiur guk aukeratu genituen, baita Gernika eta Lemoiz ere. Nire ustez, ondokoak osatzen du nortasunaren gakoa: gure historiari buruz egiten dugun kontaketa, jazotakoaz, eta gaurkotasunetik nola ikusten dugun; hau da, memoriaren ikuspegitik nola ikusten dugun.

Eraikin fisikoetan topa daitezke estatuaren eraikuntzaren islak: Iruñea, Lizarra, Erriberri eta abarretako jauregietan, baita Armategi-Buru jauregietan ere. Edota funtzio politiko oso garrantzitsua betetzen zuten eraikin erlijiosoetan: adibidez, Iruñeko katedralean. Gure gizarte-kulturari dagozkion herri-erakundeak, auzolana kasu, fisikoki agertzen dira hainbat tokitan; horiek dira silo, kontzeju-etxe, udaletxe, baseliza, eliza eta beste asko.

3.3.3. Hizkuntza

Hizkuntza bera da oinarritzko osagaietako bat berezko hizkuntza daukan gizartea definitzerakoan. Euskal nortasunarentzat euskara da osagai identitario nagusia.

Berezko hizkuntza ez da soil-soilik, nahiz eta hori ere baden, edozein gizarteren kulturaren zati bat. Hizkuntzak irudikatzen du jendartearen mamirik sakonena, osatzen du, eta naturaren gainerako osagaiekiko eta beste jendarte batzuekiko harremanaren sakontasunari erantzuten dio. Hizkuntza produkzio-indar zuzena da; izan ere, dagozkion *know-how* direlakoan edozein ustiaketa, ekoizpen edo egintza, metaketa eta transmisio onartzen dituen tresna da.

Maila sinbolikoan, hizkuntzak natur indarren eta mitoen irudikapena ezartzea ahalbidetzen du, eta irudikapen horien bitartez hautematen ditu jendarteak natur indarrak eta mitoak bere prozesu historikoan zehar. Hizkuntzak zentzua ematen dio gizarte-harremanak ezartzeko moduari, harreman horiek berek eraikitzen duten bitartean. Hizkuntzak ezartzen du munduaren eta naturarekiko harremanen ikuskera bat, espazioa eta denbora antzemateko modu berezi bat (E. Sapir, 1921 eta B. L. Whorf, 1956).

Euskaraz gain, herrialdeko hizkuntzatzat hartu behar ditugu hainbat hizkuntza erromaniko; historikoki nafarrera —gaztelaniak ordezkaturia, batez ere konkistaren ondoren—, biarnesa edo gaskoia, okzitaniera eta frantsesa —aurreko biak menderatu eta murriztu dituen ia desagerrarazi arte—.

3.3.4. *Kultura soziala eta politikoa*

Euskal Herriko kultura soziala eta politikoa elkarri lotuta egon dira eta mekanikoki zaila da banatzea. Euskal kultura sozialaren ezaugarrietako askok irudikapen politikoa izan dute prozesu historikoan, baina beste batzuek ez. Euskal Herriko kultura politikoa, hein handi batean, bere estatuak —Nafarroak— egindako nazionalizazio-lanetik dator (Lacarra, 1976). Foru-erakundearen lanetik ere elikatu zen; izan ere, hainbat monarkiaren zerbitzura egon arren —XV. mendera arte gaztelaua, XVI. mendetik aurrera espainiarra eta XVII.etik frantziarra—, kultura politikoa ildo berean sortzen jarraitu zuten, baina indar okupatzaileekin gatazka gero eta biziagoekin.

Euskal kultura soziala, bestalde, elkartasunaren kultura gisa adierazten da, baita erantzukizun, konfiantza, lankidetzat eta zintzotasunaren kultura gisa ere. Era berean, lanaren kultura da, modu obsesiboan ere: gauzak «egin behar dira, edozelan ere». Adierazpen- eta ekintza-kultura ere bada, zehaztasunik gabeko teoriatarako tarterik gabe. Oinarrian komunitatearen kultura da. Haren adierazpen berezietako bat auzolana edo lan-sistema komuna da, komunitatearen mesederako eta ordainsaririk gabea.

Lanaren, konfiantzaren eta zintzotasunaren kulturak bereizten ditu, hain zuzen, epe luzerako proiektu konplexuak arrakastaz bukatzeko gai izan diren gizarteak. Proiektu horien artean daude XVIII., XIX. eta XX. mendeetan sortutako enpresa kapitalista eta industrialak, baita kooperatiba-mugimendua ere. Esaten zenez, hitzaren balioa, «euskaldunaren hitza», kultura sozial horren funtsezko osagaia da. Kultura horri eta praktika burutapen teorikoen gainetik gailendu izanari esker sortu ziren ikastolen mugimendua edota Arrasateko kooperatiba-taldea, baldintza politikoak aurkakoak baziren ere —frankismoan esaterako—.

Euskal jendartearen elkartasun bereizgarria adierazi zen 36ko gerra osteko exodo misiolarian, eta jarraipena eduki zuen Mendebaldeko munduaren sekularizazioaren zein Vatikanoko II. Kontzilioaren ostean; Hego eta Erdialdeko Amerikako zein munduko beste txoko batzuetako borrokei emandako babesean izan zuen jarraipena, baita GKE askoren sorreran ere. Gaitasun solidario hori beste kontu batzuetan ere ikus daiteke, besteak beste, odol- eta organo-emateetan, non biztanleriarekiko emailen kopuruari dagokionez, tarte handiarekin nabarmentzen diren Araba, Bizkaia zein Gipuzkoa, Errioxa eta Nafarroa Garaiarekin batera, Espainiako estatuko beste herrialdeetatik.

Elkartasunaren kultura hori ere adierazi zen frankismoaren azken aldian eta «trantsizioan» (demokratiko gisa gaizki izendatua) horren garrantzitsuak izan ziren greba eta langile-borroketan. Aldarrikapen garrantzitsuak izan ziren baina ez zuten baliagarritasun politiko nahikorik izan Espainiako estatuan benetako egitura demokratikoa —ez unitarioa— erdiesteko, Franco hil ondoren.

Taldetan antolatzeko joerarekin oso inplikaturik dago kultura hau, eta, nolabaiteko garrantzia daukaten herrietan, kaleko dinamikekin ere. Taldetan gizarte-ekintza asko garatzeko moduan antzematen da. Ohitura handia dago, adibidez, elkarreterarako: gastronomikoak, mendikoak eta kirol-arlokoak, baita kulturalak eta politikoak ere. Edozein motatako jaiak antolatzeko gaitasunean ere adierazten da: hizkuntzaren aldekoak, kulturaren aldekoak edota gozatzekoak soilik. Abesbatzak eta talde-kantuak, oro har, ere badira ezaugarri garrantzitsuak. Herri-arkitekturan adierazitako gune zehatzak eta jakinak ere dira arlo sozialaren alde dena ematen duen talde-kultura horren lekuko. Lagun-koadrilen izate hutsa da kultura horren adierazpena.

Juan Antonio Urbeltzek dio (2011) euskaldunok historikoki osatzen dugula berdintasunezko jendartea, eta haren ezaugarri bat dela heroien falta, gainerako berdintasunezko jendarteetan bezala; gainera, emakumeen eragina, inplizituki, handia da. Horren adierazle da inposatutako agintearen eta titulu ofizialekin janzten denaren gutxiespen argia. Usadio eta ohiturak aginte ofizialari aurrez aurre jartzeko gaitasuna da, baita berezko aginteari ere, foru-atzotitzetan adierazten denez: «men egin, baina ez da betetzen». Horren adibide dira Espainiak eta Frantziak inposatutako nahitaezko errekrutatzeei eginiko ukatzeak. «Kintak» dira (Esparza, 1994): euskal foru-sistema suntsitzearen ondorioa, zeina subiranotasun historikoaren hondarra baitzen. Iragan mendeko 80ko urteetan, espainiar armadari intsumisioa egin zioten gehienak euskaldunak ziren, erabateko gehiengoa, kultura sozial horren emaitza, duda barik.

Euskal kultura sozialak taldea eta komunitate-sena azaleratzea errazten du eta aipatu adierazpenetan azaltzen da, baita beste askotan ere.

Alderdi askotan, kultura politikoa sozialarekin lotuta dago eta haren luzapena besterik ez da, batez ere auzi publikoari lotutako proiektuei dagokienez. Euskal kultura politikoa ezaugarri garrantzitsuena da auto-antolatzeko, birsortzeko eta berreraikitzeko gaitasuna, botere- edota krisi-hutsuneen aurrean.

Zentzu horretan, ikusgarria izan da euskal herritarren gaitasuna beren agintea eta lurraldea antolatzeko, horretarako aukera izan dutenean. XIX. mendeko gatazketan gertatu zen, Napoleonen aurkako gerran. Javier Minak eta Francisco Espoz eta Minak euskal-nafar gudaroste bat eratu zuten. Berezko antolaketa politikoaren oinarriak ezarri zituen gudaroste hark, hispaniar monarkiaren botere-krisiaren aurrean. Gudarosteak bere osotasunean menderatzen zuen lurraldea. Bi gerra karlistetan (1833-1839 eta 1872-1876), euskal lurraldean, egiazko estatu independenteen pareko erakunde politiko bi sortu zituzten, garai hartan ohikoak ziren ezaugarri guztiekin: berezko administrazioa, armada, ogasuna eta moneta, nazioarteko harremanak, etab. Baiezta daiteke, mende hartan, Euskal Herriko hegoaldeko lurraldeek hiru garai desberdin bizi izan zituztela, praktikan espainiar monarkiaren independentea zen antolaketa politikoarekin.

Era berean, bertako dinastien amaiera eta gero, 1234an Antso VII.a Indartsua hildakoan, Champagneko dinastia sartu zen Nafarroan, haren alaba baten ezkontzaren bitartez. Familia haren kultura politikoa, aldiz, eredu franko edo germaniarrari zegokion, eta eredu hartan, buruzagitza zen botere-iturria. Pininiotar kulturarekin aurrez aurre talka egiten zuen. Ondorioz, Champagneko dinastiaren erregealdian, Nafarroarentzat garrantzi politiko handiko gertaera bi jazo ziren. Batetik, Foru Orokorren idazketa, eta, bestetik, Infanzoiaren Batzordeen sorrera, erresuma ez zetoerelako bat gobernu-molde berriekin, eta berezko kultura politikoaren adierazle gisa.

Illo berean, interes handiko —eta denboran aurrekoaren hurbila— beste kasu bat aditzera eman zen Nafarroako eta Frantziako erresumek bat egitean, Joana Champagnekoaren eta Frantziako Filipe Ederraren arteko ezkontzaren bitartez. Nafarroako gobernuaren aldi oso txarraren ondoren eta frantziar koroaren oinordetzarako lege salikoaren aitzakiarekin, Karlos Burusoila hiltzean, Nafarroak independentzia berreskuratu zuen, eta Infanzoiaren Batzordeei esker, Joana haren iloba izendatu zuten erregina, Evreuxeko Filiperekin ezkontuta zegoena. Biak izendatu zituzten errege-erreginak 1328ko Larrasoañako gorteetan.

Gaztelak 1200ean okupatutako Nafarroako mendebaldeko lurraldeetan «gerraren jaun»en arteko gatazka-aldi bat bizi izan zen. «Ahaide nagusi»en arteko gatazkak —ganboatarrak edo Nafarroa-zaleak eta oinaztarrak edo Gaztela-zaleak— hiribilduen garaipenarekin eta hiru euskal herrialdeentzako foru-erregimen politikoaren ezarpenarekin amaitu ziren, Gaztelako monarkiaren babesarekin. Antzinako piriniotar zuzenbide-sistematik eta XII. mendeko erregealdiaren erakundetzetik jasotako kultura politikoak eragin zituen, horrela, bere araberrako antolaketa eta erakundeak.

Gaitasun hori zehaztu zen, batez ere, muturreko egoeretan. Garrantzi politiko handiena izan zuen, duda barik, oraindik Nafarroako Erresuma zen lurraldearen konkistak, inbasioak eta okupazioak (1512-1530). Burgosko Gorteetan 1515ean, erresumaren alde bakarreko eta behartutako anexioa gertatzean Gaztelarekin, teorikoki, berezko erakunde eta legeak mantendu zituzten, horien artean gorteak. Erakunde eta legeok praktikan Espainiaren inperio-interesen menpe geratu baziren ere, erresumak mantendutako autonomia-mailak nabarmendu beharreko

gertakari multzoa eragin zuen, oso garatutako eta ezbeharren aurrean zaildutako kultura politikoarekin elkartuta. Lehen adibidea da erresumako gorteen kemena bera: Gaztelako Gorteen baino jarduera askoz ere biziagoa izan zuten konkistaren ondotik iraun zuten hiru mendeetan. Berezko kultura politikoa ere uneko erronkei erantzuteko gai izan zen, harritzeko moduko bizitasun eta eraginkortasuna erakutsi zuten erakunde berriak eratuz; hala nola Errege Batzordea edota erresumako aldundia (Huici, 1963 eta 1996; eta Sorauren, 1998). Erresumaren erakundetzeak, 1512-1530eko inbasio eta konkistaren ondoren, Baskongadetako probintziek XV. mendean zeukatena baino sistema konplexuagoa eta osotuagoa eratu zuen, baina parekoa alderdi askotan.

Baskoniak pairatutako azken gerran (1936-37) garrantzi handiko pasarte bat gertatu zen, ez bakarrik sinbolikoki, benetan baizik —nahiz eta denbora-tarte nahiko laburrean eta XIX. mendeko gatazken lurraldea baino eremu txikiagoan gertatu—. Aldi hartan, kultura politikoak berezko gaitasuna erakutsi zuen antolatzeko, 1937ko Bizkaian, Jose Antonio Agirreren gobernuarekin. Antolatutako estatu independente baten ezaugarri guztiak agertu ziren berriro ere, itxurazko soiltasunarekin.

Espainian faxismoak garaitu ondoren, baita diktadura frankistan zehar ere, ahalmen hori adierazi zen, beste behin ere, jendarte zibil zabalaren eta mardularen sorreraren bitartez, Espainiako estatutik at, askotariko adierazpenekin. Eremu horretan daude ikastolak, Mondragon taldeko kooperatibak eta beste egitasmo asko. *Egunkaria* eta *Egin* egunkariak ezin izango ziren sortu jendarte zibil indartsurik eta ondo errotutako kultura politikorik gabe. Are gutxiago egunkari bi horien itxiera arin eta arbitrarioaren ondoren, haien ordezkio proiektuak, *Berria* eta *Gara*.

3.3.5. Lurraldea eta paisaia

Lurraldea da lehen mailako beste osagai identitario bat. Gizarte bakoitza, baita bertako izaki bizidunen eta lur-egituren arteko harreman ekologiko orokorrak ere, garatzen diren eremua da lurraldea; bai morfologiaren ikuspegitik, bai klimaren ikuspegitik. Lurraldea da herrialdea. Gizarteek harreman estua daukate beren lurraldearekin; areago, birsortze- eta sinbiosi-fluxu etengabea daukate harekin. Gizatalde bat iraunkorki ezartzen den lur-eremuak osatzen ditu haren antolaketa sozialaren alderdi asko, funtsean, lanarenak eta jabetzarenak; baina, era berean, antolaketa sozialak berak eraldatzen du, paisaia bihurtzen du, eta lurraldea ordenatzen du. Elkarrenganako aldaketa iraunkorra bizi dute eta ez dago jendarte egonkorrik lurralderik gabe.

Paisaia da populazioaren eta lurraldearen arteko sintesia; lurraldea bizigarria da eta garapen soziala ahalbidetzen du. Ildo horretan, paisaia asko hartzen dira «memoria-tokitza». Orreaga, memoria historikoaren lehen mailako gertakari moduan aipatua, gainera, gure erakunde politiko subiranoaren jatorrizko «memoria-tokia» ere bada. Baita, adibidez, Bardea ere, mendetan transhumantzia oinarritutako artzain-bizitza garatu den toki gisa. Izan daiteke ere San Adriango igarobidea Zegaman, antzinako komunikazio-bideen ikur gisa; edo gure kostara iristen ziren baleak behatzen zituzten talaia asko. Gernika ere bada, bai hiribildua, bai Juntetxea.

3.4. Nortasuna eta botere politikoa

Gaur egun, eraturako estatu guztiek —gure inguruan gisa horretan dihardutenak— gero eta argiago daukate beren nortasuna aldarrikatzeko beharra —areago, berriro asmatzeko—, kohesio sozialerako oinarritzko alderdi gisa. Globalizaziotik eta migrazioetatik eratorritako arazoek prozesu bat indartu eta azkartu dute. Prozesu hori abiatu zen nazio-estatuak indarra erabiltzen hastean, beren menpeko jendarteak nazionalizatzeko, hau da, XIX. mendean. Gainera, aipatu migrazioak «Mendebaldeak» ezarritako menderatze eta kontrolaren ondorio dira, noren gainean eta hirugarren edo laugarren mundukoak deritzen herrialdeen gainean.

Estatuek «nazio-nortasuna» indartzeko joera daukate gobernatzen duten edo dituzten gizarteetan. Ondo baino hobeto dakite memoria, gertakari eta tokietan zehaztuta, lehen mailako alderdia dela nortasun hori berresteko. Gure kasuan, Katalunian bezala, Espainiako eta Frantziako estatuen menpeko jendarteetan bizi gara. Badakigu jakin zein baketsuak izan ziren egoera honetara iristeko prozesuak: gerrak, okupazioak, biztanleriaren lekualdatzeak, hizkuntzaren eta kulturaren jazarpena, erakunde propioen ordezkapena, etab. Albert Balcells-ek dioenez (2008), memoria da —gertakariak zein tokiak— «mobilizaziorako tresna, heziketarako, taldearen eta haren ikuspen publikoaren identifikaziorako». Estatu biek inposatzen dituzte beren gertakariak eta «memoria» izatea merezi ei duten tokiak, menpekoenak ahaztuz, gutxietsiz eta desitxuratuz. Horregatik azken horiei eustea edo horiek berreskuratzea, porroten emaitza izan badira, lehen mailako elementu askatzaileak dira.

Menpeko nazioek nazioarteko hitzarmenean subjektu politiko gisa lekua izateko asmoa badaukate —izen eta abizenekin, ahots eta boto-eskubidearekin—, argi izan behar dute (dugu) estatu propio baterako sarbidea edukitzea nahitaezko baldintza dela hori lortzeko. Era berean, estatu menderatzaile «izendaezinak» makurrarazteko gaitasunak —dudarik ez izateko, gure kasuan Espainia eta Frantzia— kohesio sozial oso indartsua behar du. Menderatzeko eta okupatzeko haien borondatea garaitu ahal izateko, nahitaez argi eduki behar da nortasun bereizi bakoitzaren eraketa, berezko historia eta ondasun orokorra ezagutu eta interpretatzeko beharra. Memoria —gertakariak zein tokiak— lehen mailako osagaia da arlo honetan.

Gaurko munduan irauteko, nortasuna da oinarritzko osagaia edozein herrirentzat, duen zentzu osoan; areago menderaturako jendarte batentzat. Gainera, oinarritzko alderdia da burujabetzaren aldeko borroka planteatzeko, arrakastarako aukerak izango baditu. Memoria historikoari zor zaion balioa ematea —gertakariei zein tokiei— lehen mailako osagai askatzailea da. Subiranotasunik gabe ez dago demokraziarik, eta menderaturako jendarte bat ezin da izan demokratikoa. Menderaturako jendarte batentzakt okerrena da «gutxiengo»tzat hartzea bere burua menderatzailearen «gehiengo»aren barruan. Berezko memoria-erreferenteak galtzea da biderik ziurrena helmuga horretara iristeko.

Gatazka sozial eta politikoaren bitartez eskura daitekeen nagusitasunak kontzeptu horien guztien zentzua zehaztu dezake baina, betiere, berezko estatua erdiesteko ikuspegiarekin. Hori lortzea, Nafarroarena gure kasuan, berme eraginkor bakarra da nortasuna garatzeko, baina mendekotasunaren emaitza izateko beldurrik

gabe, kohesionatutako jendarte batean, demokratikoa eta egungo erronkei aurre egiteko gai dena.

3.5. Aldarrikapen iraunkorra nortasun-alderdi gisa

Nafarroako Erresumaren ikuspegi politikoaren inguruan egituratuta, eta gainera, mendebaldeko lurraldeak Gaztelak konkistatu ondoren —«itsasoko Nafarroa» izenaz ezaguna (Urzainki eta Olaizola, 1998) lehenik 1200ean, eta ondoren erresuma osoa (1512-1530ean Nafarroa Garaia eta 1620an Beherea)—, euskal jendartearen historiaren ezaugarri bat da galdutako independentziaren aldarri iraunkorra, edo bere kasuan, erakunde politikoena. Azken horiek, espainiar interesek inposatuta eta menderatuta, armistizio moduan lortu eta hitzarmen bezala justifikatu bazituzten ere, monarkia espainiarrarenaz bestelako jarduera politikoa zerabilten: foru-egintzan oinarritzen ziren eta haien jatorria berezko zuzenbide-sistema zen (Piriniotar Zuzenbide izenaz ere ezaguna).

Karlos Vianako printzeak, Blanca erreginaren seme eta Karlos III.a Noblearen bilobak, *Nafarroako errege-erreginen kronika* idatzi zuen 1454an. Idazki horretan, 1200eko gertakariak aipatzen dira eta, bertan ondorioztatu daitekeenez, 254 urte geroago, Nafarroako oinordekoak bidegabe zeritzon konkista militarari. Hitzik ez da ageri «borondatezko entzei» buruz, ezta «hitzarmenei» buruz ere. Esan daiteke aldarrikapenaren iraunkortasun hori, inbasioaren memoria historikoan oinarrituta, etengabea izan zela gutxienez XV. mendetik aurrera. Iraunkortasunak molde desberdina izan zuen 1200ean menderatutako mendebaldeko lurraldeetan: aldarrikapena mugatu egin zen Gaztelak sortutako sistemara —bandoen arteko gatazkak eta hiribilduek nagusitasuna lortu ondorengoa—.

Ondorioz, Baskoniaren hegoaldeko bi zatien aldarrikapenen mamia berbera bazen ere, adierazteko modua desberdina zen. Botereak egoera hori baliatu zuen, lotsagabeki —lehenik gaztelauak eta XVI. mendetik aurrera espainiarrak—, euskaldunak elkarren aurka ipintzeko. Ganboatarren (Nafarroa-zaleak) eta oinaztarren (Gaztela-zaleak) arteko gatazketan barne-urraketa adierazten zen, okupazioaren ondorioz. 1512an hasitako okupazio-gerran, Europako leku askotako soldatapeko tropak erabili zituen Espainiak. Nafarroak ere egin zuen, baina Espainiak ahailekin berezia egin zuen Baskongadetako tropak erabiltzeko Nafarroako zilegizko errege-erreginen eta erakundeen aurka.

XVII. mendearen hasieran, Arnaud Oihenart zuberotarrak, *Notitia Utriusque Vasconiae* (1656) ospetsuaren egileak, erresumaren konkistarekin lotutako hainbat lan idatzi zituen. 1625ean argitaratu zuen *Déclaration historique de l'injuste usurpation et retention de la Navarre par les espagnols* delako adierazpena. Ondoren, *Mémoire touchant l'usurpation de la Navarre* delako memoria idatzi zuen —geroago, *Navarre injuste rea; sive de Navarre regno contra ius fasque occupato* izenburuarekin jasotakoa—. Oihenart Donapaleun bizi izan zen, bertako sindiko izan zen eta nafartzat zeukan bere burua. 1512ko inbasioari buruz Iruñean gordeta zegoen informazioa eskuratzen saiatu zen, baina espainiar aginteek horretarako baimena ukatu zioten.

Interesgarria zera da, beste behin ere, Vianako printzearen kasuan bezala, Nafarroa askean bizi izan ziren pertsonak aldarrikatu zutela okupazioaren bidegabekeria. Luis XIII.a Frantziakoak aldarrikatutako Batasunerako Dekretuak eragin zuen bi erresumak batzea —Nafarroa eta Frantzia—, eta berezko erakundeak murrizketa handia, bai Nafarroako erakundeena, bai Lapurdi, Zuberoa eta Biarnoko erakundeena. Halere, Oihenarten aldarrikapenak —espainiar okupazio-sistemarekiko pertsona erabat independentea— garrantzi handia izan zuen Nafarroa Garaiko okupazioaren bidegabekeria salatzen jarraitzeko.

XVIII. mendearen bukaerako foru-sistemaren aurkako aurrez aurreko eraso zuzenaren aurrean, Euskal Herri osoa elkartu zen, batez ere lehen gerra karlistan. Hegoaldeko lurraldeek, mendebaldekoek zein ekialdekoek, Zumalakarregi buru, fronte bakarra osatu zuten Espainiako tropa isabelarren aurrean. Iparraldeko lurraldeak hornidurarako gune gisa erabili zituzten —militarren terminologian intendentziarako—, baita logistika-laguntzarako ere.

XIX. mendeko gerren porrotaren ondoren eta Nafarroako eta Baskongadetako foru-sistemak ia erabat suntsitu ondoren, aldarrikapen orokortuena zen «foruen berreskuratze osoa», hau da, 1839ko Bergarako Hitzarmenaren aurreko egoerara itzultzea. Aldi berean, Arana Goiri anaien planteamenduak eragindako aldaketa kualitatiboa gauzatu zen. Planteamendu horren bitartez, aldarrikapenak nazio-izaera eskuratu zuen —hitzaren esanahi modernoan—, baina 1200, 1512 eta 1620ko konkista eta okupazio bidegabeei erreferentzia zehatzik egin gabe.

Nafar paradigmen mailakako onespenezekin eta egungo aldarrikapenarekin nazioarteko harremanen arazotzat hartzen da euskal egoera, okupazio eta «transferentzia» bidegabetik eratorria (Hobbes, 1651 eta Urzainki, 2003). Horrela, auzia Nazioarteko Zuzenbideko terminoetan kokatzean —eta ez soilik Espainiaren eta Frantziaren barne-arazoa balitz bezala—, pauso garrantzitsua ematea lortu da.

4. ONDORIOA

Giza ezagupenaren edozein arlotako gertakariak interpretatu, azaldu eta ulertzeko komenigarria da hurbilketa bat egitea, zehazki, gertakari ezagunak ahalik eta hoberen biltzen dituen hurbilketa; eta, aldi berean, gertakari berriak aurreikustea erre-marjina ahalik eta txikienez. Komeni da hautatzea eta erabiltzea une horretarako paradigma zuzena eta neurrikoa.

Nafar paradigma izendatu dugunaren bitartez ulertzen da hoberen «euskal arazoa»; hots, gure gizarteak bi estatu menderatzaileekiko daukan auziaren gako historikoak, lurraldearen eta herriaren gainean. Paradigma horrek erakusten du auziaren egiazko historia: Goi Erdi Arotik herrialde subiranioa eraikitzeke gai izan zen, eta estatu horrek, hain zuzen, «nazionalizazio» nahiko goiztiarra ahalbidetu zuen.

Nafar paradigmak, gainera, euskal egoeraren azterketa argien eta sinpleen kokatzen du europar testuinguruan. Gatazka aurkeztu du nazioarteko auzi gisa: Gaztela-Espainiako zein Frantziako absolutismoek —inperialismoek geroago—

nazio-estatu baten izatea indarrez kendu zuten, konkistaren eta kolonizazioaren bitartez, kulturak inposatuz, erakundeak eta, zenbait kasutan, populazioak ere ordezkatur.

Euskal gatazka, beste paradigma bietako baten ikuspegitik —forala zein bizkaitarra—, barneko gatazka politikotzat ulertzen da, bai Espainian —iberiar aldean—, bai Frantzian —akitaniarrean—. Nafar paradigmaten bitartez, ordea, nazioarteko dimentsioa berreskuratzen du.

Etorkizunari begira, nazio-proiektuaren ikuspegi zibikoa errazten du: nafar paradigma ez da oinarrituko Antzinako Erregimenaren egituretan —paradigma foralaren kasua— ezta etnia- edo hizkuntza-oinarrietan ere —paradigma bizkaitarraren kasua (nazionalismo etnikoa)—. Herritartasunean kokatutako testuinguruan sartzen gaitu nafar paradigmatik, legeak definitutako eskubideetatik eta betebeharretatik abiatuta, bere unibertsaltasunean eta lurraldetasunean, azken batean zuzenbide-estatuan eta abertzaletasun konstituzionalean; horiek funtsezko osagaiak dira edozein naziok gauza dezan askatasunez antolatzeke eskubidea XXI. mendean.

BIBLIOGRAFIA

- Adot Lerga, A. (2005): *Juan de Albret y Catalina de Foix o la defensa del Estado navarro (1483-1517)*, Pamiela, Iruñea.
- Agerre Azpilikueta (*Axular*), P. (1643): *Gero*, Bordele [Iruñea, 2003, Diario de Navarra].
- Apat-Echerbarne, ikusi Irigaray, A.
- Aranguren, G. (ed.) (2002): *Nabarra. Estado político de Vasconia*, Nabarralde-Pamiela, Iruñea.
- Ariznabarreta, J. (2007): *Pueblo y poder. Cuadernos para la reconstrucción de la razón*, Zarautz.
- Aron, R. (1964): *Dimensions de la conscience historique*, Librairie Plon, Paris.
- Astibia, H. (2005): *Trece o más consideraciones sobre el patrimonio*, Haria 13, Iruñea.
- Axular, P., ikusi Agerre Azpilikueta, P.
- Balcells, A. (2008): *Llocs de memòria dels catalans*, Proa, Bartzelona.
- Benjamin, W. (1938): *Tesis de filosofía de la historia*, <http://www.archivochile.com/Ideas_Autores/benjaminw/esc_frank_benjam0007.pdf>.
- Benjamin, W. (2009): *Paris, capitale du XIXe siècle. Le livre des passages*, Les Éditions du Cerf, Paris.
- Capra, F. (2008): *La ciencia de Leonardo. La naturaleza profunda de la mente del gran genio del Renacimiento*, Anagrama, Bartzelona.
- Erresuma 1 (2001), *Herrien askatasun-eskubidea*.
- Esarte Muniain, P. (2001): *Navarra, 1512-1530. Conquista, ocupación y sometimiento militar, civil y eclesiástico*, Pamiela, Iruñea.
- , (2007): *Represión y reparto del Estado navarro (siglos XVI y XVII). La nación vasca, expolio franco-español*, Pamiela, Iruñea.
- , (2007): *Los infanzones navarros (siglos XIII y XIV)*, Nabarralde, Iruñea.
- , (2010): *La Batalla de San Marcial. El origen festivo del Alarde de Irun en dos versiones*, Nabarralde, Iruñea.
- , (2011): *Breve historia de la invasión de Navarra (1512-1530)*, Pamiela, Iruñea.

- Esparza Zabalegi, J. M. (1994): *¡Abajo las quintas! La oposición histórica de Navarra al Ejército español*, Txalaparta, Tafalla.
- , (2006): *Cien razones por las que dejé de ser español*, Txalaparta, Tafalla.
- Febvre, L. (1953): *Combats pour l'histoire*, Paris [espainierazko itzulpena: Colin, A. (1993): *Combates por la historia*, Planeta-Agostini, Bartzelona].
- Febvre, L. (1955): *Amour sacré, amour profane*, Éditions Gallimard, Paris.
- García Arancón, R. (2003): *Reyes de Navarra: Teobaldo II*, Mintzoa, Iruñea.
- , (2010): *La dinastía de Champaña en Navarra. Teobaldo I, Teobaldo II, Enrique I (1234-1274)*, Trea, Gijón.
- Rekalde, A. eta Zuazo, K. (2008): *Haria 21*, Iruñea, 60-71.
- Hastings, A. (2000): *La construcción de la nacionalidades*, Cambridge University Press, Madril.
- Huici Goñi, M. P. (1963): *Las Cortes de Navarra durante la Edad Moderna*, Nafarroako Unibertsitatea – Bianako Printzea Erakundea, Rialp Edizioak, Iruñea.
- , (1993): *En torno a la conquista de Navarra*, Torres de Elorz.
- , (1996): *La Cámara de Comptos de Navarra en los siglos XVI y XVII*, Torres de Elorz.
- Hobbes, T. (1980): *Leviatán*, Argitaratzaile Nazionala, Madril.
- Iparla 10 (2011): *El pueblo vasco bajo el imperialismo*.
- Irigaray, A. Apat-Echebarne (1974): *Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra*, Ediciones y Libros SA, *Diario de Navarraren bilduma*, Iruñea.
- Jimeno Jurio, J. M. (1997): *Navarra. Historia del Euskera*, Txalaparta, Tafalla.
- , (1998): *Navarra, Gipuzkoa y el Euskera. Siglo XVIII*, Pamiela, Atarrabia.
- Khun, T. S. (1962): *The Structure of Scientific Revolutions*, University of Chicago Press, Chicago [espainierazko itzulpena: *La estructura de las revoluciones científicas*, 1971, Mexiko, Kultur Ekonomiaren Funtza].
- Krutwig Sagredo, F. Fernando Sarrailh de Ihartza (1963): *Vasconia. Estudio dialéctico de una nacionalidad*, Norbait Edizioak, Buenos Aires [anitz berrargitalpen dago, azkena 2006koa, Gara egunkariarena, Astero edizioak, Erroa bilduman].
- Kurlansky, M. (1999): *The basque History of The World*, Londres [itzulpena: *La historia vasca del mundo*, 2000, Del Bronce Edizioak, Bartzelona].
- Kymlicka, W. (2003): *La política vernácula. Nacionalismo, multiculturalismo y ciudadanía*, Paidós, Bartzelona.
- , (2006): *Fronteras territoriales. Una perspectiva liberal igualitarista*, Trotta, Madril.
- Lacarra, J. M. (1976): *Historia del reino de Navarra en la Edad Media*, Nafarroako Kutxa, Iruñea.
- Leizarraga, I. (1571): *Iesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria*, La Rochelle.
- Martínez Garate, L. M. (2010): *Síntesis de la historia de Navarra*, Nabarralde, Iruñea.
- Marzo, J. L. (2010): *La memoria administrada. El barroco y lo hispano*, Katz, Buenos Aires.
- Mate, R. (2006): *Medianoche en la historia. Comentarios a las tesis de Walter Benjamín 'Sobre el concepto de historia'*, Editorial argitaletxea, Madril.
- Mira, J. F. (2005): *Crítica de la nació pura. Sobre els símbols, els fronteres i altres assaigs impetuosos*, 1984 eta 2005, Edicions 3i4, Valentzia.
- , *Avui* egunkariko artikulua: <<http://paper.avui.cat/article/dialeg/189098/cultura/sobirania.html>>, espainierazko bertsioa: <<http://www.nabarralde.com/es/eztabaida/4745-cultura-y-soberania>>.
- , *El Temps* astekariko artikulua: <<http://www.joanfmira.info/articles/index.php?id=171>>, espainierazko bertsioa: <<http://www.nabarralde.com/es/eztabaida/5053-los-lugares-de-la-memoria>>.

- Mitxelena, K. (1981): *Lengua común y dialectos vascos*, "Julio de Urquijo" *Euskal Filologia Astekariaren* urtekaria, **15**, Donostia, 289-313.
- Monteano Sorbet, P. J. (2010): *La Guerra de Navarra (1512-1529). Crónica de la conquista española*, Pamiela, Iruñea.
- Narbaitz, P. (1978): *Nabarra ou quand les basques avaient des rois*, Zabal, Iruñea-Baiona [espainierazko itzulpen oso ona dago: *Navarra o cuando los vascos tenían reyes*, Txalaparta, Tafalla].
- Noiriel, G. (2007): *À quoi sert 'l'identité nationale'*, Agone, Marseille.
- D'Oihénart, A. (1656): *Notitia utriusque Vasconiae, tum Ibericae, tum Aquitanicae...*, Paris [faksimile-edizioa, 1992, Eusko Legebiltzarraren edizioa, Vitoria-Gasteiz].
- Olaizola, J. M^a eta Urzainki, T. (1998): *La Navarra marítima*, Pamiela, Iruñea.
- Orella Unzué, J. L., <<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/azpilcueta/06/06133180.pdf>>.
- Ortueta, A. (1931): *Nabarra y la unidad política vasca*, Bartzelona.
- , (2002): *Nabarra Estado político de Vasconia*, Gaizka Arangurenen edizioa, Nabarralde-Pamiela, Iruñea.
- Vianako printzea, K. (1454): *Crónica de los reyes de Navarra*, Iruñean berrargitaratua 1843an, José Yanguas y Miranda, Teodoro de Ochoaren inprenta [faksimile-edizioa, 1971, Anubar, Valentzia].
- Ricoeur, P. (1990): *Soi-même comme un autre*, Seuil, Paris.
- Rodríguez Garraza, R. (1968): *Navarra de reino a provincia*, Nafarroako Unibertsitatea Edizioak SA, Vianako printzea erakundea, Iruñea.
- Sagredo, I. (2006, 2007 eta 2009): *Navarra, Castillos que defendieron el Reino*, lau liburuki, Pamiela, Iruñea.
- Sapir, E. (1991): *El lenguaje*, Kultur Ekonomiaren Funtza, Madril.
- Sarrailh de Ihartza, F, ikusi Krutwig Sagredo, F.
- Sorauren, M. (1998): *Historia de Navarra, el Estado Vasco*, Pamiela, Iruñea.
- Urbeltz, J. A., *Gara* egunkariko elkarrizketa, 2011/01/30:<<http://www.gara.net/paperezkoa/20110130/245695/es/El-igualitarismo-nuestro-viejo-mundo-impide-nacimiento-heroe>>.
- Urzainki, T. eta Olaizola, J. M^a. (1998): *La Navarra marítima*, Pamiela, Iruñea.
- Urzainki, T. (2003): *Navarra Estado europeo*, Pamiela, Iruñea.
- Weber, E. (1983): *La fin des terroirs. La modernisation de la France rurale 1870-1914*, Librairie Arthème Fayard, Paris.
- Whorf, B. L. (1999): *Lenguaje, pensamiento y sociedad*, Círculo de Lectores, Madril.
- Zuazo, K. (2010): *El euskera y sus dialectos*, Alberdania. Irun.
- , <<http://www.gara.net/paperezkoa/20071209/52380/es/Los-euskalkis-actuales-tienen-su-origen-Edad-Media>>.

3. Euskal Estatuaren eraikuntzaren alde juridikoa: sezesioa eta trinkotze juridiko-politikoa

Iñigo Urrutia Libarona, Zuzenbidean doktorea, UPV-EHUko irakaslea
Jon Iñarritu García, Zuzenbidean lizentziatua, diputatua Espainiako Kongresuan
Zelai Nikolas Ezkurdia, Zuzenbidean lizentziatua, Herri Administrazioako legelaria

Independentzia, posible da. Ez da batzuen ametsa edota besteen ameskeria. Lor daitekeen errebindikazio politikoa da Euskal Estatua. Zelai Nikolas, Jon Iñarritu eta Iñigo Urrutiaren eskutik, lorgarritasun horren froga juridikoak emango ditugu. Borondate politikoaz harago, estatu bat lortzeko bidea ezin da egin tresna juridikorik gabe. Tresna horiek borondate demokratikoa bideratzeko mundu osoan zehar erabiltzen ari dira, normaltasun osoz. Independentziak alde formala du, banantzea edo sezesioa, baina era berean, lurraldeen arteko kohesioa izango da independentzia materialaren gakoa. Bigarrena izan gabe, nekez lortuko da lehena. Azkenean, estatu burujabea estatugintza sozial, politiko eta juridikoaren emaitza baita.

Legal aspects of the construction of a basque state: secession and legal-political consolidation

Independence is an actual possibility, not just the dream or unrealistic fantasy of a few. A Basque state is an attainable political goal. In this chapter, Zelai Nikolas, Jon Iñarritu and Iñigo Urrutia present legal arguments that show why this is possible. Granted a political will, the required steps towards a state cannot proceed without legal instruments. These are the same means that are employed all over the world as a matter of course to implement countries' democratic wishes. There is a formal side of attaining independence, called separation or secession, but the actual key to substantive independence is cohesion among its territories, without which it will not come about, because in the last resort an independent state is the product of social, political and legal state-building.

SARRERA: ESTATU-ERAIKUNTZAREN AURPEGI JURIDIKOAK

Euskal Estatua izango bada euskal herritarrek hala nahi dutelako izango da, eta helburu hori prozesu demokratiko baten bidez lortuko da, hau da, herritarren borondate askean oinarrituta egongo den prozesuaren bidez. Gizarte demokratiko batean herriak du subiranotasuna eta herritarrek beren giza eskubide guztiak bermatuta eduki behar dituzte askatasunez beren erabakiak hartzeko aukera izateko. Horrenbestez, berezko Euskal Estatuaren aldeko prozesuak euskal herritarren borondate askean egon behar du oinarrituta eta juridikoki behar bezala babestuta, beste edozein aukera demokratiko bezala. Guk Euskal Estatuaren aldeko hautuaren babes juridikoa, hain zuzen, demokraziaren balioan eta barne-kohesioaren aldeko auzolanean oinarritu nahi dugu.

Demokraziaren kontzeptua dinamikoa da eta gizarte baten bizikidetzari oso lotuta dago. Horrela izanik, eta bizikidetzat ardatz hartuta, XXI. mendeko demokraziak Euskal Estatua sortzeko prozesua naturaltasunez onartu behar du eta, hortaz, ama-estatuaren araubidean juridikoki babestuta egon behar du. Bestela esanda, independentziaren aldeko egitasmo politikoak eta bide-orri demokratikoak, bizikidetzarako beste aukera politikoak bezala (federalismoa, zentralismoa...), onartuta eta babestuta egon behar du, azken finean, euskal herritarren askatasunaren¹⁶ eta elkartzeko eskubidearen¹⁷ oinarritzko eskubideen ondorio baino ez da eta.

Xedehorretan demokraziaren kontzeptu zabal eta gaurkotu batek (Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiaren doktrinak onartu duena¹⁸ eta elite ekonomiko eta politikoen mesedetan XX. mendean nagusitu diren demokrazia liberalen teoriak gainditzeko gai izan behar duena) eta bizikidetzarako euskal eragileen arteko oinarritzko akordio zabalak (eskubide guztien errespetatu eta bermatzearen aldekoa eta egitasmo guztiak bide baketsu eta politikoetatik gauzagarriak izatea onartzen duena) zeregin garrantzitsua dute.

Beraz, fase politiko berri honetan, ama-estatuaren papera jokatzeko duten Espainiak eta Frantziak Euskal Herriaren independentzia formalaren aldeko egitasmoaren zilegitasuna onartu behar dute, hain zuzen ere, demokraziaren ondorio zuzena delako, eta baita onartu ere, euskal gizartearen erabakitzeko eskubide askearen emaitza, independentzia izanik ere.

Euskal Herriko barne-kohesioa da sartu garen fase politiko berri honetan estatugintzaren prozesu demokratikoak izango duen beste zutabe bat; izan ere, Euskal Estatuaren xede izanik Euskal Herriko barne-kohesioa (kultura aldetik, ekonomia aldetik eta gizarte aldetik), independentzia formalaren aldarrikapena lortu bitartean euskal herritarren arteko harremanak indartuz eta sendotuz euskal kohesioa lantzen da eta herri bezala bizirauten lagunduko digu. Garai berri honetan,

16. Europako Giza Eskubideen Ituna 5. artikuluan askatasunaren eskubidea aldarrikatzen du eta 10. artikulua adierazpen-askatasuna.

17. Europako Giza Eskubideen Itunaren 11. artikulua batzartzeko eta elkartzeko eskubidea aldarrikatzen du.

18. Estrasburgoko Auzitegiarentzat, pluraltasuna demokraziaren funtsezko ezaugarria da. Pluraltasun hori babestea da adierazpen-askatasunaren eta elkartzeko eskubidearen xede nagusia. Besteak beste, TEDH 1998\23, TEDH 1999\64, TEDH 2005\113, TEDH 2006\29.

beraz, garrantzi berezia hartuko dute Euskal Herriko barne-kohesioa lantzeko tresnek eta baliabideek.

Azken batean, gure ustez, Euskal Estatuaren aldarrikapen formala lortzeko ahaleginak (independentzia formala) eta Euskal Estatuaren ezaugarriak materialki lortzen joatearen aldekoak (independentzia materiala) Euskal Estatuaren aldeko prozesu demokratikoan bildu beharko lirakeke. Biak dira xede beraren bi aurpegi osagarri eta, gainera, independentzia materialak euskal estatugintzaren prozesuari berari abiada eman eta hura bermatzen lagundu dezake, bai Espainia eta Frantziaren aurrean, bai nazioartean.

Hori dela-eta, lan honek bi zati izango ditu. Lehen zatian estatugintzaren alderdi formala aztertuko da eta bertan azalduko dira nazioartean zer-nolako baldintzak bete behar diren estatu-izaera lortzeko eta zer-nolako bideak egon daitezkeen horretarako, orain arte egondako zenbait kasu azterturik.

Lanaren bigarren zatian, bestalde, estatugintzaren alderdi materiala landuko dugu eta aztertuko da zer-nolako bidea egon daitekeen euskal herritarren arteko harremanak areagotzeko, hau da, euskal kohesioa indartzeko, besteak beste, lankidetzeta eta saretze normatiboa trinkotzearen bidez, eta hori guztia euskal autogobernuaren inguruan azken hamarkadetan izandako eskarmentua aintzat harturik.

1. ESTATU-ERAIKUNTZAREN ALDERDI FORMALA

1.1. Nazioarteko zuzenbidea, subiranotasuna eta estatu-lurraldetasuna

Abia gaitezen ukaezina den egitate bat azpimarratuz: estatu berriak etengabe sortzen ari dira. Orain dela denbora oso gutxi nazioarteko elkartek Hego Sudan estatu soberano berri gisa aintzat hartu du. Estatu berrien sorrera nazioarteko elkartearen garapen politiko eta juridikoaren isla baino ez da. Horrek independentziarako baldintzak, prozesuak edota hirugarren estatuen aitortza bezalako kontzeptu klasikoak etengabeko berrikuspenaren menpe dauden faktore eta kategoria gisa aztertzer behartzen gaitu.

Subiranotasunaren kontzeptua bera, jatorri intelektuala izan zuena eta estatu modernoaren funtsezko oinarri bilakatuko zena, etengabeko garapena duen kontzeptua da. Ez bakarrik estatuaz barneari begira, nazioarteko harreman eta prozesuei begira ere etengabea kuestionatu beharreko kontzeptua bilakatu zaigu, bereziki subiranotasuna estatuen lurralde-integritatearen eta batasunaren isla gisa agertzen baitugu teoria klasikoak.

Azken ideia horri lotuta, zuzenbide formalak subiranotasunaren aurpegi klasiko zorrotza agertzen ohi digu, bereziki konstituzioetan. Lan honetan, ordea, subiranotasunaren eta estatu-batasunaren arteko harreman klasikoaren zurruntasuna malgutzerik badela defendatzen saiatuko gara, horretarako oinarriak baitira (dela foru-lurraldeen eskubide historikoen eskutik, autodeterminazio-eskubidearen zein demokrazian oinarrituriko sezesioaren eskutik).

Edozelan ere, abiapuntu modura, aipatu behar dugu subiranotasunaren eta batasunaren arteko harremanik estuena (hertsikorrena) dugula Konstituzioaren interpretatzailearik gorenaren jurisprudentzian ildo nagusia. Espainiako Konstituzio Auzitegiaren bi epai ekarri nahi genituzke gogora: Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsulta Legeari buruzkoa, lehena, eta Kataluniako Autonomia Estatutuari buruzkoa, bigarrena¹⁹.

Epai horietan, Espainiako estatuaren tradizio uniformatzaileari jarraiki, subiranotasunaren titular bakarra, nazio espainiarra alegia, lurralde-batasunarekin lotzen da, irakurketarik hertsikorrinari eutsiz. Barne-zuzenbideari so, irakurketa horren magalean sezesio-prozesuak konstituzioarekin bateragarri ez direla esan beharko genuke, baina zein ohi da barne-zuzenbidearen *rola* sezesio-prozesuetan? Estatu Batuetako independentzia Erresuma Batuko Konstituzio ez idatziaren arabera izan ote zen? Serbiak ez zuen Kosovoko independentzia aintzat hartu baina hori oztopo izan ote zen Kosovo herri independente bezala aintzat hartu zuten Europar Batasuneko estatuentzat? Kosovoko independentziaren aldarrikapena bateragarri izan ote zen une hartan indarrean zegoen araubidearekin (Nazio Batuek ezarritakoa hain zuzen ere)?

Azpimarra dezagun Nazioarteko Justizia Gorteak Kosovoko sezesio-egintza hura ez zuela nazioarteko zuzenbidearen kontrakotzat jo, nahiz eta Nazio Batuek²⁰ ezarritako aldi baterako erregimenarekin erabateko haustura ekarri²¹. Kanadako Auzitegi Gorenak ere *Quebec* kasuan gauza bera azpimarratu zuen²².

Nazioarteko zuzenbidearen magalean sezesio-egintzak ez dira legezkoak edo legez kontrakoak aurreko estatus juridikoari begira, formak, prozedurak, titulu juridikoak eta antzeko faktoreei begira baizik. Izan izanean ere, historiak erakusten digu sezesio-prozesuak soilik salbuespenezko kasuetan gauzatu direla ama-estatuaren konstituzioarekin bat. Egungo estatu-aniztasuna prozesu zeharo desberdinen emaitza da, konstituzio-egokitzapena zein apurketa konstituzionala barne hartzen dituen. Nazioarteko zuzenbideari dagokionez, ez du axolarik sezesio-prozesuak aurreko egoerarekiko dakarren aldaketa, gure aburuz XXI. mendean axola duena zera da: **prozesuaren legitimazio demokratikoa**.

Sezesio-prozesu orotan bi printzipioren arteko talka gertatzen da: batetik, ama-estatuaren lurralde-integritatea babesteko araua, eta bestetik, sezesioa gauzatzeari oinarria ematen dion titulu juridikoa (autodeterminazio-eskubidea edota sezesioa gauzatzeko baldintza eta prozedura demokratiko eta baketsua). Azter ditzagun banaka, kontuan hartuz nazioarteko zuzenbidearen garapenik berriena:

19. Hurrenez hurren, Konstituzio Auzitegiaren Epaiak (KAE) 103/2008, irailaren 11koa, 4 zuzenbide-oinarria, besteak beste. Eta KAE 31/2010, ekainaren 28koa, 12 zuzenbide-oinarria, besteak beste.

20. Hain zuzen ere, NBEren Segurtasun Kontseiluko 1244 (1999) Ebazpena.

21. Ikus Nazioarteko Justizia Gortea - International Court of Justice (ICJ), *Accordance with International Law of the Unilateral Declaration of Independence in Respect of Kosovo* (Advisory Opinion), General List No. 141, 22 July 2010, aurrerantzean *Kosovo AO*.

22. Kanadako Auzitegi Gorena *Reference Secession of Quebec*, [1998] 2 SCR, 155. paragrafoa.

1.2. Estatuaren lurralde-integritatea (estatu-lurraldetasuna)

Inoiz argudiatu izan ohi da kanpo-autodeterminazioaren eskubideaz baliatzerik ez dagoela, eskubide horren gauzatzea estatu-lurraldetasunarekin bateragarria ez baita. Argudio horri erreparojuridikoak jarri behar zaizkio; izan ere, maila desberdinetan jorratu beharreko hipotesiak maila berera ekartzen baititu. Hots, autodeterminazio-eskubidea nazioarteko zuzenbideak *herriei* aitortu dizkien eskubidea den bitartean, estatuen lurraldetasuna bermatzeko araua *estatu*ei ezarritako betebeharra da, eta ez bere autodeterminazioaren bila dabilen entitateak aplikagarria duena. Hori hala ulertuko ez balitz, egungo estatu-egituratzearen erabateko blokeoa gertatuko litzateke ondorio modura (egungo *statu quo*-aren kontsolidazio hautsezina hain zuzen ere).

Eszenatoki estatiko hori nazioarteko zuzenbideak aitortzen dituen eskubideekin bateragarria ez izateaz gainera, nazioarteko zuzenbideak debekatzen dituen jarduerak zilegi bihurtuko lituzke, adibidez, estatuak ez-legezko moduan herrien aurka indarkeria baliatzean herriek ez lukete erantzunik emateko baliabiderik izango. Izan izanean ere, nazioarteko erakundeek ez diote autodeterminazioari erreparorik jartzen estatu-lurraldetasunaren printzipioan besterik gabe oinarrituz²³.

Edozelan ere, kontuan izan behar da estatu-lurraldetasuna oztopo zuzena ez bada ere, modu ez-zuzenean oztopo izan daitekeela sezesioa gauzatzean zilegiak ez diren bideak baliatzen badira; hori horrela dela ikusiko genuke hirugarren estatuak modu ez-zilegian independentzia lortu duen erakundea aitortuko balute, aitorten-gintza hori ama-estatuaren lurraldetasunaren aurkako erasotzat jo daitekeelako.

Idea horretan sakontzeko komeni da estatu-lurraldetasuna bermatzearen aldeko arauaren hedapenaz abiatzea.

a) Estatuaren lurralde-integritatea babesteko araua (lurraldetasuna): hedapena eta sezesioa

Nazioarteko hitzarmen gutxi batzuek baino ez diote estatu-lurraldetasunari erreferentziarik egiten. Aipamen hori egiten duten testuetan, bestalde, ikus daiteke nola estatu-lurraldetasuna babesteko bermea estatuak zuzenduriko agindu modura jasotzen den, hain zuten, estatuak haien artean indarkeria baliatzea debekatzeko.

Nazioarteko zuzenbideak lurraldetasunaren printzipioa bermatzen du, baita autodeterminazioaren printzipioa ere. Bi printzipio horiek talka egiten badute ere, azpimarratu behar da nazioarteko erkidegoak zein nazioarteko erakundeek lurraldetasunaren printzipioa zokoratzen dutela autodeterminazio-kasuetan. Hala gertatu da Bangladesheko independentziaren aitortenaren kasuan, Singapurreko independentziaren kasuan, zein Belizeko independentziaren kasuan (Guatemalak sezesioaren zilegitasun eza defendatzeko bere estatu-lurraldetasunaren bermea alegatu bazuen ere, erreparo horrek ez zuen arrakastarik izan).

23. Horren lekukorik garbiena estatu berrien sorrera txalotzen dituzten Segurtasun Kontseiluaren Ebazpenak dira, adibidez Ebazpena 1272 (1999) Ekialdeko Timorri buruzkoa (Resolution 1272 (1999) on East Timor, 3. paragrafoa).

Nazioarteko zuzenbidearen garapenik gaurkotuenek ez dute agertzen inongo aldaketarik horretan, Nazioarteko Justizia Auzitegiak Kosovoko kasuan emandako ebazpena horren lekuko argiena izanik. Ondorenez, hauxe baieztatu dezakegu: **estatu-lurraldetasunaren araua estatu-harremanei dagokionez, nazioarteko zuzenbideak aintzat hartzen duen autodeterminazio-printzipioari inola ere eragin gabe.**

Estatu-lurraldetasuna bermatzeko printzipioa kanpo (hots, estatu arteko) eraginak dituen printzipioa da, estatuaz barneari begira eragin zuzenik sortzen ez duena. Eragin zuzenik ez badu ere, zeharkako eraginak izan ditzake: adibidez, estatu batek beste estatu batean gertatzen diren mugimendu sezesionistei babesa ematean, edota mugimendu sezesionistak nazioarteko zuzenbideak debekatzen dituen prozedurak baliatuko balitu (bortxaren debekua, kasu), ama-estatuaren lurraldetasun-printzipioa alegatzea izango litzateke hirugarren estatuak erakunde sezesionistaren aldeko aitorpen-egintzak ez-legezko deklaratzeko. Hori hala izanik, benetan funtsezkoa dakusagu sezesioa gauzatzeko baldintza eta prozedura «zilegiak» zeintzuk diren aztertzea. Horretaz jardungo dugu jarraian.

b) Estatu-lurraldetasuna errespetatzearen arauak aktore ez-estatalak eragiten al ditu?

Azkenaldian, bereziki New York eta Washingtonen 2001eko ekintzen ondotik, nazioarteko esku-hartzei bide berriak zabaltzeko behar zailkiela defendatzen dituzten bozak ugaritu dira doktrina juridikoan. Ildo horri jarraituz, estatu-lurraldetasunaren bermeak oinarri hartzen duen indarkeriaren debekua entitate ez-estataleiei ere aplikagarri zaiela defendatu da. Terrorismoaren aurkako gerraren hondo-irudiaren gainean estatuen esku-sartze zehatzei legitimazio berria aurkitu nahi izan zaie indarkeriaren debekua ardatz hartuz. Bi hitzetan, entitate ez-estatalak, estatuak bezala, nazioarteko zuzenbideak ezartzen dituen betebeharren menpe izan behar direla argudiatu da, estatu-lurraldetasuna bermatzeko printzipioa barne. Entitate ez-estatalak bere estatu-lurraldetasunaren aurka egitea nazioarteko zuzenbidearen aurkako erasotzat jotzen du teoria horrek.

Dena den, Nazioarteko Justizia Auzitegiak teoria berri horren balizko aplikagarritasunaz jarduteko beta izan du berriki, eta ildo berri hori errefusatu du. Berriz ere Kosovoko Epaiari egin behar diogu erreferentzia. Epai horretan Nazioarteko Auzitegiak teoria klasikoari eutsi zion, entitate ez-estatalek sustaturiko independentzia edo sezesio-egintzen aurrean nazioarteko zuzenbidearen printzipiozko «neutraltasuna» azpimarratuz²⁴.

Auzitegiaren doktrina argia da: nazioarteko zuzenbideak ez du sezesioa debekatzen; izan ere, entitate estatalek burutzen dituzten egintzak ez baitira nazioarteko zuzenbidearen arabera arautzen. Sezesio-egintzen kasuetan nazioarteko zuzenbidearen neutraltasuna konfirmatu da. Edozelan ere, argi izan behar da neutraltasunaz dihardugula, eta ez aldeko joeraz. Sezesioa ez dago debekatuta

24. Auzitegiak ezarritako doktrina zera da: «[t]he Court considers that general international law contains no applicable prohibition of declarations of independence. Accordingly, it concludes that the declaration of independence of 17 February 2008 did not violate general international law» (Kosovo AO supra 7 azpi-oharra, 84. paragrafoa).

baina horrek ez du sezesioa berez zilegi bihurtzen. Izan izanean ere, nazioarteko erkidegoak (egungo *statu quo*-aren isla diren estatuak osatzen dutena) oro har errezeloz hartzen ditu sezesio-mugimenduak. Esan daiteke aurkako presuntzioa dagoela, berau hautsi daitekeelarik sezesioa gauzatzean baliatzen den tituluaren arabera eta prozedura-baldintzen bitartez.

Nazioarteko zuzenbideak erakunde ez-estatalen sezesio-egintzen kasuetan neutraltasuna mantendu behar badu²⁵, bi galdera sortzen zaizkigu: batetik, zein da autodeterminazioaren eskubidearen rola? Zertarako balio du? Eta bigarrena, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak zergatik esku hartu du zenbait sezesio-kasutan? Lehen galderari hurrengo epigrafean helduko diogu, gatozen bada bigarrenari erantzutera.

Jakina da Segurtasun Kontseiluak alde bakarreko independentzia-aldarrikapenen kasu batzuetan ebazpenak eman dituela, Hego Rhodesia, Ipar Zipre edota Srpska Errepublikaren kasuetan, besteak beste.

Kasu horietan ebazpena emateko oinarria ez da izan independentzia aldarrikapena bera, aldarrikapena bortxa baliatuz edota bortxa baliatzeko arriskuaz gauzatu izana baizik. Horrek argi agertzen digu bortxaz lagunduriko independentzia edo sezesio-egintzak nazioarteko zuzenbidearen aurkakotzat jo behar direla. Eta horren kariaz, hirugarren estatuak erakunde sezesionista onartuko balute, nazioarteko urratzea egingo lukete.

Horrek honako ondorio hau azpimarratzera eramane behar gaitu: **lurraldetasunaren bermea estatuei dagokien agindua bada ere, sezesio-egintzak gauzatzeko prozedurei dagokienez, entitate ez-estatalak nazioarteko zuzenbidearen menpe daudela**. Hots, estatu-lurraldetasunaren bermea estatu arteko harremanekin lotu behar dugu; aldiz, bortxa erabiltzeko debekua (*ius cogens* gisa) eta sezesioa gauzatzeko prozedura, subjektu guztiei aplikagarri zaien nazioarteko zuzenbidearen agindua da, baita entitate ez-estatalek aplikagarria dutena.

1.3. Sezesioa gauzatzeko eskubiderik ote?

Nazioarteko zuzenbideari begira sezesioa zenbait baldintzaren menpe dago. Honakoak nagusiki:

a) Titulua: autodeterminazio-eskubidetik sezesiora arteko jauzia

Autodeterminazio-eskubidea etengabeko garapena izan duen eskubidea da, etorkizunean segida izango duena bere bilakaeran. Azpimarratu behar da eskubide horrek izan duen garapena ez dela berdina izan testuinguru geografiko guztietan, ezta testuinguru historiko guztietan ere.

Autodeterminazioa nazioarteko zuzenbidearen printzipioetatik bat da eta neurri berean herriei dagokien eskubidea, estatuei *erga omnes* izaerako betebeharrak sorrarazten dizkielarik.

25. Azpimarratu behar da, bestalde, «neutraltasunaren teoria» ez dela zalantzan jarri gutxiengoaren babesaz arduratzen diren nazioarteko hitzarmenetan «estatu-lurraldetasunaren bermea» esplizituki xedatua izan den arren.

Nazioarteko zuzenbideak autodeterminazioa hainbat testutan kodifikatu du, baina dudarik gabe 1966ko New York-eko Nazioarteko Itunek agertzen digute autodeterminazio-eskubidearen positibaziorik garbiena. Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 1. artikulua honakoa xedatu du, lehen atalean:

1. All peoples have the right of self-determination. By virtue of that right they freely determine their political status and freely pursue their economic, social and cultural development.

Illo beretik, Europako eremuari lotuz, Europako Segurtasun eta Kooperaziorako Konferentziaren (ondoren OSCE) Helsinkiko Azken Aktak, 1975eko abuztuaren 1ekoak, bere VIII Idazpuruan autodeterminazio-eskubideaz dihardu²⁶.

Dena den, autodeterminazio-eskubidearen hedapena eta hura ezartzeko baldintzak eztabaidagarriak dira oraindik ere, iritzi kontrajarriak aurkitzen baititugu koloniez aparteko testuinguruetan eskubide baliagarria ote den baieztatzean. Horrek, berez, ondorio batera garamatza, hots, nazioarteko zuzenbidea zein nazioarteko erkidegoa, biak, anbiguotasunean ari direla, Nazioarteko Justizia Gorteak oraindik zehaztu ez duelarik doktrina nahikoa sendorik.

Jakina da 60ko hamarkadaz geroztik autodeterminazioaren garapenak independentziarako eskubideari bide eman diola autogobernurik gabeko herrialdeen kasuan zein hirugarren estatuen menpe zeuden herrien kasuan. Deskolonizazioa Nazio Batuen marko juridikoaren menpe gauzatzeko autodeterminazioa baliatu izan da²⁷.

Edozelan ere, 1966ko New York-eko Nazioarteko Itunek autodeterminazioa kodifikatu zutenean, modu zabalean jaso zuten eskubidearen esparrua, koloniaren testuinguru hutsa gaituz. Testu horiek modu zuzen eta unibertsalean aintzat hartu zuten autodeterminazio-eskubidea, deskolonizazio-garairen ondoren indarrean iraun zezan.

Testuinguru kolonialez aparte, autodeterminazio-eskubideak agerpen argiak izan ditu. Izan izanean ere, autodeterminazio-eskubidea deskolonizazioaz aparte balia daitekeen eskubidea dela argiro agertu du Nazioarteko Justizia Gorteak honako kasu honetan: *Legal Consequences of the Construction of a Wall in the Occupied Palestinian Territory*.²⁸ **Autodeterminazio-eskubideak dakarrena zera da: herrien estatus politikoa modu askean finkatzeko ahalmena**²⁹.

Deskolonizazioa autodeterminazio-eskubidearen agerpen erkidetzat jo bazi-tekeen ere, kolonia-testuinguruaz aparteko garapenak ugarituz joan dira azken

26. The Final Act of the Conference on Security and Cooperation in Europe, Aug. 1, 1975, 14 I.L.M. 1292 (Helsinki Declaration), VIII Idazpurua.

27. Horretara etorri zen, hain zuzen ere, Asanblada Nagusiaren Ebazpena 1514 (XV), 1960ko abenduaren 14koa, «the declaration on the granting of independence to colonial countries and peoples» eta ebazpen horri segida eman zioten beste hainbat.

28. Nazioarteko Justizia Gortea (ICJ) Advisory Opinion of 9 July 2004, on the Legal Consequences of the Construction of a Wall in the Occupied Palestinian Territory, 88. paragrafoa, 39. orrialdean eta 122. paragrafoa, 184. orrialdean. Autodeterminazioa gaur egun *erga omnes* eskubidea dela argi agertzen du (ikus *East Timor* (Portugal v. Australia), 1995 I.C.J. 102. orrialdean, 29. paragrafoa).

29. Justizia Gorteak zera aipatu zuen *Western Sahara* kasuan «[autodeterminazio-eskubideak] requires a free and genuine expression of the will of the peoples concerned» (*Op. cit.* 32. paragrafoa).

urteotan. Bangladesheko adibideaz gain, gerra-hotsaz geroztik hainbat dira aipa daitezkeen adibideak: Alemaniako birbatuketa, Sobiet Batasunaren disoluzioa (bere baitako sezesio-prozesuak ahanzi gabe: Georgian, Moldovan, Azerbaijanen), Jugoslaviako eta Txekoslovakiako zatiketak, Eritrearen sezesioa Etiopiatik, etab.

Errealitate aniztun hori autodeterminazioaren garapenaren isla da. Haatik, aniztasun horrek bide eman dio autodeterminazioaren oinarriak berrasmatzeari, baita sezesioaren aurrean nazioarteko zuzenbidearen *rol*ak zein behar lukeen izan teorizatzeari ere.

Batzuen aburuz, autodeterminazioa herriei dagokien eskubidea da, bakoitzari bere erregimen politikoa modu askean aukeratzeari bide emango liokeena bai eta opresioaz salbu izatea bermatuko lukeena ere. Autodeterminazio-eskubidea giza eskubideen babesari lotutako kategoria da. Bi hitzetan, **autodeterminazioa erregimen demokratikoaren menpe bizitzeko eskubidea baino ez da**. Autodeterminazioak bide emango lioke herriari politikoki beste herriein elkartzeko hala erabakiz gero. Norbanakoei adierazpen-askatasuna sor zaien bezala, herriei autogobernurako eskubidea sor zaie, lurralde-estatuaren garaietan lurraldearen gaineko kontrola haren ondorioa izango litzatekeelarik.

Beste batzuek, ordea, **sezesioa erremedio bezala** ulertzen dute, erremediozko eskubide gisa hain zuzen ere. Alegia, ama-estatuak bere baitako herriren bati ez badio biderik ematen garapen askea gauzatzeko edota garatze-bideak sistematikoki blokeatzen badizkio, herriak zilegi luke sezesioaz baliatzea. Erremediozko sezesioa salbuespenezko aukera litzateke, akordio politikoaren bidea huts egin ondoren herriaren gehiengo argi batek, bide demokratiko hutsak baliatuz, kanpo-autodeterminazioaren alde egiten duenean balia daitekeena. Barne-autodeterminazioaren ukazioak salbuespenezko aukera honi bide emango lioke.

Edozelan ere, salbuespenezko bide honi ekin dakion, prozedura aldetik honako beste baldintza hau bete beharko litzateke: akordio politikoren bat lortzeko bidean saiatu arren, aukera guztiek zapuztuak behar dute izan. Horrez gainera, egungo nazioarteko zuzenbideak indarkeriaz ez baliatzea eta prozesu demokratikoa izatea eskatzen ditu.

Kanadako Auzitegi Gorenari jarraiki, ama-estatuak barne-autodeterminazioa bermatzen ez duenean herriak bidezko luke kanpo-autodeterminazioari ekitea. Probintzia-autonomia errespetatzen ez denean zein herriak autonomia nahikotzat jotzen ez duenean, garapen askea bideratzeko sezesioa zilegi bihur liteke.

Autodeterminazioa aurpegi anitzeko kategoria da. Estatuaz barneari begira profil argiak agertzen dituen (barne-autodeterminazioa, deszentralizazio gisa ulertuta) zein estatuaz kanpoari begira agerpenak izan ditzakeena azken bide modura, sezesioari bide emanez. Puntu honetara helduta, galdera bat egin dezakegu: autodeterminazioa ote da sezesioari bide emateko baliabide edo titulu bakarra? Beste modu batez esanda: ba al da sezesioa gauzatzerik autodeterminazio-eskubideaz aparte? Eta hala bada, zein da autodeterminazio-eskubidearen operatibotasuna? Zertarako balio du?

Europar gauzatu diren sezesio-prozesu ugaritan kanpo-autodeterminazioaren oinarria baliatu ez den arren, nazioarteko erkidegoak estatu berri horiek aintzat hartu ditu. Hori izan daiteke Jugoslaviako zatiketaren adibidea, baina bereziki interesgarria dakusagu Kanadako Auzitegi Gorenak Quebec-eko sezesioari buruzko kasuan baieztatutakoa³⁰.

Hitz horietatik bi ondorio azpimarra daitezke: batetik, Kanadako Auzitegi Gorenak balizko **sezesio-prozesuaren «legitimazio demokratikoa»** proklamatu zuen, betiere Quebec-eko gehiengo argi batek horren alde egiten badu galdera argi bati erantzunez. Bestetik, sezesioa gauzatzeari buruzko negoziaketak modu bilateralean gauzatu beharko liratekeela, Quebec eta Kanadaren artean, eta ez modu multilateralean, hots, alde batetik Quebec eta bestetik Kanadako beste probintzia eta gobernu federalaren artean.

Horren modu argian jardun ez bazuen ere, Nazioarteko Justizia Gorteak, Kosovoko kasuan, teoria berari heldu zion. Justizia Gorteak argi aipatu zuen nazioarteko zuzenbideak ez duela sezesioa debekatzen; ez dago inolako araurik sezesioa debekatzen duenik. Sezesioa barne-kontu bat da. Baina hori adierazi ostean, zera aipatu zuen: nazioarteko zuzenbideak modu ez demokratikoz edo bortxa erabiliz gauzatutako independentzia-egintzak erabat baztertzeko dituela. Hala izanik, Justizia Gorteak zilegitasun demokratiko osoz buruturiko sezesio-egintzen aurrean nazioarteko zuzenbidea «neutral» mantentzen dela baieztatu zuen.

Errealitate hori kontuan hartuz sezesioaren eta autodeterminazio-eskubidearen arteko unibokotasun eza azpimarratu behar dugu. Sezesioa autodeterminazio-eskubidearen ondorioz gauza daiteke, baina ez soilik. Izan izanean ere, **autodeterminazio-eskubidea baliatu gabe ere sezesioa gauza daiteke, printzipio demokratikoa oinarritzat hartuz.**

Puntu honetara helduta, hirugarren estatuen errekonozimendua funtsezko faktorea dela azpimarratu behar dugu. Hurrengo paragrafoan horretan sakonduko badugu ere, aurrera dezagun autodeterminazio-eskubidearen operatibotasuna zera dela: autodeterminazioa oinarritzat hartuz hirugarren estatuen aitortza edo errekonozimenduari bide zuzena ematen zaio. Baina horrek ez du esan nahi autodeterminazio-eskubidea baliatu gabe gerta daitezkeen sezesio-egintzak errekonozitu ezin daitezkeenik. Kasu horietan, Kosovon gertatu bezala, errekonozimendua etor daiteke (ama-estatua kontra agertu arren) prozesuaren legitimazio demokratikoa bera oinarritzat hartuz.

b) Estatalitatearen baldintzak: Montevideoko Hitzarmena eta errekonozimendua

Estatuari berez dagozkion irizpideak edo baldintzak agertzen dituen nazioarteko testurik argiena Montevideoko Konbentzioa da. 1933ko Montevideoko Konbentzioak, estatuen eskubide eta beharrak ezartzen dituenak, estatua definitu eta estatalitate-baldintzak zerrendatu ditu. Biztanleria egonkorra, lurralde zehatza, gobernu eta beste estatuarekin harremanak izateko gaitasuna dira artikulua aipatzen dituenak.

30. Paragrafo honetan ezarritako baldintzak, hots, sezesioari buruzko galdera garbia, horren gaineko gehiengo garbia lortzea eta erreferendumez berrestea, Kanadako Gobernuak gerora «Clarity Act» delako legean garatu zituen.

Lau horiek estatalitate-irizpideak dira, eta horiek dira, hain zuzen ere, estatu gisa aitortua izateko beharrezkoak diren baldintzak.

Azpmarratu behar da Europar Batasunean irizpide horiei beste batzuk gehitu behar dizkiegula: estatuen sorrera modu demokratikoan gauzatu behar da, eta legaltasun-printzipioa, demokrazia eta giza eskubideen babesa (gutxiengo babesa barne) estatu europar berri orok bermatu behar dituen irizpideak dira³¹.

Montevidekoko Konbentzioaren 3. artikulua zera baieztatzen du: «La existencia política del Estado es independiente de su reconocimiento por los demás Estados». Artikulu horrek dioenari jarraiki, estatu izaera ez da hirugarren estatuen errekonozimendutik eratortzen, estatalitateari lotzen zaizkion irizpideak betetzetik baizik. Horri estatuaren «teoria deklaratzailerik» deritzo. Europar Batasunak Jugoslaviarako sortutako Badinter Batzordean irizpide horri ekin zion estatalitatea hirugarren estatuen esku ez dagoela baieztatuz. Hots, hirugarrenen aldetik errekonozimenduak ez dio estatalitateari ezer kentzen ezta gehitzen ere.

Teoria honen aurrez aurre errekonozimenduari balio eratzailerik eman behar zaiola defendatzen duen teoria dago: «teoria eratzailerik» hain zuzen ere. Teoria eratzailerik arabera, estatua nazioarteko zuzenbidearen araberrako pertsonatzat joko da, baldin eta beste estatuak estatu soberano bezala hura errekonozitu badute, ez bestela.

Nazioarteko zuzenbidearen praktikak erakusten digu bi teorien arteko nahasketa gertatzen dela. Estatu soberano bezala beste estatuarekin harremanak izan daitezke, bigarrenak aurrekoa hala errekonozitu beharko du. Neurri berean, gerta daiteke estatu batzuek baino ez errekonozitzea sezesioaz baliatu berri den estatua, baina horrek ez dio azkenari estatalitate izaerarik kentzen. Noski, nazioarteko zuzenbideak ez ditu estatuak behartzen beste estatu batzuk errekonozitzera, eta askotan gertatzen dena zera da: nazioarteko zuzenbidea urratuz errekonozimendu eske izan diren estatuak errekonozimendua ukatu egin zaiela, Rhodesia edo Ipar Ziprerren kasuan gertatu bezala.

Idea horiei atxikiz, praktikan, errekonozimenduak duen garrantzia azpmarratu behar da. Atal politologikoan «zertifikatze-mekanismoa» izendatu duguna. Kontuan hartuz sezesioak berez dakarrela aurreko ama-estatuaren lurralde-integritatearen haustura, sezesioa gauzatzeko bideak garrantzi berezia hartzen du hirugarren estatuen aldeko errekonozimenduari begira. Izan izanean ere, modu ez-zilegian gauzatutako sezesioaren kasuan, hirugarren estatuen errekonozimendua ama-estatuaren lurraldetasunari eginiko erasotzat jo daiteke, nazioarteko zuzenbideak debekatzen duen erasotzat hain zuzen ere.

Horri lotuta, gauza argia dirudi sezesioa autodeterminazio-eskubidean oinarrituta badago, zeren horrek hirugarren estatuen aitortza edo errekonozimenduari bide zuzena eskainiko baitio. Hots, nazioartean sezesioaren eraginkortasunaren aurkako presuntzio orokor bat dagoela defendatzen dutenentzat ere, autodeterminazio-

31. Ikus Europar Batasuneko Kanpo Ministroen ezohiko Kontseilua, Bruselan 1991ko abenduaren 16an onartutako Declaration on the Guidelines on the Recognition of New States in Eastern Europe and in the Soviet Union.

eskubideak presuntzio hori hautsi eta errekonozimenduari bide zuzena emango lioke. Sezesioa gauzatzeko debeku orokorrik ez dagoela abiapuntutzat hartuta, kanpo-autodeterminazioa zilegi bihurtzen duten irizpideak gertatuz gero, estatalitaterako titulu edo eskubide positiboa baliatzerik izango da, errekonozimenduaren garaian eragin osoak beteko dituen. Bi hitzetan, sezesioa autodeterminazio-eskubidearekin lotuta datorrenean nazioarteko babesa (errekonozimendua) modu zuzenean gauzatuko da.

Aldiz, sezesioa autodeterminazio-eskubidearekin lotua ez datorrenean (Kosovoko kasua izan zitekeena), ez dago esaterik nazioarteko zuzenbideak horren eraginkortasuna debekatzen duenik. Hots, kanpo-autodeterminaziorako baldintzak gertatzen ez badira ere, sezesioa ez dago hargatik debekatuta, kasu horretan gertatzen dena da sezesioa pribilegiatuta ez dagoela. Eta are gutxiago izango da pribilegiatuta ama-estatuak sezesioa onartu ezean. Edozelan ere, sezesioa pribilegiatuta ez dagoen kasuetan, hirugarren estatuak sezesioa gauzatu duen entitatea estatu gisa errekonozitu dezakete. Hori da, hain zuzen ere, Kosovoko adibideak erakusten diguna. Autodeterminazio-eskubidean oinarritu ez eta ama-estatuaren adostasunik gabe sezesioa gauzatu duen Kosovok hainbat estaturen errekonozimendua jaso du (tartean Amerikako Estatu Batuak, Ingalaterra, Frantzia... guztira 80 estatu). Kasu horretan Kosovori sezesiorako titulua ez zaio autodeterminazioaren bidetik etorri, sezesio-egintza gauzatzeko baliatu den prozedura demokratikotik baizik.

Kanadako Auzitegi Gorenak baieztatu zuena berriz ere hona ekarriz, azpimarratu daitekeen ondorioa zera da: sezesio-egintzen legaltasunari dagokionez, nazioarteko zuzenbidearen jarrera zein den inportantea izan arren, hori bezain garrantzitsua da sezesio-egintzak gauzatzean baliatzen den legimititate demokratikoaren aurrean nazioartearen jarrera zein den (edo zein izango den) jakitea. Finean, azken horrek, masa kritiko nahikoa osatuz gero, sezesio-egintzaren etorkizuna bideragarri bihurtuko duen faktore erabakigarria izango baita.

c) Sezesioaren prozedura

Nazioarteko zuzenbideak sezesio-egintzak nola burutu behar diren ez du arautu. Noski, nazioarteko zuzenbideak ez dio sezesio adostuari eragozpenik jartzen, ezta konstituzioan oinarri hartzen duten sezesioei ere. Azken hori bi modutara gerta daiteke: konstituzioan (zehatz edo zeharka) aitortzen den sezesiorako eskubidea gauzatzearen bidez (adibidez Etiopiako Konstituzioa), zein konstituzioaren aldaketaren bitartez. Sezesio adostua negoziaketa-prozesuen ondorioz gauzatuko da, eta barne-prozedura horretan nazioarteko zuzenbideak ez du eragiten.

Bide hori alde batera utzita, ama-estatuaren adostasunik gabe sezesioa gauzatzeari begira, nazioarteko zuzenbidean erreferentzia gutxi batzuk baino ez ditugu aurkitu, zeharkakoak gehienak. Aipatu dugu nazioarteko zuzenbidearen printzipiozko kontrako joera (kolonizazioaren testuinguruan eta okupazio militarren kasuetan salbu), eta, baita ere, sezesioa bera, zuzenean debekatzen duen araurik ez dagoela. Oro har, esan daiteke nazioarteko zuzenbideak ez duela argibiderik eskaintzen sezesio-prozeduren kasuetan (deskolonizazioa edota giza eskubideen

urrapen larrien kasuak alde batera utzita). Gabezia hori betetzea da, hain zuzen ere, nazioarteko zuzenbidearen etorkizuneko erronka nagusietariko bat.

Beste oinarririk ezean, gaur egun sezesioa bereziki barne-zuzenbideari eragiten dion prozesu gisa ulertu behar dugu, nazioarteko zuzenbidearen «neutraltasunaren teoria» horren ondorio izanik. Nazioarteko zuzenbideak ez du sezesioa debekatzen ezta sezesioa bultzatzen ere (salbuespenak salbu) eta horren arrazoi nagusia zera da: nazioarteko zuzenbideak ez du asmatu aktore ez-estataleiei behar duten arreta eskaintzen. Edozelan ere, ezin esan daiteke aktore ez-estatalek zilegi dutenik sezesio-egintzak nahi duten moduan gauzatzerik. Hain zuzen ere nazioarteko zuzenbideak prozedura aldeko mugak ezartzen ditu, nagusiak honako hauek dira:

- Bortxaren debekua. Printzipio hau *ius cogens*-tzat jotzen da, eta horregatik estatuaz barnean aplikagarria da erabat. Noski, arrazoi berean oinarrituz, ama-estatuak erabat aplikagarria duen printzipioa da.
- Adostasun batera heltzeko negoziazio-prozedurari ekin behar izan zaio eta soilik negoziazioa emaitzarik gabe agortu denean, aldebakartasuna zilegi litzateke.
- Sezesioa exekutatzeko prozedurak demokratikoa behar du izan: gehiengo argi batek bide demokratikoak baliatuz bide horren alde agertu behar du.

1.4. Nazioartean zein bide dago estatu bihurtzeko?

Aurreko epigrafean estatu-lurraldetasuna babesten duen arauaren hedapena argitu dugu, baita sezesioa gauzatzeko baldintzak ere. Gatozen, bada, agertutakoa kontuan hartuz, nazioartean estatu bihurtzeko dauden bideak eskema modura aipatzera. Horretarako komeni da autodeterminazio-eskubidearen eta sezesioaren arteko harremanetan erreparatuz abiatzea.

Egungo nazioarteko zuzenbideak ez du sezesioa arautzen. Sezesioa egitatezko kontua da, egitatezko auzia eta ez zuzenbidezko kontua. Sezesioa zuzenbidezko egitate bihurtzen da estatu-agintaritza biztanleria eta lurralde jakin baten gainean modu efektiboan baliatzea lortzen bada. Ez bestela. Sezesioa autodeterminazio-eskubideari lotuta etor daiteke edo ez.

- Autodeterminazioa sezesioaren oinarri juridikotzat hartzen den kasuan, eskubideak estatalitate-baldintzak lortzeko erraztasunak emango dizkio entitate sezesionistari, zilegitasun erantsia agertuz nazioarteko erkidegoaren aurrean. Hots, nazioarteko erkidegoari bide zuzena emango zaio esku hartzeko errekonozimenduaren bitartez, estatuaz barneko arazoetan esku hartzeko debekua alde batera lagatzeari bide emanez. Nazioarteko eskubide bat baliatzean errazagoa da hirugarren estatuen aldeko errekonozimendua lortzea, eskubidearen nazioartekotasunak, berak, estatuen esku-hartzeei bide emango baitie.
- Baina sezesioa autodeterminazio-eskubidearekiko loturarik gabe gerta daiteke. Bigarren kasu honetan, hirugarren estatuen aldetiko errekonozimenduak beste legitimitate-oinarri batzuk aurkitu beharko ditu estatuen

barne-arazoetan esku hartzeko debeku orokorra gainditu ahal izateko. Erreferendumaren bidea baliatzeak nazioartean eragin politikoak izan ditzake, hirugarren estatuen aldeko errekonozimendua legitimazio demokratikoan (gizartearen nahian) oinarrituko baita. Hots, legitimazio demokratikoak estatu berriaren eraginkortasuna onartzeari bidea eman ahal dio.

Hori kontuan hartuz, hona hemen nazioartean estatu bihurtzeko dauden bideak:

a) Sezesio-prozesuak eta deskolonizazioa

Deskolonizazioaren testuinguruan sezesio-prozesuak kanpo-autodeterminazioaren eskubidea baliatzearen ondorioz ageri zaigu. Deskolonizazio-testuinguruetan sezesioa autodeterminazio-eskubideari lotutako aukera izango litzateke NBERen kartaren XI eta XII idazpuruetan agerturiko barne-autodeterminazioaren bidea agortuta dagoenean baliatu daitekeena, ama-estatuaren adostasunez zein nazioartean laguntzaz, ama-estatuaren aurkako iritziarekin (Sahara).

b) Remedial secession: autodeterminazioa giza eskubideen urrapen larrien aurkako tresna gisa.

Erremediozko sezesioari buruzko teoriaren arabera sezesioa zilegi da bidegabeko egoerei aurre egiteko azken baliabide modura. Autodeterminazio-eskubidearen erremediozko izaera Nazioarteko Justizia Gorteak aintzat hartu du³², baita Kanadako Auzitegi Gorenak ere³³.

Erremediozko sezesioari bide emango lioketen gorabeheren artean honako hauek izan daitezke:

- Ama-estatuaren jarduerak taldeko kideen biziraupena arriskuan jartzen dutenean (kurduak Iraken) edota oinarritzko giza eskubideak (Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko 27. artikulua agertzen dituenak, kasu) larriki eta modu iraunkorrez errotik zanpatzen dituztenean. Erregimenak errotik zapaltzailea behar du izan.
- Ama-estatuak herriaren lurraldea bidegabekeriaz hartu izan duenean (Errepublikak baltikoak)

Aurreko kasuan bezala, nazioarteko erkidegoak sezesioa gauzatu duen estatu berriari betebeharrak ezarri ahal izango dizkio errekonozitua izan dadin. Betebehar edo baldintza horien artean honako hauek izan daitezke: legaltasun-printzipioa, demokrazia eta giza eskubideak bermatzea, gutxiengo berrien eskubideak barne (kontuan izan behar da ama-estatuaren gehiengo estatu berriko gutxiengo bilakatzea ohikoa dela), baita gizatasunari buruzko hitzarmenak onartzea ere.

32. ICJ Advisory Opinion of 16 October 1975 on Western Sahara (1975 I.C.J. 25), 55.-60. paragrafoak, 23.-26. or. See also the case concerning Northern Cameroon (Cameroon v. United Kingdom) 1963 I.C.J. 3; Military and Paramilitary Activities in and against Nicaragua (Nicaragua v. United States of America) 1986, I.C.J. 14; Certain Phosphate Lands in Nauru (Nauru v. Australia) 1989 I.C.J. 12, 1991 ICJ 3; and East Timor (Portugal v. Australia) 1995 I.C.J. 90.

33. Supreme Court of Canada *Re Secession of Quebec*, 11. oin-oharra, 134. paragrafoa.

c) Sezesioa adostua

Ama-estatuaren eta sezesioaren bila dagoen entitatearen arteko negoziaketa eta ondorengo adostasunarekin gauzatuko litzateke sezesioa. Halako kasuetan nazioartekoak erraz gauzatu ohi du estatu berriaren errekonozimendua. Montenegro eta Groenlandiaren kasuak aipa ditzakegu adibide gisa.

d) Alde bakarreko sezesioa

Kasu honetan sezesioa ama-estatuaren adostasunik gabe gertatuko litzateke. Dakigunez, nazioarteko zuzenbideak estatu-lurraldetasunaren printzipioa bermatzen badu ere, printzipio horretatik ez da sezesioaren debekua eratortzen. Egungo nazioarteko zuzenbidea «neutral» agertzen da *ius cogens* izaeradun arauak urratu gabe gauzatzen diren sezesio-egintzen aurrean. Ez dago debeku espliziturik ezta inpliziturik ere. Kosovoko auziak erakutsi duenez, ez dago esaterik alde bakarreko sezesioa zilegi ez denik, ezta zilegi denik ere nazioarteko zuzenbidearentzat. Edozelan ere, kasu honetan arazo nagusia nazioartearen (hirugarren estatuen) errekonozimendua izango da. Nazioarteko erkidegoak ama-estatuaren oniritzirik gabe gertatutako sezesioak kontu handiz hartzen ditu, errekonozimendua ama-estatuaren lurraldetasunari eginiko erasotzat jo baitaiteke.

Errekonozimenduari begira, sezesioaren legitimazio demokratikoa garrantzi berezia hartzen ari da, bereziki Kanadako Auzitegi Gorenak Quebec auziari emandako erantzunaren ondoren. Sezesioa gehiengo argi batek galdera argi bati emandako erantzunaren ondorio bada, ama-estatuak herriaren eskaera horri erantzunen bat emateko beharra izango du, nazioarteko erkidegoaren aurrean eman ere. Noski, baldintza horietan hirugarren estatuei errekonozimendu-eskaera egiten bazaie, prozesuaren legitimazio eta oinarri demokratikoak alde batera utzi ezineko faktoreak izango dira.

Nazioarteko komunitatearen «benetako errekonozimenduak», hots, estatu-izaeraren aitortzak eraginkortasun osoa izango du herria Nazio Batuen Erakundeko kide gisa onartua denean. Horretarako Segurtasun Kontseiluaren gehiengoa (9 boz eta betorik ez) lortu behar da.

Gaur egun Palestinako herria ari da alde bakarreko bide hau jorratzen, beraz, tentuz jarraitu beharko diogu aurrekari interesgarri horri.

1.5. Konstituzioa eta sezesioa

Nazioarteko zuzenbideak autodeterminazio-eskubidea aurrezagutzen dituen kasuetatik aparte, estatu batzuek euren barneko entitate ez-estatal batzuei (eskualde, nazio, errepublika) kanpo-autodeterminazioaren eskubidea (sezesioa) aitortzen diete. Eskubide hori klausula eta formula juridiko ezberdinak erabiliz jaso da: berariazko aitormena konstituzioetan edo sistema konstituzionalaren oinarritzko beste arau batzuetan.

Sarritan esan da munduko konstituzio demokratikoetan ez dela sezesio-eskubidea aurrezagutzen, baina ikusiko dugunez, hori ez da guztiz egia. Arestian

ikusi dugunez, konstituzio gehienetan sezesioa debekatuta dago, estatuaren batasun, osotasun nazional edo banaezintasunari buruzko xedapenen bidez, baina orain aztertuko ditugun beste estatu batzuetan, berriz, bere baitan dauden erakunde ez-estataleiei autodeterminazio-eskubidea aitortzen zaie, hau da, etorkizuna libreki erabakitzeko gaitasuna.

a) Berariazko aitormena konstituzioetan

Esan bezala, munduko konstituzio gehienetan, batasun, osotasun eta zatiezintasunari buruzko aipamenak egiten dira. Baina, bai iraganean bai gaur egun, munduko konstituzio batzuetan sezesio-eskubidea (kanpo-autodeterminazioarena) aitortua izan da.

Historikoki ezagunak dira konstituzio «komunistek» eta «sozialistek» kanpo-autodeterminazioari buruz egindako deklarazioak (Errepublika Sozialisten Sobietar Batasuneko (ESSB)³⁴ eta Jugoslaviako konstituzioak), nahiz eta gero, praktikara eramán zirenean, errepublika federalek eskubide hori egikaritzeko zailtasunak aurkitu zituzten.

Zailtasun horiek zirela medio, ESSBko errepublikek beste bide batzuk erabili zituzten sezesiorako; Jugoslaviaren kasua are latzagoa izan zen, sezesio-prozesuek sortutako gatazka armatuak ia gaur arte bizirik iraun baitute. Horrela, bada, Jugoslaviako Konstituzioak barne-herriei autodeterminazio-eskubidea aurrezagutzen zien, baina ez errepublikei. Montenegro izan zen, ordea, salbuespen bakarra eta Konstituzioaren bidea erabili izan zuena; izan ere, 2003ko Serbia eta Montenegroren Estatuaren Konstituzioan «sezesioa» onartu zen.

Arestian aipatu dugunez eta Veneziako Batzordeak 1999an egindako txostenean³⁵ argi geratu zenez, estatu gehienek zuzenbide konstituzionalean ez da sezesio-eskubidea ezagutzen. Hain zuzen ere, gaur egun, munduko bi estatutako konstituzioetan baino ez da onartzen sezesio-eskubidea, hots, Saint Kitts eta Nevis uharteetakoan eta Etiopiako konstituzioan.

Saint Kitts eta Nevis. Karibe itsasoko bi irlaz osatutako estatu honek bere 1983. urteko konstituzioan finkatu zituen Nevis irla federaziotik irteteko baldintzak, hain juxtu, 113. artikuluan: erreferendum bat egin behar da 3 hilabete aurretik, herritarrei Neviseko konstituzio-proposamena aurkeztu behar zaie, eta erreferendumean bozen 2/3 onarpena behar da. 1998an erreferendum bat egin zen, baina boza independentistak ez ziren finkatutako gehiengora heldu.

Etiopia dugu bigarren adibidea. Afrikako estatu multietniko honetan, (9 estatu federatuz eta gutxienez 50 nazionalitatez osatutakoa) 1994ko konstituzioan

34. Errepublika Sozialisten Sobietar Batasuneko (ESSB) Konstituzioak 70. eta 72. artikuluetan errepubliken sezesio librearen eskubidea aurrezagutzen zuen eta sezesio-prozedura, 1990eko apirilaren 3ko Batasuneko Errepublikaren Sezesiorako Prozeduraren Legea onartu zen, baina lege horretan jarritako ezaugarriak hain zailak izanda, «ez-sezesiorako legea» izenarekin ezagutu zen.

35. Commission Européenne pour la Démocratie par le Droit, «L'autodétermination et la secession en Droit Constitutionnel». Rapport adopté par la Commission lors de sa 41 Reunion, 199. Veneziako Batzorde hau Europar Batasuneko estatu kideetako konstituzio-auzitegietakoa lehendakariez osatuta zegoen.

komunitateei «nazio, nazionalitate, zein herriei» onartzen zaie sezesio-eskubidea eta erabili behar den prozedura ezartzen da.

b) Berariazko aitortpena sistema konstituzionalaren oinarritzko beste arau batzuetan:

Azkenengo urteetan, estatu batzuetan beste bide batzuen bitartez aitortu da sezesioaren eskubide hau.

Ipar Irlanda (Erresuma Batua)

Ipar Irlanda, jakin dakigunez, Erresuma Batuko eskualde bat da, Irlandako uharteak 1922an independentzia lortu arren. Egoera horrek gatazka politiko zein armatua eragin zuen katolikoen (irlandarrak) eta protestante edo unionisten (britainiarren) artean eskualdearen estatusagatik. Gatazkari amaiera emateko 1998. urtean, Ostiral Santuko Akordioa sinatu zen. Akordio horretan Ipar Irlandako herriari bere etorkizuna libreki erabakitzeko gaitasuna aitortu zitzaion, betiere, Ipar Irlandako estatusa Erresuma Batuari edo Irlandari lotuta egonik ere.

Quebec (Kanada)

Quebec Kanadako herrialde frankofonoa da eta historikoki kultura eta identitate propioa izan eta mantendu du. Autodeterminaziori buruzko bi galdeketa egin ziren 1980 eta 1995 urteetan, baina bietan bozen gehiengoa Kanada barruan mantentzearen alde izan zen, oso alde gutxigatik.

Egoera horren aurrean, gobernuak kontsulta bat egin zion Kanadako Auzitegi Gorenari Quebec-eko sezesio-hipotesiari eta sezesio-eskubideari buruz hiru galdera eginez. Auzitegi horrek bere erabaki ospetsuan hiru baldintza ezarri zituen Quebec-eko sezesioak zilegitasuna izan dezan: *erreferendumean galdera argia egitea, aldeko gehiengo garbia lortzea, eta sezesio-prozesua adostua izatea Kanadarekin.*

Kanadako Gobernuak, erabaki hori ikusita, Quebec-eko sezesioaren prozedura arautzeko lege bat onartu zuen, hots, «Clarity Act» (S.C. 2000, c. 26) izenez ezagutzen dena.

Ikusiko dugunez, Kanadako Auzitegi Gorenak ezarritako baldintza horiek aurrekari garrantzitsuak bihurtu dira; izan ere, gerora nazioarteko erakunde batzuek (Europar Batasunak, Europako Kontseiluak eta Nazio Batuen Erakundeak) onartu egin dituzte, eta beste kasu batzuetarako erabili dituzte, esaterako, Montenengron, baldintza horiek gehiago zehaztuta.

Groenlandia (Danimarka)

Groenlandia Ozeano Artikoan kokatuta dagoen Danimarkako uharte bat da; han, 2008. urtean estatutu berri bat onartu eta hurrengo urtean indarrean sartu zen. Autonomia-estatutu horretan Groenlandiari nazioarteko herri-izaera aitortzen zaio esanbidez eta 21. artikuluan independentziarako prozedura ezarri zen.

Ezarritako prozedura, honetan datza: akordioa bi parlamentuen artekoa (Danimarka eta Groenlandia) izatea; ondoren, Groenlandian erreferendum bat egitea;

eta azkenik, Danimarkako Parlamentuaren onarpena lortzea. Azken onespen hori, ordea, ez da galgatzat jotzen, Danimarkako Konstituzioa errespetatzeko formulatzat baizik.

Kasu hauetatik aparte, une honetan, liburu hau prestatzen ari denean, Faroe irlotako autonomia-estatutu berria negoziatzen ari da eta funtsezko gaitzat dute independentziarako eskubidearen aitortza eta haren adierazpena estatutuaren testuan.

c) Aitormen inplizitua

Konstituzio-arauetako berariazko aipamenak ez ezik, badira beste kasu batzuk ere zeinetan sezesioaren eskubidearen aipamena inplizitua edo esanbidezkoa den.

Eskozia: Eskozia dugu kasurik ezagunena; izan ere, Erresuma Batuko konstituzio-aktetan ez azaldu arren independentziaren errekonozimendua, Erresuma Batuko agintariek beren adierazpen publikoetan *de facto* aitortzen diote. Doktrinan prozedurari buruzko eztabaida egon dagoen arren, ez du inork zalantzan jartzen Eskoziak bere independentzia berreskuratzeko eskubidea duenik.

Horrela, doktrinako sektore batek defendatzen du independentziako erreferendum bat irabaziz gero, *Union Act* desegingo litzatekeela eta Eskoziak bere independentzia berreskuratuko lukeela.

Doktrinako beste sektore batek, ordea, dio Eskoziako Parlamentuak kontsulta mailako erreferendumak baino ezin dituela deitu eta antolatu, eta gai konstituzionala izanik, Wensminster-eko (Erresuma Batuko) Parlamentuari dagokiola. Horrenbestez, Eskozian kontsulta-erreferendum bat eginez gero eta independentziaren aldeko emaitza aterako balitz, Erresuma Batuko parlamentuak lege bat onartu beharko luke independentzia onartzeko eta lege hori berriz beste erreferendum batean berretsi beharko litzateke.

Hau da, formulazioaren gaineko eztabaida egon badago, baina inolaz ere eskubidearen beraren gainekoa. Hori bai, Erresuma Batuk konstituziorik ez izatea lagungarria dela pentsa dezakegu.

Ikusi dugunez, beraz, estatu demokratiko batzuetan herriei euren etorkizuna demokratikoki erabakitzeke eskubidea eman zaie eta estatuen konstituzioak eta sezesioak ez dute zergatik talkarik egin behar.

Espainiako Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarria eta Eskubide Historikoen ezagutza eta babesa.

Herrero de Miñon-ek (1998: 333), defendatzen duenez, euskal foru-lurraldeak estatu-zatiak dira eta estatuen zenbait ezaugarri gorde dituzte. Interpretazio horren arabera, foru-lurraldeek Euskal Herriaren jatorrizko subiranotasuna eta herri gisa duen nortasuna gorde dute mendetan zehar. Horrenbestez, Euskal Herriak «herri-izaera» du nazioarteko zuzenbideari begira eta zilegitasuna izango luke autodeterminazio-eskubidea erabiltzeko.

Lasagabasterrek (1999: 195) dioenez, ordea, tesi erakargarri horren prozedura ez da oraindik ere behar bezala landu. Herrero de Miñon-en arabera, nahikoa litzateke independentzia aldarrikatu eta ondoren hauteskundeak gehiengo osoz irabaztearekin, baina prozedura horrek ez du nazioarteko ezagutzaz ezer aipatzen. Orobat, tesi honek Iparraldeko euskal lurraldeei begira zailtasunak planteatzen ditu.

1.6. Europar Batasuna sezesioaren aurrean: segregazioa eta balizko ondorengotza EBko kideza lortzeko

a) Autodeterminazio-eskubidea Europar Batasunean. Zein izango litzateke EBren jarrera sezesio kasu baten aurrean?

Galdera hori gero eta gehiago ari da planteatzen Europar Batasuneko (EB) estatutik gabeko etorkizuneko eszenatokiei buruz mintzatzerakoan. Baina galdera horrek ez dauka erantzun argirik, hainbat arrazoi direla medio. Alde batetik, EBn ez dago inolako araudirik gai honi buruz eta, bestetik, ez dago aurrekaririk. Horregatik, halako kasu baten aurrean EBren erantzun posible batzuk aztertuko ditugu, EBren ezaugarriak kontuan hartuz.

Europar Batasuna erakunde *sui generis* da, hots, sistema hibridoa; izan ere, nazioarteko erakundeen ezaugarri batzuk ditu, eta era berean eredu federalen beste ezaugarri batzuk (Jauregi, 2009). Gaur egun EB 27 estatuk osatzen dute eta haiek dute funtsezko boterea. Era berean, Lisboako Konstituzio Itunak (2009) estatu kideei EBtik banatzeko/irteteko eskubidea aitortu die EBI 50. artikuluan. Ingurumari horretan estatutik gabeko europar herrien estatusa estatu kideen barruko auzia da eta eskualde-izaera aitortzen zaie, herrien etorkizun konstituzionala estatuen barneko erabakia izanik. Hori dela-eta, arlo horretan EBk ez du eskua sartzerik.

Hortaz, Europar Batasunak ez die formalki estatutik gabeko herriei sezesio-eskubidea aitortzen, ezta debekatzen ere.

Izan ere, EBn «sezesioa eta autodeterminazioa» gaurkotasun handiko gaia da, batez ere azkeneko urteetan.

27 estatu kideen artean batzuek «autodeterminazio-eskubidea»ren izenean duela gutxi lortu edo berreskuratu dute beren estatu-izaera, estatuen sorreraren *hirugarren olatuan* deitu izan zaion prozesuaren ondorioz. Horien artean ditugu, esaterako, Lituania, Letonia, Estonia, Txekiar Errepublika, Eslovakia, Eslovenia eta, noski, Alemaniaren batuketa (1989. urtean). Era berean, Serbia, Mazedonia, Kroazia eta Montenegro estatu kidegaiak Jugoslavia estatuaren zatiketaren ondoren sortu ziren.

Jugoslaviaren zatiketan, gainera, Europar Batasunak erakunde gisa paper garrantzitsua bete zuen, hain zuzen ere, Nazioarteko Erakundearen eskariz. *Europa berriaren* eraikitze-prozesua sendotzeko asmoz, *Europeanisation* deituriko parte-hartze zuzena izan zuen Europar Batasunak estatu berrien demokratizazio- eta ezagutza-prozesuetan, betiere gatazka konpontzeko xedez (Letamendia, 2008).

Europeanisation delako hori, 1991 eta 1993 artean hasi zen, Europako Ekonomia Erkidegoaren Ministroen Kontseiluak Jugoslaviaren auzia bideratzeko arbitraje-batzorde bat osatu zuenean. Batzorde hura, «Badinter Batzordea» izenez ezagutua, orduko estatu kideetako Konstituzio Auzitegiko lehendakariak osatu zuten. Batzorde horren lana oso nabarmena izan zen, bereziki, Montenegroren independentziako prozesuan (2006³⁶); izan ere, horretan EBk, berak, monitorizatu zuen sezesio-prozesua, bertan aplikagarri izango ziren «estandar demokratikoak» ezarri.

Montenegroren kasuan sezesiorako finkatutako baldintzak hurrengoak izan ziren: galdera garbia formulatzea, erreferendum bidez sendetsia izatea gutxienez aldeko bozen % 55 lortuz, eta, azkenik, prozesu adostua izatea Serbia eta Montenegroren artean. Kasualitatez, edo ez, baina aipagarria da baldintza horiek Kanadako Goi Auzitegiak Quebec-eko galderei buruzko erabakian finkatuko berberak direla.

Bestalde, EBren barne-mailan, ezin ditugu ahaztu EBk (Europako Ekonomia Erkidegoaren garaian) Alemaniaren batuketa-prozesuan emandako laguntza eta zer-nolako malgutasunez jardun zuen oro har eta, bereziki, tratatuen interpretazioan. Ildo beretik, aipagarria da, orobat, EBk Ipar Irlandako gatazkaren amaieran (1998ko Ostiral Santuko Akordioa) izandako jarrera eraikitzailea eta bake-prozesua sendotzeko PEACE programen finantzaketa garrantzitsua (FILIBI, 2010: 46-55).

Orobat, gogora ekarri nahi dugu EBko erakundeek, batez ere Europako Parlamentuak, herrien autodeterminazio librearen aldeko aldarrikapena egin dutela hainbat adierazpen eta erabakitan, bai deskolonizazio-kasuetan³⁷, bai deskolonizaziotik kanpoko kasuetan³⁸. Hain zuzen ere, deskolonizaziotik kanpoko Hego Sudaneko kasuan berriki adierazi du «Europar Batasunaren printzipioetariko bat herrien autodeterminazio-eskubidea dela». Amaitzeko, ildo beretik, oso esanguratsua izan zen iaz (2010) Europako Parlamentuak Kosovoren independentzia estatu kide guztiek aitortzeko onartu zuen adierazpena.

Esan dugunez, autodeterminazioaren gaia Europar Batasunean ohiko gaia da eta orain arteko jarrera *chiarosquero* dela esan daiteke, hau da, gatazkak bideratzeko aukera sortu denean jarrera eraikitzailea izan du, baldintza demokratikoak bultzatuz eta arauen interpretazio malguak erabiliz, eta aldean arteko akordioa egon denean (Alemania, Ipar Irlanda edo Groenlandia) isiltasuna edo jarrera baikorra adierazi du. Bereziki esanguratsuak izan ziren, gure ustez, Montenegron finkatutako baldintza edo estandar demokratikoak, Kanadako Auzitegiak Quebec-erako ezarritako berak izan zirelako, eta horrek pentsarazten du beste kasu batzuetarako aurrekari sendo bat izan daitezkeela baldintza horiek.

b) Zer gertatuko litzateke EBN Euskal Herriak independentzia lortuz gero?

Doktrinaren arabera bi egoera gerta litezke: EBtik kanpo gelditzea eta EBN sarrera eskatu behar izatea (segregazioa) edo estatu-kidetza zuzena lortzea ondorengotza bidez. Nolanahi ere, aurrekari falta dela-eta, bestelako aukerarik egon daitekeenik ere ezin da ukatu.

36. Montenegrok 2006ko maiatzaren 21ean aldarrikatu zuen formalki bere independentzia.

37. Ekialdeko Timor (DOC 219 30/7/1999), Mendebaldeko Sahara (DOC 104, 14/4/1999).

38. Hego-Sudan (DOC 167 01/06/1998) edo Txetxenia (DOC 17, 22/1/1996).

Europar Batasunaren barne-zabalkundearen teoria: Europar Batasuneko estatu-kidetza lortzea balizko ondorengotzaren bidez

Barne-zabalkundearen teoria bi txosten juridikotan dago oinarrituta. Teoria horren arabera, bide demokratikoak erabiliz, EBko estatu kide bateko eskualdearen sezesioa gertatuko balitz, edo estatu kide baten disoluzioa gertatuko balitz, sortutako estatu berriak edo berriek EBko kide izaten jarraituko luke(te) eta beren ama-estatuaren eskubideak edukitzen eta obligazioak betetzen jarraituko luke(te)³⁹.

Teoria horren arabera, estatu berria onartzeko erabakian Europar Batasunak demokraziari eman beharko lioke lehentasuna eta horretan oinarritu. Horrela, bada, EB behartuta egongo litzateke bere lurraldeko herrialde bateko herritarren gehien-goak hartutako erabakia errespetatzera. Hori egin ezean, EBk europar herritarrak estatu independente bat sortzegatik zigortuko litzuke eta neurri ulertezina izango litzateke demokraziaren ikuspegitik.

Estatu berria onartzerakoan EBren kezka nagusia, ordea, EBren zuzenbidearen jarraitutasuna bermatzea izango litzateke batik bat, bereziki, herritarrei aitortutako eskubideak errespetat ditzan estatu berriak eta EBrekiko betebeharrak bete ditzan. Horregatik guztiagatik, teoria honen arabera, estatu berriari independentziaren unetik bertatik estatu-kidetza oinarrituta bermatzea litzateke itenbiderik egokiena eta logikoa.

Hala balitz, Europako estatu berriak hurrengo ezaugarriak bete behar izango lituzke: a) EBko kidea izaten «jarraitzeko» borondatea adierazi behar du; b) EBren Itunaren 2. artikulua printzipioak onartu behar ditu; c) EBren eratorritako betebeharrak betetzeko gaitasuna izan behar du. Estatu berriak betekizun horiek betez gero, logikoki Europar Batasuneko kide bihurtuko litzateke, EBtik kanpo gelditu gabe eta EBn sartzea negoziatu behar izan gabe.

Azkenik, prozedurari dagokionez, pausoak hauek izango lirateke: a) independentziaren deklarazioa egin; b) EBri ondorengotza-asmoa jakinarazi; c) EBrekin aldi baterako araubidea ezarri jarraitutasunaren bideragarritasuna aztertzen den

39. Ondorio horretara heltzeko EBren hurrengo ezaugarriak kontuan hartu dira:

a) EBren printzipio demokratikoen lehentasuna: demokraziaren defentsa eta promozioa.

b) EB zuzenbide-estatu da, hortaz, lege bidez eskubide eta betekizun subjektiboak aitortzen dizkie estatu kideetako herritarrei. Orobat, europar herritartasuna aitortzen zaie.

c) EBk ez du bere barne-araudian halako kasuetarako arauik eta EBk, erakunde *sui generis* izanda, nazioarteko erakunde eta estruktura federalen ezaugarriak uztartzen ditu. Estruktura federalen kasuan, konstituzioetan berriaz aurreikusi ez arren, barne-zabalkunde prozesuak egon dira, estatu edo kantoietan edo estatu federatu berriak sortzerakoan, hala nola Jurako kantoia Suitzan eta Maine estatua Estatu Batuetan. Horrela, bada, nazioarteko erakundeetan estatuen ondorengotzari buruzko erabakiak hartutako araudia aplikagarri izan daitekeela pentsa daiteke. Estatuaren ondorengotzaren inguruan dagoen nazioarteko erreferentzia nagusia 1978ko Vienako Ituna da eta estatuen ondorengotza-kasuetan jarraitutasunaren printzipioa proposatzen du. Printzipio horren arabera, estatu berria ama-estatuaren eskubide eta obligazioetan subrogatuko da.

d) EBren historian, gainera, pragmatismoa eta malgutasuna erabili dira EBko lurraldetasun-arazoei itenbidea emateko. Adibidez, Alemaniaren batuketa eta Groenlandia, nahiz eta Danimarkako eskualdea izan EB(EEE)tik irteerarako. *Convenio de Viena de 1978, sobre sucesión de Estados en materia de tratados*.

bitartean; d) behin betiko estatu-kidetza onartu, EBlren 48. artikuluaaren prozedura erabiliz⁴⁰.

Segregazioa eta sarrera eskatzea *ex novo*.

Teoria honek ez ditu barne-zabalkundearen teoria eta «oinordeko zuzena»ren prozesua onartzen. Aitzitik, EBren barnean sezesioaren edo disoluzioaren bidez estatu berri bat sortuko balitz, estatu berria «zuzenean» EBtik at geratuko litzateke eta EBko estatu kide izan nahiko balu, EBn sartzeko eskaera arrunta egin beharko luke, EBlren 49. artikuluan finkatzen den prozedurari jarraituz. Hori egin ezear, Europar Batasunetik kanpo geratuko litzateke, Norvegia eta Suitza bezala.

Teoria honen aldekoek, batez ere, Eskoziako independentziaren aukera aztertu dute eta agintari eta politikari zentralistek jorratzen dutena da, aldarrikapen sezesionistak isilarazteko.

Haien ustez, EBren barne-zabalkundeari ezin izango litzaioke Vienako 1978ko Ituna aplikatu eta, hortaz, ondorengotza erabili estatu berria EBko estatu kide izateko Europar Batasuneko Itunak gaia arautu egin duelako, hain zuzen bere 49. artikuluan. Horrela, bada, teoria honen arabera estatu berriaren kasuan ez litzateke kontuan hartuko independentzia lortu baino lehenagoko ama-estatuaren baitan zuen europar kideatasuna, ezta haren biztanleen europar herritartasuna ere.

Horrez gain, beste arrazoi bat egongo litzateke barne-zabalkundea ukatzeko haien ustez, alegia, EBko estatu guztiek estatu berria aitortu behar dutela, bai estatu berri bezala baita aho batez EBko kide berri gisa ere. Kosovoren adibidea ikusirik, (oraindik sei estatu kidek ez dute haren independentzia aitortu), errealitate hau oztopo bat izan daiteke etorkizunari begira.

Gaur egun, behintzat, EBko zenbait estatu beren barneko sezesio-auziak geldiarazi nahian, ez daude prest Europako beste herri batzuen sezesioa onartzeko. Eszenatoki horretan sezesio edo disoluzio bidez sortzen den estatu berria EBtik kanpo geratuko litzateke eta EBn sartzeko EBlren 49. artikuluaaren prozedurari jarraitu beharko lioke. Negoziaketak luzeak izaten dira eta sarritan urteak irauten dute, estatu kidegaiak 1993eko Kopenhageko irizpideak⁴¹ betetzen dituela ziurtatu arte.

Teoria honek, hala ere, kontuan hartuko beharko du nolabait hurrengo urteetan sezesionatu daitezkeen herriek (Euskal Herria, Katalunia, Eskozia, Flandria, beste batzuen artean) hamarkadak daramatzatela Europar Batasunaren barne, eta dudarik gabe, eskakizun guztiak betetzen dituztela. Beraz, logikoa litzateke negoziaketak laburrak izatea.

Bi teoriak ikusita ondorio gisa esan daiteke nazioarteko praktikak erakutsi digula estatuen ondorengotza-kasuetan irtenbide politikoak lehentasuna izan ohi

40. 1. Eranskinean jasota daude prozeduraren zehetasun guztiak.

41. Kopenhageko irizpideak: erakunde finakoak eta demokrazia bermatzaileak izatea, zuzenbide-estatuak, giza eskubideen eta gutxiengoaren errespetua eta babesa. Merkatu-ekonomiaren arabera jardutea eta gai izatea EB barnean dauden merkatu-indarren lehiaren presioei aurre egiteko. Gaitasuna izatea EBko kide izateko betekizunak betetzeko, batez ere, batasun politiko, ekonomiko, monetarioari dagozkienak, eta komuna den arau-ondarea.

duela eta ez horrenbeste nazioarteko zuzenbidearen arau zehatzak, zeren halako kasuetarako irtenbideak pragmatikoak eta malguak izaten baitira, gehienetan. Horregatik, baliteke tarteko beste egoerak gertatzea, *ex nunc* irtenbide bat ezarri, betiere XXI. mendean demokraziari lehentasuna emanaz.

2. ESTATU-ERAIKUNTZAREN ALDERDI MATERIALA

2.1. Euskal kohesioaren aldeko dinamika baten garrantzia

Atarikoan esan dugunez, estatugintzaren alderdi materialak euskal herritarren arteko harremanak areagotu nahi ditu, euskal kohesioa landu eta indartze aldera. Izan ere, gizarte baten kohesioak lagundu egiten du herri horren nortasuna zaintzen eta garatzen, hots, herri gisa bizirauten.

Egiaztatuta dago zenbat eta kohesio handiagoa izan gizarte batean, gero eta indar gehiago duela gizarte horrek bere garapen ekonomiko, kultural eta soziala lortzeko. Gaur egun, ordea, euskal kohesioa mugatu eta baldintzatzen dute Espainia eta Frantziako kohesioek; izan ere, haien kohesioak maiz euskal kohesioaren gainetik ezartzen zaizkigu eta hainbat traba ditugu (legezkoak, ekonomikoak, kulturalak...) euskal herritarren artean naturaltasunez harremanak izateko kultur arloan, ekonomia-arloan, hezkuntza-arloan, etab.

Euskal kohesioaren bide honi *herrigintza* edo *nazio-eraikuntza* ere deitu izan zaio. Udalbiltzak bere sorrerako adierazpen politikoan (1999)⁴² *nazio-eraikuntza* «prozesu dinamiko eta demokratiko gisa» definitu zuen, hain zuzen ere, Euskal Herri osoko udalerrien arteko harremanak eraikitzen laguntzen duen prozesua, eta zenbait esparrutan, hala nola hizkuntzan, kulturean, kirolean, ingurumenean, lurraldearen antolaketan, ekonomia-garapenean eta ongizatean udal-ordezkarien ekinza bateratuei aukera ematen dien dinamika.

2.2. Zergatik independentzia materiala?

Baina zergatik esaten diogu euskal kohesioa indartzearen bideari, edota nahi bada herrigintzari, independentzia materiala?

Bada, lehenik eta behin euskal kohesioa indartuz euskal herritar izateko kontzientzia lantzen delako eta euskal kontzientzia hori dutenen artean ageriago eta nabarmenago azaltzen delako euskal gizarteak berezko egitura juridiko-politikoa behar duela, herri gisa bizirauteko eta garatzeko.

Bestalde, euskal jendartearen arteko harremanak trinkotuz, Euskal Herriaren lurraldetasuna azalarazten delako, eta independentziaren alderdi formala aztertzerakoan ikusi dugunez, lurraldetasuna zehaztea ezinbestekoa da estatu-izaera formala lortzeko. Are gehiago esan dezakegu, Euskal Herriko herrialdeetan independentziaren aldeko gehiengoa bermatu gabe Euskal Estatuaren aldeko aldarrikapen formala sustatuz gero, arriskua dago euskal herrialde batzuk Euskal

42. http://www.udalbiltza.eu/web/files/pdf/adierazpen_instituzionalak/1999/adierazpen_instituzionalak_1999_eu.pdf

Estatuaren lurraldetasunetik kanpo gelditzeko, bertako herritarrek horrela erabakita gainera. Behin estatu-izaera lortuta, oso zaila gertatuko litzateke herrialde horiek Euskal Estatuari sartzea; izan ere, nazioarteko arauen arabera Euskal Estatu berriari lurraldetasunaren printzipioa aplikatuko litzaioke eta horren arabera Euskal Estatuak ezingo luke ekintzarik egin beste estatuen mugak aldarazteko. Askotan jola lankidetzak eskaini ahal izango lioke kultura, gizarte edo ekonomia gaitan, baina betiere, ama-estatuaren bitartez⁴³.

Azkenik, euskal kohesioa indartzeak euskal estatugintzaren prozesua bera babes dezake, euskal lurraldeak Europako ardatz geografiko komun baten zati baitira (Europako ardatz atlantikoa) eta, gainera, ardatz geografiko horretan eremu aktiboenetarikoa bat, hazkunderako gaitasun handia erakutsi duena. Horrela, euskal kohesioa indartuz Europako ardatz atlantikoa bera indartzen da eta Europarako behar-beharrezkoak bihurtu gaitezke euskal herritarrak eta euskal lurraldeak. Horren aurrean Espainia eta Frantziako ama-estatuak argudiorik gabe geratzen dira Euskal Herriko herrialdeen arteko harremanak mugatzeko eta trabatzeko. Alderantziz, Europaren ikuspegitik euskal herrialdeen arteko harremanak sustatzea positiboa da eta horretarako behar diren tresnak eskaintzea (mugaz haraindikoa lankidetzak, euroeskualdea...) normalizatzen joko da. Horren harira, interesgarria litzateke jakitea Europari eta bere garapenari Euskal Estatu batek zer eskaini diezaikeen, Europako ardatz atlantiko hori dinamizatzen aldera.

Beraz, hainbat arrazoi daude independentzia materialaren alderdi honi erreparatzeko eta sakon aztertzea behar duen zer-nolako baldintzak behar diren independentziaren ikuspegi dinamiko hori garatzeko.

Nolanahi ere, independentziaren bide materialak hainbat arrisku ere izan ditzake. Izan ere, ama-estatuak euskal kohesioa lortzeko tresnak eskainiz gero, hainbat herritarrek independentzia formalaren beharra zalantzan jar dezakete. Bide hori izan da Kanadak erabili duena Quebec-eko mugimendu independentistari indarra kentzeko, baina Quebec-eko eta quebecois-en harremana Kanadarekin ez da Euskal Herriak Espainia eta Frantziarekin duena, eta Kanadan dagoen demokrazia-kultura ere Espainian eta Frantzian dagoena baino handiagoa da, batik bat, nazio-aniztasunaren kontzeptuari dagokionez⁴⁴. Independentzia materialaren bidez alderdi formala moteltzeko arriskua hor dago, baina arrisku hori kontrolatzea gure esku dago eta ez beste inoren esku, agerian utziz mendetasun-egoerak berez dakartzan mugak.

2.3. Independentzia materiala lantzeko tresnak

Independentzia materialaren helburua euskal herritarren arteko harremanak trinkotzean datza eta helburu hori hainbat tresnaren bidez lor daiteke.

43. Hori da, esaterako, Hego Tirolaren egoera Italian edo magyarren egoera Errumanian.

44. Benoît Pelletier Quebec-eko gobernuaren ministro ohiak "Why sovereignty is fading" izenburuko iritzi-artikuluaren Quebec-eko alderdi independentistak zergatik galdu duen babesa azaldu du.

a) Euskal erakundeen arteko eta euskal eragileekiko lankidetza normalizatua

Euskal Herrian azken 30 urteetan euskal erakundeen eta euskal eragileen arteko lankidetza ez da normalizatua izan, aitzitik esan daiteke nahita oztopatu dela. Oztopoak bai eremu instituzionalean⁴⁵, bai eragileen arteko harremanetan egon dira eta susmagarritzat hartu dira *euskal* abizena zuten harreman guztiak. Oztopo eta susmo guztien adibide larriena Udalbiltzaren aukako jarrera dugu; izan ere, Udalbiltzako eragile batzuk auziperatuak izan ziren «terrorismo» leloaren pean⁴⁶, zorionez auzia ezerezean geratu bazen ere.

Oztopoak oztopo, Hego eta Ipar Euskal Herriaren arteko lankidetzarako tresna batzuk agertu dira, Europako Kontseiluak sustatutako mugaz haraindiko lankidetzaren bidez (1980). Tresna aipagarriena Baionako Ituna (1995) da. Eremu horretan hainbat saiakera egin izan dira eta esperientzia bat lortu da, baina Letamendiak (2004: 314-319) adierazten duenez, hutsune ugari izan ditu: Nafarroak ez du 1999tik aurrera Euskal-Akitaniako lankidetza-esparruan parte hartzen, lankidetza-saioetan parte hartu duten erakundeek ez dituzte jarduteko eskumen eta baliabide berdinak, finantzaketa-arazoak daude...

Euskal eragileen arteko lankidetza ere aberatsa izan da urte hauetan guztietan eta horri esker dugu gaur egun Euskal Herri mailako egitura lortu duten hainbat eragile politiko eta sozial, hala nola Batasuna, EAJ-PNV eta Eusko Alkartasuna, Partaide Ikastola, LAB sindikatua... Horrez gain, areagotu dira Ipar eta Hego Euskal Herriko eragileen arteko lankidetzak, esaterako, kooperatiben mugimendua, Euskal Herriko Laborantza Ganbara, Gaindegia, Udalbiltzak sustatutako Euskal Herriko udalen arteko anaitasunak...

Garai berri honetan, euskal lankidetza instituzionalak eta lankidetza sektorialek, hau da, gizarte-eragileen artekoek, ez dute muga «artifizialik»⁴⁷ izan behar, aitzitik, Euskal Herriaren garapenerako positiboa izanik, tresna eta laguntza egokiak izan behar ditu. Muga artifizia horiek desagertzeko, batetik, araubideak berariaz euskal esparruko lankidetza ontzat jo beharko luke eta lankidetza instituzionala ez litzateke erabili beharko eragileen arteko lankidetza oztopatzeko. Aitzitik, lankidetza instituzionalak eta sektorialak bide beretik joan beharko lukete, elkarrekiko sinergiak sortuz eta baliabideak ahal diren eraginkorren erabiliz.

45. Arlo instituzionalean izandako traben adibide batzuk: EAE eta NFE arteko lankidetza iraunkorrari buruzko hitzarmena Espainiako Gorte Nagusiek onartu ez izana (1996), EITB Nafarroan normaltasunez ikusi ezin izatea, EAEko erakundeek Nafarroako eta Iparraldeko ikastolei diru-laguntzak emateko egondako trabak...

46. Zorionez Auzitegi Nazionalak auziperatu guztiak aske utzi zituen, leporatzen zitzaizkien delitu guztiak ezerezean utziz. 2/2011 Epaia.

47. Gaur egun euskal lurraldeen arteko lankidetza legez mugatuta eta guztiz kontrolatuta dago, zer edo zer txarra balitz bezala. Hego Euskal Herriari dagokionez, Espainiako Konstituzioaren 145. artikulua autonomia-erkidegoko federazioak debekatzen ditu eta Espainiako Gorte Nagusien esku uzten ditu autonomia-erkidegoen lankidetza-hitzarmenak baimentzea eta kontrolatzea. Iparraldean, berriz, Hego Euskal Herriarekiko lankidetza guztiz zentralizatuta dago prefektuaren bitartez. Gainera, Iparraldeko herrialdeek ez dute Hegoaldekoek duten finantzazio-autonomiarik (Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren itun ekonomikoak direla medio hainbat zerga kontzertatuta daude eta euskal erakundeek dagokie zerga horiek biltzea; bildutakotik Espainiari *kupoa* delakoa ordaindu egiten zaio estatuak bere esku dituen hainbat eskumenengatik) eta horrek zailtasunak dakartza Hego eta Ipar Euskal Herriaren artean lankidetza normalizatu bat ezartzeko.

b) Dentsifikazio (trinkotze) juridiko normatiboa

Euskal herritarrak elkarrekin harremanetan jartzeko eta saretzeko euskal arau-bidea tresna egokia izan daiteke, hau da, Eusko Legebiltzarrak eta/edo Nafarroako Gorteek onartutako legeak. Izan ere, Hego Euskal Herrian bederen, zenbait arlotan (hizkuntza, kultura, nekazaritza, industria, herri-administrazioa, ingurumena, merkataritza...) eskumen osoa dugu eta horrek arlo horietan arautzeko ahalmena ematen du. Hortaz, euskal ordezkari politikoek hala nahi izanez gero, araugintza koordinatuaren bidez Hego Euskal Herri osoan politika publiko adostuak ezar ditzakete. Agian berdin-berdinak izan gabe, tresnak eta erritmoak lurralde bakoitzera egokituz, baina behintzat xede partekatuak eta adostuak izanik.

Kontuan hartu behar da gainera, eskumen osoa dugun arloetan finantza-baliabideak ere bermatuta ditugula itun ekonomikoaren bitartez, eta horrenbestez arlo horretako politika publikoak finantzatzeko berezko baliabideak ere bermatuta baditugula.

Nolanahi ere, bai euskal lurraldeen arteko lankidetzak normalizatua sustatzeko, bai saretze normatiboa bultzatzeko gaur egun bizi dugun krisi instituzionala eta lortu dugun autogobernuaren maila eta, bereziki, haren kalitatea, berrikusi beharra dago.

3. GAUR EGUNGO KRISI INSTITUZIONALAK ETA BIDE AUTONOMISTA HUTSAREN AJEAK

Hego Euskal Herriko autonomia-estatutuen esperientziak azken hogeita hamar urteetan hutsune nabarmenak izan ditu:

- a) **Bitariko harreman instituzionala versus homogeneousizazioa:** euskal autonomia-estatutuak (EAEkoa eta NFEkoa) onartu zirenean Espainiaren bitariko harremanak bitarikoak izango zirela onartu zen (Espainiako estatua EAErekin alde batetik eta NFErekin bestetik), baina bitariko harreman hori ahulduz joan da, Konstituzio Auzitegiaren laguntzaz estatuaren nagusitasuna ezarri eta gainerako autonomia-erkidegoekin parekatuz, «denontzako kafea»ren teoriari jarraiki. Nolanahi ere, bitariko harreman hori, ahulduta ere, zenbait arlo zehatzetan oraindik ere gordetzea lortu da, hala nola itun ekonomikoaren finantza-arloan, zenbait eskumen-esparrutan (hezkuntzako bekak, segurtasun publikoa, errepideak, Europako gaiei buruzko bitariko batzordea...). Bitariko harreman horren bidez, euskal eskumeneren esparruan Espainiako estatuaren esku-sartzea saihestu eta kontrolatu nahi zen, hala ere, esperientzia ikusita ez da berme nahikoa izan.
- b) **Euskal berezitasuna:** euskal autonomia-estatutuak beren foru-izaeraren bidez eta eskubide historikoetan oinarrituta saiatu ziren Espainiako estatuko gainerako autonomia-erkidegoek baino autogobernu-maila altuagoa lortzen eta Espainiako araubidetik aparteko berezko araubide bat izaten⁴⁸. Ala-

48. Estatuko hainbat lege ez dira Euskal Autonomia Erkidegoan zuzenean aplikagarri edo beren aplikazioa baldintzatua eta moldatua dago, hala nola 2/1986 Lege Organikoa, Estatuaren Segurtasun Indarren eta Kidegoen Legea; 8/1980, Lege Organikoa, Autonomia Erkidegoen Finantzazioari buruzkoa; 38/2003 Legea, Diru-laguntzei buruzkoa, etab.

baina, euskal berezitasuna hein handi batean neutralizatuta geratu da eta Espainiak ahal izan duen heinean gainerako autonomia-erkidegoekin parekatzeko joera du.

Horrez gain, lortutako euskal berezitasun horiek gordetzeko, zaintzeko eta babesteko indar eta baliabide ugari erabili behar izaten dute euskal erakundeek, ez baitaude behar bezala bermatuta. Adibide gisa aipa daiteke nola Espainiako Gorteek izapidetzen dituzten legeetan euskal berezitasuna gordetzeko xedapenak (estatuko legeen finantzazio-alderdiari buruzkoak, eskumen-eduki berezitua...) talde abertzaleen zuzenketen ondorioz sartu ohi diren, ez baita ministerioetako lege-egitasmoetan aurreikusten, EAEko eta NFEko autonomia-estatutuak Espainiako estatuaren legeak izan arren eta berezitasunak horien ondorio zuzena izan arren. Bestetik, ezagunak dira euskal erakundeek izapidetu behar izan dituzten helegiteak (batzuetan auzi-jartzaile gisa eta beste batzuetan auziperatu gisa) euskal erakundeen defentsan (Eusko Legebiltzarraren aurkakoa, EAEko lehendakariaren aurkakoa, itun ekonomikoaren defentsan...)

- c) Estatuaren erabakietan parte-hartze eza:** EAEk eta NFEk ez dute tresna egokirik Espainiako estatuaren erabaki garrantzitsuetan parte hartzeko, ezta erabaki horiek hartzen dituzten estatuaren erakunde nagusietan parte hartzeko ere. Europako erabakietan zuzenean parte hartzeko aukerarik ere ez dute. Salbuespen gisa aipa daiteke, hala ere, duela gutxi EAEk ECOFINen egotea lortu duela, duen zerga-subiranoetasuna dela-eta, baina oraindik ez dago jakiterik zer-nolako eragina izango duen.

EAEko zein Nafarroako autonomia-estatutuak beren eduki politikoa galtzen joan dira, eta beren lege hutsaren izaera nagusitu da. Hortaz, Espainiako estatuaren lege organikoek eta oinarritzko legeek beren edukia moldatzeko aukera dute. Bide horretatik, hain zuzen, lortu du estatuak hasierako eskumen-esparrua asko murriztea.

- d) Estatutuak garatzea eta eskumen-eskualdaketak:** EAEko zein Nafarroako autonomia-estatutuen eskumenak eskualdatzea estatuaren esku dago erabat, bai zeintzuk eskualdatu nahi dizkien baita zein baldintzatan eskualdatu nahi dizkien ere. Horren ondorioz, estatuak hainbat eskumen eskualdatzeari uko egiten dio eta beste asko urtetan eskualdatzeke egon dira. Eskualdatutako eskumenen artean, gainera, asko eredu zentralistaren menpe eskualdatu dira, hala nola Justizia Administrazioarena, lan-ikuskaritzari buruzkoa...

- e) Estatuaren batasuna lehenetsi:** euskal autogobernuaren garapenaren gainetik Espainiako estatuak bere batasuna lehenetsi du hainbat tresnaren bidez. Horrela, EAE eta NFEren arteko lankidetza oztopatu du; botere judizialak eredu zentralistari jarraitzen dio; botere ekonomiko nagusia eta horren gaineko erabakiak Madrilén eta Espainiako Gobernuan zentralizatuta daude...

- f) **Euskal lan- eta gizarte-esparrua:** gaur egungo autogobernu-mailak ez du lan- eta gizarte-arloan erabakitzeke euskal esparru propiorik.
- g) **Euskararen ofizialtasuna:** oraindik ere euskara ez da Euskal Herri osoan ofiziala eta estatueta erakundeetan ere ez dago euskara erabiltzeko eskubidea bermatuta.
- h) **Euskal Herrian lankidetzak** instituzionalak eta eragileen artekoak ez du esparru juridiko egoki bat eta susmopean jartzen da etengabe.
- i) **Autogobernuaren babes-ikuspegia:** orain arte euskal autogobernua gure ezaugarriak babesteko tresnatzat hartu da, eta babes ikuspegi hori gainditu beharra dago. Euskal Herriak behar duen autogobernu-mailak gure herri-izaera onartzeaz gain, euskal herritarren erabakitzeke eskubidea onartuz, Euskal Herriaren garapenerako tresna izatea lortu behar da.

Autonomismoaren bidea agortuta dagoela eragile abertzale guztiek onartzen dute. Baina, are gehiago esan dezakegu: Espainiako alderdi nagusiak (PP eta PSOE) jabetuta daude autonomia-estatuaren eredia estatu osoan —eta ez bakarrik Euskal Herriari dagokionez— agortuta dagoela eta eraberritu behar dela. Autonomia-erkidego guztiak parekatzeak «denontzako kafea»ren teoriaren bidez, Espainiako estatua bera desegonkortzeko balio izan du.

Frantziako estatuak historikoki Iparraldeko euskal lurraldeei berezko autogobernurako eskubideari uko egiten dion arren, Ipar Euskal Herrian euskal lurraldeen ezagutza instituzionalaren aldarrikapena berrindartzen ari da.

Bestalde, Europa osoa dago krisi larrian eta Europar Batasunaren orain arteko egituratze-ereduak gainera porrot egin du. Badiardi Europak erabakiak hartu beharko dituela bere bateratze sozial eta politikoari dagokionez, bestela ez da gai izango mundu globalizatu honetan indarra eta eragina izaten jarraitzeko. Europak ez dio orain arte heldu estaturik gabeko herrien auziari eta XX. mendearen bukaeran haren eskualde-politikaren barruan bidera zitekeelako itxaropena zabaldu bazen ere, gaur egungo perspektibarekin esan daiteke auziak zabalik jarraitzen duela eta ezer ondoriozta badaiteke, hori da estatu-izaera lortzeko beharra areagotu dela.

Krisi sakon honetan Euskal Herrian garai berri bat zabaldu da eta gaur arte pilatutako esperientziari eta heldutasunari esker, Euskal Herria indarberrituta atera behar da, orain arte lortu ez duen egituratze juridiko-politiko egonkor bat lortuz. Horretarako garrantzitsuena herritarrak gara eta gure artean lantzen ditugun sareak eta lankidetzak-esparruak. Euskal estatugintzaren prozesua gure esku dago, baita prozesu horri zer-nolako abiada eman nahi diogun zehaztea ere.

Urte askotan egon diren muga fisiko eta mentalak gainditu behar ditugu eta egindako bidez baliaturik euskal kohesioaren aldeko barne- eta kanpo-dinamika bat martxan jarri, batik bat gure indar eta baliabideetan oinarrituta. Prozesu horren bidez bilatuko litzateke euskal herritarrek zilegitzat jotzea Euskal Herri osoan aginte partekatu baten beharra (berezko euskal aginteen aldeko zilegitasun soziala eta demokratikoa dei geniezaioke lehen helburu horri) eta gainera euskal herritarren

arteko kohesioa indartzen joateko tresna politiko eta juridikoak eskuratzen joatea. Azkenik, kanpora begira ere, Euskal Herria herri gisa existitzen dela eta bereziturik biziraun nahi dugula adierazteko baliabideak eskaini beharko lirateke.

Hortaz, gure ustez, euskal autogobernuaren auzia euskal kohesioarekin eta euskal garapenarekin lotu beharko litzateke eta autogobernuaren tresnen bitartez, independentzia formala lortzeko bidean, independentzia materialaren aldeko estrategia argi bat jar daiteke martxan, euskal erakundeek gero eta esparru gehiagotan erabakimena edota subiranotasuna lor dezaten.

Azken finean, garai berri honetan eta Euskal Herrian independentzia formalaren hautuaren aldeko adostasun zabala lortu bitartean, independentzia aukera zilegitzat onartzen duen autogobernua lortu behar dugu, Irlandak, Eskoziak, Groenlandiak eta Flandesek beren ama-estatuaren aldetik lortu duten moduan.

I. ERANSKINA: EUSKAL HERRIA ETA SEZESIOAREN MAPA

Euskal Herriak bere estatu propioa behar du eta horren bila dabil aspaldi. Ez dakigu ondo zein bidetatik zabalduko den aukera. Ziur asko, bide bat baino gehiago izan beharko ditugu jorratuta eta prest, unean uneko egoerak esango baitu zein izango den egokiena. Hori dela-eta, arestian aztertutakoa kontuan izanik, koadro bat prestatu dugu Euskal Herriak estatu bihurtzeko izan ditzakeen aukeren inguruan:

SEZESIO-BIDEA	TITULUA eta BALDINTZA
Deskolonizazioa	Nafarroaren konkista deskolonizazio-prozesuetan sartu. Badago auzi-eske bat eginda http://nbk2012.blogspot.com/
<i>Remedial secession</i>	Euskal herritarrok mendetan pairatu ditugun giza eskubideen urratze larriek eta Espainia¹ eta Frantziako² estatuek Euskal Herria ez onartzeko jarrerak erakusten dute ez daudela prest EHren autogobernu-borondatea errespetatzeko eta bideratzeko. Eskubide historikoen bidea urratze eta ukazio horien ondorioa litzateke. Prozedura: zailtasun nagusia da nazioarteko erakundeek menpeko dinamika bat ezartzen dela; izan ere, haiek onartu behar dute, batetik, giza eskubideen urratze larriak gertatzen direla, eta, bestetik, Euskal Herriaren ezagutza estatu berri gisa.
Sezesio adostua	Euskal ordezkariak Espainiari eta Frantziari Quebec-eko doktrina aplikatzea eskatuko liekete eta bide-orri bat adostu erabakitzeke eskubidea gauzatzeko. Ondoren, adostutako baldintzetan egin beharko litzateke erreferendum bat eta baiezkua gaindituz gero, euskal erakundeak eta Espainia* eta Frantziako** estatuen arteko negoziazio-prozesu bat zabalduko litzateke. Bide honi jarraituz gero, nazioarteko ezagutza errazago lortuko litzateke, baita Europar Batasunean sartzea ere. Bide hau estatuekin negoziatutako autogobernu-testu batean txerta daiteke. Sezesio adostuaren bideak porrot egingo balu, zilegitasuna lortuko litzateke nazioartean <i>remedial secession</i>-aren bidez edo alde bakarreko sezesioaren bidez estatu bihurtzeko. Kanadaren diktamenaren ekarpen nagusia: demokraziaren babesa autodeterminazio-prozesuetan. Zailtasuna, berriz, Kanadaren diktamenak baldintza zehatzak zehaztea estatuen esku uzten du eta horrek atzerapenak eta zailtasunak sor ditzake.

* Konstituzio Auzitegiak bere doktrinan lurraldearen osotasun-printzipioaren adiera absolutua darabil eta uko egin dio —Kanadako Auzitegi Gorenak ez bezala— juridikoki Espainiako nazio-aniztasunaren auziari irtenbide bat bilatzeari, edo behintzat irtenbidearen ardatz batzuk zehazteari. Ukazioan oinarritzen da. ** Frantziak ere nazio bakarra ezagutzen du, besteak ukatuz.

Bide konstituzionalak	Eskubide historikoen bidea: estatuarekiko negoziazio-prozesu bat zabaldu beharko litzateke eskubide historikoen xedapenean oinarrituta eta 1978ko Konstituzioaren berrikuntzarik gabe Hego Euskal Herrirako Kanadako diktamenaren doktrina eskatu. Bide honek arazoak sortzen ditu lurraldetasunaren ikuspegitik; izan ere, bide honek Nafarroa bere baitan har badezake ere, ez du Frantzia eraginik. Nafarroarekiko hitzarmen historikoaren bidea. Eskoziaren eredia gurera ekartzea litzateke eta Gaztelako Koroarekin omen dagoen hitzarmena formalki apurtu. Lurraldetasunaren auzia hobeto bideratzeko aukera ematen du. Autonomia-estatutu berri bat Hego EHrako eta testu horretan erabakitze eskubidea berariaz jaso (Groenlandiaren edo Ipar Irlandaren antzera). Estatutu horrek erabakitze eskubidea erabiltzeko bide-orri argi bat jaso beharko luke. Era berean, Ipar EHri Frantziak autogobernu propioa onartu beharko lioke (Korsika edo Kanakoei ezagutu dien moduan) eta EH osorako euro-eskualde bat sortu. Euro-eskualde hori sortzeko oinarritzko testuan jasoko litzateke erabakitze eskubidea erabiltzeko ibilbide-orria.
Alde bakarreko sezesioa	Balizko prozedura: Euskal ordezkariak elkartu eta independentziaren aldarrikapena egin beharko lukete. Ordoren, nazioarteko komunitateari aurkeztu eta estatuen ezagutza lortu. Gerta liteke Europar Batasunak zenbait baldintza ezartzea ezagutzarako, besteak beste, erreferendum bat egitea, aurretik zehaztutako gutxieneko onespren-maila gainditu beharko lukeena. Zailtasunak: Frantzia eta Espainia ziur asko aurka azalduko lirateke eta beharrezkoa litzateke nazioartean beste potentziaren baten edo batzuen babesa. Horrek zer-nolako trukea eskatuko lukeen aztertu beharko litzateke.

Ikusi dugunez, nazioarteko esperientzia ikusita, Euskal Herriak hainbat bide ditu bere independentzia lortzeko eta ziur asko bide bat baino gehiago landuta eduki beharko dira. Ordezkaritza politikoei dagokie erabakitzea zein izan daitekeen bidea edo bideak, hala ere, edozein izanda ere aukeratutako bidea, XXI. mendean ezinbestez eskatuko den baldintza da euskal independentziaren hautuak sostengu demokratiko zabala edukitzea. Horretan arduradun politikoez gain, gainerako eragile sozial eta sindikalek, eta herritarrok oro har, badugu zer esana.

BIBLIOGRAFIA

- Abat i Ninet (2009): *Catalunya independent en el si de la Unió Europea* (Abat i Ninet Zuzenbideko irakaslea Standfordeko Unibertsitatean), Cercle d'estudis sobiranistes, Bartzelona.
- Abi-saab, G. (2006): "Conclusion", in M. Kohen (ed.), *Secession: International Law Perspectives*, Cambridge University Press, Cambridge eta New York, 474.
- Ahedo, I.; Etxebarria, G. eta Letamendia, F. (2004): *Redes transfronterizas Intervascas*, Eusko Jaurilaritza-UPV-EHU.
- Brownlie, I. (2008): *Principles of Public International Law*, Oxford University Press. Oxford, 88. or.
- Buchanan, A. (1991): *Secession: The Morality of Political Divorce from Fort Sumter to Lithuania and Quebec*, Westview, Boulder, Colo.
- , (2004): *Justice, Legitimacy, and Self-Determination: Moral Foundations for International Law*, Oxford University Press, Oxford.
- Caño, J. (1997): *Teoría institucional del Estatuto Vasco*, DU, Bilbo.
- , (1998): *Nazionalismoa, autodeterminazioa eta Independentzia*, Eusko Alkartasuna.
- Crawford, J. (...): *The Creation of States in International Law* cit.
- Christakis, T. (1999): *Le droit à l'autodetermination en dehors des situations de décolonisation*, CERIC, 286. or.
- Christakis, T. (2005): "L'obligation de non-reconnaissance des situations créés par le recours illicite à la force ou d'autres actes enfreignant des règles fondamentales", in Ch. Tomuschat eta J. M. Thouvenin (ed.), *The Fundamental Rules of the International Legal Order: Jus Cogens and Obligations Erga Omnes*, 134. or.
- Corten, O. (2005): *The Law Against War: The Prohibition on the Use of Force in Contemporary International Law* (Hart Publishing, 2010) *in toto*; T. Franck (2001): "Terrorism and the Right of Self-defense", AJIL, **95**, 840; C. Tams, "Swimming with the Tide or Seeking to Stem It? Recent ICJ Rulings on the Law on Self-Defense", RQDI, **18**, 275.
- Dunoff Jeffrey, L.; Ratner Steven, R. eta Wippman D. (2010): *International Law, Norms, Actors, Process*, Aspen Publishers, 222. or.
- Ezeizabarrena, X. (2008): "Los Derechos Históricos Vascos y el Concepto de 'Pase Foral'", Añamendi Eusko Entziklopedia, <www.euskomedia.org>.
- Europar Batasuneko Kanpo-ministroen Kontseilu Ezohikoa, Bruselan 1991ko abenduaren 16an onartutako *Declaration on the Guidelines on the Recognition of New States in Eastern Europe and in the Soviet Union*.
- Europar Batasuneko Batzordea: Commission Européenne pour la Democratie par le Droit (1990), "L'autodetermination et la secession en Droit Constitutionnel", Rapport adopté par la Commission lors de sa 41 Reunion, 1999. Veneziako Batzorde hau Europar Batasuneko estatu kideetako konstituzio-auzitegieta lehenbaiterietzat osatuta zegoen.
- Europar Batasuneko Parlamentua: Ekialdeko Timor (DOC 219 30/7/1999), Mendebaldeko Sahara (DOC 104, 14/4/1999); Hego Sudan (DOC 167 01/06/1998) edo Txetxenia (DOC 17, de 22/1/1996).
- Filibi, I. (2007): *La Unión política como marco de resolución de los conflictos etnonacionales europeos: un enfoque comparado*, Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, Leioa.
- Frank Thomas M. (1992): "The Emerging Right to Democratic Governance", *American Journal of International Law*, **86**, 46-91;
- Cassese, A. (1979): "Political Self-Determination: Old Concepts and New Developments", in A. Cassese (ed.), *UN Law. Fundamental Rights: Two Topics in International Law*, Sijthoff and Noordhoff, Herbehereak, 137. eta hur.

- Happold, M. (1999): *Scotland Europa: Independence in Europe*, CFER.
- Hannum, H. (2011): "The Advisory Opinion on Kosovo: An Opportunity Lost, or Poisoned Chalice Refused?", *Leiden Journal of International Law*, **24**, 157.
- Helsinki Akta: *The Final Act of the Conference on Security and Cooperation in Europe*, Aug. 1, 1975, 14 I.L.M. 1292 (Helsinki Declaration), VIII Idazpurua.
- Herrero de Miñón, M. (1998): *Derechos Históricos y Constitución*, Taurus, Madril, 333.
- Irujo, M. (2008): *Beneficio de ser un estado pequeño en la UE*, ALE-EFA.
- Kanadako Auzitegi Gorena (1998): *Reference re Secession of Quebec*, [1998] 2 SCR, 155.
- Jauregi, G.; Castells, J. M. eta Irujo (1997): *La institucionalización jurídica y política de Vasconia*, IVAP-Eusko Ikaskuntza, Zarautz.
- Jauregi, G.; Ugartemendia, J. eta Zelaia, M. (2009): *Europar Batasuneko Zuzenbideari Buruzko Eskuliburua*, IVAP.
- Lasagabaster, I. eta Lazkano, I. (1999): "Derecho, Política e historia en la autodeterminación de Euskal Herria", *Propuestas para un nuevo escenario: democracia, cultura y cohesión social de Euskal Herria*, Bilbo, 175-274.
- Letamendia, F. (koor.)(2006): *Acción colectiva hegoalde-iparralde*, Fundamentos argitaletxea, Madril.
- , (koor.) (2008): *Democracia, ciudadanía y territorialidad*, IVAP.
- , (2008): *International Recognition of Self-Determination within the European Union*, ECPR, 4th Pan European Conference on EU politics, 5. or.
- López Bofil, H. (2009): *Nous estats i principi democràtic*, CETC/Angle, Bartzelona.
- López, J. (2011): "Noves estatutats i processos de sobirania", *Estudis de cas: procesos de sobirania reeixits*, El centre d'Estudis de Temes Contemporanis.
- Matas i Altres (2010): *The Internal enlargement of the European Union*, IRLA, Bartzelona.
- Matthew, H. (1999): *Scotland Europa: Independence in Europe*, CFER.
- Nazioarteko Ituna, Tratatuak Buruko Vienako Ituna (1978).
- Nazioarteko Justizia Gortea - International Court Of Justice: Legal Consequences for States of the Continued Presence of South Africa in Namibia (South West Africa) notwithstanding Security Council Resolution 276 (1970), Advisory Opinion, I.C.J. Reports 1971, 31.-32. orrialdeetan, 52.-53. paragrafoak; East Timor (Portugal v. Australia), Judgment, I.C.J. Reports 1995, 102. orrialdea, 29. paragrafoa
- Nazioarteko Justizia Gortea - International Court Of Justice (ICJ): Advisory Opinion of 16 October 1975 on Western Sahara (1975 I.C.J. 25), paragraphs 55-60, pp. 23-26. See also the case concerning Northern Cameroon (Cameroon v. United Kingdom) 1963 I.C.J. 3; Military and Paramilitary Activities in and against Nicaragua (Nicaragua v. United States of America) 1986, I.C.J. 14; Certain Phosphate Lands in Nauru (Nauru v. Australia) 1989 I.C.J. 12, 1991 ICJ 3; and East Timor (Portugal v. Australia) 1995 I.C.J. 90.
- Nazioarteko Justizia Gortea - International Court Of Justice: *Burkina Faso v. Mali*, ICJ reports, 1986, 554. or.; 80 ILR, 469. or.
- Nazioarteko Justizia Gortea - International Court Of Justice (ICJ): Advisory Opinion of 9 July 2004, on the Legal Consequences of the Construction of a Wall in the Occupied Palestinian Territory, 88. paragrafoa, 39. orrialdea eta 122. paragrafoa, 184. orrialdea. Autodeterminazioa gaur egun *erga omnes* eskubidea dela argi agertzen du (ikus *East Timor* (Portugal v. Australia), 1995 I.C.J. 102. orrialdea, 29. paragrafoa).
- Nazioarteko Justizia Gortea - International Court Of Justice (ICJ): Accordance with International Law of the Unilateral Declaration of Independence in Respect of Kosovo (Advisory Opinion), General List No. 141, 22 July 2010, aurrerantzean Kosovo AO.
- Nazio Batuen Batzar Nagusiko "Declaration on principles of international law concerning friendly relations and co-operation among states in accordance with the Charter of the United Nations" (Batzar Nagusia (GA) Res 2625 (XXV), Un GADR 25th sess. Supp.No

- 28, UN Doc. A/8028 (1970) 124.), non autodeterminazio-eskubidearen hedapen zabala agertzen baita: «[b]y virtue of the principle of equal rights and self-determination of peoples enshrined in the Charter of the United Nations, all peoples have the right freely to determine, without external interference, their political status and to pursue their economic, social and cultural development, and every state has the duty to respect this right in accordance with the provisions of the Charter».
- Nazio Batuen Batzar Nagusiko Ebazpena 1514 (XV), 1960ko abenduaren 14koa, «the declaration on the granting of independence to colonial countries and peoples» eta Ebazpen horri segida eman zioten beste hainbat.
- NNBBko Segurtasun Kontseiluaren 1244 (1999) Ebazpena.
- NNBBko Segurtasun Kontseiluaren 1272 Ebazpena (1999) Ekialdeko Timorri buruzkoa (Resolution 1272 (1999) on East Timor, paragraph 3).
- NNBBko Segurtasun Kontseiluaren Ebazpenak 216 (1965) eta 217 (1965), concerning Southern Rhodesia; Segurtasun Kontseiluaren Ebazpena 541 (1983), concerning northern Cyprus; eta Segurtasun Kontseiluaren Ebazpena 787 (1992), concerning the Republika Srpska.
- Peters, A. (2011): "Does Kosovo Lie in the *Lotus*-Land of Freedom?", *Leiden Journal of International Law*, **24**, 99.
- Raic, David (2002): *Statehood and Self-Determination*, Kluwer Law, Haga, 365.
- Rodríguez Zapata Pérez (1999): "Sobre el Derecho de Autodeterminación y su compatibilidad con la Constitución", *Teoría y Realidad Constitucional*, **3**.
- Schieren, S. (2000): "Independence in Europe: Scotland 's Choice?", *Scottish Affairs*, **31**, spring.
- Shaw, M. N. (2003): *International law*, Cambridge University Press.
- Simpson Gerry, J. (1996): "The difusión of sovereignty: Self-Determination in the Post-Colonial Age" in M. Sellers (ed.), *The New World Order: Sovereignty, Human Rights, and Self-Determination of Peoples*, Berg, Oxford.
- Summers, J. (2010): "Relativizing Sovereignty: Remedial Secession and Humanitarian Intervention in International Law", *St Antony's International Review*, **6**, 1.
- Ugalde, A. (2001): *Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua (1951-2001)*, Eurobask.
- Urrutia, I. eta Lasagabaster, I. (2011): "Territorial Integrity and Self-Determination: The Approach of the International Court of Justice in the Advisory Opinion on Kosovo" *Ethnopolitics* argitaratu gabea.
- Weller, M. (2011): "Modesty can be a virtue: Judicial Economy in the ICJ *Kosovo* Opinion", *Leiden Journal of International Law*, **24**, 137.
- WINSTON P. NAGAL, CRAIG HAMMER (2004): "The Changing Character of Sovereignty in International Law and International Relations", *Colum J Transnatl L*, **43**.

4. Euskal Estatua, kudeaketarako tresna egokia: aniztasuna, demokrazia eta justizia soziala

Asier Blas Mendoza, Politika Zientzietan doktorea, UPV-EHUko irakaslea

Asier Blasek gogoratuko digu zein den euskal herrietan ditugun kultura desberdinen kudeaketarako tresnarik egokiena: Euskal Estatua. Euskal Herrian dagoen nazio-sentimenduen aniztasuna da abiapuntua. Aniztasuna kudeatzeko modu demokratikoen eredu kontsoziazionala izan daiteke, baina eredu hori —nazio eta kultura desberdinak modu orekatuan kudeatzeko aukera ematen duena— ezin da edozein ingurune politikotan aplikatu. Eredu horrek ingurune politiko egokia behar du, Espainiako eta Frantziako estatuek eskaini ezin dutena. Hasteko eta behin, haien tamainagatik, orain biltzen dituzten nazioen arteko desorekagatik, eta, batez ere, estatu bi horietan mende mende nagusitu den kultura politiko jakobinoarengatik. Alta, balizko Euskal Estatu batek baldintza guztiak betetzen ditu, Blasen iritzian, barne-aniztasuna kudeatzeko eredurik justuena indarrean jar dadin.

The basque state as an effective management tool: diversity, democracy and social justice

In this chapter Asier Blas focuses on the Basque state as the most effective instrument for the management of the diverse cultures that have a place in present-day Euskal Herria, taking as its point of departure the diversity of national sentiments found in the Basque Country. A consociational model whereby different nations and cultures can be managed in a balanced way, may be the most democratic solution for the management of diversity. But the implementation of this model requires an appropriate political setting that for a number of reasons the Spanish and French states cannot provide, such as their size, the present imbalance among the nations that form part of it, and most importantly, because of the Jacobin political culture that has dominated both states for centuries. However, in Blas' opinion, a hypothetical Basque state meets all the conditions for the implementation of the fairest model for diversity management.

1. SISTEMA POLITIKOAK ETA ANIZTASUN ETNIKO-NAZIONALAREN TRATAMENDUA

Euskal Herria askotariko errealitate nazionala da, eta bertan, autodeterminazioari buruzko gatazka duten mobilizatutako hiru nazio-talde bereiz daitezke (Sisk, 1996; Zubiaga, 1999, McGarry eta O'Leary, 2006a; Wolff, 2009, etab.). Alde batetik, euskal nazionalisten taldea dago, hau da, Euskal Herria autodeterminaziorako eskubidea daukan nazio gisa aldarrikatzen duen gizartearen zatia; eta beste alde batetik, Espainia edo Frantzia, kasuan kasu, erreferente hartzen duten nazionalista espainolisten edo frantsesen sektoreen kategoriak daude. Gainera, pluraltasun horrek hizkuntza-aniztasuna du muinean, nortasun-eztabaida horren hazkurria.

Errealitate horren aurrean, egokia da demokraziaren inguruko galdera nagusia gogoraraztea: egon al daiteke demokraziarik nazio anitzeko herrialdeetan? Egon al daiteke demokraziarik gizarte-egitura heterogeneoa duten herrialdeetan? Erantzun klasikoari jarraiki, gizarte-aniztasuna, gutxienean, traba bat da. Hasi Aristotelesen garaian, eta John Stuart Mill-en garaira arte, autore asko eta askok goratu dute gizarte-homogeneotasuna egonkortasun politikoaren giltzarri gisa. Stuart Mill-ek (1878: 450) baieztatzen duenez, «erakunde askeak ia ezinezkoak dira nazionalitate desberdineko herrialdeetan, lokarrik ez duen herri batean, herri horretan hizkuntza desberdinak irakurri eta hitz egiten badira bereziki»; hala, nazio anitzeko herrialdeak demokrazia ez-perfektuak edo erregimen autoritarioak garatzera kondenatuta daudela ondorioztatzen du, talde ezberdinek adostasunik lortuko ez dutela argudiatuz.

Eztabaida horretan, banaketa handiko gizarte baten kasuan konponbiderik egokiena integrazioa lortzea dela onartzen du Arend Lijphart-ek (2008: 279). Haatik, ez du uste epe labur edo ertainean halakorik lor daitekeenik; hori dela-eta, integrazioa irtenbide ez-errealistatza hartzen du. Ondorioz, sistemaren jite demokratikoari eutsi nahi izanez gero, aniztasuna kudeatzeko hiru irtenbide proposatzen ditu aukeran (Lijphart, 1977a: 44-46):

- a) Gizartearen izaera plurala desagerraraztea edo nabarmen murriztea, *asimilazioaren* bitartez. Metodo horrek baina, arrakastarako probabilitate txikia du estatu demokratikoa bada, batez ere epe motzera begira.
- b) Irtenbide kontsoziazionala, bereizketa anitza erregimen egonkor bat eraikitze oinarri gisa hartzen duena. Konponbide *kontsoziazionala* beharrezkoa izango da, batik bat, asimilazioa zaila bada edo saiatu eta lortu ez bada.
- c) *Banatzea*: aniztasuna murriztea, estatua bi atal bereiz eta homogeneoagotatzen edo gehiagotan zatituta.

Arazo hori, hots, demokrazia bideragarria eta barneko gizarte-aniztasunarekiko begirunetsua eraikitzea, XXI. mendeko gizarte pluralak⁴⁹ aurre egin beharreko erronka nagusietakoa da. Ferran Requejo-k (2009: 164) adierazten duenaren arabera,

49. Lan honetan «gizarte pluralak» Arend Lijphart-en (2008: 67) definizioaren arabera lantzen dira: «gizarte pluralak, erlijio, ideologia, hizkuntza, kultura, etnia edo arraza ildoen ondorioz erruz banandutako gizarteak dira, ia beregainak diren subgizarteetan daudenak, eta berezko alderdi politikoak, interes-taldeak eta komunikabideak dituztenak».

«egitarau liberal-demokratikoan, nazio anitzeko demokrazien aintzatespena eta egokitze politikoa oraindik behar bezala konpondu ez diren bi kontu dira». Arazo horri aurre egiteko erakundeek eman ohi dituzten hiru erantzun «klasikoak» honako hauek dira (Requejo, 2009: 165):

- 1) Federalismoa —zentzu zabalean, federazioak, estatu elkartuak, federazio edo *federacies* deritzenak, konfederazioak eta estatu erregionalak barnean hartuta—.
- 2) Jite «kontsozional»eko erakundeak edo prozesuak —edo behin betiko jitea duten gehiengo edo gutxiengo nazionalen arteko adostasuna—. Erakunde eta prozesu horien adibide dira Suitzako edo Belgikako demokraziak, bi-bien kasuan irtenbide federaleskin uztartuta.
- 3) Sezesioa.

Lehenengoa eta hirugarrena aldirien eta zentroaren gatazkak konpontzeko errezetak dira. Hartara, aldiriek estatuaren zati izaten jarrai dezaten, batzuetan jite federal zabaleko egokitzea egin da. Horren inguruan Requejo-k adierazten du (2009: 167) nazioaren aniztasuna egoki arautzeko aukera ematen duten bi eredu federal baino ez omen daudela. Batetik, nazio anitzeko federalismoaren eredua, eta bestetik, partenariatuaren eredua (estatu elkartuak, federazioak eta konfederazioak).

Ferran Requejo-ren ekarpen hori zehaztu beharra dago; izan ere, ohikoagoa da partenariatua irlen kasuan erabiltzea, eta oro har, zentrotik urrun daudenetan. Aldiz, ikuspegi enpirikotik, nazio anitzeko federalismoa urria da, eta, normalean, segmentu nazional desberdinen banaketa orekatua denean gertatzen da, hau da, gutxi gorabehera biztanleria kopuru antzekoa dutenean, eta beraz, eraikuntza demokratikoa berdinetik berdinerara jazo denean. Horrez gain, konponbide erabilgarria izan daiteke nortasun nazionalen atomizazio-kasuetan ere. Alabaina, segmentu nazional gutxi edo haien arteko proportziorik ez dagoenean (ikuspegi kuantitatibotik horietako batek gehiengo absolutua badu, batez ere), irtenbide federalak ez dira, lehen batean, erabilgarriak, eta tarte txiki bat uzten dute kasuan kasu. Horrelakoetan, ohikoa da tirabirak egotea: batetik, segmentu bat hartzen duen biztanleriaren gehiengoaren logika dago, eta, bestetik, bakoitzaren biztanleria kopurua gorabehera, segmentu nazionalekin maila berean adostasun bat lortzeko beharra.

Tirabira hori konpontze aldera, aniztasuna bideratzeko modu barneratzailea da lurralde-federalismoa eta adostasunezko estatua edo estatu kontsoziazionala bateratzea. Bigarren errezeta hori, Lijphart-ek eta haren «eskola kontsoziazional»eko jarraitzaileek eskatzen dute, lurralde berean (federazio, estatu, probintzia, eskualde...) elkarrekin bizi diren bi segmentu soziopolitiko —gutxienez— dituzten gizarte pluralen kasuetarako. Hots, zentroaren eta aldirien egokitzearen arazoa nola konpondu den gorabehera —dela egokitze federalista zabala, dela sezesioa—, lurralde horrek bere baitan gizarte plurala baldin badu, segmentu nazional desberdinen artean boterea nola edo hala partekatzen duen eredu demokratikoa eraiki beharko da gutxienean.

Banaketa sakona duten gizarteen hautabide behinen gisa, gehiengoaren demokrazia eta botere partekatu kontsoziazionala erkatzen ditu Lijphart-ek. Jatorriz, Lijphart-en botere partekatuaren teoria (1968, 1977, etab.) teoria pluralistaren kasu bakandu baten azterketatik jaio zen (holandarra). Hortik abiatuta, oro har, gizarte

heterogeneoak eta politikoki pluralak dituzten zenbait herrialdetan garatzen den demokraziaren taxura hazi zen. Demokrazia egonkoraren eta errotik banandutako gizarte baten izaeraren arteko lotura hori da teoria kontsoziazionalaren arauen garapenaren oinarria, horrenbestera non, funtsean, aginduzko xedea duen teorialtzat jo den.

Sistema kontsoziazional baten oinarritzko lau ezaugarriak honako hauek dira: (a) segmentu guztiek esku har dezaten bultzatzen duten gobernuko koalizio handiak; (b) talde bakoitzarentzako autonomia; (c) haien ordezkapen politikoaren eta funtzionarialaren arteko proportzionaltasuna; eta (d) beto-eskubidea segmentu edo talde etnikoentzat (Lijphart, 2008: 4)⁵⁰.

Botere partekatu kontsoziazionalaren demokraziak lurralde-autonomia edo sezesioa bazter uzten ez duela gogoratu beharra dago; baina azken horrek akademiaren gehiengoaren arbuioa dauka, konnotazio txarrez nahasi ohi baita. Hala, integrazionistek kontsoziazionalismoa kritikatzan dute, taldeen autonomia lurraldekoa denean dinamika sezesionista sor dezakeela arrazoituta. Horren inguruan, Lijphart-ek (1977: 44-45) zalantzan jartzen du autonomia emateak dinamika sezesionista indartzen duenik; aitzitik, hori hala balitz, ez du uste txarra edo desiraiezina denik. Eta gaineratzen du, burujabetzaren nahia ez dela desagertzen autonomiarik ez badago. Horren ildotik, Lijphart-ek adierazi duenez, asimilazioari erantzun zaion eta eliteen arteko lankidetzak (kontsoziazionalismoa) ezinezkoa den gizarte plural batean, banatzea edo bereiztea da aukera bideragarri bakarra. Hori horrela, azken aukera hori desdramatizatzen du, Samuel P. Huntington-en honako aipu hau eginez:

Dibortzio politikoaren, hau da, sezesioaren aurkako XX. mendeko joera, dibortzio zibilararen aurkako XIX. mendeko joera bezain indartsua baino ez da. Sezesioa posible denean, estadista garaikideek ondo egingo lukete tolerantzia handiagoz hartuko balute (Lijphart, 1977: 46).

50. Gainera, dimentsio iragarle bat bada horretan, demokrazia kontsoziazionala ezartzeko eta arrakasta izateko baldintzak identifikatzen saiatzen dena; horretan, azken adierazpen bat egin zuen (Lijphart, 2008: 51-52):

- 1) Gehiengoaren segmenturik ez izatea: boterea partekatzeko oztoporik handiena gehiengoaren sistema nahiago duen gehiengo solido bat izatea da.
- 2) Segmentuen arteko berdintasun sozioekonomikoa: bigarren faktore garrantzitsua gizartea banatuta dagoen segmentuen artean desberdintasun ekonomikorik ez egotea edo egotea da.
- 3) Segmentu kopuru txikia: talde gehiegi badago, taldeen arteko negoziazioak zailagoak eta konplexuagoak izango dira.
- 4) Segmentuen arteko nolabaiteko oreka: taldeek gutxi gorabehera tamaina berdina badute, haien artean botere-oreka izango da.
- 5) Biztanleriaren tamaina txikia: biztanleriaren guztizkoa txiki samarra bada, erabaki-hartze prozesua ez da horren konplexua izango.
- 6) Kanpoko mehatxuak: kanpoko arriskuek barneko batasuna sustatzen dute.
- 7) Leialtasun partekatuak (arras ulerberak, leialtasun orokorra): leialtasun berezien indarra murrizten du horrek.
- 8) Segmentuen metatze geografikoa: taldeak geografikoki metatuta badaude, federalismoa talde-autonomia sustatzeko erabil daiteke.
- 9) Eliteen adostasun-tradizioak: konpromiso- eta adostasun-tradizioek kontsoziazionalismoa bultzatzen dute.

Nolanahi ere, Lijphart-ek (1977: 46) aipatzen duenaren arabera, «segmentuak geografikoki nahastuta daudenean gertatzen da benetako arazoa». Ildo horretatik, azken kasu horietan, irtenbide kontsoziazionala, banatzea edo sezesioa baino hobea dela uste du. Izan ere, azken aukera hori posible izango da prozesua gutxieneko herrien berrezartzearekin lagunduta baldin badator bakarrik. Lijphart-en iritzi horrek Grezia eta Turkiako biztanle-trukearen eragina dauka. Dena den, ez da planteamendu zuzena. Nazio anitzeko lurraldeen banaketa guztiek ez dute zertan ekarri biztanleen kanporatzeak edo berrezarpenak; aitzitik, hori ez litzateke desiragarria izango ikuspegi liberal batetik, eta ondorioz, XX. mendeko sezesio-prozesu gehienetan saihestu egin da, arrakasta handiagoarekin edo txikiagoarekin.

Zentzu horretan, Horowitz-ek (1985: 589) edo Linz-ek (1999: 16) arrazoia dute sezesioak estatu homogeneoak edo harmoniatsuak sortzea ez dela probablea esatean. Hala ere, horrek ez du esan nahi sezesioa berez «txarra» denik, gatazka nazionalak eta etnikoak gainditzeko Jürgen Habermas-en (1998: 113) proposamenetik ondoriozta litekeenari jarraiki. «Nazionaltasuna»ren identifikazioa albo batean utzita, herritarren nazioa sortzea proposatzen du Habermas-ek. «Nazionalismo» propioa sor dezaketen herritar neutroak sendotzean datza. Ideia gisa interesgarria izan daiteke, betiere, etnia batek bestea kulturalki edo politikoki menderatzen ez badu. Alabaina, oinarri etnikoen gainean sortu diren eta gutxieneko nazional autoktonoak jazarri dituzten nazio-estatuaren kasuan, ez dirudi aukera errealista denik epe labur edo ertainean.

Esate baterako, aurreko mendeko laurogeita hamarreko hamarkadan, Espainiako estatuan patriotismo konstituzionala defendatzen zuen diskurtsoa eratu zen, herritarrek kohesio-elementutzat hartzeko balizko premisa habermasiar batzuk aintzat hartuta. Baina kontua da, Espainiako konstituzioaren elementu etnikoek herritarren eskubideak mugatzen dituztela, hizkuntzak kasu. Halako moduan non Espainiako konstituzioaren 3.1 artikulua honako hau dioen: «Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea». Ondorioz, Miquel Caminal-ek (2008: 152) azaltzen duenari jarraituz, ohikoa da nazionalismo zibikoa eta nazionalismo etnikoa bat etortzea, historikoki biek izan dutelako homogeneotasun kultural bera xede.

Sezesioaren gaiari berriro helduta, lurralde gehienetan sezesioak ez duela aniztasunaren kudeaketaren arazoa konpontzen azpimarratzen du Kymlicka-k (2000) ere. Jakina, horrek ez dakar berez «txarra» edo «ona» izatea ezinbestean. Kymlicka-k diotenaren arabera, banaketaren edo sezesioaren ondoren gatazka etniko-nazionalak arautzeko, nahitaez ezarri beharko dira asimilazio, federalismo, kontsoziazio edo kultura-aniztasuneko prozesuak. Baina are gehiago, akademikoek azpimarratu dutenez, sistema demokratiko kontsoziazionala eraiki aurreko urratsa izan daiteke sezesioa.

Hamarkadaz hamarkada, aniztasunari eraso egiten dioten eta unifomizazioa bultzatzen duten erakunde-moduak baliatu dituzte estatu gehienek. Jatorrian, haien eredia inposatzeko oinarri demokratikorik gabe funtzionatzen zuten. Geroago, modu demokratikoagoak hartu bazituzten ere, ohikoena zen nazionalitate (edo etnia) bat besteei nagusitzea, gehiengoaren logikari erreparatuta. Ildo horretatik, estatu horiek

aniztasunaren kudeaketan eragingabeak izaten jarraitu dute, eta ondorioz, lurralde baten aniztasunak irauteko modu bakarra independentzia izan daiteke.

Adibidez, estatu batean herritarren % 90 nazionalitate batekoa bada, eta gainerako % 10a eskualdetan biltzen bada (eskualdearen % 50 dena), posible da nazionalitate bien artean gatazka latza izatea. Estatuko nazionalitate nagusia eskualdearen % 50 da, baina, estatu-mailan gehiengo duenez, eskualde-mailan dagoen aniztasuna lauso dezake, eta eskualdeko gutxiengoa asimilatzeke edo/eta bertan bere estatus pribilegiatuari eusteko politikak indartzen jarrai dezake. Bestela esanda, pluralak ez diren herrialdeek (hala nola Frantziak eta Espainiak) pluralak diren (Euskal Herria) lurraldeetako aniztasuna arautzeko politikak ezartzen dituzte. Aldiz, lurralde plural horren (Euskal Herria) sezesioa balego, kudeaketa hori lurraldearen barne-orekari egokituta legoke, kanpoko esku-hartze interesaturik gabe. Kasu horretan, Euskal Herria bezalako lurralde baten independentzia haren aniztasuna kudeatzeko aukerarik onena izan daiteke.

Azken eszenatoki hori, sistema kontsoziazionalaren ikuspegitik, egokiagoa da botere partekatuko demokrazia bat garatzeko. Izan ere, lurralde plurala isolatzen da, eta independentzia lortu duen eskualdetik independentzia lortu duen eskualderako politikak aplikatzen dira. Hartara, «gehiengoaren segmenturik ez egoteak (gehiengo absolutua duena)», «herrialdeko biztanleria txikiak» eta «segmentuen arteko oreka erlatiboak» bat egiten dute, hots, demokrazia kontsoziazionala⁵¹ lortzeko eta hari eusteko Lijphart-ek lagungarritzat jo dituen hiru baldintzak.

Hortaz, aniztasuna maila desberdinetan kudeatzeko konponbideak imajina daitezkeen eszenatokiak bezainbeste direnez, eskualde-mailatik estatu-mailara hedatuta lortutako gehiengoaren bitartez aniztasuneko eszenatokiak urtea saihesteko, gutxienez bi dimentsio uztartu behar dira: alde batetik, halakorik nahi duten lurraldeek beren etorkizunaren inguruan aske erabakitzeke eskubideari buruzkoa (eta beraz, barne-aniztasunaren kudeaketa); eta beste alde batetik, herrialdean bizi diren talde etniko edo nazionalekin lotutako beste lurralde-esparru batzuekin dituzten harremanak arautzea. Orain arte, froga enpirikoek erakusten dutenaren arabera, bi dimentsio horiek konbinatzea oso zaila da talde nazional bat nabarmen nagusia den nazio-estatuetan. Horren adibide dira Frantzia eta Espainia.

51. Sistema kontsoziazionala eskualde batean aplikatzen bada, esaterako Hego Tirolean, lurraldearen tamaina txikia denez, kontsoziazioari mesede egiten diola adieraz daiteke. Egia da mesedegarria dela, kasu honetan ordea, tamaina ez litzateke txikitat soilik jo behar; izan ere, gobernu erregional bat izanik, gobernazioa administrazioaren hainbat mailaren arabera da, eta gainera, azken hitza beti du Italiako estatu zentralaren administrazioak. Hartara, demokrazia kontsoziazionala «kontsoziazionalismo deszentralizatu»tzat jo genezake, baina, azken finean, tamaina handiko estatu batean gertatzen da, bereziki biztanleriaren tamainari dagokionez. Aitzitik, Ipar Irlandan ez dugu eszenatoki hori, eta kontsoziazioa izango den lurraldearen tamaina txikitat jo daiteke, Erresuma Batukoa izanik ere; izan ere, autodeterminaziorako eskubidea bertan bizi diren biztanleen arabera dela aintzatesten du Ipar Irlandak, eta hori, praktikan, lurralde horren subiranotasuna onartzea da. Errealitate horrek honako hauen erantzule egiten ditu bertako biztanleak: (1) Ipar Irlandan hartutako erabakien erantzunle, eta (2) lurraldean Britainia Handikoak aplika daitezen tolerantzearen erantzunle. Horrek, erantzukizunak argitzen laguntzen du, eta lurraldeari Erresuma Batuak hartutako erabakiak ez bazaizkio gustatzen, beti utz dezake, eta egiten ez badu, batasun-zentroak hartutako erabakiak tolerantzen eta onartzen dituelako da.

2. FRANTZIA ETA ESPAINIA: NAZIOEN ARLOAN BATASUN- ETA UNIFORMETASUN-ASMOKO PROIEKTUAK

Frantziako estatuak nazio-estatuaren esentzia gorpuzten du: elementu etnikoz jositako nazionalismo zibikoa errebindikatzen da, estatuaren lurraldean bizi diren beste nazio batzuekiko jarrera erasokorra du, eta gobernatzearen ikuspegi politiko oso zentralista. Espainiako estatua, ordea, bestelako kasu bat da. Nazio bakarreko estatu bateratua da, baina eskualdeen autonomia eta nazionalitateak onartzen ditu, eta azken berba horrek haren izaera nazionalarekiko kontraesana sortzen du. Konstituzioko bigarren artikulua adierazpideak eta haren mamiak kontraesana dakarte, baina aldirietako nazionalismoek ezarritako presioaren ondorioz, kontsezio gisa txertatu zen, betiere, nazio-estatu bateratuaren jitea indargabetu gabe.

José Ramón Montero-k eta Mariano Torcal-ek (1990 eta 1991), Espainiako trantsizioan, eskualdeen mapak Espainiako estatuak eredu kontsoziazionala edo/ eta federala hartzeko baldintzarik ematen ez zuela argudiatzen dute, Linz eta Shabad-i aipu eginez:

Linz (1985: 583-585) eta Shabad-ek (1989: 2-5) azpimarratu egin dituzte Espainiaren kasuan eredu biek sortzen zituzten zailtasunak. Eredu kontsoziazionalaren mugapenak honako hauei zor zitzaizkiela zehaztea merezi du: (i) izan baziren nazionalismoen askotariko izaera heterogeneoa eta bereizitako hizkuntza-taldearen ugaritasuna, nazio anitzeko estatu baten formula barneratzaileen (esaterako Belgikakoa edo Suitzakoa) ezein estrategia hartzea zailduta; (ii) nortasun euskalduna edo katalana nortasun eskusiboki nazionalarekin edota bitarikoarekin batera bizitzea; (iii) nazionalista espainolen Espainiako estatuarekiko 'gehiegizko' leialtasuna, eta nazionalista independentista edo moderatuen leialtasun anbigua, elkarren aurkako leialtasun horiek adiskidetzea zailduta; (iv) ikur nazional eztabaida ezinezko egotea; (v) eskualde arteko desberdintasun ekonomikoak; (vi) nazionalismo indartsuenak gertatzen ziren gizarteetan zatikatzeko soziokulturalik eza; eta (vii) berezko eragile politikoak zituzten alderdi erregionalen sistemak egotea. Horrek guztiak ezinezko bihurtzen ditu autonomia-erkidegoetako goimailako ordezkarien arteko hitzarmenak. Beste alde batetik, eredu federala aplikatzeko zailtasunak honako faktore hauei zor dizkiegu: (i) Euskal Herriaren eta Kataluniaren sentimendu nazionalisten desberdintasun kualitatiboa eta kuantitatiboa alde batetik, eta gainerako eskualdeak bestetik, zeinak eredu homogeneo eta uniformearen aukera eragozten baitzuen; (ii) burujabetzan eskarmentu historikoki mugatua, eta eskualde gehienek halakorik ez izatea; (iii) XIX. mendeko esperientzien ondoren federalismoak jendartearen iritzian zuen oihartzun negatiboa; eta (iv) zenbait nazionalismok formula federalarekiko zuten erresistentzia, haren bitartez, beren burua tradizio nazionalistatik ez zeukaten eskualde espainol batzuekin parekatzea ekarriko luke eta (Montero eta Torcal, 1990: 34 eta 1991: 112).

Sistema kontsoziazionalik eta federalistatik ez sortu izana azaltzeko argudioak eztabaidagarriak izan daitezke, adibidez, hizkuntza-taldearen ugaritasuna Suitzan ere badago, eta haien egokitze federal eta kontsoziazionalak ez du inolako arazorik ekarri, ez eta alemanez hitz egiten dutenen nagusitasunak ere (biztanleriaren % 70 baino gehiago). Bestalde, Belgikan Espainiako estatuan jazo denaren antzeko zerbait gertatzen da nortasun bitarikoari, eskualdeen alde ekonomikoari eta alderdi erregionalari dagokienez; hala ere, ez da eragozpena izan akordio kontsoziazionalak edo federalistak lortzeko. Hala Suitzan nola Belgikan soziokulturalki zatituta dauden

federazioko lurralde-unitateak daude, eta hala eta guztiz ere, bada federalismoa, baina pluraltasun hori kudeatzeko eskualdeen kontsoziazioarekin batera.

Jakina, Espainian egiturazko arazorik badela esan daiteke Linz-en eta Shabad-en alde. Izan ere, Suitzan hizkuntza ezberdinak daude, baina sentimendu nazional bakarra; artean, Espainiako estatuan sentimendu nazional ugari daude. Bestetik, Belgikan bi hizkuntza daude eta biztanleria kopuru antzekoa hartzen duten sentimendu nazionalak; beraz, nazioko segmentuen arteko negoziazioa errazagoa da. Areago, estatu biak dira Espainia baino txikiagoak biztanleriari dagokionez. Hori dela-eta, beste behin ondoriozta dezakegu Espainian egiturazko arazo bat dagoela akordio kontsoziazionalak garatzeko, horretarako bide ematen duten hiru baldintza gutxienez, betetzen ez dituelako: «gehiengoa duen segmenturik ez egotea», «herrialdeko biztanleria urria» eta «segmentuen arteko oreka erlatiboa». Baldintzok, arestian esan bezala, onuragarriak izango lirateke Euskal Herri burujabea erdiesteko.

Egiturazko mugapenak, gainera, jite ideologikoki subjektiboak izatera ere irits daitezke. Hala, Espainiako estatuaren kasuan ez da *egiturazko* arazoa soil-soilik —adostasun kontsoziazionalik eta federalistarik ez egotea azaltzen du—; aitzitik, nazionalismo espainolaren arazo *ideologikoa* ere bada, non dimentsio bertikaleko erantzukizun nagusia hark duen, kontsoziaziorik ez egoteko *iii* eta *iv* argudioek eta federalismorik ez egoteko laurak erakutsi bezala. Azken lau argudio horien artean, deigarria da Linz-ek eta Shabad-ek federalismo homogeneoa eta uniformeak bakarrik jotzen dutela posibleztat, eta inplizituki baztertzen dituzte aukera asimetriko eta nazio anitzekoak; horregatik hartzen da «federalismo nazionala» (Maíz eta Losada, 2009: 219) eraikuntza nazional espainolerako erremintatzat.

Nazionalismo espainolaren borondate falta horrek, hain justu, egiturazko mugapenekin batera, Espainiako jurisdikzioaren mende dauden lurraldeen proposamen demokratiko eta alternatiboak estatu-mailako gehiengo bidez sistematikoki errefusatzeko azaltzen du. Duela gutxi bi gertaera dira horren adibide: alde batetik, 2004ko abenduaren 30ean Legebiltzarrean gehiengo osoz onartutako Euskadiko Estatu Politiko berriaren negoziazioa ukatzea; eta beste aldetik, 2006an onartutako Kataluniako Autonomia Estatutua murrizteko Auzitegi Konstituzionalaren epaia, Espainiako Gorte Nagusietan aurretiaz murriztua.

Arazo hori, Juan José Linz-ek (1973) nazio-estatu espainolaren eraikuntzaren porrota deitu zuenaren bidez azal daiteke. Josep M. Colomerren (2008: 43) adierazpena sutsuagoa eta argiagoa izan zen, «ziur asko, Europan nazio-estatu handi bat eraikitze saioaren porrotaren adibide argiena da Espainia» esatean. Horrexegatik izan du nazionalismo espainolak horren jarrera erasokorra aldirietako nazionalismoekin, boterearen hegemonia politikotik abiatuta. Horren ildotik, Miquel Caminal-ek (2008: 150) honako hau dio: «Espainia, estatuarekin bat datozen nazio politiko guztiak bezala, nazio kulturala izaten ahalegindu da eta ahalegintzen da, atzera begira, Espainiaren historia moderno eta garaikideari erreparatzen badiogu». Hartara, Justo Beramendik (2005: 99) adierazi bezala, ETArek indarkeriaren bitartez ezkutatu edo bigarren mailan utzi nahi izan bada ere, Espainiako estatuaren arazoa honako hau da: «Konstituzioak nazio bakarra aitortzen duen estatu batean soziopolitikoki errealak diren hainbat nazio modu gatazkatsuan elkarrekin bizitzea».

Egia da, baina, trantsizioak eszenatoki partzialki anbigua zirriboratu zuela gero garapen konstituzionala homogeneizazio edo zentralismora bideratu zedin; edota bestela esanda, nazio anitzeko izaera eta haren garapen asimetriko eta federalaren onarpen gisa ulertzen den hori. Alta, emaitzei erreparatuta, Maíz eta Losada-ren (2009: 208 eta hur.) arabera, orain arte birsimetrizazio- eta birzentralizazio-logika ezarri da, eta aniztasunaren kudeaketa errespetutik eta desberdintasunaren onarpenetik egitetik aldentzen da hori. Hala ere, zenbait autorek aniztasunarekiko malgutasunaren eta errespetuaren adibide gisa ematen dute kasu espainiarra. Hala, besteak beste, Eliseo Aja-k (1999/2003) gertaera bereizgarriok Espainiako sistema politikoaren elementu aberasgarritzat defenditzen ditu; Luis Moreno-k (1998: 3 eta 12) Espainia «estatu nazional plural»tzat jo du; edota autore berak (2007⁵²) eta Juan José Linz-ek (1999) Espainia «nazio anitzeko estatu federal» gisa hartzen dute⁵³. Nola ez, nazio anitzeko izaera horrek autonomia-estatuaren testuinguruari egiten dio erreferentzia, estatuaren definizioari egin ordez. Izan ere, Mario Zubiagak adierazi bezala (1999: 124), erregimen autonomikoaren sortze-oinarriak «zentroaren kontzesio gisa jaio dira, eta ez esku hartzen duten erkidego politikoaren borondate gisa». Hori dela-eta, Karta Magna espainiarrak honako hau baieztatzen du bere bigarren artikuluan: «Konstituzioa Espainiako nazioaren batasun zatiezinean oinarritzen da, hura baita espainiar guztien aberri komun eta banaezina; Konstituzioak aitortu eta bermatu egiten du Espainia osatzen duten nazionalitate eta herrialdeen autonomia-eskubidea, bai eta horien guztien arteko elkartasuna ere».

Horrek baieztatu egiten du, azaletik, estatu bateratuaren, federalen eta autonomikoen artean Francisco Letamendiak (1997: 32-38) egiten duen bereizketa⁵⁴. Azken horiek, Zubiagak esandakoaren ildo beretik, federaletatik bereizten dira, funtsean, estatuaren ataletan ez dagoelako subiranotasunik:

Autonomia-estatu estatu bateratuaren emaitza da, eta haren krisialdirako irtenbiderik berriena. Haren sorrera, beraz, estatu federalaren alderantzizkoa da; hark konfederazioaren atalen unitaterako azken bultzadatik jarduten bazuen ere, autonomia-estatu estatu bateratuaren porrotaren isla da, eta konponbide deszentralizatzailea ematen du. Edonola ere, hark autonomia-estatuari gogor eragin dio: berori osatzen duten atalek autonomia dute, eta estatuaren hiru botereen eskubideak izan ditzakete; baina ez dira estatu zentralaren borondatearen zati, hortaz, hark jarduteko askatasun osoa du. Era berean, zentroak estatuaren subiranotasun eskusiboa dauka, atalek duten boterearen iturri da, eta horrexegatik ez dira burujabeak. Atalen subiranotasun-gabezia hori da autonomia-estatuaren eta federalen bereizketa eragiten duena, eta ez eskumenak bereganatze-maila —haiena bezain handia edo txikia izan baitaiteke— (Letamendia, 1997: 35-36).

52. Morenok (2007) Espainia sistema kontsoziazional gisa izendatzen du —argi eta garbi boluntarismo-ariketa ez oso zurruna da ikuspegi akademikotik— berak onartu legez (2007: 16), Espainian ez direlako biltzen demokrazia kontsoziazionalerako Lijphart-ek emandako ezaugarriak.

53. Esparru akademikotik kanpo, Espainia «nazioen nazio» izendatzea izan da ohikoena, behar-bada. Modu hori eztabaida konstituzionalean agertu zen Gregorio Peces-Barbaren eskutik (Francisco González Navarro, 1993), ezbairik gabe, une desberdinetan eztabaida akademikokoak oihartzun handi samarra izan duen adierazpide horren buruaren eskutik (esaterako, Moreno 1998 eta 2007). Azken urteetan, adierazpide horrek indarra galdu du, agian bere erabilgarritasun urriagatik. Alta, Álvarez Junco, Beramendi eta Requero (2005) lanean, horri buruzko eztabaida jaso da.

54. Autore gehienek mota hori estatu erregionaltzat joko lukete.

Hortaz, Espainiako zein Frantziako estatuak ez dute onartu gura nazio anitzeko izaera politikoa, eta «aldirietako nazionalismo»en aurka erasotzen dute. Pedro Ibarrek (2005: 7) adierazten du «beste nazionalismoak ukatzen dituzten nazionalistek» egiten dituztela diskurtso «antinazionalistak». Hori gertatzen da *nazionalista* hitza estigmatizatuta dagoelako, eta estigmatizatzeko erabiltzen delako. Adibidez, Ferrán Requejo-k (2005: 104) azaltzen duenez, «nazionalista askok beren izaera nazionalista ukatzen dute, bereziki beren nazionalismoa ez delako beharrezkoa, erreferentzia-nazioa guztiz ezarrita eta finkatuta dagoelako estatuen arloan». Francisco Letamendia (1997: 19) bat dator Ibarren ikusmoldearekin, eta azaltzen duenaren arabera, gaur egun, nazionalismoa estatuaren ideologia da, baita talde etniko bat defendatzeko estatuko (zentroa) aldiri batzuen erreakzioa ere. Aldirietako nazionalismo errektiboek «erkidegoaren estatu-nazioak (*Gemeinschaft*) egindako prozesua antzeratzen dute, eta lantzean-lantzean, gizarte nazionalena (*Gesellschaft*); erreakzio horiek, halaber, zentroaren kontra-mobilizazioak eragin ditzakete nazionalismo zentralisten moduan» (Letamendia, 1997: 19). Hortik abiatuta, berebizikoa da euskal nazionalistak eta nazionalista espainolak bereiztea. Lehenengok gatazka dute zentroarekin, baina halaber, aldirietako nazionalista espainolek gatazka dute euskal nazionalistekin.

Azkenik, halako zerbait onartu behar izan du Espainiako estatuak euskaldunen eta katalanen errebindikazioari aurre eginez, kultur esparruan nazionalitateak izan badirela aitortuta; eta horrek, errealitate sozial eta politikoaren arteko banaketa dakar estatuaren maila zentralean, baina baita estatu azpiko mailan ere, Justo Beramendiren arabera (2005:93):

Talde nazionaletik berori ezartzen den lurraldearen izenerako transferentzia semantikoa zilegi izango litzateke soilik, lurralde horretako biztanleria osoak onartuko balu nazio bakarra izatea. Baina ez da hala gertatzen, hortaz, ezin uka daitekeen gauza bakarra da nazio katalana, euskalduna eta espainola daudela, eta hori guztiz bestelako kontua da. Eta bestelako kontua da, Katalunian adibidez, nazio katalana egoteaz gain, nazio espainola ere badelako; izan ere, nahikoa da biztanleen zati batek, handia zein txikia izan, haren parte dela uste izatea, eta azken horiek etnikoki besteak bezain katalanak diren gorabehera. Gauza bera esan genezake Euskal Herriarena, edo beste lurralde batzuen.

Espainiaren kasuan, zailtasun bat dago: nazio bakarra onartzen dutela, espainola, eta harekin bizi diren beste batzuk ukatzen dituela (euskalduna, katalana eta galegoa). Caminal-ek (2008: 150) esan bezala, Espainiak ez du nazio politikoaren kontzeptua banatu nahi Espainiako estatuan bizi diren gainerako nazioekin. Horren ordaina, lurralde katalan edo euskaldun osoari erreferentzia egiteko kultur nazionalitate bat onartzea da, eta hori «gezurra» da Caminal-en ustez; eta honako hau gaineratzen du: «Euskadi eta Katalunia ez dira gaurkoz, kultur nazio homogeen ez elebakarrak».

Dena den, EAEn joera integrazionistak lehenesten dira ikuspegi nazionaletik. Nazionalismo espainolean nahiz euskal nazionalismoan aldarrikatutako lurraldean bizi diren kide guztiak barneratzen saiatzen dira, eta kasu bi-bietan, nazioaren ikuspegi boluntaristatik egiten dute batik bat, baina espainolak, nazio-estatu bat izaki, modu hertsatzailean egiten du.

Hala, nazionalismo espainoleko⁵⁵ posizio nagusiak euskal nazioa badenik onartzea ukatzen du, horrek nazio espainola edota Euskal Herria Espainia denik zalantzan jar lezakeelako. Ondorioz, haren diskurtsoan Euskal Herriko biztanle guztiak izango dira nazionalitate espainolekoak soil-soilik eta beren beregi. Modu antzekoan, baina estatua izateak duen hertsatzeko gaitasunik gabe, euskal nazionalismoak Euskal Herrian nazio bat baino gehiago elkarrekin bizi direla ezeztatzen joera dauka. Haren ikuspegitik nazio bakarra dago, euskalduna, eta etorkizuna erabakitzen eskubidea dauka. Horren logika Juan José Linz-ek azaltzen du (1986: 677):

Euskadin bizi diren edo lan egiten duten guztiak 'euskaldunak' direlako ideiak (eta beraz, euskaldun sentitu eta beste nortasun batzuk baztertu behar lituzketela) gizarte binazionala, bikulturala, elebiduna, eraikitzea eragozten du, integrazterako derrigorluak izan diren asko eta asko nahigabetu egingo direlako, eta bestetik, haien esfortzua zapuztu dela ikusten duten euskaldunak ez direlako erresistentzia hori errespetatzeko prest egongo. Hasiera batean, eta 'nazionalitateak' modu horretan definitu dituzten askoren asmoan ziur asko, bi erkidegoko toki askoren elkarbizitza kontuan hartuta 'segmentazioa', 'paralelismoa', 'proportzionaltasuna' baino positiboagoa badirudi ere, horrek arazo gaindiezina dakar (immigrante 'espainol' kopuru handia aintzat hartuta), sorterrikoa ez diren nortasunerako mehatxua delako, eta eskusibismo onartezina gainerako espainolentzat.

Haatik, Linz-ek gauza bat azaldu gabe utzi zuen, hau da, logika horrek berdin funtzionatzen duela nazionalismo espainolaren kasuan. Izan ere, nazionalismo biek dute xede bera: asimilazioa. Euskal nazionalismoak, estatua bezalako tresnarik eduki ezean, hegemonia soziopolitikoarekin eta kulturalarekin lotutako tresnak erabili ditu funtsean; nazionalismo espainolak, berriz, hertsapenaren bidetik bideratu du asimilazioa historikoki.

Errealitate horretan, nazio anitzeko bi gizarte bereiz daitezke: a) nazio-estatu erreferenteak dituzten nazioez osatutakoak; eta b) nazio-estatu erreferenterik ez dutenak. Ondorioz, ez dira gauza bera Ipar Irlandako, Hego Tiroleko, Bosniako edo Euskal Herriko kasuak. Lehenengo hiruretan, gutxieneko nazionalen nazio-estatu bat dute erreferente, haien nazioekidetzaren alde jardunean, eta gutxiengo hori bizi den estatuak nazionaltasun hori ukatzea eragozten du. Hiru gutxieneko horien pertzepzioa euskaldunaz bestelakoa izatea eragiten dute elementu horiek. Iparrirlandarrek, Tiroleko alemaniarrek edo Bosnia-Herzegovinako kroaziarrek badakite haien nazioen biziraupena ez dagoela beren esku. Horregatik asimilazioa ez da haien ekintza politikoaren oinarria, eta bai ordea autonomia politiko edo/eta kulturala errebindikatzea, edo kasu gatazkatsuenetan, haien nazionalitatearen⁵⁶ nazio-estatura atxikitzea. Aldiz, euskal nazionalismoak oso ikuspegi desberdina dauka, euskal nazioaren biziraupena bere aldarrikapenaren mende dagoela uste

55. Linz-ek adierazi bezala (1986:678): «Nazionalismo espainola (...) espainiar gehienentzako errealitatea da, eta intentsitate berezia dauka sektore batzuentzat», eta horrek eragiten du «zalantzan ipintzea 'nazio' espainola, eta haren azken unitateak (barneko aniztasuna onartu arren) erreakzio biziak sorrarazten ditu halaberrez».

56. Kasu honetan, lurraldeko gainerako biztanleen asimilazioa ez da xede nagusia izango. Adibidez, Ipar Irlandan nazionalismo irlandarrak Irlandako Errepublikarekin batu nahi du. Nazionalismo horrek ulertuko du, bere burua identifikatzen duen nazioarekin bat egitean, lurraldearen oreka nazionala nazional irlandarren alde geldituko dela.

duelako, eta horregatik da hain garrantzitsua propio errebindikatzen dituen lurraldeen biztanleria asimilatzea.

Testuinguru horretan, arriskutsua da nortasun-autonomia lurralde-autonomia-rekin lotzea, Nafarroaren kasuan legez; izan ere, euskal nazionalismoaren kultura-, hizkuntza- eta nazio-autonomiak gehiengoa lortuz gero baino ez dira egongo ziurtatuta. Osterantzean, Foru Erkidegoan gertatu ohi den bezala, autonomia txikitu egingo da, eta desagertzeko arriskua izango du. Egoera ber hori, ordea, ezin daiteke sekula berdin ikusi espainolismotik, hark beti baitauka ziurtatuta bere kultur autonomiaren kuota, Espainiako Gobernutik egiten den heinean.

Euskal kulturaren eta euskal nortasun nazionalaren prekarietatearen adibide bat da oraingo Eusko Jaurlaritza (PSE) PPren laguntzarekin egiten ari dena. Sozialistek irakas-hizkuntza euskara baino ez duen hezkuntza-eredua desagerraraztea proposatu dute. Ildo horretatik doaz kultura-esparruko birplanteamendu edo izendatze batzuk. Honakoa ez da horiek xehe-xehe emateko bidea, baina baliteke adibide sinboliko bat argigarria izatea. 2011. urtearen hasieran, Eusko Jaurlaritzak Jon Juaristi izendatu zuen Euskararen Aholku Batzordeko bozeramaile. Ekintza hori eraso sinbolikotzat jo izan dute euskararen erabilera bultzatzen eta sustatzen duten erakundeek. Bada zergatik. Juaristik, besteak beste, honako adierazpide hauek egin edo idatzi ditu eta: «euskara, nire ustez, iraganeko hizkuntza da»; «berdin dit haren etorkizunak»; edo «Euskararen Batzordeko kidea naiz, gustuko dudalako zirikatzea»⁵⁷.

Nazionalista espainolen interpretazio orokorrari jarraiki, kulturaren edo nortasun-elementuen sustapena modu orekatu eta desideologizatuan egin behar da, euskal aniztasuna errespetatuta, eta sentimendu jakin bat sustatu gabe. Aitzitik, ez dute iritzi hori bera ematen Espainiako Gobernuaren nortasun-, kultura- eta hizkuntza-politikan; kasu horretan, egoki ikusten da kultura espainiarrak edo gaztelaniak haien sustapen eta defentsarako mekanismo propioak izatea estatu-mailan, baita haien nortasun espainoleko portzioa ere. Bestalde, euskarak eta euskal kulturak ez dute halako erremintarik, erkidegoko erakundeek zeregin hori bete ez badute behintzat. Horren ildotik, beste adibide eztabaidagarri bat izan da gobernu sozialistak Kulturaren bigarren Euskal Plana (2009-2012) alboratzea. Kulturaren Euskal Plana 2000. urtean sortu zen, eta esparru horretan urte askoan egindako lanaren emaitza da. Haren xede nagusia, euskal kulturaren politikarako helburu estrategikoak, eragin-eremuak, ekintzak eta programak modu bateratuan ezartzea da. Bigarren planaren kasuan, berori prestatzeko beharrezkoa izan zen lau urtetik gorako prozesua, parte hartzeko moduan eta adostasun ugariarekin. Plan horrek, baina, ez zituen Eusko Jaurlaritza berriaren nahiak ase, eta Kulturaren arteko Herritartasun Kontratua ezarri zuen haren ordeaz.

Izenak berak argitzen du sozialisten gobernuak eman nahi dion ikuspegi berria. «Kultura» (bakarra) «kulturekin» (hainbat) ordeztu dute, «euskal nortasuna»ren ezein erreferentzia saihesteko eta euskararen eginbeharra minimizatze aldera. Aldaketa horri gerizpea emateko, Kulturaren Batzordea urtebete eta erdi bildu gabe egon ostean (haren audia urratuta), 2010. urte bukaeran, Eusko Jaurlaritzak 32 lagun

57. Iturria: *Deia*, 2011-1-16; 2011-1-28; 2011-2-28.

izendatu zituen batzorde horretan parte hartzeko, eta horietatik hamar Euskaditik kanpo bizi ziren⁵⁸. Horren ondorioz, Batzordetik kanpo gelditu ziren Euskal Editoreen Elkarte, Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, Euskal Antzerkizaleen Elkarte, Euskal Produktoreen Elkarte eta euskal kultura ordezkatzeko zuten beste hainbat eta hainbat elkarte adierazgarri, zeinetatik askok Euskal Herri osoan diharduten, euskaraz egindako kultura lantzen duten aldetik. Finean, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren jarrera berri hori eta erabaki hartze hori euskal nortasunaren kultura-autonomia ahultzera bideratuta dago.

Nazionalismo espainolaren eta euskaldunaren artean adostasunik egon ezean, eta egungo egoeraren eta errealitate instituzionalaren aurrean, bi irteera bakarrik daudela dirudi: (1) segmentu bat bestearen aurka aritzea, irabazleak, erakundeetatik, kultura- eta nortasun-autonomiak nahieran kudea ditzan, baina beste behin, sektore espainolistarentzat ez legoke mugarik, eta euskal nazionalismoaren kasuan, Espainiako gobernuak ezarriko lituzke mugak, hala, segmentu espainolistaren nolabaiteko babesa bermatuta, alderantziz gertatzen ez dena; edo (2) euskal nortasun banatu bat adostea, Euskal Herriaren etorkizuna Espainiako estatuaren zati den edo burujabea den gorabehera (egokitze maila eta mota guztiak kontuan hartuta).

Lehenengo eszenatokia gehiengoaren demokrazia baztertzaila da. Besteak beste, Lijphart-ek (1975) edo McGarry eta O'Leary-k (2006a, 2006b, 2009) Ipar Irlandan deskribatzen zutena, Ostiral Santuko Hitzarmena lortu arte. Aldez aurretik, autonomia zeukaten, baina gehiengo unionistak baino ez zuen ezartzen, eta gutxiengo nazionalista irlandarra baztertzeko zuen. Logika hori bera da nagusi Nafarroan. Foru Erkidegoak autonomia dauka, baina euskal nazionalistekin modu baztertzailan ezartzen da, Patxi Zabaletak 1990ean *El País* emandako elkarrizketa batean azaldutakoari jarraituz: «Nafarroan, duela 60 urtetik egiten da politika garaitutako sektore baten kontura». Lurralde plural batean gehiengoaren duen sistema batek dakartzen ondorioak horiek direla adieraztean Lijphart-ek (1977) salatzen zuenaren laburpen argia da hori. Nafarroaren kasuan, euskal nazionalisten segmentuaren bazterketa sistematikoa espainolisten eskuetan zegoen autonomiaren monopolioaren emaitza da, eta horregatik, Zabaletak, intuizioz, konponbide kontsoziazionala emanez jarraitu zuen elkarrizketa: «Nafarroak garaiturik gabeko irtenbidea behar du»⁵⁹, baina agian, teoria kontsoziazionalari hobeto egokitzeko, «bazterturik gabe» gehitu behar genuke.

Egungo testuinguru instituzionalean, botere banatuen teoretatik gertuen dagoena bigarren irtenbidea da, baina beharbada, kontsoziazional klasikotik baino hurbilago dago integrazionistatik; hala ere, ez da McGarry eta O'Leary-ren (2006a) kontsoziazional liberaletik urruntzen edota Lijphart-en (2008) azken proposamen liberalagoetatik. Ikuspegi horrek bere alde du lerro banatzaile sakonak gainditzeko segmentu nazional bien borondatea. Alabaina, haren aurka dago izendatzaile

58. Alex de la Iglesia, orduko Espainiako Zine Akademiako presidentea, izendatu zutenetako bat izan zen; dena den, azkenean kargua utzi zuen, esanez kargua onartu zuela «baina ez nekien kargua modu horretan erabiliko zutenik. Oraindik ez dut ahoa zabaltu, eta dagoeneko lehendakariaren superaholkularia naiz, ez dut argi ikusten». *Deia*, 2010-12-27.

59. Iturria: *El País*, 1990-8-18.

komunetako txikiena adostu beharra: zer elementuk osatuko lukete? Lan honen xedea ez da horren inguruko azterketa egitea, baina berezko zailtasun esanguratsuena eta abiaguneko desorekatik eratorritako arazoan adibide gisa, hizkuntzari buruzko eztabaida aipatuko dut.

Hasteko, hezkuntzari buruzko legeen eta Hizkuntza Normalizaziorako Legearen bitartez, euskal gizarteak epe ertainean integrazio modu bat elebitasunaren hedapena izan daitekeela onartu duela uler daiteke, hau da, biztanle guztiek hizkuntza ofizial biak, euskara zein gaztelania, jakin eta erabili ahal izatearen idealera hurbiltzea. Lan horrek zekarren zailtasunaz jabetuta, autonomia-prozesuaren hasieran, 1980an, EAEko biztanleriaren % 22 baino ez zen euskalduna, eta gizarte elebiduna lortzeko zeregina hezkuntza-sistemari eta administrazio publikoari esleitu zitzaion. Hogeita hamar urte geroago, euskararen aurrerakada dudagabea zen: 2010ean, biztanleen % 37,5 elebiduna zen⁶⁰ eta erdiak baino gehiagok oinarritzko euskara ezagutzak zituen. Haatik, erabateko elebitasunaren lorpena urrun dago, baina belaualdi gazteenen kasuan ideal horretara hurbiltzea egingarria da.

Hizkuntzaren bultzada integrazionista irizpide utilitaristek zehazten dute, batik bat. D ereduaren arrakasta pertsona elebidunak prestatzeko erabilgarritasunean datza; aldiz, B ereduaren hein bateko porrota, eta A ereduaren erabateko porrota pertsona elebidunak prestatzeko ezinean dautza. Errealitate horrek, euskarari oinarritzen diren hizkuntza-eredu integrazionistak proposatzera bultzatzen ditu euskal nazionalistak. Ikuspegi hori partekatzen ez dutenek, EAJk kasu, aukeratzeko askatasuna ez ezabatzea izango dute xede beharbada, ikuspegi utilitaristek gai ez diren hizkuntza-ereduak desagerrarazi edo hondar gisa geraraziko dituztelako uste osoa edukita. Errealitateak zuzen daudela erakusten du, eta horregatik, PSEk ordezkatzeko dituen nazionalista espainol gehienek, erabilgarritasunaren ikuspegitik lehiatzeko, eredu bakarra proposatzen dute, hirueleduna; eredu horrek, adibidez, euskarak irakaskuntza publikoan duen irakas-hizkuntza nagusiaren izaera desagerraraziko luke. B eredu bat izango litzateke, nolabait, orain baino euskara ordu gutxiagorekin. Izan ere, hirugarren hizkuntza bat eransten da, eta horrek B ereduak euskalduntzeko duen gaitasun eskas frogatua areago larrituko luke.

Euskadiko PP ez dator bat sozialisten ideiarekin, eta oraingoz, «aukeratzeko askatasuna» defendatzen jarraitzen du, nahiz eta defentsa hori bere aurka etor daitekeen; izan ere, orain arte, hizkuntza-eredu euskaldunaren hazkuntzaren mesedetan izan da, betiere, funtzio publikoan sartzeko euskara-ezagutzak eskatzen jarraituz gero. Hautabide sozialista, ordea, A ereduaren porrota aho txikiz onartzea izan da, gaztelaniari presentzia handiagoa ematen dion hizkuntza-eredua proposatzeko, eta hala, berriro euskarari eremua hartu eta daukan autonomia kentzeko. Eredu integrazionista da logikoena, euskara soil-soilik oinarri ez duena. Ideia horixe da, bestalde, Galiziako PPK 2009an boterea lortu zuenetik ezarri izan duena. Baina, izango al da PSE-PSOEn eredu pertsona hirueledunak trebatzeko gai?

Ebidentzia enpirikoak erakusten duenez, ez du halakorik lortuko eremu ez-euskaldunetan; hortaz, zergatik nahi du halako eredu bat PSE-PSOEk? Hizkuntzari

60. <http://www.eitb.com/noticias/sociedad/detalle/556243/el-porcentaje-ciudadanos-saben-euskera-sube-22-al-375/>

dagokionez, ikuspegi integrazionista —aurreko hamarkadetan jarraitzaile ugari zituen, baina nazionalista espainolen sektoreek gero eta gehiago jartzen dute ezbaian— gizartearen zati erdalduna euskalduntzeko konpromisoa da, dagoeneko zati euskaldunak erdaraz hitz egiten badaki eta. Ideia hori digeriezina da espainolismoaren zati handi batentzat. Izan ere, beste ebidentzia enpiriko batek erakusten duenez, euskaraz jakitea (erdaraz jakin arren) pertsona bat independentziaren alde agertzeko funtsezko eragile bat da, eta nazio euskaldunaren edo espainolaren nortasuna aukeratzeko orduan, aldakortasuna nabarmen murrizten lagutzen du horrek.

Hori dela-eta, jarrera nazionalista espainoletik euskara politizatzea egotzi zaio euskal nazionalismoari sarri askotan, bai eta «eraikuntza nazional»erako erabiltzen saiatu izana ere. Nahiz eta iritzi horri eusteko nahikoa arrazoi egon, egia da, berebat, hizkuntzaren politizazioa nabarmenagoa dela nazionalista espainolen segmentuan. Begi bistako proba da Espainiako Konstituzioaren 3.1. artikulua, espainiar guztiek hizkuntza jakiteko betebeharra dutela adierazten du eta. Hala eta guztiz ere, nazionalismo espainolaren estrategia politikoak eta hizkuntzen inguruko helburua ez dira horren zehatzak eta argiak euskal nazionalismoaren aldean. Azken horren helburua, oro har, euskal herritar guztiek euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiteko aukera izatea da, eta teoriaz, helburu horrexekin bat datoz nazionalista espainolak, hain zuzen euskal sozialistak. Jakina, nahikoa arrazoibide dago diskurtso hori politikoki zuzen agertzeko ariketa erretorikoa dela argudiatzeko, praxia kontraesanez josita baitago. Posizio horren erakusgarria da Juan José Linz-en diskurtsoa, Espainiako nazio-aniztasunarekiko tolerantzia den posizio espainolista duen politologoarena. Linz-ek posizio zintzoa du Euskal Herriaren eta Kataluniaren erdalduntzeak Espainiako batasunari mesede egiten diola esatean. Politikan hizkuntza —gaztelania kasu honetan— erabiltzen delako baieztapen argia da:

Gatazkaren iturria izan badaiteke ere, Estatuan nagusi den nazionalitatearen nazioarekin, hizkuntzarekin eta kulturarekin identifikatzen den gutxieneko esanguratsu bat izatea, eta halaber, garapen-bidean dauden subunitate federal nazionalen erkidegoan eta bizimoduan sartuta egotea, Estatuarekin dauden loturen oinarria da (Linz, 1999: 33).

Aipu horretan, Linz-ek bi gauza, gutxienez, argi uzten ditu: alde batetik, estatuan nazionalitate nagusi bat dela uste duela; eta bestetik, nagusi den nazioaren elementu kulturalen hegemonia oro har, eta hizkuntza-elementuena bereziki, Espainiaren kohesioari eta batasunari eusteko berme gisa garrantzitsuak direla.

EAEra eta Nafarroara itzulita, begi bistakoa dirudi, subjektiboki behintzat, euskara indartzea nortasun nazional euskalduna indartzeko mesedegarria dela interpretatzen duela gizarteak. Hortik dator hizkuntza-eredu euskalduna autonomia-erkidego bietan hedatzearekiko beldurra, hasiz doan biztanleriaren sektore batean oinarritzko identifikazio bat susta dezakeelako horrek, eta printzipioz, euskal nazionalisten segmentuari egingo liokeelako mesede; arestian aipatu bezala, erdaldunen artean erreakzioak sor ditzake, eta espainolismoa indartzea edo erdaldunak espainolismoan lerrokatzea.

Laburbilduz, nazionalismo espainolak gatazka nazionalaren ikuspegi integrazionista garatzeko zentzuzko akordioei oztupoak jartzeko joera nabarmena dauka

—hala nola gizarte elebiduna bermatzea— tratamendu aleaniztuna, plurinazionala bezala, ez datorrelako bat Espainiako estatuarekin; etorkizunean Euskal Estatu ireki, plural eta herritar guztien zerbitzura dagoenaren oinarria gertatzeko nahikoa baldintza dagoela uste dugu, sentimendu nazionalak sentimendu.

3. EUSKAL ESTATUA NAZIO-ANIZTASUNAREN KUDEAKETA HOBETZEKO GILTZARRI, SAKONTZE DEMOKRATIKOAREN ETA JUSTIZIA SOZIALAREN ALDEKO BORROKAN OINARRITUTA

Juan José Linz-ek, *Conflicto en Euskadi* (1986) izeneko lanean, arau-taxuko ondorio eta epilogo eta ikuspegi ideologiko nabarmena ditu bukaeran. Nolanahi ere, ildo horiek ez dute ikuspegi zientifikoa galarazten. Funtsean, hogeita bost urte eta gero, XXI. mende honetan, Euskal Herriko gatazka ulertzeko balio du haren diagnostikoak. Linz-ek (1986: 682) azaltzen duenez, ez da soilik «mugimenduen eta alderdien arteko gatazka, ez eta terroristen eta bakezaleen artekoa; erkidegoen arteko gatazka baizik». Bestelako kontua da Euskal Herrian elkarrekin bizi diren erkidego nazionalen arteko hausturen sakontasuna. Zorionez, haustura hori ez da horren larria, beste errealitate plurinazional batzuen aldean.

Hala ere, ez dugu bazter utzi behar sentimendu nazional desberdinen artean akordio bat bilatzearen egokitasuna. Gatazkaren kudeaketa akordio kontsoziazionalen bitartez egiteko aukera erakutsi zuen Linz-ek. Noski, eszeptiko agertu zen Espainiako estatuaren barruan erabateko demokrazia kontsoziazionala ezartzea posible izango ote zen, eta errezeta horien erabilera zenbait alderdiri bakarrik aplikatzera zedarritzen zuen. Hartara, akordio kontsoziazionala lortzerik izango balitz, Linz-ek (1986: 681) aurreratu zuenez, «euskal kasuan, politika kontsoziazionala bitara izango litzateke beharrezkoa: Espainiako estatuan eta Euskadi-Espainiako Autonomia Erkidegoan». Horren ildotik, arrakasta, hein handi batean, dimentsio bertikal bat (gobernu espai-niarraren eta frantziarraren botere zentralekin) eta horizontal bat (Nafarroako Foru Erkidegoa, EAE eta Iparraldearen artekoa) garatzeko gaitasunaren araberakoa izango litzateke.

Dimentsio bertikalean, akordio kontsoziazional konplexuaren aurkako erresistentziak sortuko lirateke nazionalismo espainoletik eta frantsesetik; izan ere, azkenean «kontzesio» demokratikoak egin beharko lituzkete (esaterako, etorkizunean lege-estatusa aukeratzeko eskubidea herrialde gisa; baita mota politiko-kulturalekoak, ekonomikoak eta sozialak ere), eta horiek Espainiaren eta Frantziaren batasun ideiarene aurkakoak dira. Ildo hori sakontzen badugu, euskal kasuan teoria kontsoziazionala aplikatzean gizartearen errealitate ukaezina egiaztatuko litzateke: beren burua nazionalitate euskalduna, espainiarra eta frantziarra duten autoktonotzat jo duten pertsonak elkarrekin bizi direla. Hori dela-eta, hiru segmentu esanguratsuen integrazioa maximizatzea eta izan lezaketen «galtzaile-sentimendua» minimizatzea izango litzateke xedea; horrek esan nahi du Euskal Herrian bizi diren hiru nazioek beren gobernagarritasunean esku hartzea, eta zeregin hori elkarrekin gauzatzea, gainera.

Haatik, ezin da boteretik banatu plano beretik elkar aintzatetsi gabe, eta Espainiako eta Frantziako estatuetan halakorik gertatzea ezinezkoa dela ikusita, Euskal Herriaren barneko aniztasuna kudeatzeko modu bideragarri bakarrean eraikitzen da independentzia: plurinazionala dela aitortuta eta bertako biztanleen nahia errespetatuta.

Azpimarratu beharra dago, aske erabakitzeko eskubidea aitortzea ez dela izan behar euskal lurraldeek Espainiako eta Frantziako estatuez bestelako gehiengo nazional bat edukitzeagatik edo ez edukitzeagatik; aldiz, bertan bizi diren pertsonen dagokie lurralde horien geroa erabakitzea. Horixe da lurraldeko biztanleen nahia azpiratzeko mehatxurik erabiliko ez dela ziurtatzeko modu bakarra, bertako gehiengoak kanpoko gehiengoekin disolbatuta (adibidez, goragoko mailakoak: estatu-mailakoak). Izan ere, Juan José Linz-ek (1986: 669) azpimarratzen duenaren arabera, demokratikoki ezinezkoa da lurralde bati haren muga barruan eustea bertako biztanleen nahiaren aurka.

Logika demokratikoak erakusten duenez, borondateen eraikuntza behetik gora egiten da, eta ez alderantziz. Euskal Herria Espainia izateko nahimena ez da espainiarrena izan behar, euskal herritarrena baizik. Araba Euskal Herria izateko nahimena ez da euskal herritarrena izan behar, arabarrena baizik. Finean, barnean txikiagoak dituzten unitate handienek ez dute beren batasuna ezarri behar lurralde txikiaren barneko nahimenak isilarazita. Logika hori bera ezarri dute Ipar Irlandan, eta logika horrexek lagunduko luke euskal gatazka libratzen. Hala, lurralde espainol edo euskaldunaren batasunari buruzko eztabaida gainditu beharko litzateke, Mario Zubiagak (1999: 141) azaldukoari jarraiki, «lurraldetasuna kontzeptu bat eta errealtate politiko bat da, lurraldeen borondatearen arabera eraiki beharrean, bertako herritarren borondatearen arabera eraikitzen dena».

Erkidegoen artean lortutako akordioak kanpoko gehiengoek aldaraziko ez dituztelako bermerik onena da erabakitzeko eskubidea. Hala, euskal lurraldeetako biztanleek beren etorkizuna erabakitzeko eskubidea balute —jakinik betiere, hartutako erabakiak ez dituztela estatu-mailan aldatuko edo ez dietela betorik jarriko—, demokrazia kontsoziazionala lortzeko eta hari eusteko baldintza lagun-garriak nabarmen hobetuko lirateke. Une horretatik aurrera, herriaren tamaina txikia eta segmentuen arteko nolabaiteko oreka segurtatuko lukete, Lijphart-ek (2008) kontsoziazionalismoari buruzko lanetan aipatutakoak bi-biak.

Horiek euskal gizartearen banaketa soziopolitikoak (nazionalak) larrituko lituzketela argudia dezakete integrazionistek sistema kontsoziazionalaren aurka. Dena dela, taldeen autodeterminaziorako printzipioa oinarri hartuta⁶¹, gobernuek eta gizarteek erkidego politiko partekatuagoa lortzeko duten gaitasunaren arabera, segmentazioa indartu egin daiteke edo ez; kontsoziazionalismoaren xede bakarra segmentuen arteko gatazka bideratzea da, bazterkeria saihestuta eta

61. Aurreko mendeko 90eko hamarkadatik aurrera, sistema kontsoziazionalaren botere-banaketari dagokionez, Lijphart ikuspegi predeterminatibotik ikuspegi autodeterminatiboa defendatzera igaro zen. Predeterminazioaren aukerak esan nahi du boterea banatzen duten taldeak aurretiaz zehazten direla, kuotak ere ezartzeraino. Aldiz, taldeen autodeterminazioak segmentuak dituen ikuspegi liberalaren alde egiten du, politikoki adierazten direnak (hauteskunde bidez). Ideia hori McGarry eta O'Leary-k Ipar Irlandaren kasuaren harira sortutako teoria kontsoziazionalaren erreforma liberalaren oinarria da.

desberdintasunetik, aniztasunetik abiatuta, integrazioa sustatuta. Hortik aurrera, sistema kontsoziazionala Euskal Estatu batean gertatzen bada, integrazio nazionalaren aukerak askotarikoak izango dira, arrakastagatik desagertu ziren beste sistema kontsoziazional batzuetan gertatu legez.

Euskal Herrian banaketa nazionalak leuntzeko ataza eta nortasun kolektibo indartsua eraikitzea posible izango dira Euskal Estatu burujabe batean, betiere, azken hori sentsibilitate nazional bakarraren mende eraikitzen ez bada eta dentsitate demokratiko handiagoa eta justizia soziala bultzatzen badira. Azken bi elementu horiek biztanleen ikuspegi errepublikazalearen oinarriak izan daitezke, eta Habermas-en proposamenara hurbildu, hau da, herritarren nazio bat sortzea. Baina, zer dela-eta izango litzateke posible Euskal Estatu batean eta ez gaur egungo Espainiako eta Frantziako estatuetan? Hiru lirateke horretarako arrazoi nagusiak:

A) *Ibilbide historikoa nahimen baten adierazpide gisa:* hala Frantziako estatua nola Espainiako nazio-estatu batean eraikita daude, eta nazio-aniztasunaren aurkako eraso ugari dituzte tradizioz. Historia hori eta nazio bakarraren nahimena deseraikitzea lan nekeza da, eta gainera, nazio espainolaren eta frantsesaren gehiengoaren borondateari kontrajartzen zaio, biak baitira hegemonikoak erreferentzia-estatuetan. Aldiz, Euskal Herria euskal lurraldeen ikuspegi pluraletik eraikita dago funtsean, hein batean haren banaketa administratibo ugarien hertsaduraz, baina baita izaera etniko eta nazional zehatzik izan ez duten hainbat tradizio instituzionalen isla gisa, dela Nafarroako Erreinuaren garaian, dela ondorengo foru-lurraldeetan. Jokamolde horrek erakundeen elkarketa nazionala edo/eta etnikoa nabarmen hutsaltzen du, herritar guztiak euskal herritartzat jo dituen ikuspegiaren mesedetan⁶². Bestela esanda, Euskal Herriak hizkuntza-erreferente desberdinak dituzten lurraldeak hartzen ditu barnean, baina garapen politiko-instituzional historiko partekatua edo bateratua dutenak. Hori dela-eta, euskal nortasuna nortasun politikoa da, eta horregatik, egokia da identifikazio nazional desberdinen elkargune gisa jarduteko. Ildo horretatik, sentimendu nazional desberdinak Euskal Estatu plurinazional baten alde elkartzeko hamaika arrazoi egon daitezke.

B) *Erkidego nazional desberdinen arteko gutxi gorabeherako oreka:* Euskal Herri burujabe batean zailagoa izango da segmentu nazional desberdinak bereiztea, eta eztabaida politikoaren ardatza ezkerre-eskuina binomioa izango da. Hala ere, baliteke erkidego nazionalak hizkuntza-erkidego itxura hartzea, eta kasu horretan, zenbakiei erreparatuta, ez da nagusitasun argia izango hiru nagusien artean (kanpo utzita okzitanieraren gutxienekoa). Hizkuntza-erkidego nagusia gaztelaniaz hitz egiten dutenena izango da, eta ondoren etorriko dira euskaldunak eta frantsesez hitz egiten dutenak. Hala bada, ziur asko euskaldunen hizkuntza-erkidegoak beren minorizazioaren aurka borrokatzen jarraituko du. Zentzu horretan, euskara

62. Estaturik gabeko nazioetan ohikoena da nazioa dagoen lurraldea errebindikatzea, nazio, lurralde eta estatuaren arteko identifikazio batetik eratorrita. Irizpide horiei jarraiki, adibidez, Herrialde Katalanen mapa marrazten da, baina ez Euskal Herriko mapa, hizkuntza-irizpideak, esaterako, ez duelako haren hedapena justifikatzen.

herrialdearen iparraldea eta hegoaldea egituratuko lituzkeen hizkuntza izango litzateke, lurralde osoaren hizkuntza komuna, hitz egiten diren tokietan frantsesa eta gaztelania hizkuntza ofizialak izaten jarraitzeari kalterik egin gabe. Hiztunek ez lukete hizkuntza galtzeko beldurrik izan beharko, betiere, gizartean ezarpen handia izango balute eta hitz egiten diren lurraldeetako biztanle gehienek balekitez. Horri ekoizpen kultural ugaria eta duten nazioarteko hedadura gehitzen bazaizkio, eta Espainia eta Frantziarekiko harreman arautuak Europako lankidetzeta-markoaren barruan, ez dago inolako arrazoirik gaztelaniaz eta frantsesez hitz egiten dutenak mehatxatuta sentitzeko. Epe ertainean, ohikoa izango da herritarren zati handi bat elebiduna izatea (baita hirueleduna ere, ingelesa gehituz gero), lurralde osoan euskara hizkuntza komun gisa hartuta, eta gaztelania, frantsesa eta okzitaniera, horiek hitz egiten diren lurraldeetan. Hortaz, Frantziako eta Espainiako estatuetan gaur egun gertatzen denaren kontrara, non elebitasuna «desintegrazio nazionala»ren arazotzat jo den, euskal herritarren kohesiorako eta integrazioarako elementutzat hartuko da.

C) Euskal Estatuaren eskala txikia: txikitasuna sakontze demokratikoa eta elkartasun-loturak zein proiektu partekatuak sortzeko aukera gisa hartuta: hurbiltasuna balio bat da, bai arlo politikoan, bai sozialean, baita kulturean ere. Estatu baten kudeatzaileei kontuak eskatzetik demokrazia parte-hartzaileerako mekanismoa ezartzeraino, beste alderdi batzuetatik pasata —hala nola ordezkarien eta ordezkatuaren arteko komunikaziorako irisgarritasuna— estatu txikia izanik, alde txar baino alde on gehiago duelako. Arlo publikoarekiko eta erkidegoarekiko interes handiagoa duen biztanleria sortzea are errazagoa da zenbat eta txikiagoa izan hedadura-eremua. Faktore hori giltzarria da partekatutako proiektuak sortzeko eta estatuko herritar guztien ongizatea bilatzen saiatzeko.

Azken finean, Espainiako trantsizioan euskal gaiarekin identifikazio txikiagoa zuen herritarrak, Eusko Jaurlaritzatik zenbait gizarte-zerbitzu jasotzean, lortu egingo zuen; subiranotasunean sakontzea, beraz —justizia sozialaren eta parte-hartze demokratikoaren sakontze gisa hartuta— euskal nortasun partekatua osatzeko elementu indartsutzat har daiteke.

Horretarako baldintzak, maila handiagoko estatu batean baino —hala nola frantziarra edo espainiarra— hobeak dira maila txikiko estatu batean, Euskal Estatuan kasu. Zientzia Politikoan hala erakusten du ebidentzia enpirikoak. Esate baterako, gizarte-hautaketaren teorietatik abiatuta, Josep M. Colomer-ek (2001) 40 estatu demokratikotik gora aztertu ditu erakundearen zereginaren eskema utilitarista baliatuta. Haren iritziz, erakundeek erabilgarritasun sozial handiagoa lortuko dute (herritarren asebetetze politikoa) politika publikoetan tarteko hauteslearen aukerak ordezteko lortzeko gai diren heinean. Tarteko hauteslearen posizioa «hautesleen lehentasunen distantzien batura minimizatzen duena» da (Colomer, 2001: 227). Horregatik, asegabetasun politikoa hautesleen eta gizarte-hautaketaren arteko «distantzia»ri dagokio. Zenbat eta txikiagoa izan hautesleen lehentasunen eta gizarte-hautaketaren arteko distantzia, orduan eta handiagoa izango da erakundearen erabilgarritasuna:

Optimo soziala banakoen distantzien batura minimizatzen duen emaitzari dagokio, eta erabilgarritasun soziala maximizatzen du. Hain zuzen, dimentsio lineal bakarrean, distantzien batura minimoa da tarteko hauteslearen alternatibaren aldean (hautagaia, alderdia edo politikaria), hau da, tarteko posizioako lehentasunak dituen hauteslearen alde bakoitzean hautesleen erdia baino gutxiago izanik. Bestela esanda, erabilgarritasun soziala maximoa da hautaketa soziala bat datorrenean tarteko hauteslearen lehentasunarekin (Colomer, 2001:19).

Hala, hautaketa sozialaren teoritik abiatuta, egonkortasun politikoak eta efizientziaren irizpideak erakunde mota baten edo beste baten hautaketa bideratzen duten azterketa-eredua proposatzen du. Colomer-en aburuz, erabilgarritasun sozial handiena sortzen duen erabaki-hartzea da efizientzia, hots, herritar gehiengo baten lehentasunean barneratzea. Ikuspegi horretatik abiatuta, efizienteak diren baina eraginkorrak ez diren erakunde barneratzaileen eta eraginkorrak diren baina efizienteak ez diren erakunde baztertzaileen artean, Colomer-ek beti hautatuko du lehenengo aukera.

Ingeniaritza konstituzionalaren bitartez erabilgarritasun sozial handiena lortzeari dagokionez, haren posizioa honako hau da: «Zenbat eta konplexuagoak izan erakunde politikoak, orduan eta egonkorragoak eta sozialki efizienteagoak dira emaitzak» (Colomer, 2001:11). Kasu honetan, «konplexu» terminoak hainbat irabazle daudela esan nahi du, hots, zenbat eta konplexuagoa izan, orduan eta irabazle gehiago izango dira, eta orobat, zenbat eta irabazle gehiago izan, orduan eta erabilgarritasun sozial handiagoa izango du.

Kasu honetan, Colomer-en azterketaren ondorioetatik aztertutako herrialdeen artean azpimarratzea komeni da estatuen tamaina txikiaren eta erakundeen efizientzia-maila handiaren arteko lotura dagoela. Maila garrantzitsua da, estatu txikiek handien aldean beren erakundeen erabilgarritasun sozial handiagoa lortzen dutelako. Ildo bertsutik, zalantzarik ez da Euskal Estatuak efizientzia demokratiko handiagoa lortzeko probabilitate handiagoa izango lukeela eta Frantziako estatuak edo Espainiakoak baino kontu-emate hobea izango lukeela arrazoi xume batengatik: maila, herritarrekiko hurbiltasuna.

Idea horiek Arend Lijphart-en (2000) *Modelos de democracia* izeneko azterketan berresten dira; bertan, demokrazia-mailak aztertzen dira (gehiengoaren demokrazia eta adostasunezko demokrazia —botere banatuaren beste demokrazia mota bat da, ez da demokrazia kontsoziazionala zehatz-mehatz—) 36 herrialdetan, eta horien errendimendua hainbat dimentsiotan aztertuta amaitzen da. Emaitzak nahiko argiak dira boterea agentzia berean partekatzen duten herrialdeetan, eta botere banatuko adostasunezko sistemak gehienetan demokrazia txikiak direla erakusten da, bai eta errendimendu-adierazle batzuei jarraiki emaitza hobeak lortzen dituztela ere. Lijphart-en arabera, adostasunezko demokraziak onberatasun eta onginiariaren ezaugarriak dituzte «ongizatearen estatuak izateko joera dutelako; ingurumena babesteari dagokionez emaitza hobeak dituztelako; jende gutxiago espetxeratzen dutelako eta heriotza-zigorra erabiltzeko joera txikiagoa dutelako; eta herrialde garatuetan adostasunezko demokraziek laguntza ekonomiko gehiago ematen dizkietelako garapen-bidean dauden herrialdeei» (Lijphart, 2000: 257).

Hargatik, lan horren ondorioetan honako hau onartzen du: «Adostasunezko demokraziak eta onberatasun eta onginihiaren politika horiek jatorria erakundeen emaitza zuzenean baino adostasunezko eta erkidegoko kulturaren dutela suposatzea gomendagarriagoa da» (Lijphart, 2000: 284). Baieztapen horrek ez dio adostasunezko agindua indartzen duten kontrako argudioak eskaintzerik eragozten Lijphart-i. Ildo horretatik, kultura fenomeno konplexua dela eta hainbat faktoreren arabera eboluzionatzen duela baieztatzen du. Hala, Suitza edo Austria esaterako, adostasunezko kulturatzat jo dira, eta iraganean adostasunera bideratu gabeko politikak zituzten. Helvetiarrek bost gerra zibil izan zituzten XIX. mendearen erdialdera arte, eta austriarrek gerra zibil odoltsua izan zuten 1934an.

Hala bada, Euskal Herriak, iragan gatazkatsua izan arren, bere baitako aniztasuna posizio partekatuago eta adostuagotik kudeatzea sustatzeko erronka du, eta horretarako, inoiz baino beharrezkoagoa da Euskal Estatu bat lortzea. Egitura instituzional horrek, *a priori*, aniztasun etnikoarekiko errespetua sustatzeko frantziarrek eta espainiarrek baino baldintza hobeak izango ditu, prozedurazko akordioak oinarri hartuta, hala nola justizia sozialak dentsitate demokratiko handiagoko testuinguru batean bultzatzea.

BIBLIOGRAFIA

- Aja, E. (2003): *El estado autonómico: federalismo y hechos diferenciales*, Alianza, Madril.
- Beramendi, J. (2005): "Las cosas tras los nombres. Semántica y política en la cuestión nacional", in Álvarez Junco, Beramendi eta Requejo, *El nombre de la cosa: debate sobre el término nación y otros conceptos relacionados*, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madril, 79-102.
- Caminal, M. (2008): "Plurinacionalidad y federación: la división de la soberanía como condición para la construcción de uniones federales. Su aplicación en el caso del Estado español", in Letamendia, Ahedo eta Zelaia, *Democracia, ciudadanía y territorialidad*, IVAP, Bilbo, 145-164.
- Colomer, J. M^a (2001): *Instituciones políticas*, Ariel, Bartzelona.
- , (2008): "Empire-, State- and Nation-Building and Deconstructing in Spain", in M-S. Darviche eta W. Genieys (ed.), *Multinational State Building: considering and Continuing the Work of Juan Linz*, Pole Sud, Montpellier, 43-60.
- Horowitz, D. L. (1985): *Ethnic Groups in Conflict*, University of California Press, Berkeley.
- Ibarra, P. (2005): *Nacionalismo: razón y pasión*, Ariel, Bartzelona.
- Kymlicka, W. (2000): *Citizenship in Diverse Societies*, Oxford University Press, Oxford.
- Letamendia, F. (1997): *Juego de espejos: conflictos nacionales centro-periferia*, Trotta, Madril.
- Lijphart, A. (1968): *The Politics of Accommodation*, University of California Press, Berkeley.
- , (1975): "Review Article: the Northern Ireland Problem: Cases, Theories, and Solutions", *British Journal of Political Science*, **5**(1), 83-106.
- , (1977): *Democracy in Plural Societies: A Comparative Exploration*, Yale University Press, New Haven, CT/Londres.
- , (2000): *Modelos de democracia. Formas de gobierno y resultados en treinta y seis países*, Ariel, Bartzelona.
- , (2008): *Thinking About Democracy. Power sharing and majority rule in theory and practice*, Routledge, New York.

- Linz, J. J. (1973): "Early State-Building and Late Peripheral Nationalism Against the State: the Case of Spain", in S. N. Eisenstadt eta S. Rokkan (ed.), *Building States and Nations*, II. liburukia, Sage, everly Hills, 32-116.
- , (1999): "Democracia, multinacionalismo y federalismo", *Revista Española de Ciencia Política*, **1(1)**, 7-40.
- Linz, J. J. et al. (1986): *Conflicto en Euskadi*, Espasa-Calpe, Madril.
- Maíz, R. eta Losada, A. (2009): "La desfederalització a l'Estat de les autonomies espanyol: les processos de recentralització i de resimetrització", in Requejo eta Nagel, *Descentralització, asimetries i processos de resimetrització a Europa*, Institut d'Estudis Autònoms, Bartzelona, 181-222.
- McGarry, J. eta O'Leary, B. (2006a): "Consociational Theory, Northern Ireland's Conflict, and its Agreement. Part 1: What Consociationalist Can Learn from Northern Ireland", *Government and Opposition*, **41(1)**, 43-63.
- eta ———, (2006b): "Consociational Theory, Northern Ireland's Conflict, and its Agreement 2. What Critics of Consociation Can Learn from Northern Ireland", *Government and Opposition*, **41(2)**, 249-277.
- eta ———, (2009): "Power shared after the deaths of thousands", in R. Taylor (ed.), *Consociational Theory: McGarry & O'Leary and the Northern Ireland Conflict*, Routledge, New York, 15-84.
- Moreno, L. (1998): "Local y global: la dimensión política de la identidad territorial", Working Paper (CSIC, Unidad de Políticas Comparadas), 1998ko 2. zk.
- , (2007): "Federalization in multinational Spain", Working Paper (CSIC, Unidad de Políticas Comparadas), 2007ko 4. zk.
- Requejo, F. (2005): "A vueltas con los conceptos para mejorar la calidad democrática", in Álvarez Junco, Beramendi eta Requejo, *El nombre de la cosa: debate sobre el término nación y otros conceptos relacionados*, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madril, 103-117.
- , (2009): "El fuste de la democracia liberal sigue siendo demasiado recto. El caso de los modelos políticos para la convivencia en estados compuestos", in Eusko Jaurlaritz, *III Congreso Internacional sobre Derechos Humanos: la gestión democrática de la diversidad cultural nacional*, IVAP, Bilbo, 159-171.
- , (2009): *Descentralització, asimetries i processos de resimetrització a Europa. Bèlgica, Regne Unit, Itàlia i Espanya*, 1. ed., Institut d'Estudis Autònoms, Bartzelona.
- Requejo, F. eta Caminal, M. (ed.) (2009): *Democràcia liberal i pluralisme nacional*, Institut d'Estudis Autònoms, Bartzelona.
- Requejo, F. eta Gonzalo, E. (2009): *Desigualtats en democràcia. Les teories de la justícia socioeconòmica al segle XXI*, Eumo Ed, Vic, Bartzelona.
- Requejo, F. eta López, J. (2009): *Análisis de experiencias de democracia directa en el ámbito internacional (1995-2007)*, Instituto Vasco de Administración Pública, Oñati.
- Zubiaga, M. (1999): "La autodeterminación como cambio político", in M. Gomez; I. Lasagabaster; F. Letamendia eta R. Zallo (ed.), *Un nuevo escenario: democracia, cultura y cohesión social en Euskal Herria*, Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbo.

5. Euskal Estatua eta nazioa, ekintza kolektibo gisa: euskal estatugintzaz

Mario Zubiaga Garate, Politika Zientzietan doktorea, UPV-EHUko irakaslea

Independentzia mobilizazio-prozesu historiko luzean kokatuko du Mario Zubiagak. Estatugintza edo *state building* delako hori ez da egun batetik bestera gauzatuko. Sezesio formala, izatekotan, askatze-prozesuaren azken urratsa izango da, etengabeko mobilizazio independentistarena. Nazioaren eta estatuaren osaketa bera, ekintza kolektiboak dira, gizarte-mugimenduak. Mobilizazio mota bat bezala definituz gero, independentzia ezin berezitu daiteke hegemoniaren eraikuntzatik. Botere, eragin eta identitate paradigmekin batera jokatzuz, independentziak Euskal Estatuaren hegemonia eraikitzea du helburu. Paradigma horien artean sortuko diren sinergiak eta kontraesanak modu estrategikoan kudeatu beharko ditu mugimendu independentistak: jendarte eremuak artikulatuz eta modu egokian polarizatuz, diskurtsoari eta praxi politikoari dagokion berrikuntza taktikoa proposatuz, komunitate-sentimenduak sendotuz, eta, aldi berean, euskal sareen trinkotze sozial, politiko eta juridikoari ekinez. Ez da nolanahiko erronka, baina, ezbairik gabe, eskura dago.

The basque state and nation as collective action: basque state-building

Mario Zubiaga looks at independence within a long-term historical mobilization process. Statebuilding is something that cannot be achieved overnight: formal secession, when it occurs, is the final step in a long liberation process of mobilization for independence. State and nation building is all about collective action and social movements. Defined as a type of mobilization, independence cannot be differentiated from the building of hegemony. Bringing together paradigms of power, influence and identity, the goal of independence is the building of a Basque state as hegemony. To that end the independence movement will have to manage strategically the synergies and contradictions that will arise between these paradigms. This will have to be done by articulating public domains and polarizing them appropriately, proposing a tactical renewal in political discourse and practice, strengthening feelings of community, and at the same time working towards the social, political and legal consolidation of Basque networks. This is an enormous challenge but it is perfectly feasible.

SARRERA

Euskal Estatua ez da helburu politiko berria: abertzaletasunak modu batean edo bestean beti izan du independentziaren jomuga, eta, ezbairik gabe, estatu propioa edukitzea izan da burujabetasunaren adierazpenik argiena. Dena den, Euskal Estatuaren errebindikazioa utopiaren zerumugan kokatu da maiz, sentimendu edo sinesmen gisa, alegia. Hauxe izango litzateke independentismoaren arriskurik handiena: bere nahia erlijio pribatu gisa agortzea, sutondoko zokoan gordeta geratzea, «askapen-eguna» noiz etorriko den zain.

Alabaina, Tilly-k gogoratzen duen moduan, nazionalismoa, ezer izatekotan, mobilizazio-prozesu bat da, eta *statu quo*-aren aldaketa dakarren aldetik, mobilizazio liskartsua (*contentious mobilization*) izango da beti. Aldi historiko bakoitzean, estatugintzak eta harekin lotutako naziogintza-prozesuek eduki ideologiko eta jarduera mota desberdinak hartu dituzte: nazionalismoa atzerakoia edota aurrerakoia izango da, erasokorra edo erresistentzian oinarritzen dena, inperialista edo internazionalista. Era berean, eduki ideologiko bakoitzak tresna politiko zehatz batzuk hobetsiko ditu, besteen kaltetan: familia-aliantzak, gerra, konbentzimendua, demokrazia...

Mundu garaikidean, inguruan ditugun estatuetan indarrean dagoen filosofia politikoari so eginez, Euskal Estatuaren errebindikazioak izaera berria hartu du. Gure inguruabar politikoan legitimotzat jotzen diren bide egingarriak landu beharraren ustea zabaldu da. Ondorioz, oro har, gizarte zibil independentista sendotzeko ekimenak eta haren borondate politikoa bideratzeko tresna demokratikoak garatzen ari dira estaturik gabeko nazio garaikideetan. Independentziarako hegemonia politikoa beharrezkoa da, gehiengo zabalak osatzeko ezinbestekoa den hegemonia.

Dena den, ez da beti horrela izan. Estatu- eta nazio-eraikuntza historikoaren dinamikan bestelako eredu politikoak erabili dira mendetan zehar, eta horiekin batera, baita baliabide desberdinak ere.

1. EUSKAL ESTATUAREN OSAKETA HISTORIKOA (STATE-BUILDING) ETA GALERA

Erromatar inperioaren amaieran Europan nagusitu zen eredu feudalak menekotasun pertsonaletan oinarritutako jaurgoen aniztasuna ekarri zuen. Jurisdikzio-botere horien artean, erreinuak sendotzen hasi ziren lurralde-eremu ezagunetan, nolabaiteko antzekotasun etnikoa zuten herriak oinarri hartuta. Aurre-eratze hori estatu modernoaren lehen zutabea izan zen, ezbairik gabe.

Lurralde-erreinuetatik estatu modernora doan ibilbide historiko hori «estatu-eraikuntza» gisa definitu da. Charles Tilly-k ongi aurkeztu dizkigu garabide horren ezaugarriak:

Estatu-eraikuntza egongo da baldin eta agintari profesionalak agertzen badira, egonkortua dagoen lurraldearen gaineko kontrola eta horrekiko leialtasuna, estatu zentralizatua eta autonomia duten erakunde iraunkorrak badaude, populazio jakin baten gaineko biolentziaren monopolioa dutenak.

Gobernu-egitura profesionalizatuak eta iraunkorrak, gizartearen eta agintaritzaren arteko bereizketa zurruna (arlo publiko/pribatuaren dikotomiaren aurrekaria dena), lurralde-lotura zehatza eta erakunde zentralizatuak, bortizkeriaren monopolioa hartzen dutenak, jaurgoei kenduta. Hauexek dira estatu modernoaren ezaugarriak.

Eraikuntza horrek doktrina ideologiko berria beharko du bere agintea legitimatzeko: soberania edo «hierarkia politiko baten barnean, erabakiak hartzeko eta gatazkak modu eztabaidea ezinezuan konpontzeko azken eskubidea duen agente erabakitzailearen boterea edo aginpidea (eta honi lotutako diskurtso legitimatzailea)».

Nola osatu zen estatuarekin identifikatu zen aginpide mota hori? Edo beste modu batera esanda, estatua gorputz «artifiziala» izanik, nola osatu zen haren arima banaezina baina, era berean, «artifiziala» bilakatu den soberania?

Estatuaren soberania bere aginpidearen gorentasunean eta batasunean islatzen da. Carlos De Cabo-k dioen moduan, protoestatu⁶³ gisa defini daitezkeen erreinu horiek, beren agintearen gorentasuna eta batasuna aldarrikatzen hasi ziren beren komunitate politikoen eta barnean zituzten jurisdikzio-botere feudalen aurrean, batetik, eta, bestetik, kanpotik, —beste erreinuetatik edota elizatik— zetozen eragin eta esku-hartze ahaleginen aurrean.

Hinsley-en hitzak hartuta, «estatu bat ezartzen denean, komunitate-printzipioaren eta menderatze-printzipioaren artean borroka gertatu dela dakusagu, gizarte bateko jokabide eta ohitura zaharren irautea eta soilik kanpoko botere batek ekar dezakeen gobernu mota baten eskakizunen arteko borroka, alegia». Hala, estatu modernoaren ezarpen behin betikoak komunitate-estatu identifikazio erabatekoa eskatzen du, bien bitartean «estatu segmentarioa» izango da: estatu zentralaren forma administratzaileen eta gizartearen boterearen antolamendu segmentatuaren arteko konbinazioa. **Horregatik, estatu-eraikuntza ez da inoiz amaitzen, prozesu etengabea da: inoiz ez da estatua, kontzeptu gisa, ixten, biribiltzen, estatu totalitarioaren ameskerian ez bada.**

Dena den, ez dugu ahaztu behar, borroka hori, barnekoa ez ezik, lurralde-eremu berean ahalegin berebete ari diren protoestatuen artekoa ere izango dela, noski. Estatu-eraikuntza ez baita inoiz ibilbide baketsua.

Azalpen teoriko horiek guztiak gure herrira ekar daitezke, ezbairik gabe. Erdi Aroan zehar Iberiar penintsulako erreinu guztiak aritu baitziren estatu-eraikuntza lehiatsuan. Gaztela eta Nafarroaren arteko lehia gatazkatsua izan zen oso. Izan ere, bien artekoa ez zen leinuen arteko lehia soilik, gatazkak izaera sakonagoa zuen, etnia/herri desberdinen arteko talka baitzegoen azpian. XII. mendetik aurrera mendebaldeko euskal lurraldeak, arestian Nafarroako Erreinuaren barneratuta zeudenak, Gaztelako Erreinuaren eraginpean geratu ziren. Eskuratu berriko lurralde eta herrien fidelitasuna lortze aldera Espainiako erreinu-estatu segmentarioak

63. «Protoestatua» esamoldea, oraindik estatua ez diren, baina izateko bidean dauden errealtate politikoak adierazteko erabili dugu. Nafarroako Erreinua, zentzu horretan, protoestatu modernoan izan zen: estatu modernoan izateko bidean galdutako egitura politiko estatala. Estatu-eraikuntzari buruz, De Cabo Martín, C. (1988): *Teoría histórica del estado y del derecho constitucional*, PPU, Madril.

haien «status» autonomia aitortu zuen, estatuaren menpe betiere: gauza bera gertatu zitzaion Nafarroari, 1512ko konkista burutu eta gero. Ordutik honako «foru-bereztasun»-en aitortpena, Espainiako estatu segmentarioaren adierazpen tipikoak izan dira: inoiz estatu-eraikuntzaren prozesua biribildu ez duen estatuarenak⁶⁴.

Horrela, Nafarroako Erreinua, ikuspegi modernotik aztertuta, protoestatua izan zen, estatu moderno subiranoa izateko bidean galdu zen antolakuntza politikoa. Antzua da eztabaidatzea ea estatua sortu bezain laster desagerrarazi zuten edo sortzeko bidean galdu zen. Europa osoan bezala, Iberiar penintsulan eta Pirinio inguruetan, bertako erreinuak —Frantzia, Gaztela, Aragoi...— estatu-eraikuntza lehiatsu horretan murgilduta aritu ziren, eta lehia horretan zeuden neurrian «estatu» ziren guztiak, guztiz osatzeko, perfektionatzeko bidean zeuden (proto) estatuak. Oraingoan antzera, nolanahi ere.

Nafar estatuak, Nafarroako Erreinuaren errealitatea eta egitasmoa izan zen bezala, gaur egitasmo gisa dirau, eta orduan hasitako estatu-eraikuntzaren prozesua berrabiarazteko aukera errebindikatzen dute euskal abertzale askok. Bigarren atalean sakonduko dute arlo hau Nabarralde elkarteko kideak diren angel Rekaldek eta Koldo Martinez Garatek⁶⁵.

2. NAZIO-ERAIKUNTZA (NATION BUILDING): ESTATUAK NAZIOA NAHI, NAZIOAK ESTATUA BEHAR

XVII. mendearen erdialdean, Westfaliako bakea sinatu zenean, finkatu zen kanpogegei dagokien estatu-eraikuntzaren prozesua European. Bodino-ren edota Hobbes-en eskutik, soberaniaren kontzeptu berria lehen estatu modernoaren behar-erizanetara egokitu zen: gizarteak monarka baten esku betiko eta atzera itzulerarik gabe utzi duen aginpide erabatekoa da soberania, muga bakarra jainkoaren legean edota lege naturalean duen aginpidea. Estatu hori da lehen estatu modernoa.

Westfaliako bakean ezarritako sistematizazioan oinarrituz, eta Frantzian jada ezarritako estatu absolutuaren eredua hartuta, borboitarrek Espainiako Erreinuaren estatus segmentarioa desagerrarazteko lehen saiakera egin zuten, XVIII. mendearen

64. Hinsley-en ekarpenaren aurrekari zuzenena, *Printzean* bertan dugu, nola ez, Machiavelliren ahotik: «NOLA GOBERNATU BEHAR DIREN OKUPATU AURRETIK BEREN LEGEEKIN BIZI ZIREN HERRIAK EDO PRINTZERRIAK. Eskuratutako estatuak beren lege eta askatasunekin bizitzen ohituta daudenean, hiru era daude eusteko: lehenengoa, suntsitzea; bigarrena, norbera bertara bizitzen joatea; hirugarrena, beren legeekin bizitzen uztea, zergak kobratuz eta lagun iraunaraziko dion kide gutxiko gobernu bat ezarri. Izan ere, estatu hura printzearen esku egonda, gobernuakide hauek badakite ezin direla haren adiskidetasunik eta sostengurik gabe bizi, eta edozer gauza egingo dute hari eusteko. Eta askoz ere errazago eusten zaio libre bizitzen ohitutako hiri bati bere biztanleen bitartez, beste edozelan baino». Mendebaldeko probintziak lehenago, eta Nafarroako lurraldeak konkistatu zituenean, doi-doi bete zituen Gaztelako Erreinuak aholku horiek. Foru-sistemaren eta azken hamarkadetakoa eredu autonomikoaren azpian ere arrazoiak bera topa dezakegu, baita konpromiso horretarako prest dauden herrikideak ere. Eta oraindik, adituren batek berrikuntza izugarri gisa aurkeztuko digu «kontzertu politikoaren» lelo zaharra.

65. Egitasmo politiko horren suspertzaile garrantzitsua Nabarralde elkartea da (<http://www.nabarralde.com>). Lan historiografiko handia eginez, nafar estatuaren historia errebindikatzeaz aparte, etorkizuneko proposamen politikoa ere bideratu du, Euskal Herriaren egitasmo abertzalea eta nafar estatuaren berreratzea elkartuz.

hasieran. Euskal lurraldeetan ez zuten helburua lehen ahaleginean lortu. Baina estatu modernoaren iraultzak, Zizek-ek gogoratzen digun bezala⁶⁶, bigarren saioa izan zuen. Ilustrazioarekin eta iraultza burgesarekin batera, estatu-eraikuntza zena, nazio-eraikuntza (*nation building*) bilakatu zenean.

Iraultza burgesak, estatu/erreinu absolutuaren legitimitate jainkotiarra ordezkatzuz, jainko zibila eseri zuen tronu huts hartan: nazioa.

Kapitalismoaren jauzi berriak sustatutako estatu-eraikuntzak homogeneousazio kulturala behar zuen arrakastatsua izango bazen. Horrela, nazionalismoak, nazio-eraikuntza helburu zuen ideologiak, estatuen bateratze sinbolikoa (eta politiko/ekonomikoa, noski) bultzatu zuen, egoera segmentariorik zetozen berezitasunak ezabatuz: horixe da, gurean, XIX. mendeko karlistadetan jokoan zegoena. 1841ean Nafarroak erreinu-titulua galdu zuen unean, Espainiako estatu-eraikuntza ia amaituta geratu zen, probintzia sortu berriaren zenbait berezitasun juridiko aitortu baldin bazen ere.

Dena den, Espainiako *nazio-eraikuntza* prozesua ahula izan da oso. Ez baitu lortu identifikazio nazional espainiarra hegemonikoa izaterik estatuko lurralde-eremu osoan. Ia ahaztutako estatu-izaera galtzearen truke aitortutako hondakin juridiko-politikoetan —foruetan— oinarrituta, gatazka-ardatz (*cleavage*) nazionalaren inguruan, eragile nazionalista berriak osatu ziren. Handik aurrera, nazio-eraikuntza lehiatsua ireki zen Pirinio inguruetan, mendebaldean zein ekialdean: Espainiako estatuak espainiar nazio bakarra nahi eta behar du, baina ezin du lortu; euskal nazioak estatua behar eta nahi du, baina ezin eskuratu dabil.

Tamalez, Frantziako estatugintza-prozesua indartsuagoa izan zen, borboitarren absolutismoaren eskutik, eta, era berean, iraultzak abiatutako nazio-eraikuntza ere, bortitzagoa izan zen, Iparraldeko euskal lurraldeen kaltetan.

3. ESTATU-ERAIKUNTZA (STATE-BUILDING) MOBILIZAZIO KOLEKTIBO GISA: DESERTZIOA ETA ERAIKUNTZA.

Ibilbide historiko honen laburpen gisa esan daiteke estatu-eraikuntza eta honekin lotutako nazio-eraikuntza ez direla inoiz garabide lasaiak. Lurralde-komunitate politikoaren egituratze juridikoak agintearen zedarritzea dakar halabeharrez, eta aginterik gabeko eremurik ez dagoen neurrian, estatu berri baten eraikuntzak indarrean dagoen «beste» estatu baten aginte-eremua ezbaian jarriko du. Horrela, estatugintza ibilbide liskartsua izango da beti. Gauza bera esan daiteke, naziogintzari buruz, lotura-sentimendu sendoena duten komunitate politikoen arteko talka gairatzen den neurrian. Euskal estatugintza, ondorioz, mobilizazio liskartsu gisa definitu beharko genuke: tresna juridikoak egon baleude ere, arrazoi historiko, kultural edo ekonomiko objektiboak oso indartsuak izanik ere, gizarte-mobilizaziorik ezean nekez egingo du aurrera Euskal Estatuaren errebindikazioak.

Charles Tilly izan da **estatugintza eta naziogintza historikoen mobilizazio liskartsua** aztertu duen ikertzailearik ezagunena. D. McAdam eta S. Tarrow-rekin

66. Iraultza guztietan ohikoak dira bi urrats horiek: 1789ko Asanblada Nazionala/1792ko Konbentzioa, une mentxebikea eta boltxebikea... Ikus: Zizek, S (2004): *Repetir Lenin*, Akal, Madril.

batera, mobilizazio-prozesu horietan abian jartzen diren mekanismo eta prozesuak aztertu ditu. Estatu berri baten sorreran bi dira prozesu nagusiak: aurreko estatuarekin konpromisoa duten eremu soziopolitikoek desertzioa, eta estatu berriari atea zabalduko dion aginte-erakuntza.

Estatu berri baten sorrerak haustura du jatorrian, nolabait esanda, erditzea. Estatu bakarra egon den lekuan, une batetik aurrera, lurraldea eta komunitatea zatitu eta gero, bi estatu egongo dira. Haustura horrek prozesu bikoitza jarri beharko du abian. Hasteko eta behin, egitura politiko eta instituzional bateratua sostengatzen zuten eremu soziopolitikoek bertan behera utzi beharko dute ordura arte harekiko erakutsitako fideltasuna. Hori da hain zuzen Tilly-k «desertzioa» deitzen duena. Fideltasun-aldaketa hori ez da fede-aldaketa edo bihurtze erlijiosoa, oinarri objektiboa duten mekanismo psikologikoen bitartez azaldu daiteke. Tilly-k bi azpimarratu ditu: «Eliteen interesen kaltetzea» eta «irainen bat-bateko ezarpena».

Lehen mekanismoak, eliteen interesen kaltetzeak, agintearen sostengua diren eliteen jarrera-aldaketa kalkulu arrazionalak ekarriko du. Une batetik aitzina, ordura arte erregimenaren aliatu ziren eliteak oraindik ere indarrean dagoen agintea beren interesetarako oztopotzat jotzen hasiko dira. Galdera gurean erraza da, hortaz: zein neurritan ikusten dituzte kaltetuak beren interesak euskal eliteek Espainiaren/Frantziaren barnean egonda edota egoteagatik? Euskal elitearen eremu bat, gero eta gehiago, ez dago Espainiara edo Frantziara begira, arlo gehienetan —ekonomian, ikerkuntzan...— argi dago zuzenean jo behar dela nazioarteko esparrura, bi ama-estatuetatik kanpo. Zentzu horretan, berebiziko garrantzia hartuko du euskal unibertsitateetan, esaterako, Espainiako eta Frantziako dinamika korporatiboetatik at, harremanak nazioarteko eremu akademikora zuzentzen badira, inongo bitartekaritzarik gabe.

Alabaina, ezin uka daiteke elite sozioekonomikoen jarrera erabakitzailea izan ohi dela horrelako prozesuetan. Katalunian, esaterako, elite horiek gero eta argiago ikusten ari dira Espainiatik at dagoela beren interesen defentsarik egokiena. Gurean, berriz, hausnarketa hori ez dago oraindik orain hain sakonki errotua euskal elite sozioekonomikoengan, ez eta hauekin gobernugintza (*governance*) sareetan dauden elite politikoengan. Ezbairik gabe, kontzertu eta hitzarmen ekonomikoek ahalbidetu duten zerga-autonomia, mugatua izanda ere, erabakitzailea izan da aipatu eliteen interesak egun indarrean dagoen erregimen autonomikoan babestuak gera zitezen. Horrek bermatu egin du, orain artean behintzat, elite horien fideltasuna eredu autonomikoarekiko.

Arlo diskurtsiboan lan sakona egin beharko litzateke Euskal Estatuaren beharra edota komenigarritasuna gizarte-eremu zabaletan hedada dadin, batez ere gaurko *statu quo* horretatik onura gehien jasotzen dutenen artean⁶⁷.

67. Eginbehar horretaz aspaldi jabetu dira Espainiaren batasuna defendatzen duten «abertzale ohiak», Joseba Arregi edota Emilio Guevara, kasu. Azkenak duela gutxi argitaratutako artikuluan, honela zioen: «[...] Y solo hay una manera posible de conseguir que el independentismo pierda: demostrar a los ciudadanos, con datos y argumentos serios, comprensibles, referidos a la vida real y a los problemas que de verdad afectan al bienestar, que esa reivindicación es, en la Europa y en el mundo del siglo XXI, inviable, innecesaria y equivocada». *El País*, 2011/11/1 «Del 25-0 la 20-0». Nabari denez, Euskal Estatuaren aldekoen lana izango da, hain justu, kontrako argudioak lantzea.

Dena den, «eliteen interesen kaltetzea», mekanismo gisa, herri bakoitzean nagusi diren eliteen norabide ideologikoaren menpe dago. Esaterako, kaltetzearen ustea ez da berdin errotuko eliteen eredu ideologiko nagusia neoliberal amorratua bada edo gizarte-eredu sozialaren aldekoa. Gurean, bistan da, Euskal Estatuaren aldeko interesa eta, hortaz, Espainiako eta Frantziako estatuen mendekotasunaren arbuioa, erabat lotuta daude euskal eliteen artean egon daitekeen lehia ideologikoari.

Soberanismoak eduki sozial aurrerakoia du gurean, ongizate-estatuaren defentsan oinarritzen dena, hori delako euskal gizarte-eremu zabalak barneratzeko modurik egokiena. Izan ere, **estatu-eraikuntza** (*state-building*) edo aginte politikoaren sendotzea eta hedatzea euskal lurraldeetan, **nazio-eraikuntza** (*nation building*) edo nazio-sentimenduaren eta beronekin lotutako eduki identitarioen errotzea euskal jendartearen, eta **herri-eraikuntza** (*demos building*) edo euskal gizarte demokratikoaren antolatze-prozesua, modu eraginkorrean uztar daitezen ezinbestekoa da gizarte-justizian errotutako eredu ideologikoa hobestea.

Aldaketa politiko sakonak azaltzeko Walsh eta Warland (1983) ikertzaileek garatu duten bigarren mekanismoa ere interesgarria gerta daiteke estatu-eraikuntzan: «irainen bat-bateko ezarpena». Ilbilbide iraultzaileetan zenbait gertakizun berezik duten garrantzia azpimarratzen du mekanismo honek. Chernobyl-en gertatutako istripuak energia nuklearraren arriskua dramatizatu eta nabarmendu zuen moduan, honelako «gertaera katalizatzaileak» garabide iraultzaileetan edo, besterik gabe, erregimen politikoaren arautu gabeko aldaketetan, mekanismo esanguratsuak izan daitezke: hilketaren bat —Calvo Soteloarena 1936ko altxamenduan—, agintearen gehiegikeriaren bat —Estonian Sobiet Batasunak inposatu nahi zuen energia-azpiegitura suntsitzailea—, edo porrot militarren bat, Malvinetako deskalabrua, Argentinako diktaduraren erorketan gertatu bezala...

Ez dago alde zuretik jakiterik zein izango den erreboltaren azken —edo lehen— tanta, baina gertakizun batzuk ustekabekoak izan arren —normalean inork espero ez zituelako, eta, era berean, inork ez zuelako espero hain erabakitzaileak izango zirenik—, bat-batean azalarazten dute ezkutuan mamitzen ari zen eta artean adierazpenik ez zuen iraina, mehatxua edota arriskua.

Katalunian, esaterako, soberanismoak berriki izan duen susperraldia lotuta dago «irainen bat-bateko ezarpenaren» mekanismoarekin. Zerbitzu publikoen kolapso ekonomikoa —trenak, osasun-zerbitzuak...—, Espainiatik jasotako iraintzat hartu baitute gizarte-eremu zabalek. Dena den, «irain» horri ematen zaion erantzun politikoak baldintzatuko du estatugintzaren norabidea eta indarra. Adibidez, CIU alderdiak Generalitateko gobernua hartu eta gero hasitako «irainaren kudeaketak» ez dirudi egokiena: estatuarengandik zerga-ituna eskuratzeko estrategiaren baitan, ongizate-ereduaren erauzteari ekin dio, Kataluniako gizartearen eremu zabalak nazio-eraikuntza prozesutik urruntzeko arriskuan jarritz.

Azkenik, sezesioak estatu-eraikuntza eta deseraikuntza-prozesuak biltzen dituen heinean, garrantzi handia hartuko dute zertifikazio- eta deszertifikazio-mekanismoek. Estatu berria izan nahi duen komunitate politikoak une jakin batean jaso dezakeen nazioarteko aitortpenak edo zertifikatzeak osatzen baitu estatuaren kanpora begirako soberania. Aginte estatal baten zertifikazioa edo deszertifikazioa,

beste aginte estatalek edo estatuz gaindikoek (Europar Batasunak, esaterako) kendu edota ematen dute. Batez ere, nazioarteko erakundeen edo potentzia nagusien aintzatespen ezak asko baldintzatu dezake erregimen baten iraunkortasuna edo, gure kasura ekarriz, euskal sezesioaren bideragarritasuna eta etorkizuna. Gai hauek atal juridikoan aztertu dira sakonki. Hemen, gaiaren garrantzia azpimarratu nahi da soilik, eta zertifikazio horri begira jarri beharreko baliabide politikoen premia.

McAdam, Tarrow eta Tilly-k, Beissinger-en (2003) lana abiapuntu hartuta, estatuen sorrera eta desagite-prozesuak aztertu dituzte eta ikuspegi diskurtsibo konstruktibista soila gaintuz, ekintza kolektiboak berak nazionalitateen sortzaile gisa duen eragina nabarmendu dute. Hala, independentzia edo sezesioa, bestelako izaera guztien gainetik, gizarte-mobilizazioa da. Mobilizazio mota horrek aginte (des) eraikuntza dakarren neurrian, horrelako garabide historikoetan abian jartzen diren zenbait mekanismo piztuko dira, hala nola:

- «**Aukera/mehatxuen espirala**», edo alde baten aukerak bestearentzat mehatxu bilakatzen direnekoa, eta alderantziz. Esaterako, urteotan Europako erakunde bateratuen eraikuntza euskal sezesiorako mehatxu/muga izan den bezala, aukera bilaka daiteke etorkizunean, kudeaketa estrategiko egokia eginez gero. Era berean, Espainian demokrazia sendotu izanak legitimitate handiagoa eman dio bere sistema politikoari euskal oldarraldiari aurre egiteko orduan, baina demokraziak berak ahuldu egingo du bere gotorkeriaren legitimitatea, estatuko beste nazioen errebindikazio demokratikoen aurrean.
- «**Nortasun-aldaketa**», edo sezesiorako beharrezkoak diren gehiengo demokratikoak osatzeko «euskal identitateak» izan dezakeen bilakaera diskurtsiboa... «Euskal herritar», «euskaldun», «abertzale» kontzeptuen edukiak etengabea ari dira aldatzen, eta, ziur asko, independentzia-prozesu bati aurre egiteko, bilakaera horretan sakontzea beharrezkoa izango da etorkizunean. Horrekin batera «kategoria berriak osatzeko» mekanismoa abian jar daiteke, euskal jendarteak sailkatzeko, biltzeko eta polarizatzeko modu berriak sortuz. Horren adibide gertukoena «soberanismoa» kategoria dugu, esaterako. Atal filosofikoan landu dira halako proposamenak.
- «**Artekaritza**» (*brokerage*) mekanismoa edo «artean deslotuak edo desmobilizatuak zeuden gizarte-guneak lotzea, artekatzea, horretarako artekari lanetan ariko diren eragileak sortuz edo egokituz». Izan ere, gehiengo politiko soberanistak osatzeko eta «**botere-lehia**» mekanismora bideratzeko, orain arte desmobilizatuak edota deslotuak egon diren gizarte-esparruak artekatu beharko dira, horretarako egokiak diren «**berrikuntza taktikoak**» erabilia, bai diskurtso mailan, bai eta mobilizaziorako tresnei dagokienez.
- Azkenik, euskal estatu-aginte berriaren eraikuntzan aurrera egin ahala, «**nortasunari mehatxu**» gisa uler daitezkeen «**errepresio**-mekanismo» berriak abian jarriko dira, orain arte ezagutu ez ditugun baliabide berriekin. Ondorioz, beste mekanismo batzuk ere pitz daitezke, «**erradikalizatzea**» kasu, aukera/mehatxuen espirala aktibatuz. Aldagai horiek guztiak pizten edota kudeatzen jakin beharko du euskal soberanismoak, orain aurreikusi ezin daitezkeen arren.

Zein izan da XX. mendeko mugimendu independentistaren mobilizazio-eredua? Datozen urteetan, nolako mobilizazio mota piztu daiteke Euskal Estatua sortzeko prozesuan?

4. GIZARTE-MOBILIZAZIOAREN PARADIGMAK ETA HEGEMONIA EUSKAL ESTATUAREN ERAIKUNTZARI BEGIRA

Arestian esan bezala, Euskal Estatua eraikitzeko unean tresna demokratikoak hobetsi behar dira mundu garaikidean. Gramsci-ren esaldi zaharra gogoratzuz, «euskal herritarrak» sortu behar dira lehenik, gero Euskal Estatua erdiesteko. Euskal Estatuaren aldeko hegemonia lortu behar da euskal lurraldeetako gizartean, estatuaren azken tresna soberanoak eduki aurretik. Edo, hobeto esanda, batera etorriko dira biak, estatugintza mobilizazio-prozesua baita.

Euskal lurraldeetan sentimendu nazional desberdinak bildu dira. Euskal herritar askok espainiar gisa erabaki nahi dute, eta beste askok, berriz, frantziar moduan. Horixe da haien nortasun politikoa. Ez dute Euskal Estatuaren beharrik ikusten, badute jada haien gustuko estatua. Euskal herritar gisa soilik erabaki nahi duten herritarrak, euskal nazioaren kide direnak, ez dira, oraingoz, gehiengo aski zabala euskal lurraldeetan.


Alabaina, borroka hegemonikoa ez dago kopuru aritmetikoaren baitan bakarrik. Azken urteotako bilakaera politikoak askotan erakutsi digu «euskal herritar» tipikoa, hegemonikoa, neurri handi batean, euskal abertzalea izan dela, euskal naziokidea. Esan nahi da, euskal nazioa izan dela hegemonikoa Euskal Herriko lurralde eremu zabaletan. «Euskal» adierazlea, abertzale, euskaldun, separatista, borrokari... edukien sinonimotzat jo izan da, batik bat. Ez horrenbeste, espainiar (edo frantziar) izateko aldaera bezala.

Zergatik? Euskal nazioa, mobilizazio kolektibo gisa, espainiar eta frantziar nazioak baino indartsuagoa izan delako euskal lurralde-eremu askotan. Hegemoniarik ez baitago mobilizazio kolektiborik gabe. Mugimendu abertzaleak, bototan neurtu daitekeen kopuru aritmetikoaz harago, erabateko gailentzea lortu ez badu ere, arrakasta azpimarragarria erdietsi du gurean abian dagoen lehia hegemonikoan. Esan bezala, ekintza kolektiboa dela medio.

Zentzu horretan, independentziara begirako hurrengo urratsak ere ekintza kolektiboan oinarritu beharko dira: nazio-komunitatearen sendotzetik abiatuta, gizarte-eremu zabalak irabazteko jarduera politiko arautuak —instituzionalak—, eta arautu gabeak erabilia, hain zuzen ere.

Ikuspegi teorikoago batetik eta Tilly-ren lanei jarraituz, botere-harremanak ezbaian jartzen dituzten mobilizazio oldartsuak dira gizarte-mugimenduak. Gizarte-mugimenduak (kontra) **botere-politikan** murgilduta daude nahitaez, baina horrekin batera nortasun kolektiboak osatzen dituztenez, **identitate-politika** berariazkoa dute. Azkenik, **eraginaren politikan** ere ari dira gizarte-mugimenduak, interes-talde gisa, haien ezintasun faktikoaren edota izaera automugatuaren kariaz.

Ikus dezagun jarduera hirukoitz hori eta bakoitzari dagozkion lelo nagusiak honako irudian:



1. irudia. Gizarte-mugimenduen logikak.

JARDUERA-LOGIKAK	LELOAK	EREDUA
BOTERE-POLITIKA	«Gurea egin, haiek egin ez dezaten», betoa/alternatiba, liskarra/protesta, gizarteak estatua menpeko, gizarte zibilaren autonomiarik eza, erradikalismoa. Botere-alternatiba...	Kontraboterea: (<i>Alter</i>) <i>Politics community</i> . <i>EUSKAL HERRIA</i> <i>Aitaren etxea</i>
IDENTITATE-POLITIKA	«Guk geure izaerari eutsi, haiek egin dezatela nahi dutena», gizarte zibilaren autonomiara itzuli, liskar mugatua, gizarte zibilaren aldaketarako lekukotasun garbia erakutsi. Identitatearen aldarrika.	Komunitate biribila: <i>Policy community</i> <i>EUSKAL NAZIOA (Ethnos)</i> <i>Amaren sua</i>
ERAGIN-POLITIKA	«Guk eragin haiek aldatu daitezen/dezaten», gizarte zibilaren autonomia eta eragina gizarte politikoan. Erradikalismo auto-mugatua, liskar irekirik eza. Euskal kultura etxez etxe eraman, euskal lobbya.	Parte-hartzea: <i>issue/policy network</i> <i>EUSKAL GIZARTEA</i> <i>Arbasoen kriseilua</i>

Irudiaren proposamenari jarraituz, (kontra)botere- eta identitate-politikak, gizarte-mugimenduen logika antagonikoaren arragoan osatzen dira. Alde batetik, identitate-osaketa orok behar duen desberdintzea eta mugarritzea —gu/haiek dikotomia—, ezin dira bereizi botere-politika artikulatu zabalagotik, «gu» konplexuaren osaketa-prozesutik. Izan ere, botere-politika identitate autonomoen kateatzean hezurmamitzen da: eskaera eta errebindikazio anitz biltzen duen artikulazioan, alegia. Indar-metaketan barik, indar-egituraketan. Eta biak ala biak, gatazka-eremu batean garatuko dira. Bestetik, euskal nazioaren defentsa (amaren sua), euskararen lehentasunean oinarrituta, nekez izango da arrakastatsua botere politikoaren (aitaren etxea) tresnak eskuratzeko ezinbestekoa den artikulazio politiko zabalagorik lortu ezean. Eta, bien bitartean, artikulazio horiek lortzeko bidean, gutxiengotik —euskal «gizartearen» parte gisa— ere lan egin beharko du euskal nazioak, euskal herri osoan hegemonikoa izango bada.

Hiru jarduera-paradigma hauek lotuta daude erabat. Ezin bereizi daitezke independentismo garaikidearen ekintza kolektiboaren baitan. Orain arte egin bezala, batera kudeatu beharko dira, leku eta une desberdinetan, batzuetan logika kontraesankorrak piztuko baldin badira ere. Dena den, beste paradigmak —identitatea eta eragina— arbuia gabe, aipatu (kontra)botere-paradigman jokatzeak ekar dezake euskal nazioaren hegemonia Euskal Herrian.

Honela, Laclau-ren iritzian, logika hegemonikoan burututako jarduera askatzai-leak bi urrats eman behar ditu:

- **Lehenik**, identitate partikular (euskal nazioa) baten askapena (euskal) gizarte/herri osoaren isla bilakatu beharko da. Horretarako, identitate edo errebindikazio partikular parekoen artikulazio gisa jokatu beharko du euskal nazioak, gizarte-mugimendu konplexu bezala. Kate horretako edozein errebindikazio partikular izan daiteke nazio osoaren eta gero herriaren sinbolo bihurtuko den adierazle hutsa⁶⁸, osotasunaren lekua («euskal» osotasuna) hartzeko beharrezkoa den adierazlea. Esaterako, euskara izan da usu euskal nazioaren, lehenik, eta modu apalagoan, euskal herriaren beraren osotasuna adierazi duen errebindikazio partikularra. Baina horretarako «nazio euskaldunak», bere baitako unibertsaltasuna —borondate orokorra— deskubrituko du, hizkuntz komunitate objektiboa bera gaindituz. Azken urteotan, lehen urrats hegemonikoaren bertutez, euskarak hegemonizatu du euskal nazioa, (euskal nazioa = euskal nazio euskalduna dela ulertaraziz), eta, bigarren urrats hegemoniko partzial batean, (euskal) «herria» legeaz azalduko zaigu⁶⁹, errebindikazio alternatibo guztien borroka-gunea bilakatuta: euskal herria = euskal nazioa = euskal nazio euskalduna gisa azalduz. Hegemonizazio bikoitz hori ez da posible «euskara», batetik,

68. Borroka bat, borroka guztien lelo bihurtu dena, hustu egin dena, artikulatutako errebindikazio guztiei lekua, gunea emateko.

69. Horren adibide ezin argiagoa dugu Barakaldoko BECen ospatutako azken bertsolari txapelketa. «Herria» errotiko eraikuntza da, herri-logika, berriz, eskaera desberdinen arteko kateatzearen adierazpena da, baina partikular baten bitartez bakarrik adieraz daitekeena, kasu honetan, adierazle huts bilakatu den partikular —euskal nazioa— unibertsalizatuaren bitartez. Horren azpian dagoen lehen operazio hegemonikoa euskaldun nazioak euskal nazioarekin egin duena da. Euskalduntasunak euskal nazioa hegemonizatu du, eta «euskal nazioak», modu apalagoan bada ere, euskal herria.

eta «euskal nazioa», bestetik, deslotuak agertzen badira. Beste zenbait errebindikazioarekin artikulatu behar dira biak.⁷⁰ Izan ere, prozesu horren adierazpen gisa uler daiteke (kontingenteki) euskararen errotutako euskal nazio hori beti egon dela lotuta beste zenbait errebindikazioarekin: erlijioa dela, garai batean, edo langileen eskubideak (sozialismoa) edota ingurumenaren defentsa dela, berriki. Aitzitik, euskal nazioa, errebindikazio isolatu bezala agertuta —hizkuntz komunitate bezala, esaterako—, partikularizatu egiten da, despolitizatu, eta partzialtasunetik irteteko ateak berak bakarrik ixten dizkio bere buruari. Identitate-politika hutsak ez baitu identitatea bera gordetzeko balio, ez bada museoan. Atal filosofikoan erakutsi da «desberdintze» logika honek dituen arriskuak.

- **Bigarrenik**, aurreko urratsarekin paraleloan, artikulazio horretarako ezinbestekoa den bereizte antagonikoa behar da, eremu zapaltzaile baten identifikazioa burutzea, alegia, eta harekiko harreman polarizatua piztea: Espainia-Frantzia vs. Euskal Herria: «gu/haiek» dikotomia. Independentzia, hasieran, erreinu-estatu independentearen defentsa besterik ez zen, alegia, Nafarroaren soberaniarena Gaztelaren aurka. Gero, independentzia (euskal soberaniaren beharra) dislokazio baten ondorioz sortzen den antagonismoan kokatzen da, euskal gizarte tradizionalen modernitateak ekarritako dislokazioaren ondorioz. Horrela ikusita, euskal nazioa (eta independentziaren leloa) XIX. mendean birsortzen da. Lehen, «izana»ren defentsa zena, garai honetatik aurrera errebindikazio bilakatzen da: izan behar dena, beharra eta izan beharra. «Etsai» batek «gure» identitatean (eta orduko interesetan) pitzadura eragin zuenean, (ezinezko) osotasunerako oztopo bilakatu zenean: «arraza garbia, euskara garbia, erlijio garbia, ohitura eta usadio garbiak, (omen) biribilak» arriskuan jarri zirenean. Etorkizuneko independentzia, gune nodal gisa, «beste» dislokazio batetik eratorriko da gure oraingo identitate eta interesen osotasuna ukatzen duten etsaien aurrean: euskara biziaren osotasuna ukatzen dutenen aurrean, jabegoaren banaketa justua (sozialismoa) oztopatzen dutenen aurrean, ingurumena (ama-lurra) zaintzen ez dutenen aurrean, erlijioaren ikusmolde ebanjelikoa ukatzen dutenen aurrean... Independentziaren gune nodal garaikideak dislokazio hori erakutsiko du, eta horrela definituko ditu antagonismo berriaren terminoak, arerio edo aurkariak betidanikoak izan arren: Espainia eta Frantzia. Polarizazio-termino nagusiak ez dira aldatu, baina, ziur asko etorkizunean aberastuko dira. Esaterako, Euskal Herria-Europa vs. Espainia/Frantzia.

Azken batean, unibertsalaren («euskaltasuna» unibertsal gisa) edukia, borroka hegemoniko baten unean uneko eduki kontingentea besterik ez baita. Borroka guztiek, haien partzialtasunetik, izaera unibertsala aldarrikatzen dute, lehenago edo beranduago: demokraziaren, justiziaren, askatasunaren edo «euskaltasun» unibertsalaren edukia, aldi batez bederen, betetzeko. Hala, borroka hegemoniko

70. Euskara baino «gehiago» da euskara, euskal nazioa baino «gehiago» da euskal nazioa, euskal herria hegemonizatu nahi bada, hots: Euskal Herria «euskal nazio euskaldun» gisa ulertarazi nahi bada.

horren arabera, «euskaltasun» hori, Argalak beteko du edo Okendok⁷¹, fededun kristauak edo agnostiko ebanjelikoak, euskalduntasunak edo gaztelania garbienak, garai batean gertatu bezala.

Zentzu horretan ulertuta —logika antagonikoaren pean—, botere-politika eta identitate-politika ez lirateke norabide kontrajarriak izango gizarte-mugimenduen jardueran. Aitzitik, bereiztezinak lirateke. Euskararen errotutako identitate-politikak ardazten du euskal nazioa. Eta euskal nazioa, beste hainbat errebindikazio artikulatzen dituen mugimendu zabal eta konplexu gisa antolatuta, Euskal Herrian hegemoniko izateko beharrezkoa den (kontra) botere-paradigman jokatu du. Horrela, euskal nazioak (eta horren barnean euskarak) euskal herria behar du, errebindikazio desberdinen artikulatze jakin batean txertatuta behar du, alegia. Eta euskal herriak euskal nazioaren partikularra eraiki/hauta dezake herri-artikulatze horren adierazle huts gisa, borroka guztien adierazpen legez ikusiko dena. Garai batean Lemoizko zentralaren aurkako borroka, borroka guztien adierazle hutsa izan zen bezala.

Euskal Estatuaren baitan —esan nahi da, independentzian, aldi berean, diskurtso, prozesu eta emaitza bezala ulertuta— errazago bilduko dira, beste estatuetan bezala, ustez kontrajarrita dauden bi prozesu horiek. Horregatik, hain zuzen ere, estatugintza⁷² —euskal botere politiko instituzionalaren hedatzea eta sendotzea— izango litzateke herria eta nazioa biltzeko tresna eta gunea, Laclau-ren hitzetan, gune nodala. Esan bezala, beste estatu soberano guztietan gertatzen den bezala.

Laburbilduz, **euskaltasun esentzialik ez dago. Euskal herriaren logika garaikideak —ekintza kolektiboaren oraingo logika artikulatzaileak⁷³— posible egiten du euskal nazioa izatea euskaltasunaren eduki tipikoa (hegemonikoa), eta euskara, euskal nazioarena, eduki horiek kontingenteak izan arren.**

Oraingo abertzaletasunaren artikulazioan dauden errebindikazioak bidean galdu gabe independentzia lortzea ez da inoiz kontu erraza izango. Euskal Herri euskalduna eta sozialista ez dago inon zain. Identifikazioa ez da inoiz erabatekoa izango, politikak —politika demokratikoak— iraungo badu. Horrela, hegemonia egonkorra ez den neurrian, etengabe eraberritu behar da. Identitate-politikarekin bakarrik ez da behar dugun jauzi kuantitatiboa egingo, eta, aldiz, botere-politikak ahalbidetu dezakeen aurrerapausoan eduki kualitatiboak gal daitezke, euskara kasu.

Azkenik, eragin-politika hutsak ez ditu gure kaltetan ari den sistemaren mugak hautsiko. Horregatik, hiru eredu kontraesankor hauek batera landu beharko dira, osotasun biribilaren amets modernoa —nazio-estatu homogeneouskoa— alboratuz.

71. Josemiguel Beñaran (Argala), ETako militante eta ideologo historikoa, <http://eu.wikipedia.org/wiki/Jose_Miguel_Beñaran>. Eta okendotarren leinua, Espainiako erregearen zerbitzura egondako militar gipuzkoarren familia XVI. mendean, <http://eu.wikipedia.org/wiki/Antonio_Okendo>.

72. Edo, nahi bada, independentzia, sinbolo/diskurtso bezala definituta.

73. Logika populistak esango luke Laclau-k. Bestelako saiakera hegemonikoak badaude, noski, gurean: euskaltasuna eleaniztasunarekin lotu nahi dutenak, esaterako. Horretarako, bestelako herri-logikak erabiltzen dira, bestelako errebindikazio eta diskurtsoak artikulatuz: gaztelania/frantsesa/Unamuno/askatasun indibiduala/...

Irudiaren azalpena amaitzeko, identitate-politika, baita botere-politika ere, irakurketa ez-antagoniko batera bideratu daitezke. Logika sistemikoak behartzen duen eragin-politikaren arabera, alegia: abertzaletasuna/euskara, hurrenez hurren, erlijio pribatua eta hizkuntza «hautu» bat bilakatuta.

Alabaina, **eragin-politikara iristeko bi norabide** leudeke:

Eragin-paradigma «terminus» bezala ulertuta, modu ez-antagonikoan: partzialtasunean (partikularrean) hasi eta bukatzen diren errebindikazio politiko edota identitarioak topatuko genituzke lehen adiera honetan. Hasieratik, desberdintzearen logikapean, sistema liberalak interes/nortasun «legitimo» entzat aurreikusita dituen parametroetan garatuko lirateke posizio hauek: multikulturalismoaren amarrua. Gurera ekarrita, «euskal nazioa» beste nazioekin batera elkarbizitzan topatuko genuke, «euskal herri demokratiko» (eta subordinatu) batean. Naziotasun desberdinak «erlijio pribatuak» bilakatuko lirateke, euskal lurraldeetako sistema politiko «neutral»etan bermatuko liratekeen sinesmen pribatuak, oraingo estatuen aterki unibertsalizatzailearen azpian. Oraingo logika sistemikoak eredu honen alde egiten du: euskal nazioa «pixkanakako politika»ra mugatuta, borroka defentsiboan, gordeleku, babes-leku bila, indioen erreserban. Ildo beretik doaz, esaterako, sistemaren zerbitzura dauden zenbait autoreren ekarpenak, Joseba Arregirenak edota Emilio Guevararenak, esaterako. Eredu horren arabera, bitartekoak bitarteko, euskal independentzia helburu ez-bidezkoa izango litzateke, talde baten «erlijio pribatua» gizarte osoari «inposatzen» omen zaiolako. Era berean, euskara hautu partikularra izango litzateke, «hizkuntz askatasunaren araberako balizko hautua merkatu librean edo gizarte irekian».

Statu quo-aren defentsa hutsean oinarritzen den pentsamolde arrunt horrek, aski zabaldua egoteagatik, ez du inongo funtsik. Euskal lurraldeetan Indarrean dauden estatuak (espainola eta frantziarra) eta haien artikulazio hegemonikoan nagusi diren erdarak unibertsalaren zaindari posible bakarrak bihurtu nahi izatea borroka hegemonikoaren adierazpenik kamutsena, baldarrena da, *statu quo*-aren naturalizazio faltsuan oinarritzen baita. Partikular desberdinen arteko ustezko harmonia, ez da harmonia, dagoen indar-harremanaren kristalizatzea baizik. Euskal nazioaren, esan nahi da, euskararen, baztertzaile den egungo indar-harremanarena.

Aitzitik, Euskal Estatua edo Espainiakoa ez dira, berez, bata bestea baino legitimoagoa. Gure ikuspegitik, eduki-mailan, barne-aniztasuna (askatasuna) eta berdintasuna (sozialismoa) modu orekatuagoan kudeatzeko gaitasunak emango lioke bati edo besteari legitimitate hori, eta, prozedura aldetik, euskal lurraldeetan bizi den herritargoaren borondateak. Horrela ikusita, oraindik orain modu zehatzean neurtu ezin den legitimitate-lehia horretan, esango genuke oraingo estatuak ez dutela irabazteko argudio berezirik. Kontrara, esperientzia historikoa ikusita.

Eragin-paradigma etengabearen eraberritzen den protesta antagonikoaren «emaitza» bezala ulertuta. Bigarren adiera honetan, aldiz, borroka desberdinen arteko ekibalentzia-logikaren bertutez edota, Butler-en hitzetan, «kode dominatzailean desplazamendu performatiboa»ren bitartez, partzialtasunetik unibertsalera, eta, berriro ere —sistemak barneratzen dituen heinean—, partzialtasunera igarotzen

diren errebindikazio politiko/identitarioak edukiko genituzke. Hauxe da, gure iritzian, sakoneko demokratizazioaren ibilbidearen adierazpen teorikoa. Botere-ereduak eskatzen duen haustura inolaz ere baztertu gabe, euskal estatugintza demokratikoak, independentziarako ibilbideak, behar duen filosofiaz ari gara: dentsifikazio (trinkotze) juridiko-normatiboa protestaren bultzada politikoaren bitartez lortua, sezesioaren azken urrats formalak eman arte.

Trinkotze horretarako tresna juridikoak dagokion atalean landu dira, eta ekintza kolektiboari dagozkionak, berriz, atal honen amaieran aipatuko ditugu.

Euskal mugimendu independentistak hiru eredu horien arabera jokatu du bere sorreratik. Hirurak landu ditu batera, eragile desberdinen ardura gisa, edo eragile berberaren jardura historikoaren baitan, unean uneko egoera politikoaren arabera. Indarrean egon diren botere arrotzen aurrean legitimitate demokratiko alternatiboa aldarrikatu du, tresna arautu gabeak hartuta (botere-politika), indarrean egon diren sistema politikoetan eragiten saiatu da (eragin-politika), bide arautuak erabilia, eta, aldi berean, komunitate baten identitatea birsortzen saiatu da (identitate-politika). Eta ibilbide konplexu horretan bere identitatea aldatuz joan da, inguruabarra eraldatzeko gaitasuna izan duen neurrian⁷⁴.

Ondorioz, mobilizazio horren eremu izan den euskal protesta-zikloan ez da estatu independentea lortu, baina estatugintzan aurrera egin da⁷⁵. Ez da nazioa guztiz errotu, baina naziogintza indartu egin da. Ez da euskal herritarren kategoria erabat osatu, baina euskal demokratizazioan urrats sendoak eman dira.

5. EUSKAL PROTESTA-ZIKLO GARAIKIDEA ETA ERRADIKALIZATZE DEMOKRATIKOA EUSKAL HERRIAN

Izan ere, Hegoaldeko euskal herrietan bereziki, demokratizazio-prozesu zabala bizi izan dugu azken hamarkadetan. Bertan, euskal naziogintza, estatugintza eta herrigintza uztartu egin dira. «Gintza» horiek guztiak, prozesu gisa aztertuta, ezin bereizi daitezke azken berrogeita hamar urteotan bizi izan dugun protesta-ziklo sakonetik. Protesta-zikloa eta demokratizazioa, Tilly-ren iritzia jarraikiz, fenomeno banaezinak dira.

Hasieran esan bezala, lan honetan, euskal independentismoa errotzeko, demokratizazioa eta prozesu hegemonikoak lotuko ditugu, erradikalizatzeko demokratikoaren kontzeptuaren eskutik.

74. Hala dio Laclau-k: «Una fuerza opositora cuya identidad está construida dentro de determinado sistema de poder es ambigua con relación a ese sistema, ya que éste es el que impide la constitución de la identidad y es, simultáneamente, condición de su existencia. Cualquier victoria contra el sistema desestabiliza también la identidad de la fuerza victoriosa». Laclau, E. (1995): «Universalismo, particularismo y el tema de la identidad», *Revista internacional de filosofía política*, 5.

75. Sidney Tarrow-ek «protesta-zikloa» gizarte-sistemaren baitako gatazka eta borrokaren areagotze-aldia bezala definitu du. Areagotze horretan ekintza kolektiboa esparru mobilizatuetatik desmobilizatueta hedatuko da, borroka moten berrikuntza, ekintza kolektiborako markoen eraldaketa, parte-hartze antolatu eta ez-antolatuen arteko nahasketa ekarri. Azkenik, erreforma, errepresio eta agian iraultzan amai daitekeen autoritateen eta disidenteen arteko harreman liskartsuan oinarritzen da protesta-zikloa. Tarrow, S. (1997): *El poder en movimiento. Los movimientos sociales, la acción colectiva y la política*, Alianza Universidad, Madrid.

a) Espainiako trantsizio politikoaren mugak

Trantsizio-garaian Espainiako sistema politikoaren bilakaerak mugatu egin ditu demokratizazioaren eduki sakonena, erradikalizatzea kamustuz. Laclau-k gogoratzen digunez, **parekidetasun edo ekibalentziaren logika**n oinarritutako «herria» osatzea ezinbesteko aldagaia da erradikalizatzeko demokratikoa egongo bada. Ekibalentzia-logika horren arabera, errebindikazio eta eragile anitz biltzen da, parekotasunaren uste partekatuan oinarrituta, sistemaren logikaren aurrean.

Espainiako trantsizio politikoaren izaera elitistak ez zuen ahalbidetu herri-esparru zabalek bloke aski indartsua artikulatu zezaten. Alderdi politikoen **logika bereizlea edo diferentziala** nagusitu zen segituan —*sopa de letras*⁷⁶— eta aldaketaren bultzatzaile izan ziren indar antifrankistak oso epe laburrean barneratu ziren sistema politiko eraberrituan. Horren ondorioz, desmobilizatzea oso azkarra izan zen, demokratizazio sakonago batek behar zuen gizarte-motorra geldituz. Beste modu batean esanda, indarrean zegoen sistema politiko postfrankistari aurre egingo zion artikulazio hegemoniko alternatiborik ez zen osatu, sistemaren bilakaera demokratikoa erradikalizatu behar zuen «espainiar herria» ez zen osatu eta hasieran **errebindikazio** aseeginak zirenak, **eskaera** barneragarri bilakatu ziren⁷⁷.

b) Euskal trantsizio amaitu gabea: erradikalizatzeko demokratikoaren zergatiak


Aitzitik, Euskal Herrian, demokratizazioaren ibilbidea sakonagoa izan da. Laclau-k eta Mouffe-k aipatzen duten erradikalizatzeko demokratikotik gertuago egon da euskal gizartea. Bereizitasun hori neurritz kanpo balioztatu gabe, diagnostikoan adostasun zabala dago adituen artean: euskal gizarte zibila, bere argi-ilunekin, aktiboagoa izan da politikoki, indartsuagoak izan dira gizarte-mugimenduak, botere publikoen jardura mugatu egin dute errebindikazio herritarrek... Finean, euskal gizartea demokrazia errepublikanotik gertuago egon da inguruko beste gizarte batzuekin alderatuta. Zergatik?

76. «La euforia democrática y electoral dio lugar al fenómeno que la prensa llamó entonces «sopa de letras»: se inscribieron alrededor de 300 partidos políticos y más de 200 concurrieron a las primeras elecciones». Colomer, A. (2002): «*La transición española, entre el consenso socio-económico y la armonización autonómica*». VII congreso internacional del CLAD sobre la reforma del estado y de la administración pública. Lisboa.

77. Hortxe dago Laclauren galdera: «¿Por qué construir al pueblo es la principal tarea de una política radical?» eta «pedidos/demandas» bereizketa. Ikus *Debates y combates*, op.cit.

Nola, eta Nondik nora?

Demokratizazioaren ibilbidea euskal protesta-zikloan



2. irudia. Demokratizazio-prozesua euskal protesta-zikloan.

Charles Tilly-k eta Ernesto Laclau-ren lanetan estuki lotu dira erradikalizatze demokratikoa eta antagonismoa. Gizarte garatuetan, antagonismo hori kudeatzeko eredu ordezkatzaileretatik abiatuta demokrazia deliberatzailearen eremua zertxobait zabaldu da, nolanahi ere, ez gehiegi. Izan ere, erabaki demokratikoak hartzeko unean oraindik orain gabezia larriak daude herritarren zuzeneko parte-hartzeari dagokionez. Dena den, eredu ordezkatzailer/deliberatzailea ez da nahikoa. Demokratizazio-prozesuetan sistemaren barne/kanpo-mugak ezbaian dauden neurrian, «parte ez den parteak» (nahi bada, subordinatuak) adierazten duen antagonismo «kudea-ezina» ezinbesteko osagarria da sakontze demokratikoa erdiesteko.

Politika eta antagonismo gaindiezin hori bereiztezinak diren neurrian, politikak berak demokrazia arautu zabalenaren mugak ere ezbaian jartzen ditu. Kudeatzeko ezintasun hori lehia hegemonikoaren baitakoa da.

Zentzu horretan, politikaren muinean dagoen operazio hegemoniko batek hezurmamitu du Euskal Herrian bizi izan dugun azken protesta-zikloa, eta horrek, ezbairik gabe, urteotan ezagutu dugun erradikalizatze demokratikoa bultzatu du: gizarte-arlo desberdinetan (feminismoa, ekologismoa, euskalgintza...) kanpoan egon den partea barneratu egin da gradualki. **(Kontra) botere-paradigma** batetik **eragin-paradigmara** igaro dira gizarte-mugimendu asko eta asko, herritartasunaren eremua zabalduz (Cohen eta Arato, 2000).

Populismo abertzaleak⁷⁸ bultzatutako botere-paradigma alternatiboak, Laclau-k erakusten digun moduan, gizarte-eremu desberdinak bildu eta artikulatu egin ditu azken hamarkada hauetan, ordura arte deslotuak edota desmobilizatuak zeuden errebindikazioak artekatuz: horixe da Tilly-k aipatzen duen artekaritza (brokerage) mobilizazio-mekanismoa. Era berean, euskal gizartearen polarizatu egin zuen, hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera piztutako arloko liskar guztietan bi legimititate aurrez aurre jarritik, erakundearena eta «herriarena», partikular batek —ezker abertzaleak—, unibertsa —herria—, hegemonizatu ondoren, hasiera batean behintzat, «ETA» adierazle hutsaren bitartez. Horrela gertatu zen, esan bezala, hainbat arlotan: ekologismoan, euskalgintzan, feminismoan, internazionalismoan, bakegintzan... horietan guztietan, hasieran «eskaera» soilak zirenak sistemak nekez bete zitzaizkien «errebindikazioak» piztu ziren.

Era berean, Tilly-k aipatzen duen berrikuntza taktikoaren mekanismoa ere nabarmena izan zen garai hartan. Jarduera arautuak —instituzionalak— eta arautu gabeak, bortitzak barne, uztartu egin ziren askotan, mobilizazio ziklo zabal eta sakonean. Oldarraldi horretan bildutakoak usu ez ziren organikoki estekatutako eragileak, haien arteko harremanak istilutsuak izan ziren askotan, baina denen artean osatutako bitarteko bilduma berritzaileak sistema politikoaren eraginkortasuna kolokan jarri zuen, aldaketaren ateak zabalik mantenduz. Chantal Mouffe-k aipatutako antagonismo agonistikoa izan zen nagusi, deliberazioaren eta gerraren artean dagoen ertz zehaztugabe horretan.

Tilly, McAdam eta Tarrow-en esanetan, berrikuntza taktikoa, polarizazioa eta artekaritza mekanismoak ekintza kolektibo liskartsu ia guztietan agertuko zaizkigu, eta, ondorioz, baita demokratizazio-prozesu guztietan ere. Eta Tilly-k gogoratzeko digun bezala, independentzia, prozesu bezala ikusita, herriaren soberaniaren aldarrikapenean oinarritzen den neurrian, demokratizazio-prozesu «mota» bat besterik ez da.

Azken finean, politikagintza-sareen hurbilketa teorikoa (*policy networks approach*) aintzat hartuz, demokratizazioak erabaki-sare publikoen zabalkuntza eta bertan biltzen diren sare-guneen parekatzea dakar, eta sarrera/berdintze horretarako mobilizazio edo protesta-zikloak ezinbestekoak dira. Tilly-ren esanetan, azpian dagoena protesta/negoiazio/akordio prozesua izango litzateke, kanpoan dagoen gaia edota eragilea barneratzeko garabidea, alegia. Ibilbide sistemiko orokorrak ari gara, noski, ez derrigorrez mahai fisiko baten gainean burututako negoziazioak. Izan ere, prozesu horiek askotan ez dira agerian formalizatuko.

Garabide horien emaitza, azkenean, artikulazio hegemoniko sistemikoaren zabalkuntza izango da, eta horrekin batera doan logika bereizlearen hedapena, eredu ordezkatzailerari dagokiona. Protesta-zikloan botere-paradigmaren apaltzea gertatzen denean, «kanpoan dagoen parteak» ibilbide alternatiboak baditu, noski. Esaterako, sistemaratze hori ukatzea eta identitate-paradigma hutsean aritzea, logika bereizletik ahalik eta gehien aldentuz, balizko operazio hegemoniko berrien zain. Izan ere, eredu teoriko honen arabera, itxitura sistemikoa ez (ezin) da inoiz

78. Ezker abertzaleak hasieran hartutako adierak esanbidez —izenarekin—, azaldu zuen izana: Herri Batasuna (HB), unidad popular. Hori da Laclau-ren «populismo» substantiboaren mamia.

erabatekoa (izan), eta protesta-negoiazio-akordio ziklo bakoitzaren ostean osatzen den *statu quo* hori ziklo mobilizatzaileri berri baterako orube ezegonkorra/irekia besterik ez da.

6. ETORKIZUNARI BEGIRA: OPERAZIO HEGEMONIKO INDEPENDENTISTARAKO BALIZKO EREDUAK

Arestian esan dugun moduan, etorkizuneko mobilizazioak ezin dira aurreikusi. Horixe baita gizarte-mobilizazio eraldatzaileraren muina, ziurtasun eza sortu behar duela eraginkorra izango bada. Zorionez eta zoritxarrez ezin dugu aldeztu aurretik ezagutu «gertakizuna», politikaren agerraldi ustekabekoa, independentziaren ibilbidean (g) une erabakitzailea izango dena. Hala ere, independentismoak, gizarte-mugimendu legeez, hemendik aurrera har ditzakeen ereduaren inguruan hausnartzea litekeena da. Esan bezala, lehen aipatutako jarduera hirukoitza —boterea, eragina, identitatea—, mugimendu guztietan bezala, modu batean edo bestean agertuko baitzaigu euskal independentismoaren ibilbidean.

Azken atal honetan, euskal independentismoak hiru paradigma horien baitan joka dezakeen paperaz mintzatuko gara laburki. Jarraian doan irudian hiru paradigma horiek bildu ditugu, gai zehatz baten bitartez —euskarari buruzko errebindikazioaren bitartez—, ikusaraziz eredu bakoitzak suposatzen duen hurbilketa mota. Horrek ez du esanahi, arestian esan dugun moduan, hizkuntza bilakatu behar denik *a priori* euskal independentziaren ardatz. Identitate-paradigman eduki funtsezkoa da, noski, eta botere-paradigmaren katebegi oinarritzakoa, eta eragin-paradigman errebindikazio partikular esanguratsuenetarikoa. Jarraian doazen irudietan, berriz, hiru eredu horien adibide praktiko gisa erabili dugu.


Era berean, irudiak argi erakusten dizkigu lehenago aipatutako estatugintza (*state building*), nazioagintza (*nation building*) eta herrigintza (*demos building*) prozesuak eta hauen arteko lotura dinamikoak.

Nazioagintza-prozesuak (ikuspegi intentsiboa) hasieran paradigma etniko-identitarioa hobetsiko du, esaterako, hizkuntz komunitatea lehenetsiz. Zentzu horretan, euskarari buruzko politika publikoetan, batez ere, hizkuntz komunitate horren sendotzea proposatuko du, hizkuntzan oinarritutako identitatearen koherentzia eta barne-homogeneotasuna sendotu nahian: «euskaldunak euskaraz» izango litzateke lelo tipikoa, (g)une jakin batzuetan hegemonia ezartze aldera.

Estatugintzak (ikuspegi hedakorra), berriz, botere politikoaren egikaritzari emango dio garrantzi estrategikoa, eragin-paradigmarekin uztartuz maila taktikoan. Alde batetik, estatugintzak mobilizazioa, protesta eta eraikuntza alternatiboa —desobedientzia zibilaren bitartez, adibidez— bultzatuko lituzke, botere-paradigmari eduki berriak eskainiz eta independentismoaren lekukotasun argia erakutsiz, eta, bestetik, eragin-paradigman jokatu luke, euskal lurraldeetako oraingo aginte-egiturak indartuz eta trinkotuz. Eragina/boterea, paradigma gisa, elkarri lotuta egon beharko lirateke, beti ere, bi muturretan dauden arriskuak ekiditeko. Batetik, eragin-paradigma hutsean jokatuz gero, —mobilizazio eraldatzailerik gabe—,

independentismoak «erlijio pribatu» gisa aritzeko arriskua izango luke, identitatearen logikarekin kateatutako «partikular» gisa egungo sistema politikoetan. Arestian esandako *public policy* adibidean hauxe izango litzateke paradigma horren lelo tipikoa: «Euskal Herrian, gaztelaniaz eta frantsesez bezala, euskaraz ere bai». Bestetik, botere-paradigma hutsean arituko balitz —«Euskal Herrian euskaraz» lelopean—, lortutako indar-harremanak erakundetu gabe, euskal lurralde guztien sezesio oldarkorra lortzeko indar nahikorik ezean, testimonialismo antzuan galduko litzateke independentismoa, kasu honetan, identitate-paradigmaren bigarren adierara mugatuta: partikular «autonomo/alternatibo» antisistemikora, alegia.

Bi muturretan dauden arriskuak aintzat hartuta, independentismoak helburu argia du estatugintzak/naziogintzak sortzen duten tentsio dialektikoa gainditzeko: herrigintzan (*Demos building*) saiatzea. Euskal «herria» kategoria politiko bezala tinkotzea, eta estatugintzak emango dizkion tresnak erabilia, «euskal nazioa» bilakatzea kategoria unibertsal hori—euskaltasuna (euskal herria)—, hegemonizatzen duen partikular unibertsalizatua. Hauxe da Laclau-ren lanetan «arrazoi populista» legez definitzen dena: erradikalizatzeko demokratikoak beharrezkoa duen «herriaren sorrera». Euskal herritarrek sortu behar dira Euskal Estatuaren lortzeko, eta, era berean, estatugintzak, prozesua den neurrian, apurka baina etengabe euskal herritarrek sortuko ditu.



3. Irudia. *NATION BUILDING* (nazio-eraikuntza) eta *STATE BUILDING* (estatu-eraikuntza) prozesuen arteko tentsioa.

Zehazki esanda, aipatutako hiru paradigmaren arabera euskal independentismoak hainbat jarduerara egin dezake. Ikus dezagun.

6.1. Botere-paradigma, Euskal Estaturantz

Botere-paradigmaren ardatza, esan bezala, mobilizazio arautu gabea da, sistema politikoaren ertzetan gauzatzen den protesta eta aginte-eraikuntza

alternatiboa. Indarrean dauden euskal erakundeetan bultzada soberanista dela medio barne-kontrabotere gisa adieraziko dena, oraingo erakunde-sistemaren markoa barnetik erauziz: hauxe da desobedientzia soberanistaren alde instituzionala. Eta kanpotik, gizartetik, kanpotik datorren agintea ukatuz eta kontrabotere-eremu berriak sortuz erakutsiko dena: desobedientzia soberanistaren alde soziala. Erakunde alternatiboetan, Udalbiltzaren ereduari, esaterako, biak uztartuko lirateke, desobedientzia soberanista instituzionala eta soziala.

Hasteko eta behin, Euskal Estatuaren aldeko artikulazio hegemoniko eraberritu honek jarduera kolektibo zabala osatzea eskatuko du, artean desmobilitatuak edota deslotuak dauden gizarte-guneak artekatuz (MTTk *brokerage*, edo artekaritza deitzen dutena). Independentziaren aldeko gizarte-artikulazio horrek, eskaera, diskurtso, gizarte-eremu desberdinak modu ahalik eta koherenteenean lotu beharko lituzke: euskararen eta kulturaren errebindikazioa, garapen zentzuzkoa eta baliabide sozio-ekonomikoen banaketa bidezkoa, auzolanaren filosofia demokratiko/komunitarioa, generoaren ikuspegi zabala, moral erlijioso ebanjelikoa...


Katebegi horiek guztiak orain arte nahiko modu eraginkorrean —kontraesanak kontraesan— kateatu dira «soberanismo» kategoriapean. «Independentismoa» izango litzateke haren bilakaera logikoa. Esan bezala, gakoa artekaritzan datza: orain artean deslotuak/desmobilitatuak egon diren gizarte-eremuak kateatzea (euskal) herri (subirano)aren unibertsala hegemonizatu arte. Operazio horren adierazle hutsa zein izango den ez dago esaterik: «independentzia» leloa bera, kateatze hegemoniko horretan dagoen katebegi partikular unibertsalizatu (hustua, borroka guztien leku bilakatuta) bat: justizia soziala, gatazka ekologikoa... oraindik ere lehertu ez den protesta zehatzen bat... Bat-bateko iraintzat hartuko den gertakizun baten aurreko mobilizazioa... Auskalo.

Illo beretik, arestian ikusi dugun moduan, kateatze horrek antagonismoa behar du «herria» subjektu gisa osatuko bada. Tilly-ren kontzeptua hartuta, polarizazioa egokia piztu behar da mobilizazioa eraginkorra izan dadin: «muturrean daudenak urrundu, eta tartean daudenak muturtu», betiere ardatz (*cleavage*) diskurtsibo aproposa erabiliz. Hemen, noski, ezin erabil daitezke irizpide objektibistak: euskalduna/erdalduna, kanpotarra/bertakoa, ezta (euskal) nazionalista/espainolista edo «frantximanta» ere.

Agian, **polarizazio-ardatz berria, sortzailea, «euskal herritarra vs espainiar edo frantziar herritarra»** izan beharko litzateke: nola erabaki nahi duzu? Espainol/frantziar gisa ala euskal herritar (nafar) gisa? Nor-zer izan nahi duzu politikarako? Zein da zure *polis*-a? Botere-paradigmak eskatzen duen artikulazio zabalerako (horregatik, borondatezkoa) «euskal herri langilea» baliagarria izan zen bezala, independentziarako urratsak antzeko kategoria bat beharko luke, barne/kanpomuga zehazteko irizpide argia baina, era berean, irekia izango dena: «euskal herritarra» (demos, gero Euskal Estatuan cives bilakatuko dena), ez gehiago, ezta gutxiago ere. Antagonismoa adierazteko kategoria horrek, euskal lurraldeetako herritarraren kategoriatik abiatuta, Euskal Estatuko «herritar osoa» osatzeko prozesu etengabearen norabidea zedarrituko luke.

Azkenik, botere-paradigmak, mobilizaziorako baliabideei eta bitarteko diskurtsiboei dagokionez, **berrikuntza taktiko eraginkorra** bultzatu beharko luke. Izan ere, praxi eta diskurtso berritzaileak, ezegonkortasun sistemikoa sortuko dutenak, ezinbestekoak dira aldaketa sozial eta politikoak bultzatzeko: ziurgabetasuna da berrikuntza horrek eragiten duena, *statu quo*-a kolokan jartzeko beharrezkoa. Aurreko ziklo politikoan ETArek sorrerak ekarri zuen berrikuntza ordezkatu beharko du independentismoak. Diskurtso mailan, azken urteotan landutako leloak edota proposamen berrien —soberanismoa, euskal gehiengo sindikala, nafar estatua, erabakitzeko eskubidea...— garapenak ez du oraindik sabaia jo, alabaina, etorkizunean lelo/kategoria berriak sortu beharko ditu independentismoak.

Mobilizaziorako baliabideen kasuan, berriz, botere-paradigmaren baitan aski ezagunak diren tresnak landu daitezke independentziaren ibilbidean: zuzeneko demokrazia (herri-kontsulta, erreferenduma, ekimen herritarra...), biolentziarik ez aktiboa edota erakundetze alternatiboa, desobedientzia zibil soberanistaren ildotik. Orain artean, beste borroka-moldeekin batera agertu izanak ez du ahalbidetu haien potentzialtasun guztia heda zedin.



4. irudia. Botere-paradigma (populismo) berria (aitamaren etxe berria), politikoki nola? *State building* horren motorra berpiztea da gakoa.


Mobilizazio mota honi dagokionez, Lizarrako akordioaren inguruabarrean (1998-2000) landutako ereduak eta orduko proposamen teoriko zein praktikoak birjaso beharko lirateke, azken urteotan biolentziarik ez aktiboaren eremuan egindako ekarpenekin aberastuz. Erakundeetatik eginda edota gizartetik, desobedientzia zibila indar handiko tresna baita herriaren gehiengoan oinarritutako prozesu politikoetan, batez ere, aurrean dagoen arerio politikoaren kalitate demokratikoa oso eskasa

denean. Izan ere, tamalez, ez Frantziako sistema politikoak ez eta Espainiakoak ere ez dute eremu anglosaxoian zabaldutako dagoen kultura politiko pragmatiko-demokratikorik⁷⁹.

6.2. Identitate-paradigma, Euskal Estaturantz

Nazio-eraikuntza (kulturalik politikara doan ibilbidean), zentzu hertsian ulertuta, identitate-paradigmaren arabera gauzatzen da, azkenik, nazio politikoan, botere-paradigman jokatzen duen gizarte-mugimendua den arren. Nazioa, komunitate lege, autoeraketa-prozesu baten emaitza da, kanpo/barne-muga etengabearen definitzen ari den eraikuntza-prozesuaren ondorioa. Nazioaren osaketak, prozesu kolektibo subjektibo izateagatik, une historiko bakoitzean elementu objektibo baten bilduma bat hautatuko du barne/kanpo-mugarritze hori egiteko uneen: kanpoan dauden ikusmoldeak, ideiak, kultur praxiak barneratzea tentsio-sortzailean egongo da nazioaren berezitasun historikoaren babesa eta jarraitutasunarekin. Hala, euskal nazioa betikoa da eta, aldi berean, inoizkoa.

Ziur asko, euskal nazio-eraikuntzaren muina —erro ukazina baina hautatua— euskara da, eta nazio honi dagokion kategoria diskurtsiboa, berriz, «euskalduna».



5. irudia. Identitate-paradigma: desberdintzearen kudeaketa.

Zer da euskaldun izatea? Nola garatu hizkuntz komunitatea?

79. Esaterako, Ackerman-ek eta Duvall-ek erakusten diguten ildotik: «[...] Even when violence seems certain to produce change, nonviolent action may be as or more effective. And the repeated success on nonviolent sanctions in the twentieth century at least should earn them equal consideration with the option of violence, by measuring potential gains in taking power and delivering justice against likely losses in lives, property, and human dislocation. Failure in nonviolent resistance can risk repression, as can failure when using violence, but the record shows that it does not jeopardize as greatly the flower of generations and the fate of movements on which freedom, human rights and democracy may depend...». Ackerman, P. eta Duvall, J. (2000): *A force more powerful. A century of nonviolent conflict*, Palgrave, New York. Ildo beretik, oso interesgarria: Schock, K. (2005): *Unarmed insurrections: people power movements in nondemocracies*, UMP, Minneapolis.

Hala ere, «euskal izana» ez da euskara bakarrik. Euskara euskal kosmo-ikuskeraren ardatza da, baina historian zehar beste zenbait edukiz inguratuta azaldu da. Eztabaidarako proposamen gisa, identitate-paradigma honen balizko ildoak azalduko ditugu.

Identitate-paradigman aritzeak bereiztearen kudeaketa dakar: «euskal» zer den eta zer ez den erabakitzea. Hots, gizakia, herritarra, europarra izateko «euskal modua» zein den eta zein ez den bereiztea. Lehen esan dugun bezala, jarduera hori politikoa da erabat, modu hegemoniko eta kontingente/irekian zehazten da, eta ondorioz ez dago derrigorrez lotuta «esentzia» batekin. Dena den, hor dago koska, bereiztea kontingentea izanik ere, egon badaude osagai batzuk bereizte hori ahalbidetzen dutenak, borondate kolektiboaren osaketa/bereiztea lortzeko eta iraunkortzeko luzaroan eskura egon diren elementu objektibo pribilegiatuak. Gurean, guztien gaindi, hizkuntza, euskara.

Horregatik, identitate-paradigma honetan aritzeak «esentzia» aintzat hartzea eskatzen du, batez ere, hizkuntz komunitateak mugarrizten duena. Baina ez da hori eduki bakarra, euskal mundu-ikuskera oso batek hezuramaitzen baitu identitate-paradigma: auzolana, lanaren edota hitzaren balioa, naturarekin harreman sostengarria, gizarte-berdintasunaren inguruko ikusmoldeak...

Noski, «esentzia» horiek ez dira esentzia, «esentzializatu» egin ditugu, kategoria unibertsalen «hutsunea» bete ahal izateko. Arestian esan dugun moduan, naziogintza mota honek, herrigintza zabal eta irekiarekin (politikotasunaren gunea haxe baita, ez identitatearena) dinamikoki uztartuta, zabalkuntzarako eta iraupenerako bidea eman dezake⁸⁰.

Ondorioz, identitate-paradigmaren ikuspegi dinamikoak —ez objektibistak— ezinbesteko baldintza bete behar du: euskara (edo gizarte-eredu berdintasunezkoa, edo ama-lurrarenganako begirunea, edo...) hautua da beti, (derrigorrez) egin beharreko hautua. Euskararen katebegiak kate hegemoniko soberanistan duen leku pribilegiatuak ematen dion «derrigortasuna» hautua bilakatzen da erabileraren eskutik. Horregatik, kanpora begirako benetako muga ez da euskalduna/ez euskalduna, baizik eta euskaraz «ari» dena, eta ez dena. Hizkuntza-komunitatea une oro (berr)osatzen baita, une bakoitzean munduan euskaraz «ari» direnekin. Euskal herritar eleaniztunen artean, heterogeneitate hazkorrean, lurralde- eta erabilera-eremu gero eta konplexuagoetan, euskalduna ez da euskara-duena, edo euskal zalea, baizik eta euskararen hautu «derrigorrezkoa» egiten duena, batez ere, hautu hori politikoa denean, gu/haiek muga edo ertz gatazkatsuan egiten denean.

Hala, identitate-paradigma hau euskararen/abertzaletasunaren hegemonia politiko argia dagoen eremuetan sendotuko da batik bat, beste zenbait gune ahulagorekin sareak ehunduko baldin badira ere. Esaterako, euskararen «hautu derrigorrezko» hori edo harekin lotutako euskal identitatearen kosmo-ikuskeraren baitan kokatu ditugun hainbat eduki —auzolana, etab—, sendoagoak izango

80. Besteak beste, hizkuntz identitatearen inguruan betidanik izan dugun korapilo logiko maltzurra askatuz: «independentziarik ez, euskararik gabe; euskararekin, independentziarik ez».

dira Azpeitian edota Eskoriatzan Bilbon baino, Burgin, Irunen baino. Gizarte eta lurralde (g)une bakoitzak paradigmaren arteko oreka zehatza eskatuko baitu. Euskal Herri osoan, oro har, botere-paradigma erabili beharko da, gune hegemonikoetan identitatearena indarrez arituko da, eta, independentismoa ahula den haietan, berriz, gero ikusiko dugun eraginaren paradigma izango da nagusi.

Baina antiesentzialismoa ez da kanpora begirako hautu estrategiko hutsa, jendartearen erakartzeko erabili beharreko trikimailua. Barnera begira ere, bigarren alde bat hartu beharko da kontuan: «bat ez etortzea»⁸¹. Identitate-paradigmaren ikuspegitik aztertuta, euskal komunitatea, subjektu gisa, «euskal» horrek erabateko osotasunik ez duelako (edo hura galtzearen ustea izan duelako) sortu da. Barne-diferentzia horrek ukatu egiten du «bat etortzea». Esan nahi da: Euskal (izaera) «ez dator bat». Ez dator doi-doi bat, esan dezagun, euskararekin. Bigarren, hirugarren, laugarren, «enagarren» azalpen bat behar du beti «euskal» horrek inoiz lortuko ez duen osotasunaren bidean aurrera egiteko. Ezintasun horrek ematen dio euskal partikularrari unibertsaltasuna⁸². Horregatik, «euskal» zera horretan euskara ez da katebegi bakarra, ezin da izan, historikoki iraunkorrena izan baldin bada ere.

«Euskal» unibertsala betetzeko beste katebegiekin ekibalentzia-harremanetan egoteak unibertsalizatu egiten du euskararen partikularra: euskara ez baitator inoiz «soila», beti etorriko da «beste» osagarriren batekin: «euskalduna eta fededuna», edo «euskalduna eta ezkertiarra», edo batek daki, hipotesi bezala, baita «espainola eta euskalduna» ere. Hain zuzen, benetako normalizatzea-naturalizatzea-despolitizatze ezinezkoa burutu arte.

Izan ere, euskararen despolitizatzeak bi zentzu ditu, kontrajarriak biak: euskararen naturalizazioa, erabateko kontsentsua adierazten duena (gaztelaniaren egoera, demagun, Almendralejon... oraingoz), edo dominazio-egoera batek eskatzen duen azken urratsa: otzantzea. Izan ere, euskararen herrian dugun egoera diglosikoan euskara «politikatik kanpo» utzi nahi izateak botere-desorekaren onarpena besterik ez du erakusten. Euskara, eduki esentzializatu gisa, hautu erabat politikoa da, beste eduki batzuekin estu-estu lotuta agertuko zaiguna. Hortxe dago paradoxa faltsua: **euskara (ongi) despolitizatze modu bakarra, guztiz politizatzea da.**

Ondorioz, ikusmolde honek euskararenganako hurbilketa garbizale oro baztertzen du. Kanpora begirako artikulazioak (euskaltasuna= euskara + ...) eta

81. Oso modu azalekoan Derrida-ren *différance/difference* aldea proposatu nahi dugu hemen: «bereiztea»ren eta «bat ez etortzea»ren ('desavenencia') arteko aldea: bereizte gisa «euskal» dena eta ez dena ebatsi, batetik, eta, bat ez etortzea, hortaz, «bat» baino gehiago behar izatea «euskal» dena adierazteko. Derrida, J. (1968): "Conferencia pronunciada en la Sociedad Francesa de Filosofía, el 27 de enero de 1968, *Bulletin de la Société française de philosophie* (uztaila/iraila, 1968) eta *Theorie d'ensemble*, Quel bilduma, Ed. de Seuil, (1968), in Derrida, J. (1998), *Márgenes de la filosofía*, [Carmen González Marín-en itzulpena (Horacio Potel-ek egokitua)], Cátedra, Madril.

82. Laclau-k (1995, *op. cit.*): «lo universal es parte de mi identidad en la medida en que esté traspasado por una carencia constitutiva, [...] en la medida en que mi identidad diferencial ha fracasado en su proceso de constitución». [...] «lo universal emerge de lo particular, no como un principio que fundamenta y explica lo particular, sino como un horizonte incompleto que sutura una identidad particular dislocada».

barnean identitate guztiek duten «erresistentzia unibertsalak»⁸³ haren osotasun garbia oztopatzen dute. Ikuspegi ekologikoaren arlotik aztertuta ere, hizkuntz komunitatearen barne-filosofiari ez zaio komeni garbikerian erortzea, komunitate garbiak baitira desagertzen diren lehenak.

Alabaina, kanpo/barne-jarduera horretan «malgutasun, hautu, kontingentzia eta konplexutasun» postmoderno hori guztia ezerezean gal ez dadin, esan bezala, euskararen hegemonia bultzatzea izango litzateke garrantzitsua. Horretarako hizkuntz komunitatea «norma» izango duten eremuak sendotzen, trinkotzen eta ehuntzen saiatu beharko litzateke independentismoa. Botere- eta eragin-logikekin txertatuta (mobilizazioa/erakundea) hizkuntz komunitatea hegemonikoa bilakatu beharko litzateke eremu gero eta zabalagoetan, bai lurralde-mailan bai eta lan-arlo edo aisialdi-esparrutan⁸⁴

Laburbilduz, herritarren estatus juridikoa nahasiagoa den honetan, pribatu/publikoa muga iluna denean, norbanakoaren bizitzan likidotasuna nagusi den honetan, euskarri sendoagoak —kultura, hizkuntza, erlijioa edo espiritualtasuna— behar ditu gizakion kolektibotasunerako grinak. Horregatik, gurean, hizkuntz komunitateak eta honekin egun lotutako balio-sistemak —politikoki komunitate horretara inoiz mugatu gabe— garrantzi berezia hartuko dute, erreferentzialtasun nabarmena⁸⁵.

6.3. *Eragin-paradigma, Euskal Estaturantz*

Azkenik, gatazkarekin lotura erabatekoa duten botere- eta identitate-paradigmekin batera, independentziaren aldeko mugimenduak ezin du baztertu logika sistemikoarekin uztartuago dagoen eragin-paradigma. Zentzu horretan, estatu-eraikuntza prozesuak logika instituzionala du beti: Euskal Estatu ez da egun batetik bestera osatuko. Haustura-une kualitatiboak egongo dira, noski, baina bien bitartean egin daitekeen euskal erakundetzea «*state-building*» epez epeko logika horren arabera burutuko da, orain artean bezala. Estatu «gehiago» eskuratzeko ahalegin horretan, hainbat urrats eta baliabide landu beharko ditu independentismoak.

Dena den, indarrean dauden eta oraindik ez dauden erakundeetatik abiatzen garen neurrian, eragin-paradigma «parte legitimoa»ren kategoriatik abiatzen da: desagertze-bidean egon beharko litzatekeen «abertzale (edo hobeki, lehen esan dugun moduan, «euskal nazionalista») kategoriatik. Izan ere, eragin-paradigma hau beste estatuen sistema politikoaren baitako jarduera bezala gauzatzen baita,

83. Zizek-en iritzian: «las protestas contra las obligaciones comunitarias de la propia cultura están formuladas desde el punto de vista de la univesalidad». Zizek, S. (2009): *Sobre la violencia. Seis reflexiones marginales*, Paidós, Bartzelona.

84. Lan sakona egin du Jose M^a Sanchez Carrion-ek, Txepetxek, ildo honetan eta jarraitzaile teoriko-praktiko indartsuak izan ditu urteotan: kafe antzokien dinamika, HUHEZI, Bagara ekimena, etab. Ekolinguistikatik hololinguistikara: <http://eu.wikipedia.org/wiki/José_Mar%C3%ADA_Sánchez_Carrión>

85. Interesgarriak dira, zentzu horretan, Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren doktorego-tesia, eta baita bere tesi-zuzendaria izan den Caballero Harriet-en azken liburua ere. Ibarretxe, J.J. (2010): *Principio ético, principio democrático y desarrollo humano sostenible: fundamentos para un modelo democrático*, doktore-tesia, UPV-EHU. Caballero Harriet, F.J. (2010): *Algunas claves para otra mundialización*, Txalaparta, Tafalla.


Espainiako eta Frantziako *demos* «normatiboa»ren barneko atal legitimo gisa: euskal herritarra, Espainiako edo Frantziako herritarraren adiera gisa.

Estatu propioa izan gabe ere, indarrean dauden edo etorkizunean egon daitezkeen euskal erakundeetan lan egiteak ez du zertan independentziarako bidea oztopatu, baldin eta aipatu erakundeetan egiten den lan guztia estatugintzara begira jarriko balitz.

Orain arte batez ere gizartean garatu dituen baliabideak, eragin-paradigmaren eskutik, erakundeetatik bideratzeko aukera zabalagoa izango du mugimendu independentistak. Lehen, gehienbat «kanpotik» bultza egiten zuten gizarte-ekimenek, egoera berrian, barnetik eragingo dute, baliabide materialak biderkatuz, eta baliabide sinboliko indartsuagoak legera, eremu normatibora, ekarri.

Bigarrenik, euskal erakunde zahar berrietan eta gizarte zibilean egindako lanaren filosofia, trinkotzea izan beharko litzateke: euskal botere desberdinen **trinkotze juridiko-normatiboa**, eta euskal gizarte zibil orain desberdinen **trinkotze soziopolitiko**a. Trinkotze horren baitan kokatzen dira euskal lurraldeen erakundetzea, erakunde horien arteko harremanen estutzea edota ehuntzea, eta euskal botere desberdinen sakontzea eta zabaltzea. Ikuspegi soziopolitiko batetik, berriz, eragin-paradigmaren eskutik asko erraztu eta sendotu daitezke gure lurraldeetako gizarte zibilaren arteko harremanak, jarduera formaletan —hezkuntza-sistema, osasun-zerbitzuak edo botere publikoen jardura tipikoei dagozkien bestelako elkarlan motak— zein informaletan: aisialdia, turismoa, kirola...

Trinkotze prozesu honek berez duen malgutasuna bat dator egitura politiko klasikoan, estatuaren, bilakaera garaikidearekin.



Dena den, eragin-paradigmak, erakunde-eremutik kanpoko botere-paradigma beharko du, bai eta identitate-paradigmaren erreferentzialtasuna...

Saskia Sassen-ek azpimarratzen duenez, lurralde, autoritate eta eskubideen arteko mihiztaketa ('ensamblaje') Erdi Arotik Aro Modernora nazio-estatuaren bitartez aldatu zen bezala, gaur egun, globalizazio-prozesuarekin batera, hiru aldagai horien arteko mihiztaketa berri bati zabaldu zaio atea. Estatuaren muga fisikoa —lurraldea— ez da jada bere autoritatearen eremua eta herritarren eskubideen bermea. Are gehiago bateratze-prozesuan dauden eremu geopolitikoetan, Europan, esaterako. Arlo batzuetan, —ekonomian, bereziki—, desnazionalizatze-prozesu bat burutzen ari da, estatuak beraiek bultzatuta. Horrekin batera, pribatutasunaren eta publikotasunaren arteko muga aldatuz doa: estatuak berak pribatizatu egin ditu hainbat prozesu publiko, eta logika pribatua ezarri du beste hainbat prozesu publikotan. Beste arlo batzuetan, berriz, birnazionalizatze-prozesuak jarri dira abian, bereziki, eremu sinboliko-identitarioan⁸⁶.

Era berean, geometria aldakor horretan bertan koka daiteke, esaterako, mugaren kontzeptualizazio berria: Frantzia eta Espainiaren artekoa ia desagertu egin da (euroagindua, polizia-jarduera, mugimendu ekonomikoak...) baina Iparraldea eta Hegoaldea lanean elkarrekin (edo Nafarroa eta EAE) jartzeko oztopoak nonahi agertzen zaizkigu. Aldi berean, aitzitik, Akitania eta EAEn artekoak erraztu egiten dira, euro-eusko eskualdearen ildotik.

Bestalde, Sassen-en iritzian, mihiztaketa digital berriak —Internetek ahalbidetu duen saretzeak— lurralde/autoritate/eskubide egitura klasikoan aldaketak ekarri ditu. Alabaina, horrek ez du ezbaian jartzen komunitate berri horien lekutze fisikoa, tokiarekin duten lotura. Sare horiek ez dute, berez, nazio-estatu desagerrarazten, are gutxiago lurraldea bera. Egia da, alabaina, naziotasunaren ordena espazial eta tenporalaren estandarizazioa eta burokratizazioa kolokan jartzen dutela, eta, zentzu horretan, eragin-paradigmaren araberako lan instituzionala zaildu. Ekintza kolektiborako eremua zabaldu egin da horrela, hertsipen instituzionala ahulduz.

«Eskubideak aitortzen/bermatzen dituen lurralde-autoritate» gisa zaildu egin da estatuaren jarduera. Estatu eraiki nahi duen komunitate politikoa zailtasun eta zirrikitu horietaz balia daiteke, paradoxikoki, zailtasun horiekin topo egiteko, estatugintzan saiatu bezain laster. Lehen aipatu dugun «muga»ren kontzeptua egoera horren lekuko da: zenbat (barne) frontera edo muga ditu gurean kokatuta dagoen Fagor «euskal» enpresak? Zenbat estatu-araudi, autoritate, eskubide-desberdintasun biltzen da enpresa bakar baten barnean? Zerk lotu beharko luke balizko Euskal Estatura?

Eragin-paradigma berritzaileak prozesu hauek guztiak sakon aztertu beharko lituzke. Izan ere, euskal trinkotze ('densificación') hori, kategoria bezala, garai bateko Euskal Estatuaren parekidea izango litzateke. Edo, Sassen-en terminologian, oraingo estatuetatik abiatzen den mihiztaketa berria, euskal logika kulturala, soziala,

86. Tresna mediatiko indartsuak erabilia, birnazionalizatze hori oso modu berezian bideratzen ari da mundu garaikidean: kirola, egunerokotasun informatiboa osatzeko moduan (eguraldi-mapatik gertakizunen markogintza diskurtsibora... «hemos» tenido un terremoto en Lorca dio ETBk...), masa-kulturaren kontsumoa... Hortxe koka daiteke, esaterako, Michael Billig-en ekarpena. Haren iritzian, «*Banal nationalism*» edo nazionalismo «apalak» birsorkuntzarako tresna «gogorrak» bainoago, euskarri ustez lausoa-goak, ez horregatik ahulagoak, erabiltzen ditu. Billig, M. (1995): *Banal Nationalism*, Sage Publications, Londres.

ekonomikoa eta ideologikoa euskal lurraldeetan garatuko duen ordena normatibo eta sinbolikoa, bertan indarrean egongo diren beste ordenekin batera arituko dena, baina, era berean, horien guztien artean, euskal lurralde eta herritarrentzat gunerik trinkoena izango dena, hegemonikoa.

Zentzu horretan, eraginaren paradigma horra begira jarri beharko den arren, sezesioa bera ere, estatugintzaren urrats bat besterik ez da. Urrats garrantzitsua bai, baina ez lehena, tamalez, ezta, zorionez, azkena ere. Euskal estatugintza, naziogintza eta herrigintza, beste herri guztietan gertatzen den bezala, inoiz amaituko ez den ibilbidea baita.

Eta ibilbide luze, malkartsu eta zirraragarri horretan, aipatutako hiru paradigma hauek —boterea, identitatea eta eragina—, ez dira zertan kontrajarriak izan. Une bakoitzean, aldi eta leku desberdinetan garrantzi handiagoa hartuko du bata edo besteak, kontraesanak ere sor daitezke haien artean. Alabaina, datozen urteetako euskal independentismoak batera kudeatu beharko ditu paradigma horien isla diren ekintza kolektiboa, komunitatearen eraikuntza eta erakunde-jarduera.

BIBLIOGRAFIA

- Ackerman, P. eta Duvall, J. (2000): *A force more powerful. A century of nonviolent conflict*, Palgrave, New York.
- Arregi, J. (2001): *La nación vasca posible*, Ed. Crítica,artzelona.
- Badiou, A. (2008): *Lógicas de los mundos: el ser y el acontecimiento*, 2. Ed. Manantial, Buenos Aires.
- Billig, M. (1995): *Banal Nationalism*, Sage Publications, Londres.
- Butler, J.; Laclau, E. eta Zizek, S. (2003): *Contingencia, hegemonía, universalidad. Diálogos contemporáneos en la izquierda*, FCE, Buenos Aires.
- Caballero Harriet, F.J. (2010): *Algunas claves para otra mundialización*, Txalaparta, Tafalla.
- Chantal Mouffe, C. eta Laclau, E. (1987): *Hegemonía y estrategia socialista. Hacia una radicalización de la democracia*, Siglo XXI, Madril.
- Cohen, J.L. eta Arato, A. (2000): *Sociedad civil y teoría política*, FCE, Mexiko.
- Colomer, A. (2002): *La transición española, entre el consenso socio-económico y la armonización autonómica*, VII congreso internacional del CLAD sobre la reforma del estado y de la administración pública, Lisboa.
- Critchley, S. eta Marchart, O. (konp.) (2008): *Laclau. Aproximaciones críticas a su obra*, FCE, Buenos Aires.
- Eztabaidarako Txostena. Fase politikoaren eta estrategiaren argipena. Ezker Abertzaleak argitaratua. 2009ko urria.
- Ibarretxe, J.J. (2010): *Principio ético, principio democrático y desarrollo humano sostenible: fundamentos para un modelo democrático*, doktore-tesia, UPV-EHU.
- Laclau, E. (1995): "Universalismo, particularismo y el tema de la identidad", *Revista internacional de filosofía política*, 5.
- , (2005): *La razón populista*, FCE, Buenos Aires.
- , (2008): *Debates y combates. Por un nuevo horizonte de la política*, FCE, Buenos Aires.
- Ollora, J.M. (1996): *Una vía hacia la paz*, Ed. Erein, Donostia.
- Popper, K. (1971): *The Open Society and Its Enemies* Princeton, Princeton University Press, New Jersey.

- Sassen, S. (2007): *Una sociología de la globalización*, Katz Editores, Buenos Aires.
- , (2010): *Territorio, autoridad, derechos. De los ensamblajes medievales a los ensamblajes globales*, Katz Editores, Buenos Aires.
- Schock, K. (2005): *Unarmed insurrections: people power movements in nondemocracies*, UMP, Minneapolis.
- Tilly, C.; Tarrow, S. eta McAdam, D. (2001): *Dynamics of Contention*, CUP, Cambridge [gaztelaniaz (2005): *Dinámica de la contienda política*, Editorial Hacer, Bartzelona].
- Tilly, C. (2005): *Contienda política y democracia en Europa 1650-2000*, Editorial Hacer, Bartzelona.
- Zallo, R. (1997): *Euskadi o la segunda transición*, Ed. Erein, Donostia.
- Zizek, S. (2009): *Sobre la violencia. Seis reflexiones marginales*, Paidós, Bartzelona.
- Zubiaga, M. (1999): "La autodeterminación como cambio político", in M. Gomez Uranga; I. Lasagabaster; F. Letamendía eta R. Zallo (koord.), *Propuestas para un nuevo escenario. Democracia, cultura y cohesión social en Euskal Herria*, Manu Robles-Arangiz Insitutua, Bilbo.
- , (1999): "La nueva desobediencia", *Ezpala*, **12**, Bilbo.
- , (2002): *Gizarte Zibilaren ahotsa eta bere ezaugarriak*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (2002): *Hacia una consulta popular soberanista*, Manu Robles-Arangiz institutua, Bilbo.
- , (2007): *Boteretik eraginera: mekanismoak eta prozesuak Leitzarango eta Urbina-Maltzagako liskarretan*, doktorego-tesia, UPV-EHU, Leioa.
- , (2009): "Desde Lemoiz al TAV, ¿pasando por Leitzarano?", in Batzuen Artean (2009), *AHT. Las razones del no*, Txalaparta, Tafalla.
- Zubiaga, M.; Lasagabaster, I.; Gomez Uranga, M. (2003): *Por un proceso soberanista civil y democrático*, Manu Robles-Arangiz institutua, Bilbo.

Azterlan honetan jasotako ekarpen teorikoak, interesgarri bezain baliagarriak izango dira euskal Estatuaren aldarrikapena edukiz hornitzeko, eta lagungarriak, halaber, horrelako apustu bat bideratzeko beharrezkoa den oinarri material eta ideologikoa lantzeko. Liburu bilduma honetan agerian geratzen da Estatua dela alternatibarik onena Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugun pertsona guztiontzat, eta Euskal Herriak badituela oinarrizko potentzialtasunak, gaur eta orain, europar Estatuaren multzoan Estatu berri bat eraikitzeko.

